

NIRE BIZITZA/RELATOS DE MI VIDA

ZU, MARTIN!

oye, Martin



OLAZAR ETA URIBE'TAR MARTIN

I ATALA: JATORRIA, GURASOAK, JAIOTZA,
IZEN-ABIZENAK, BATEOA, SENDIA.


Gure bizitza, igaro-aurretik. amets anigarria da eta. ingaro ondoren. jazokizun arrigama. Baiña ez adu edo zori utsa. Alde batetik Jainko Aita onaren e.skua agiri jaku or, eta beste alde batetik geure ekiña.

Bizitzako urterik geienak igaro-ondoren, jazokizun arrigarri onen jakingarriak zeatz eta meatz edestea bururatu jat, un'engoentzat jakingani asko dagozelako or eta gure erriaren eta eleizearen edestirako lan ongarria egingo dodalakoan. Langundti begist lan onetan danaren eragille dan Aita Onak.

Edesti onetan ez neuke iñor irainclu gura eta, orrexegajtik. izen batzuk eta jakin-garri batzuk ixilpean geratu bearko dabe.

Dana dagoala Jaungoiko Aita onaren eskuetan esan dogu eta ori benetan sinislen dot. Berak aukeratu dau ni mundu onctara etortcko aberria. sasoaia, jatorria. gura-soak eta dana. Bere ardura maiagarri ati pozgarria da niretzat.

1927n. urteko zemendiaren amazazpigarren egunean ekarri nindun nire ama onak ludi onetara. Egtin orren arratsaldeko)au ta erdietan jaio nintzan,



Gamiz da nire jaiote-enia eta Uribarri nire jaiote-etxea.

Gamiztik Fika'rantza goazela, Fika'tik ur-urrean. aldatxu baten dago Uribarri. Gnre aidi onetan biz.Meku bi ditu etxe onek eta goiko aldean jaio ei nintzan ni.

Etxe onen izenak, Uribarri, itxura baten erri barri bat esan gura dau, baiña beste toki-izen batzukaz alderatu ezker, uri orrek aldapa esan nai dauala da nire eritxia.

Nire aita Olazar eta Erkoreka'tar Julian izan zan eta nire ama Uribe ta Abio'tar Petra. Aita Arrieta'koa zan, Mostorio edo Monasterio deritxon etxean jaioa eta ama Uribarri bertakoa.

Ezkondu-aurrean itun bat egin eben eskribauaren aurrean eta eskuetan daukat agiri ori eta ara zer agertzen dan: Amak zazpi milla ta bosteun pezeta ekarri ebazan dirutan, altzaritan eta jantzitan iru milla ta bosteun pezetaren balioa eta ezkontza-sari edo dote lez bi milla ta bosteun pezeta. Orrez gaiñera, Uribarri etxerik erdiaren gozamina eskintzen dau amak, bere gurasoetatik azkenengoa il eta urte bi igaro arte. Errenta lez amak sei anega arto eta anega-erdi indaba emon bear eutsozan amamari. Aitak, bere aldetik, ezelako beste ondasunik ez ebala agertu eban eta zazpi milla ta bosteun pezeta dirutan ekarri ebazan. Eta azkenez agiri onetan "alkar-poderoso"⁵ deritxona egiten dabe.

Aitaren eta amaren ezkontzea, 1919lco jorraillaren lenengo egunean ospatu zan Gamiz/en. Entzunda daukadan lez, egun orretan ezkontzea ospatu zan, baiña beste egun baterako itzi zan ezkonduen bedeinkapena edo estalkia ezartea ⁶ "belaziñoa". garizuma-alclia zalaJco.

Or dukaguz ba, aita eta ama Uribarri baserrian, amaren ama zan Pilar'egaz bizi izaten. Laster jaio zan euren lenengo alabea. M^a Angeles zala uste dot onen izena, baiña egun gitxi barruan il egin jaken alabatxua. Amak beli gogoratzen eban onek itzi eban utsunea etxean. batez be amaren laguntzarako.

Arrezkero urtebirik urtebira jaioten dira semeak: Lenengo Tiburtzio, au irurogei urtekoa zala il zan. 1981 'eko abenduaren 3'an eta emen bizi jakuz beronen emaztea Mari Carmen Bilbao eta lau seme-alaba.

Bigarrena Zelestino izan zan eta au beronen emaztea dan Paulina Aurrekoe-txea'gaz bizi da. Semea ta alabea daukez.



Uribarri jaiote-etxea.

irugarrena Agustin izan zan eta au 1938'ko orrilaren 3'an il zan, amabi urtekoa zala, bide-zabaleko ezbear baten ondorenez.

Laugarrena izan nintzan ni. Nire jaiotzaez zan izan erreza. bein baten amak esan eustanez. Aina gaisorik eta txarto il-aurrean, egoala auxe esan eustan:

-Semetxu! Zenbat lan emoten dautzudan zartzaroan!

Eta nik esan neutson:

- Bai, ama, olantxe da mundua. Neuk be zeuri emongo neutzuzan nekeak eta loirak!

Berak erantzun eustan;

-Bai ori be egia da. Zu seme gatxa izan zara.

Gero beste iru izan ziran sortuak gure sendian, baiña ez eben mundu onetako argia ikusi, nme galduak. aborto'akizan ziran. Amarentzat erditzeak. antza. arrisku-garriak ziran.

Jarraitu baiña len. zillegi izan bekik nire izen-abizenak aztertzea. Aitarenak: Olazar, Erkoreka, Garai, Markaida. Amarenak: Uribe, Abio. Uribani. Lanauri.

Olazar abizena Muxika'tik etorria da. Anai bi etorri ei ziran erri onetatik Arrietara eta Mungia-inguruan ain zabal aurkitzen dan Olazar abizena orreitatik zabaldua da, guztiok gara senide.

Abizen onek antxiñakoa dan oJea adierazten dau. Gure aurretikoak: olagizonak eta olandrak ziran. Ba-diño esakun zar batek: "olagizonak eta errementariak, praktxu zarrak eta begiak "gorriak".

Iñoz bururatu jat nire odola RH+ dan ezkeri-i- ori ez ete dan olagizonen ezaugarria, antxiñako euskaldun nekazarien gaiñera etorri olagizonen ezaugarri. Billaketak egin bearko dira.

Uribe da bigairen abizena eta Uribarri amaren iaigarrena. Abizen bi oneik ba-dauke alkarregaz zeikusia. Uribarri etxearen izena zan eta etxe beratan bizi zan jabeak abizen ori eukan. baiña semerik ez, iru alaba baiña ez! Ori dala-ta "Uribarri" abizena dauan bategaz ezkonduko zan alabeari eskiñi eutson etxeguntza. Baiña ezin aurkitu izan eben abizen ori eukan senargairik. Egun baten alaba zarrenak esan eutson aitari:

-Ez dogu aurkitzen "Uribarxi abizena dauan senargairik. baiña bai Uribe daukana. Ez dautsu bardin?

Etxeko jaunak onartu eban Uribe abizena eta or galdu zan betiko gure senditik Uribani abizen edena. beronen ordez Uribe artzeko.

Erkoreka abizena Larrauri'tik etoiria da eta onetzaz ez daukak zer-esan aundirik. Bai. oster, Abio nire laugarren abizenari buruz. Nire amama zan Abio'tar Pilar. andra zurra ta bizia. Gamiz'ko Asaburu baserrian eukan aizta bat. Au eta onen ondorengoak be bumz argiak eta biotzez biziak izan dira: Asaburu'ko Anton, Ugarteko Agustin, Etxebarritxu'ko Gregori... Abio onein jatorria Mungia'n, Markaida deritxon auzoko Bengoetxe basenian aurkitzen dogu.

Antxe bizi zan Zeleslino amamaren nebea, amerikano aberatsa. Onen azken-naia zala-ta gorabera batzuk izan ziran sendjan.

Jaio ta urrengo egunean Gamiz'ko Ander Deuna'ren panokian baleafu ninduen. Bastegieta'tar Jaun Jose abadea izan zan bateatzai. Abade cgin nintzanean esku-ttza egin ncutsan eta erantzuna be artu neban.

Baieo-lekua eleizearen atzeko aldean egoan. alboko toki baten. Sarrican joan izan naz ara nire bateo-egunean "sinisten dot" otoitza esateko. Gero andik atera egin eben ponte-ania eta orain cleizearen aurreko aldean dago. Ponte-arri ori nitzat garrantzi aundio-koa da. antxe esaten dot noizean bein kredoa eta beti itzaltasun aundiaz begiratzen dausat.

Aitabitxi Uribe'tar Martin izan zan. Uribaldi baserriko etxagun-gaia. lengusua, eta amabitxi Bilbao eta Bilbao'tar Emeteria. Au. bateoa ospatu ta egun gitxi barruan Arjenlina'ra joan zan eta sarritan idatzi dausat. erantzunak artu be bai. 11 zan berau, baifia bere ondorengoak oraindiño be gabon-z. orionak bialtzen daustez.

Bateo-eguna ez daukat nik aitzuteko. Egia esan, askoz ohea litzake gomutapena norberak bizi izandako ospakizuna ba'lilz. baiña oitxe agertzen da Jaungoiko Aita onaren lcnengo deia.

La vida es un gran proyecto y una gran aventura, pero no una casualidad. En este proyecto aparece la mano de Dios Padre Bueno. Voy a tratar de exponer paso a paso esta aventura, como la recuerdo, para la uistoria y como informacion para los que nos siguen en el rodar de los siglos. No quisiera en este relato ofender a nadie, Sin duda, la discrecion me obligara a silenciar nombres y sucesos.

Quiso Dios que naciera en este lugar, dentro del Pueblo Vasco el 17 de noviembre de 1927, a las cuatro y media de la tarde, Gamiz es mi pueblo y Uribaldi, cerca de Fika, es la casa donde naci'.

Mis padres, Julian y Petra, se casaron, previas capitulaciones ante notario, el 1 de abril de 1919. La mayor de los hermanos fue una niña que murio a los pocos dias, luego nació Tiburcio que murio en 1981 y su esposa y sus cuatro hijos viven entre nosotros. El siguiente es Celestino que vive con su esposa y sus dos uijos. El siguiente fue Agustin que niurid el 3 de mayo de 1938 en accidente a los doce años. El cuarto soy yo y despues debieron de existir dos o tres abortos.

Los apellidos del Padre eran Olarar, Erkoreka, Garai y Markaida y Jos de la madre Uribe, Abio, Uribaldi, Larrauri Uribaldi es el apellido que corresponde al toponimo de la casa, pero al no tener descendientes varones y no poder encontrar las hijas esposo con el apellido Uribaldi, aceptaron, por fin, el apellido Uribe.

Al dia siguiente del nacimiento me bautizaron en Gamiz.

Nire gomutaki onein barruan sarritan agertzen dira sendi edo familiaren gorabek-
rak, baiña ementxe labur eta zeatz agertu gura dodaz guztiak batera.

Seme-alaben artean zarrena izan zan neskaxua ume zaia il zan eta Agustin anaia
12 urtekoa zala. bere lekuan esango dodan lez, eia orrelan iru anai geratu gara.

Diburtzio. Zelestino ta neu. gurasoakaz batera sendi-bizitza bizi izateko.

Zarrena, Diburtzio gaztetatik agertu zan kanpo-zale, etxetik joan zan ela arotz-lan-bidea ikasi eban Olabbarri'ko Elgezabal'dar Juan'en aroztegian, gero, 16 urte ingumkoa zanean. Eibar'era joan zan arotzdana egiteko. Gero soldadutza luzea egin bear izan eban eta Urdujiz'era tgaro zan an zerrea ipinteko. Antxe aurkitu eban Bilbao'tar M^a Karmen emaztegaia eta ezkondu egin zan. Andik Elorrio'ra joan zan zurgintza laneanjarraitzeko. Bere lan-lagunari saldu eutson zerrea eta Miranda'ra joan zan autobus bat erosita. Urte batzuk baru barru etorri zan Urduliz'era eta etxe barri bat egin ondoren dendea ta tabernea ipiñi ebazan. batera Gatika'n aroztegi bat ipiñi eta lan orretan jarraitu eban. 60 urtekoa zaJa il zan. Lau seme-alaba itzi dauz: Diburtzto, Jazinta Patiño'gaz ezkondua; Txaro, Bilbao'tar Unai'gaz ezkondua; Iñaki, Bilbao'tar M^a Karmen'egaz ezkondua; Mari Karmen, Ikaza'tar Xabi'gaz ezkondua,

Bigarxena. Zelestino, eskolan ikasten ona izan zan, baiña aitagaz eta amagaz etxean geratu zanetaAurrekoetxea'tar Paulina'gaz ezkondu. Seme-aJaba bi daukaz: Martin. Astrid'egaz ezkondua eta ltziar, Zarautz'en ezkondata bizi dana

Irujarrena, neu, amar urtekoa nintzala etxetik urten eta abade egin nintzan eta sendiari esker ona agerluz, emen idazten dodaz neure goraberek.

Aita zartzaroan ez zan ain osasuntsu ibilli. unoreak, zan-estua ta abar eukazala eta uste-uste barik, 1960'ko bagillaren 15'ean il zan, solotik etxera ondo-ezik etorri ta betngoan. Ama be baseiri aietan bizi zan azkenengo bost urteen aurretik eta urte oneik neugaz igaro ebazan Zeanuri'n. Gaiso luze baten ondoren, 1978'ko zezeillaren 24'an il zan Zeanuu'ko abadeetxean. Gurasoen gorpuak Fika'ko illerrian dagoz obiratuta. Eskerrak baiTiro nire sendiari biotzez,

Orain ondorengo gazteak eta "umeen umeak" pozik doaz auiTera eta gu euren pozera bizi gara.



Fika 'n: Lenengo ikastetxea.



Xabi ta M^a Carmen (Ezkontza)



Iñaki ta emaztea, anai zarrena ta emaztea



Sendia meza barrian. Aurrean, aita ta ama. Atzean, Zele, M^a Carmen eta Dibur.



Iñakiren ezkontzan



Iñaki lobeia, seminarioan ikaskidekaz.

II ATALA: URIBARRI, ANAIK, LENGUSUAK, FIKA,
ESKOLEA, ELEIZEA.

Uribarri baserria zan gure jaiote-etxea eta antxe igaro genduzan. sendi iez, nire bizitzako lenengo sei urtean, gitxi gorabera.

Amama, Pilar, zan an etxearen eta solo batzuren gozamina eukana eta gozamen orren babespean bizi giñan gu. Bizileku biko etxea zan lez, alboan etxaguna, Biktoriano osabea, bizi zan eta onek be bizileku ori Martin, nire aitabitxi zan semeari itzi eutson eta osabea bera, Mariano bere semeagaz, aurreko bizileku txiki baten bizi zan.

Amak beste aizta bat be ba-eukan eta au Derio'ra, Euliene deritxon Aldekone auzoko baserrira ezkondu zan. baiña ezkonbarri zala il egin zan. Bere senarra eta emazte barria izan ziran nire meza-barrian. Amaren beste neba bi, Eleuterio ta Balentin. Amamak bere azken-naian neba oneitariko bakoitxarentzat 250 pezeta itzi ebazan, eurak ona etorten diranean emotekotan, baiña ez dira sekula ona agertu eta zoritxarrez, ez dogu eurakaz sekua artu-emonik izan. Ba-ditugu ba Ameriketara ezagutzen ez doguzan senideak.

Ameriketara joate au aztergarria da: Uribarri baserri osoa osaba Biktoriano'ri emon jakon lez, beste neba-arrebak non edo an aurkitu bear izan eben lana eta onen ondorena dan ogia. Orregaitik joan ziran, geiago ez etorteko. Benetan samiña jat eurakaz ezelako artu-emonik izan eza.

Lau anaiak bizi izan giñan ba Uribarri'n amamagaz, eta gurasoakaz nik sei urte bete arte, eta nire anai zarrena ni baiño sei urte zarragoa dan ezkeru, amabi urtetan bizi izan zan egoera onetan. gozamean.

Gauza gitxi daukadaz gogoa sei urte oneitan Uribarri'n bizi izan genduan urte orreitatik artzeko. Beioaz emen batzuk.

Mariano Jengusua gaisokia zan, esaten ebenez, bularretiko gaisoa (tuberkuJosis) eukan eta gure sendi osoa egoan arduratuta gaiso ori nastauko ete jakun. Fika'ko abadeak be iñoz esan eutsen gurasoi arazo orretan kontuz jokatzeko. Bildurgarria zan izan be aldi aretan gaiso ori. Mariano au gudaritzan egoala il zan.

Bein baten, osaba Biktoriano eizan ebillala, etxean lau anaiok eta Lengusuak jan-aldi bat egitea erabagi gendun. Artu genduan urdaia eskegita egoan lekutik, sartu burduntzian eta suaren gainean ipiñi ondoren taloagaz koipetsua egiten asi giñan. Bat-batean ate-zaratea entzun gendun. Osabea etorren eizatik. Guk burduntzia ta urdaia baJdaperu sartu genduzan eta taloa azpirean gorde. Osabeak ez eban ezeren susmorik artu, baiña katu madarikatu batek balda-azpitik urdaia atera eban

burduntzi ta guzti. Asarretu zan osabeaeta agirika bildurgarria egin euskun. Mariano bere semeari agirika baiño zerbait geiago: Mariano! Makauben!

Etxearen bestaldean bizi ziran lengusuakaz izan genduzan artu-emonai buruz ez dot ezer gogoratzen. Orduan edo gerorxuago, Martin nire aitabitxi Fika'n dan Azilloa'ko Felisa'gaz ezkondu zan eta beti izan doguz oneikaz eta onein seme-alabakaz senide-aitu-emon onak.

Uribarri baserria izatez Gamiz da, baiña Fika'tik askoz urrago dago. Orregaitik, Uribarri'n bizi giñan arlean. Fika'ra joaten giñan eskolara naiz eleizara.

Gamiz eta Fika, ni jaio nitzan urte inguruan bat egin ziran erri lez. baiña eleiza lez banan jarraitzen eben. Oraintsuago gure inguruko etxeak parrokiak Fika izatera aldatu dira, baiña nik parroki zaletasuna Gamiz/eri dauosat eta Gamiz'ko illerrian daukat artuta nire illobia izango dana.

Lenengo sei urte oneitan ba, Fika'ra urreratzen giñan artu-emon guztietarako.

Fika'ra joan nintzan irakurten, idazten eta kontuak egiten lenengo urratsak emoteko. Eskolea eleizpearen ondoan dagoan etxe zarrean egoan. Plaza-aldetik sartzeko mailla batzuk igon eta an dagoan arelo aundi baten izaten ziran gure ikasketak edo olako zerbait. Neska ta mutil batera. Gure maixua Pinuaga'tar Lorentzo zan. Frunjz'tarra. Ez euskun gauza aundirik irakalsi. Erdi-erdian. mai baten ostean, lo egiten eban sarritan eta itxartulen zanean, ikasleen artean astrapala aundia somatzen eban lez, makilla bat eskuan artu eta guztiak banan-banan jotzen ginduzan. Bere alabak be an ziran eta uste dot oneik be jotzen ebazala. Gu maj baten inguruan batzen gintzazan taldea eta geure artean ikasten gendun irakurten. Gogoan daukat liburuan lenengo itzak oneik zirala: "Pan, sopa, panadero. azucarero..." Baiña onek irakurteko "eme con la a ma" ikasi bearko zan.

Maixua euskaiduna zan baiña eskolan ez zan ezer euskeraz egiten, Olakorik ez jakon iñori bururatu be egiten.

Eleizan kri.stiñau-ikasbidea ikasten gendun. Ez daukat gogoan Goikoetxea'tar Daniel baiño beste abaderik eta gogoratzen dodan gauza bakarra. egun baten eleizpean ogia ta txokolatea emon euskuzala da.

Misiñoi batzuk be gogoan daukadaz: Eleizea bete-beterik. abesti ederrak, jesarlekurik ez egoan lez. gu beian jesarrita, lenengo misiolari on bat aginduak azaltzen eta gero beste bat, au gogorragoa. betiko egiak azaltzen. Inguruko errietatik be etorten ziran asko.

Giro orretan igaro ziran bizitzako lenengo sei urteak.

Los seis primeros años de mi vida transcurrieron en el casen'o Uribarri donde naci'. Alli vivimos como familia doce años al arrimo del derecho a usufructo que tenia la abuela Pilar. Muy cerca vivian el tio Victoriano y sus hijos. Al principio en la otra vivienda de la misma casa, pero luego, cuando se caso mi primo y padrino Martin, el tio comenzo a vivir en un casita delante de Uribarri. Tainbien en usufructo.

La madre tenia una hermana que se caso a Euliene en el barrio Aldekone de Derio, pero murio pronto. Otros dos hermanos de la madre, Eleuterio y Valentin, emigraron a America y, por desgracia, no hemos vuelto a saber nada de ellos. En el testamento de la abuela hay 250 pesetas para cada uno de ellos, si vuelven, pero, como digo, no volvieron.

Muy poco es lo que recuerdo de estos seis años: la casa, un gallinero delante, unos perales hermosos (Orandilla-madariak...)

Recuerdo que el primo Mariano, hermano de mi padrino, era enfermizo y se decia que era tuberculoso, enfermedad *temible* en aquellos *tlempos*. Nos recomendaban que tuvieramos cuidado para evitar contagio. Incluso el cura aviso a los padres. Nuestro primo Mariano murio en la niilicia.

Una vez que el tio Victoriano salio de caza, entre hermanos y primos tratamos de preparar un suculento desayuno, con el tocino y el talo. Al llegar el tio lo escondimos todo bajo el arniario, pero un gato inoportuno descubrio todo sacando el tocino. El enfado del tio Viotoriano fue memorable.

Ibamos a Fika a la iglesia y a la escuela. Recuerdo al maestro D. Lorenzo Pinuaga que nos daba las clases en el edificio que hay junto al portico, en la planta alta. De la iglesia algo recuerdo de la catequisis y de misiones populares.

ILUSTRE COLEGIO NOTARIAL
DE

BURGOS

C O P I A DE LA ESCRITURA DE

Donacion, aportaciones y capitulaciones matrimoniales y poder coraisorio

OTORGADA POR

Los futuros conyuges

Don Julian Olazar y Ercoreca y Doña Petra Uribe Abio y madre de esta iiltima

ANTE EL NOTARJO

Licdo. D, Angel Aklave Larrumbide

CON RESIDENCIA EN MUNGUIA (VIZCAYA)

Dia 28 de Febrero de 1919,

Primero: El futuro contrayente D. Julian Olazar dice que al matrimonio que se propone contraer con su prometida esposa Doña Petra Uribe Abio aporta como capital suyo en dinero metalico la suma o cantidad de siete mil quinientas pesetas...

Segundo: A su vez la compareciente D^a Pilar Abio Larrauri... dona diversos muebles y ropas para su arreo de novia y uso personal que vajan tres mil quinientas pesetas y ademas dona a la misma hija en calidad de dote estimada la cantidad de mil quinientas pesetas... hacer calificacion de dicha hipoteca... contestando el obligado a ello que no puede por ahora constituirla por carecer en absoluto de bienes y derechos hipotecables, pero que promete constituirla sobre *los* primeros que adquiera.

Tercero: La misma donante Doña Pilar Abio y Larrauri añade que dona y transfiere a su citada hija Doña Petra Uribe Abio el usufructo de la mitad indivisa de la casa de labranza llamada Uribarri...

III ATALA: LANDAKO ETXEBARRI (MONTAÑE) EROSIA TA OBETUA.

Aita oso langillea gendun, baiña baita zori txarrekoa be: Arrieta'ko bere jaiote-txean, etxaguna Biktor bere anaia zan eta ez eukan etxeguntzarako eskubiderik. Ameriketara joan bear izan eban eta Arjentina'n egin ebazan urte batzuk. Ez dot uste andik dimtza aundirik ekarri ebanik. Gero, au berak ez eustan iñoz esan. baiña bai beragaz batera taldean joan zan Uriarte'lar MigeJ Fruiz'koak, gaur Zamora'n gotzain dan Uriarte'tar Juan Mari'ren aita zan au, onek esan eustan gure aita beragaz lanean ibilli zala Deustu'ko azeroetan eta aita zala euren dixuzain, zerbait zarragoa zalako eta bere dirutxua eukalako.

Emazte *ona* aurJcitu eban, gure araa, baiña onek be ez eukan etxaguntzarik. Ezkontzako itunera etxeko altzariak, jazkiak eta 3.500 pezeta ekarri ebazan, gaiñe-ra bere ama eta gure amama zan PiJar'en gozamena, 6 anega arto eta anega-erdi indaba ordaintzekotan. baiña ori ta guzti be aidean geratzen ziran, amama ilten zanetik urte bigarrenera gozamena amaitzen zajako. Dana itzi bear eben. Zer egin? Emaztearen dotea be baeukan, 2.500 pezetakoa, baiña ikutu-eziña.

Uribarritik kilometro bat inguruko bidea eginda. baserri bat egoan salgai. Landako Etxebarri zan onen izena baiña inguru guztian Montañe esaten jakon eta aian esaten jako orain be. Bear-izenak eraginda eta zurtasunak otretara bultzatuta, 1922n. urtean, ezkontuta irugarren urtean, baserri au erosi eben. Trureun gizelan lur eukazan baserriak inguruan eta ordaindu-bearrekoa ogeta emeretzi milla errial (9.750 pezeta) Gutzat dirutza oso txikia da, baiña orduan uste zanez, ondo ordaindua da etxaidea.

Asko poztu eban aita "lurraren jabe*" izate onek.

Etxearen lengo jabea Landa ta Eloniaga'tar' Martzeliña zan, baiña errentan emonda eukan etxaldea eta bertan bizi zana Bilbao'tar Hilario zan. Onen alabea da nire bateoan amabitxi izan zan Bilbao'tar "Emeteria. Hilario il zanean, amabitxi Argentina'ra joan zan, len esan dodan Jez, Bilbao'tar Agustin bere senarragaz.

EtxaJdea txarto zainduta egoan, inguru guztia sasiz jantzita. Aberere batzuk eukiten ebezan eta negu-aldian Aitzain giputz bat, Jose.eritxona etorten zan, Frantzisko bere artzain-mutillagaz.

Amari itaundu neutsan bein baten etxearen atzean egoan aritxari zergaitik esaten jakon Frantzisko'ren ariUa. Emon eustan erantzuna gauza bitxia da. Aritz arek enborraren burnan. abarrak zabaltzen diran lekuan zulo bat eujñan eta an oillo batek egiten ebazan arrautzak. Frantzisko artzain-mutiJlak arrautzak an artu eta godiñik

jaten ebazan. Ori jakin ebenean, aritzari Frantzisko'rena ipiñi eutsoen izena.

Ez gintzazan ain arin joan Landako Etxebarri'ra bizi izaten . Gogoan daukat eguna eta orduan ni \$ei bat urteko mutikoa nintzan. Baiña artean aitak lan aundiak egin ebazan an: Etxe-kapelea konpondu, inguruko sasiak kendu, mota guztietako igaledun landarak sartu (sagarrak, ikoak, kerizak, maclariak, melokotoiak...) solo-inguru guztietan matsak sartu ebazan. Gero urte batzutan 2. 000 litro txakoli egitera eldu gintzazan. Geiena etxean eta urte guzlian edaten zan, zati bat urreratzen ziranai emoten jaken, eta urtero barrikatxu bat arrietarra zan eta Mungia'ko Asiloan kapellau zan Lekunberri'tar Jenaro abadeari.

Geroago, gu bertan bizi giñala, Fika'tik bide zabal barria egin zan, inguruko orma zarretatik arriak ekarrita. Guztiok egin gendun lan orretarako, eta lurrean zuloa eginda ura atera zan, etxetik berreun bat raetroa eta eskatzeko arrira ekarri zan ura. Orduan gitxi ziran aukera au euken etxeak. Guda baiño lenago tximist-argia ekarri eban aitak. Ez zan gauza erreza izan ori lortzea. gure etxea bakar-lekua zalako eta urrengo etxera ia km. bat eukalako. Baiña ekin eta ekin Jortu eban. Eta emen kontakizun bat: Tximist-argia ekarri baiño egun batzuk lenago, soloan itaurrean nebillala, aitak auxe esan eustan: Zu. Martin, egun batzuk barru argi barria ekarriko dogu etxera. Olako giltz bat biurtu eta biztu egingo da eta baniro txaramel ori biurtu eta amatau. Ezin ulertu izan neban ori zelan izan zeitekean arik eta ikusi-arte.

Sasiz jantzita egoan inguru aretan lur barriak egin ebazan aitak, etxearen goiko-aldetik eta bekotik. Atzekoaldea baso itzi eban eta aurrean lurak ez eukan zabalerarik. Aurrean ez egoan labea baiño.

Ez dot esan, eta jakin-bearrekoa da. zergailik gure etxe oneri Montañe esaten jakon. Hilario ta Emeteri baiño lenago etxe onetan Santander'eko batzuk bizi ziran, Montaña-aldekoak, eta orregaitik etxeari Montañe esaten eutsoen. Eta zelan diran gauzak, Fika'rantza goazela azkenengoa dan soloari Malatierra deritxo eta Fruiz'erantza goazela azkenengo baso-zatiari Kanpolibre. Gu iñoz ederarik entzunbakoak giñan eta izen orreik euskera zirala uste izaten gendun.

Landako-etxebarri (Monlañe)'ra bizi izaten joateak, beste aldakuntza bat ekarri eban guretzat: Fika'ko eskolea ta eleizea itzi eta Gamiz'kora joaten astea. Au da urrengo atalaren gaia.

Nuestro padre era muy trabajador, pero no muy afortunado. En Arrieta fue segundon y por ello tuvo que emigrar a Argentina. Al volver de allí, creo que con muy poco caudal, entro a trabajar en Aceros de Deusto juntamente con Migel Uriarte que era Padre del actual Obispo de Zamora D. Juan Maria. Migel me conto estos detalles pues al padre 110 le gustaba hablar de sf mismo a sus hijos.

Su futura esposa era tambien segundona. Aporto al matrimonio muebles, vestidos y 3, 500 pesetas en dinero y ademas una dote de 2,500 pesetas. Y el derecho a usufructo de la casa donde vivia con nuestra abuela hasta dos años

despues del fallecimiento de esta. Pero en un futuro no muy lejano nuestros padres, con sus cuatro hijos se verian sin techo.

El año 1922 a los tres años de casarse y cuatro antes de que yo naciera, compraron el caserío llamado Landako etxebarri o Montañe. Pagaron 9. 750 pesetas, que para aquellos tiempos era una cantidad considerable.

A lo largo de años hizo nuestro padre una labor inmensa adecentando la casa cuyos campos no producian apenas otra cosa que zarzas: Adeciento el edificio, planto toda clase de frutales (perales, cerezos, manzanos, melocotoneros, higueras) en todas las huertas o alrededores. Plantó muchas vides en torno a las huertas (sacabamos 2000 litros de chacoli para consumo), labro tierras para cultivo... Y antes de la guerra de año 36 habia logrado construir una carretera a Fika, instalar agua corriente por cuenta propia y traer el alumbrado electrico Verdaderamente era emprendedor y trabajador.

Ez daukagu etxea erosi zaneke idazkirik, baiña etxe au aitak Zelesiino anaiari emon eutsaneko agiritik artzen doguz jakingarri oneik:

TTTULO.- El de compra a Doña Marcelina Landa y Elorriaga con el consentimiento de su esposo Don Tomas Larrondo y Asla, segiin escritura otorgada en Algorta a cinco de enero de mil novecientos veintidos ante e) entonces notario de aquella residencia D. Leopoldo Lopez Urrutia...

VALOR.- La casa tiene el licjuido imponible de 128 pesetas y sus pertenecidos... el de 2. 269'27, valorandose la finca en conjunto en ochenta y tres mil pesetas.

IV ATALA: GURE ETXETIK IKUSPEGIAK, AUZOAK,
BIDEAK, ERREKAK, DOMEKAK.

Edertasuna kontuan artzeko, norberaren barruan orretara dagoan jokerea biztu eta azaldu egin bear da. Ori ez da berez sortzen. Gure ume-denporan eta gazte-denporan ez eban iñok gugan egin lan ori. Orregaitik ez dogu iñoz itaundu Landako Etxebarri edo Montañe toki ederrean dagoan ala ez. Orrek ez eukan guretzat garrantzirik.

Baiña urteen joanean eta beste lurralde asko ikusi ondoren, gure etxea dagoan ingurua benetan ederra dala konturatu dogu. Begiratu dagigun dana, urriñetik urrera.

Etxetik apur bat gorantza igon ezker, Urkiola-mendiak esaten dautsegunak ikusten dira, atx biziak eta garbiak, eta euren artean Anboto aundia. Urrago daukaguz Oiz eta Bizkargi mendiak, mendi lodi ta biribillak, mendi zarrak edo atxik iñon agiri ez dabenak, baiña mendi politak. Urrago dago Bizkai-gana, gudaldian Mungialde guztiari begiratzeko FrancoTc aukeratu eban menditxua, Errigoitiko MeLxika'tik urrean. Eta ezkererantz goazela Sollube ederra daukagu. gaur telebistaren bidal-gailluak gaifian dauzala. Mendi zapala au be, itxasotik gure ingurua banatzen dauan gaillurra. Eta ezkererago beste mendi polit bat, jata oso polita, erpiñean iru txuntxur dauzala, eta gagozen lekutik iru txuntxur orreik bardin bardiñak ikusten diraia. Eskuz egindako marrazki bat dirudi. Beste toki batzutatik iru txuntxurak ez dira ikusten, nondik dan bat edo bi baiño ez. Iru txuntxur orreik antxiñako kraterrak dirala esaten dabe, baiña benetan antxiñakoak izan bear, mendi gazteen ezaugarri dan atxik iñon ez dalako ikusten. Eta eskerrerago an Urduliz-inguruan Santa Mariñe menditxo polita ikusten da, itxasoa ikustea galazoten dauan menditxu polita. SortaJderantz begiratzan ba'dogu, Berriaga ospetsua daukagu aurrean eta ur-urtean, mendi txikia ta zapala. eta. jarraipen lez, gudarako eta Bilbao zaintzeko izan zan "burdiñezko garrikoa" bere gaiñean euki eban Gamiz mendia, gero Urrezti, Atxispe, San Pedro atxa.

Menditxu politak guztiak eta gure biziagaz urteen joanean artu-emon bereizi bat dauken mendiak/'mendi maiteak".

Gure etxea bakar-bakarrik dago, urrengo etxera kilometro bat baiño geiago dala. inguruan zugatzak dituala. Guretzat ez da iñoz izan bildurgarria, ez da iñoz lapurrik urreratu bertora, naizta aitak beti zizpa bat etxean euki, ba-da-ezpadan. Beti izan dogu ate-aurrean txakur aundi bat katez lotuta. Gogoangarria guda-aurrean euki genduan txato-txakurra. Iñor etxera urreratzen zanean laster asten zan ausika, nasaiaigo edo estuago, arriskua zelako zan edo ur ala urrin egoan jakiteko.

Auzokoakaz artu-emon gitxi eukiten gendun. bear-bearrekoak baiño ez. Asarrik be ez iñogaz baiña ez eta adiskidetasun larregirik be. Ondo genkizan alkarren barriak eta akatsak. Ondo laguntzen geuntson alkarrari ordu ta egun larrietan, esaterako gaiso-aldi aundietan eta, batez be, illetetan.

Fika'tik gatozeia. lenengo etxea geure jaiotetxea dan Uribarri dogu, gero Elorreta ta Arrana ta Elortatxu. Etxe oneitan izan diran zarrak. Gregorio ta Benita Elortatxukoak. Esteban eta Anastasi Arrenakoak, Uribarriko Biktoriano osabea eta Martin eta Felisa lengusuak. Bideixe'ko Joane sakristau izan zana ta Salume bere emaztea, aiztu eziñeko lagunak doguz bizitzan.

Mendia bitarte dala. Fruiz'erantza, Gomoa'ko errotea. Gamizko ibarreko etxeak... Baiña artu-emon geiagokoak zirak Kafranga ta Kafranga-etxebarri. Agarre. Arantzolo aurrekoa ta atzekoa, *Duone*. Etxezuri. Kaperja goikoa ra bekoa, Amuni, Elxebarri. Etxe guzti oneitan bizi ziran gure auzokoak ziran gizonak ela andrak. gazteak eta umeak.

Eta etheen artean bideak aitatu bear doguz. Aspaldion bide barriak egin dira. baiña gure ume-denporan bide gitxi eta txarrak ziran. Gamiz'tik Fika'ra dagoan bide zabala beti ezagutu dogu eta gu txikiak giñala egiñak dira Bidetxetik gure etxera dagoana eta Fikatik Uribarri'ra doana. Ba-ziran gurgide zarrak be, esaterako gure soloen alboik joian Fika'tik Fruiz'erakoa. Au geure denporan galdu zan eta solo biurtuta dago. Beste gurgide bal Diatxetatik (Diatxak gure lurretatik urten eta Tbarra'rantza sartzen dan lekua da) Fika'rantza barrenetik. baiña au be galdu egin zan. Bidezabalak egin ziranean, erri-bideak edo gurgideak gaidu egin ziran.

Gogoratu dagiguzan labur-labur, gogaikarriak ez izateko, erreka. Erreka txiki-txikiak dira eta gaur *enago* baiño txikiago biurtu dira, elxeetan ur geiago artzen daiako-edo. Bat gure etxearen Gamiz-aldeetik doa eta onen gaiñetik igaro bear izaten gendun Gamiz'era joateko. Neguko euriteetan aundi biurtzen zan. bildurgarri. Beste erreka bat gure mendi-muiñoaren Fruiz-aldeetik doa eta gero biak bat egin da Mungia'tik Plentzia doaz urak. Errekatxu orreitan errota asko dagoz . Gure errotea Gomoa'koa zan eta ara eroaten gendun urtero artoa eioteko eta taloak egiteko naiz abereai emoteko urun gozoa ekarleko.

Biztanle-moltzoa orren bestean banatua izanik. alkar-bizitza naikoa urria zan. Esaterako. domeka arratsaldeetan jolas-aldiak izateko, auzoko umeakaz batzen giñan. bide zabalean goitiberakaz ibilteko, udaldian errekan uger egiteko, anndjago egin giñanean pairokira joan bear izalen gendun kristiñau-ikasbidean eta aitatsaldeko eieizkizunean (errosarioan) kideko izateko. Etxean noizean bein txakur-txiki bat edo txakur-aundj bat *emoten* euskuen zerbait ero.steko. Bide batez. goizean eta airatsaldean aita esnea eroan bear izaten eutson esne-saltzailleari eta gure ardurea izaten zan larrain utsak elxera ekartea. Ez jat aiztuten Eustakio esnedunaren umore txarra. Gizona beti etorten zan asarretuta. zergaitik edo agaitik.

Giro orretan igaro zan gure ume-denporea. Ez geunkan pozbide aundirik, baiña geiago ez gendun eskatzen eta zoriontsuak giñan.

Aunque vaya a resultar mas o menos aburrido, creo que es de justicia recordar algo de la naturaleza que nos rodeaba y de las diversiones infantiles.

Hemos nacido y crecido en un entorno natural bellissimo, pero sin saberlo. En los primeros años de nuestra vida no considerabamos valor la belleza natural. Desgraciadamente nadie nos hablaba de eso, nadie nos educaba en eso.

Landako Etxebarri (Montaña) es un lugar bellissimo. Subiendo hacia Fika, a la cumbre, vemos en la lejanía lo que llamabamos "montes de Urkiola", con el Amboto. Mas cerca Oiz y Bizkargi, montes humildes y bellos. Mas a la izquierda Bizkai-gane, desde donde Franco controlo la guerra en el valle de Mungia y la mole gruesa del Sollube que hoy sostiene la antena de television y nos separa del mar. Y muy cerca, mas a la izquierda, el bell'simo monte Jata con sus tres cumbres, restos de tres crateres. Desde este lugar se ven las tres cumbres pequeñas, juntas y exactamente iguales. Es un monte de admirable belleza, al menos desde algunos sitios. Y viene luego Santa Marina en Urduliz bello tambien. Y hacia el otro lado, Berriaga desde donde partia el Cinturon de Hierro para defender Bilbao, seguido de Gamiz-mendi, Urrezti, Atxispe y Pefia de San Pedro. Son todos montes poco altos y bellos.

Nuestra casa es solitaria, a un kilometro por lo menos del vecino mas cercano. Todo rodeado de arboles de todas clases. Pero no nos daba miedo el vivir alli, sin mas proteccion que el perro chato que teniamos en el portal de la casa y avisaba la llegaba de cualquier extraño.

Pequeños riachuelos rodean la colina, riachuelos que crecen con las llluvias de invierno hasta ser temibles.

Nuestros domingos eran muy sencillos, sin mas juego que la goitibera o nidos de pajaros. Ya de mayorcitos a la parroquia para catequesis y rosario. Pero no pediamos mas, eramos felices.

V ATALA: GAMIZ'ERA: ESKOLEA, PARROKIA,
JAUNARTZEA, SENDATZA.

Landako Etxebarri (Montañe)'ra bizi izaten joan giñanetik laster asi gintzazan)au anaiok egunero Gamiz'ko eskolara joaten, lenengo goizean eta gero arratsaldean, eguen analsaldeak aske genduzala, baiña ez zapatuak. Bidea kiiometro bat baiño geiagokoa da, bi urrago.

Eskolea Taberna Zarra deritxon etxearen barruan egoan, aurrez begiratzen dau tsagula ezkerreko atean. Ikasleak mutillak gintzazan, irurogeitik gora, eta irakasle bakarra Arenaza ta Pagaldai'tar Ignazio, giputza, Eskoriatza'ko semea. Orduan mutil gaztea zan eta geroago Mungia'ko neska bategaz ezkondu zan.

Niretzat eta nire anaietzat ez zan gogorra izan, baiña ikaskide asko gogor be gogor artzen ebazan, bai berbaz eta bai egitez. Geuk eroan bear izaten gendun geu joteko sarte. Ez jat aitzuten sarta oneri azaJa kendu eta berakatzagaz igortzi ezkerro, legortzen zanean lenengoz jotean apurtzen zala.

Irakaslea euskalduna zan eta euskalzalea be baietz uste dot, baiña bein baten baiño ez euskun euskeraz berba egin eta izan zan ikasteko gogoia guri emoteko. Etxean bere aitak sutondoan zeJan eukiten eban ikasten, esan euskun. Ule batzuk dira irakasie au il dala.

Guda aurretik asi giñan eskolara joaten eta guda eldu zanean ikaskide batzuk Frantzia'ra joan zian erbesteratuta. Orrelan Bengoetxea'tar Karlos gero abade egin zana eta Jose Luis onen anaia cta Ormetxeko Jose Orue. Guda-aurre onetako gomutaki gitxi geratzen jataz. Gudaostekoak batzuk bai: Goizetan biñan-biñan alkarren atzean giñaiia "Cara al Sol" abesten gendun, eta arratsaldeetako ekiñaldja asteko "Por Dios por la patria y el rey", azkenean Viva España. Beti besoa goian genduala.

Gure artean gudea igaro eta urteagarrenean. bagillaren 13 inguruan, Mungia'ra eroan ginduezan España'ko banderea eskuetan genduala, oñez, "a\$katasuna"ren urteagarrena ospatzeko. Antxe ikusi neban aundikiro gero gure bizitzan ain ospetsu izango zan Lauzurika ta Torralba'tar Jabieu gotzaiña, Gasteiz'ko Gotzaindegian Apostolu-Zaintzaillea zana. Beragaz batera ministro batzuk, Gallartza bai beintzat. Kale apurluen edo erdi apurtuen artean, apurtuta egoan eleizatik urtean izan zan itzaldia. kurutze-bidea eginda gero. Gure gurasoak be an izan ziran, erdi-beartuta eroanak. zaiantza barik. Ez daukat gogoan gotzaiñak zer esan eban, baiña emen eta gero Bermeo'n olako itzak esan ei ebazan: Neu be euskaldunak naz, baiña ez zuen antzera ama txarraren semea.

Guda amaitu baiño lenago irakasleak irakastaldi bereziak ernon eustazan abade-

geitzara joateko. Ondo. Beste ekinaldi batzuk Asaburuko Maritxu irakasle lengusiñak. Dana bear zan!

EskoJako lanagaz batera parrokian kristiñau-ikasbidea ikasi bear izaten gendun. Arratsaldeko ekinalditik urteten giñanerako, an egozan itxaroten abade biak. Arostegi'tar Fermin eta Oñarte-Etxebarria'tar Kristobal, zur eta iñok etxera iges egin ez dagian begira. Batzutan etxerako baimena eskatu bear izaten gendun, itaurrean egiteko eta beiak zaintzeko.

"Dotriña'n itaun-erantzunak ziran liburu txiki bat ikasten gendun buruz, eta azalpen batzuk be bai. batez be jaunartze-aurrean. Gogoan daukat azaltzaille genduan abadea gorri-gorri egin zala bein, "zure zabeleko frutua" berbak zer esan gura daben azaldu ebanean.

Domeketan beti joaten gintzazan goizeko mezara, zortzi ta erdietan

IUean bein egiten gendun autortza ta jaunartzea.

Nire gomutapenen artean ez da agertzen noz asi nintzan mezak erasoten edo monagillo egiten.

Lenengo Jaunartzea zortzi urtekoa nintzaJa egin neban, 1935'ean eta D. Fermin abadeak egun orretan txokolatea emon euskun eta lauki baten ipinteko gomutaki bat be bai. Jakiña, ez gendun izan jazki bereizirik, eta ez jatordu bereizirik. Urte latzak ziran areik.

Urte orretan, gitxi gorabera, etorri zan parrokira Artzain- Tkustaldia egitera Muxika ta Urrestarazu'tar Mateo gotzaiña. Gotzain au sarritan gogoratu bear izango dogu geroago. Ikustaldi orretan aitu gendun orduan sendatza esaten jakon sakramentua. Orretarako ez genduan izan gertakuntza bereizirik.

Una vez instalada nuestra familia en su nuevo nido de Landako Etxebarri o Montañe, pronto comenzamos a acudir a Gamiz que estaba casi a dos kilometros. Ibamos mañana y tarde, volviendo a casa para comer. Los cuatro hermanos asistimos con puntualidad a las clases que daba D. Ignacio Arenaza en el edificio Taberna Zarra, en la puerta de la derecha. Acudíamos mas de sesenta niños. Las niñas tenían otra escuela.

El maestro fue bueno para nosotros, pero recuerdo que maltrataba mucho a los niños. Era gipuzkoano, de Escoriaza, pero en todo ei tiempo, tanto antes de la guerra como despues, solo recuerdo haberle oido una vez hablar en euskera.

Despues de la guerra cantabamos formados y ante la bandera los cantos patrioticos y falangistas: Cara al sol, Viva España, Por Dios, por la Patria y el Rey, Soy valiente y leal legionario

Recuerdo que en el aniversario de la "liberacion" fuimos a Mungia con la banderita en Ia mano. Alli vimos al obispo Mons. Lauzurika que presidio un Via Crucis entre calles destrozadas y tuvo un memorable discurso junto a la iglesia dinamitada.



JOLASAK-JUEGOS



gradecemos la presente colaboración a nuestro querido y buen amigo don Martín de Olazar y Uribe, sacerdote de Mañón e hijo de la Antieglesia de Gariz, quien hizo una amplia visión de los juegos de niños que, a los 40 años, compartía en su infancia con otros chicos de Gariz.

AURKEZPENA-PRESENTACION

Urteetan aurrera geuzezok une-denporako geuzak pozik eta umeséz beterik gogotatzen duguz, eta une-denporako geuzen ainean, zelan ez, orduan egiten genduzan jolasak.

Nik, beintan, puzez eta umeséz beterik gogocetzen diblaz esta Gariz neuz ematen kenditara genatu dātezan adizten dotaz emoz.

Jolas orrietan, ariaman arianda agri da eta jolas pobit onetik egiteko, ezetako erakietarik edo gaurtik ez zan beaz. Orduan diru giti egon egen be la?

Jolasetan enderazko berba batzuk agri dira. Mala, aktarua, fuera, tafia...Ortik atera tes, beaz ba'la, eskolan enderez egit beaz eben marxias, irakatsiak diru la.

Joles lez ez dot sarru, baiñi guda ostean zaletasun arianda izan zan goitaruk betareren aurka ariñka guda egiteko.

Gure adin edo edadekoak izango diru lekoko jolas onetik onelari egiten ziran luezteko, Euzk esan beg e.

Grasara: Se colocaban monedas o chapas en el centro de una de las losas cuadradas del patio (o se marcaba un cuadro en cemento). Se escogía una línea a la que había que acercarse, tirando la moneda o la chapa, y comenzaba la tirada el que más se acercaba. Se tiraba la moneda cerca del cuadro y, por orden, iban tirando de sacar las monedas del cuadro, las cuales pasari a ser, propiedad del que las saca. Cuando no había moneda, se usaban tapas de gasero o apilestadas y se sacaban con chapa de hierro.

Parratikka: En el pórtico parratikka, ante la puerta lateral al borde del hueco de entrada, hay seis losas (la tercera de las cuales es más negra). Allí jugábamos parratikka. Se ponía en el suelo una pequeña piedra lisa y se la golpeaba con el pie, mientras el jugador se mantenía sobre un solo pie (akankel). Así pasaba al cuadro siguiente, pero si tocaba los bordes de la losa, perdía (faltia). Cuando llegaba a la tercera losa, la negra, descansaba, posando los dos pies en el suelo. Luego seguía de la misma forma en las losas siguientes, para descansar de nuevo tras de la última. A

continuación, la suelta, de la misma forma, hasta llegar al lugar de origen. El que realizaba todo el recorrido sin hacer "malá", gana el juego.

Txantelka: El juego es igual al anterior, pero se realiza con tapas de las cagas de cerdías, a las que se llamaba **txantelak**. Se separan los txantelak con lacones, o suelas, quitadas a zapatos.

Marro: Es un juego muy conocido. Primero se escogen componentes para los dos bandos. Para ello, los fileres se ponen frente a frente y van acercándose, marcando el suelo cada uno con sus pies en contacto. Aquél cuyo pie queda encima es el que escoge al primero de su bando. Luego escoge el otro, y así sucesivamente. También se puede hacer reuniéndose en círculo y sacando fuera, como escogido, al que le toca la palabra "fuera" en esta frase (porgo aceptor cuando toca a cada persona); uno, dos, tres y cuatro **beldria**, **beradria**, **beradria**, **kris**, **krás**, fuera. Para jugar, como es sabido, los de un bando deben que coger a los del bando contrario tirados como canchales, al suyo pueden ser liberados.

Txupetalka: Se llamaba txupetalka a la mesa de la Anteglesia, una mesa de piedra que todavía existe. Uno de los jugadores quedaba sentado en el asiento de piedra que está frente al txupetalka y éste tenía que tocar a los demás siempre que los pasase con los pies en el suelo. El jugador del otro bando jugaba este juego se parece al de "alfaritas", que es bien conocido.

Kuika: Este juego es parecido al "escondite", que también es conocido. Se llamaba **kuika**, porque los que se escondían tenían "kui".

Inke'ra: También es conocido. No estaba muy en uso. Se jugaba con navaja que se arrojaba al suelo desde la frente o el codo, o el puño... y tenía que quedar clavada. Se pone el dedo en la frente y desde allí se arroja la navaja para clavarla en el suelo.

Txitxi-burduntzi: Ya se que estas palabras significan otra cosa (la merienda en el campo antes de carnaval, pero nosotros llamábamos así a este juego). Se ponen dos de rodillas y apoyados en las manos el uno junto al otro. Encima de los dos se tumba uno y lo levanta otro, que luego quedará tumbado como el que ha levantado.

Fuera'ka: Era juego de la pelota en el frontón, único entonces, que está entre las paredes de la iglesia y el Concejo Viejo. El que se levanta la pelota en juego, queda expulsado. Así hasta que quedan dos finalistas y al fin el campeón.

Cada juego tenía su época dentro del año, por ejemplo, Txantelka en invierno.

Como no sabíamos hablar castellano, utilizábamos palabras cuyo significado ignorábamos totalmente, algunas de ellas incorrectas, como **akitarro** (que era "a no quitar"). Se usaba cuando había algún estorbo para las rondas y el adversario pedía que se tirara su canchale.

Las niñas solo jugaban a la rumba y a las tabas. Yizuri amate

VI ATALA: GUDALDIA, ZAMUDIO RA, BEGOÑA RA,
MENDI-ZULOAN, ETXERA, ANAIK, AGUSTIN'EN
ERROTZA.

Bein baten, orain esan neinke 1936'ko uztailiaren 18'an edo or inguruan izango zala. gure aita estu eia urduri etoni zan etxera. Sekula ez jataz aitzuko bere berba larriak: "Gerrea asi da" edo "gerreak urten dau" Bai. gudea bildurgarria da beti. Alde batetik gure sendiaren egoerea ez zan ain txarra: Aita ez zan joango gudari zarregia zalako (42 uite?) eta anairik zarrena be ez zan joango gazteegia zalako, orduan 15 urte eukazan gure Diburtziok. Baiña nok jakin gudak zelako atsekabeak ekarri eikezan!

Jorraillera arte geure etxean bizi izaten jarraitu gendun. Gogoratu daiguzan bederatzi illebeta orreitan ikusitako gauza batzuk: Bilbao'n gosea agertu zan eta talde andiak ikusten genduzan basetxerik basetxe eskean, ondo jantziak, dirudunak. baiña zer-janik ez etxean!. Pozik artzen eben uruna. naiz arrautzak naiz edeozer jateko. Giro orretan is ilpeko salerosketa *sovtu* zan, ge'jo estrapeilo esango jakona. Olako salerosle bat zan Zamudio'ko Furundarena'tar Agapito. Onen etxera joan giñan gero. Dtru-mota bi eskintzen ebezan ordaintzeko: Diru zuria edo Euzkadi'ko dirua eta diru baltza edo España'ko lengo dinia. España'ko au ziurragotzat egoan.

1937'ko urtea asita laster somau gendun guda urrago: Egazkiñak sarritan ibiltzen ziran gure gaiñetik, bat euskaldunena. ^s"abuelo" esaten eutsoena, eta asko España'tarrenak. Egazkiñen arieko erasoak be ikusten genduzan eta egazkiñak sutan lurrera jausten be bai. Apridaren azkenetan *ikusi senduzan* Gerni.ka'ra urreratu ziran egazkiñak be, Bizkargi-gaiñetik innan-irunan etorten eta geure belarriz entzun genduzan lerketaren danbadak. Sekula ez jat aitzuko gure etxetik urrean jausi zan lenengo lergaiaren otsa: Aita eta ama etxean egozan, ez dakit zelako lekuan sartuta, ni etxe-aurreko sasitza baten ostenduta nengoan eta lerkai edo bonba ori jausi eta estanda egin ebanean etxean egoan amamak iñon diran "sokorruak" egin ebazan. Ez zan geiago ezer jazo.

Landako Etxebarri (Motañe) mendixua izanik. guda igaroteko ez zala toki ego-kia-ta, erbestera joatea erabagi gendun. Zenbat bider gogoratzen jatan orain, Biafra'n edo edo beste tokiren baten erritarrak erbestera joaten ikusten doguzanean, gure orduko egoerea: gurdian tretxu guztiak artuta. piztiak naiz trasteak, batzuk oiñez, beste batzuk gurdi-gaiñean. erbestera. Orrelantxe ibilliak gara!

Zamudio'ra, esan dogun Agapito'ren etxera, joaiea bururatu jakun, baiña lenengo "zan'ak eta umeak", Agustín anaia ta amama joan gintzazan Fika'ra eta tarranta,

kamioa. eukan Alvarez'tar Felix'cgana urreratu gñan eta mezedez irurok Zamudio'ra eroateko eskaiia egin geuntson. Bera kodañca pikan egoan eta ez euskun jaramon aundirik egiten, baiña azkenean eroan ginduzan. Zamudio n, eleizatik urrean, Sagasta izena eukan baserri baten geratu gñan gaba igaroteko. Aparia be emon euskuen. gozoa, baiña lur-sagar ego.siak beroegi egozan eta agoa crre eusten. Urrengo goizean, etxe orretako Martin agurea lagun genduala, oiñez igon gendun Santo Domingo'ra. Mendi onetan, Antolin Deunaren baseleizea baiño goratxoago egoan gure Furundarena'tar Agapito'ren etxea eta antxe bizi zan beragaz Juan bere semea. Bizitza biko basetxea zan eta gure albora etorri ziran urrengo etxea dogun Aurreko Arantsolokoak: Eusebia zarra, Maripa, Mari... Anjel gudaritzan ebillan. Eta beragoko etxe baten Bolibar'en kokatu ziran Asaburuko gure senideak.

Tle pare bat igaro genduzan an. Ona emen gomutaki batzuk: Gamiz mendiaren gaiñetik Sollube agiri jakun eta azkenerantz beti sutan. Derio'ko illerrian danbadak entzuten genduzan, eriotzara epaituak illen ebezan. Nortzuk iltzaille? Erkalzaleak, ez euskaldunak. Nortzuk ildakoak? Erkalaren aurka egozanak. Egun itunak!

Gabak eta egunak naikoa bare joakuzan Zamudio'n. Baiña azkenerantza giroa garratzuz joian: Egazkiñen arteko erasoak ortzian, gudatik ekarrezan zaurituak etxe-aurrean, arein garrazi mingarriak! Arein egarri asetu-eziña! Etxe inguruan geroago ta gudari geiago, danbadak urrago...andik be urten egin bear.

Bagillaren erdi-inguman urten gendun Zamudio'tik ume biok, Agustin anaiak eta biok, bertako neska bat lagun genduala eta oiñez joan gñan Santo Domingo-gaiñetik Begoña'ra. Nora? Begoña'n ba-geunkazan ezagun batzuk, sendi bat. Zelestino anaiak urtebete otsein lez egin eban etxea, Atxeta auzoan bizi zan Bonifazio'ren etxea. Araxe joan gñan eta an egin genduzan egun bi erdi deslai, erdi jan barik, eta andik Bilbao'ko Ronda kalera joan ginan (Fika'ko alaba baten etxera). Baiña guda gaiñera etorre)a-ta Elxebarria lantegia zanaren ondoan dagoan mendi-zulo edo tunel batera eroan ginduezan, babes-leku izan dakigun. Egun bi egin genduzan zulo orretan egoera negargarrian eta Bilbao uriaren gaiñera jausten ziran lekaien danbadakentzuten genduzala.

Azkenean, jakiña dan lez, bagillaren I9'an amaitu zan Bilbao barruko guda eta gure anai zarren biak, Diburtzio'k eta Zelestino'k aurrera joan bear izan eben eta ZallaTco Otxaran'en kokatu ziran. aita eta ama oraindiño Zamudio'n egozan amamagaz eta gu txiki biok Bilbao'n, nik amar urte eta Agustin anaiak 12, Bilbao'n mendi-zulotik urtetezan.

Ez dakit non eta zelan, baiña azkenean alkartu gintzazan gurasoakaz eta amamagaz eta oiñez, amama zarra gurdi gaiñean genduala, geure abere ta tretxuakaz Landako Etxebarri edo Montañera biurtu gintzazan.

Etxe-inguruan bedar aundia egoan iñor ibilli ez zalako, etxearen gaiñera lerkai edo bonba txiki bat jausi zan eta atzeko aldean etxea obus batek jo eban. Kalteak ez ziran ain aundiak. Laztategia garbi-garbi eginda egoan eta bazterretan osakaien ondorenak ikusten ziran.

Eta barrero asi bear bizi izaten: Guda-aurrean 40 oillo geunkazan eta euretatik iru baiño ez ziran geratu bizirik, besteak moroen janari biurtu ziran. Tu oillo oneitatik

bat laban erre jakun eta beste bat txakurak zauritu eta il egin jakun. Oillo batetik arera bearizan gendun oiJategi barria. oilJar bat auzotik ekarrita.

II le batzuk geroago etorri ziran Otxaran'go anai biak eta pozik alkartu zan gure sendi osoa. Arrezkero, kanpai-otsak eta txapljeguak entzulen genduzan Franco'tarrak uri aundiren bat artzen ebanean.

Guda-ostean eitez bideratu gendun bizi-era barria: Etxetik urten orduko lurpean sartuta gorde genduzan janariak-eta atera genduzan, garia ugari ereiten asi giñan (urte baten eun anega gari artu genduzan). Geiena udaletxera eroan bear izaten zan "Abastos" koentzat. baiña etxerako beste geratzen zan.

Aldi onetan elxean izan genduan jazokizun mingarri bat edestu-bearrean nago.

Gudak bere arriskuak itzi ebazan, gaur diran norki-aurkako lerkai (minas anti-personales)'en antzera. Anai zarrena bere lagunakaz pozik ibiltzen zan inguruetan aurkitzen ebazan eskubonbak lerUen. Egun baten sasi-arte baten txolet-antzexo bat ikusi gendun Agustin anaiak eta biok. Zerrenda bategaz. lotuta egoan. Zenenda urdin orreri tiratu genntson eta tolet-antzekoak sasi-artetik urten eban. Ez genkian zer zan baiña bildur aundia sortu eban gudan. Gurasoai esan geuntsen eta gerotxua-go sua emon eta estanda eragin geuntson. Danbada ikaragarria. Leku onetik urten gendun, eskn-artean estanda egin ez ebanean!

Maiatzaren bigarren eguna zan, 1938n. urtea. Agustin anaia ta biok oiJlo lokentzat toki berezi bat gertatzen genbiitzazan. Izan be ni beti nintzan zalea oiJloak zaintzen, arrautzak bat'zen, jaten emoten eta abar Lan onetan bein, oillo loka bat toki bareizira neroaJa, oilJar asarraruak sorbaJda-gaiñerik eraso ninduan era sunaren gajñean pikekada aundi bat emon. Betirako zauri ezaugarria itzi eustan. Baiña goazen arira.

Agustin eta biok genbiltzazan lekura ama etorri zan eta esan eutson Agustin'eri: Agustin! zoaz Garruz'era eta ekarri egizu ogi zuri aundi bat.

Egun aretan ez giñan joan eskolara, maiatzaren bia jai egiten zalako; España'taren independentzia. Joan zan ba agustin anai maitea errira guda-ostean urtebe-te inguruan Franco'k emoten euskun ogi zuria ekartera. Bidean etorrela, taberna-Zarra baiño goratxuago Mungia'ko ikatz-zalea (karbonerua)'ren tarranta etorren, gasojenoaren indanez, astiro-astiro. Tarrantaren atzean etozan langille biak igoteko esan eutsoen anaiari eta onek igon. Baiña gero anaiak jatsi bear eban Jelaira eldu ziranean, kamioia ez zan *geidku* eta Agustin gjzajoak, *lenengo* ogia bota eban eta gero bere burua. Eurberan tarranta be ariñago joian eta gure Agustin bide-ertzean ilteko lako zauria barruan ebala gelditu zan.

Aita eta Zelestino anaia eta ni beko bedarlekuan genbiitzan an dagoan ur-zulo edo pozu bat garbitzen eta Arantsolo barrenetik Duoneltoak egiten euskuen dei larria entzun gendun. Aila eta ama joan ziran arin eta umea artu eta Basurto'ko gaiso-etxera eroan eban. Agiriko zauririk ez eukan baiña barruan zauri ilgarria. Ezeutsoenjarramon aundirik egin eta goizaldeko ordu bietan ekarri eban etxera. Gizajoa. bidean, ekillara baten ekarrela il zan.

Orrillaren lauan egin zan illetea: Ez jat sekula aitzuko, euzoko mutiko lagunak

il-kutxa zuria etxetik atera eben ordua. edo Arantzolo-barrenean, aldapan gora gorpua erooten etxetik ikusi neban ordua: Aurretik aurredia (andra bat otzara baten eleizako samaua ta kandelak eroiazala). gero kurutzeduna, gero ii-kutxa andarien sorbaldan, gero abadea misere abesten eta senideak, gizonak, andrak.

Gure amak zartzaroan be negar egiten eban Agustin aitatu ezkeru.

Agustin anaiaren eriotzeak asko aldatu eban gure bizi-erea. Iru anai geratzen giñan eta etorkizunari begiratzen asi-bearra egoan.

Baiña zelakoa zan Agustin? Ez dakit zergaitik, baiña bere irudia ez dot zaintzen nire irudimenean eta bere bizitzako jazokizunak be oso gitxi. Eskolan buruz laburra zaia badaikit, ikaskideak isekaz artzen ebela be bai, jolas batzutan lagunak ez zirala beragaz errukitzen be bai, etxeko lanak maite ebazan eta orrexegaitik aitak maitasun bereizia eutson. Baiña Aguslin'en irudiak alde egin dau nire irudimenetik, ez orregaitiño. biotzeko maitasun bero-berotik.

Recordemos los años tristes de la guerra. Cuando veo imagenes de exiliados con sus carromatos me recuerdan acjuellos años dolorosos.

Recuerdo escenas de hambre, cuando grupos de quince o veinte personas, bien vestidas y con dinero, venian por los caserios en busca de viandas. Tambien el negocio que se monto, luego se llamarfa estraperlo, y el comprador Agapito Furundarena que nos recibiria en su casa como evacuados de la nuestra.

Fuimos testigos de luchas entre aviones algunos de los cuales caian ardiendo, de fuertes explosiones de bombas que producian terror en nosotros, del bombardeo de Gernika por aviones que venian de sobre el Bizkargi de tres en tres.

Tuvimos que salir de casa, lugar peligroso, y comenzamos saliendo los dos hermanos menores con la abuela. Fuimos a Fika y Felix Alvarez nos llevo en su camion a Zamudio para la noche. Pasada la noche en una casa llamada Sagasta, un anciano llamado Martin nos llevo a Santo Domingo, a casa de Agapito. Alli pasamos un par de meses. Hacia el fin veiamos el monte Sollube tras Gamiz-mendi, siempre cubierto de humo. Algunos que murieron alli, fueron llevados a enterrar a Fruniz y mas tarde, siendo yo parroco, llevaron sus restos al Valle de los Caidos. Eran abertzales, porque llevaban el cinturón "zazpiak bat" pero los portadores dijeron que el Monumento de Franco era para todos. Oimos muchas explosiones, tambien tiros de gente que era fusilada por los repubiicanos en el cememterio de Derio.

Pasados un par de meses, fuimos a Begoña, estuvimos dos dfas en casa de Bonifazio en Atxeta, donde estuvo de criado mi hermano Celestino. Luego en Bilbao, en la calle Ronda y por fin en el tiinel que llamabamos "de Etxebarria". Estando alli entraron los nacionales y volvimos a casa. Los dos hermanos mayores fueron a Otxaran en Zalla. En 1938, dos de mayo, murio en accidente mi querido hermano Agustin, de doce años.

VII ATALA: ABADE-IKASTEGIRA: SAGASTITAR D. MARTIN,
D. KRISTOBAL MONTAÑE RA, FRUNIZ'KO ABANERUA,
BERGARAIa.

Amar bat urtekoa nintzala, edo lentxuago. Gamiz'ko païTokian meza erasole edo monagillo egin ninduen. Pozik egilen neban nik lan ori, Eleiza'rako jokerea barru-barruan neukalako. Onetan amaren ikutua geiago izango zan aitarena baiño. Aita, fededuna bai. baiña ama baiño otzagoa zan.

Egun baten, mezea eraso eta gero, sakristian Morga'ko semea eta D. Kristobal gure abadearen lagun aundia zan Sagasti'tar Martin aurkitu neban eta auxe esan eustan:

ZU, MARTIN! zuk abade izan gura dozu'?

Eta nik erantzun neutsan:

Bai, jauna.

Erantzun au ez zan une aretako beroaldi bat izan. lentxuagotik nerabilen buruan amets au. Nire elburua zein zan itauntzen ba'daustazu, ezin erantzun izango dautsut. Nik nai nebana. errian ikusten neban D. Kristobal abadearen antzekoa izatea zan, ona, laguntzaillea, poz-emoillea. Bear ba'da eiTezago zerura joatea be izan zeitekean nire asmoa. edo bear ba'da baserriko lanari iges egitea. Egia esan, baserriko lana ez neban gorroto. Edo jakitun izatea, edo... nok jakin umearen buruan zer dagoan.

Egun batzuk geroago D. Kristobal gure abadea Landako Etxebarri (Montañe)'ra etorri jakun. Gurasoak agurtu ebazan eta ni solora bialdu ninduen igitaiagaz, segeagaz, bedarra ebagitera. Ba-nekian nik neure arazoa aztertuko ebena eta, au egia da, ez neritxan ondo neure arazoa neu barik erabagiteari. baiña esana bete egin bear zan.

Zer agertu zan alkar izketa aretan? Lenengo, abade-ikasketak karuak dirala. Or D. Kristobal'ek laguntza eskiñi eban eta bete be ondo bete eban gero eskintza ori. Bigarren, baseirian lanerako eskuak bear zirala. Abadearen erantzuna izan zan "beti mokillak jo eta mokillak apurtu" ibilli baiño oba zala ikasi eta nasaiago ta erosoago bizi.

Ondorena baietza izan zan.

Lenengo Abadegaitegira sartzeko azterketa bat egin bear zan eta orretarako Bilbao'ko San Bixente parrokira joan gintzazan. Ez daukadaz gogoan itaunak baiña bai nire lagun zan Fruiz'tarrari egin eutsoen itauna:

Zein Beljika'ren uriburua?

Nire Lagunak ez zekian eta laguntzeko Aurtenetxe'tar Frantzisko abadeak asiera emon eutsan: Bru...bru...bru...

Eta berak bat-batean erantzun eban:

-Brunete. Bruselas baiño ezagunagoa jakon izen au.

Onartuak izan giñan eta ezer be ez jakun peitzen Bergara'ko Abade-gai-etxera joateko.

1. 939n. urteko irailaren 30n. egunean joan giñan. bearrezkoa zan "arreo" gertatu ondoren. Fruizlco ta Gamiz"ko abadeak alkarragaz berba egin eben eta Habana'tik dirutsu etorritako Bastarretxea'tar Frantzisko'ri eskatu eutsoen Hispano-Suiza markadun berebilla. Eta emon be bai. Juliantxu"neko Sebastian joan zan gugaz. ez dakik txofer bera izan zan. Fruiz'tix joan zana Lezamiz/ko Mallona'tar Jose Antonio izan zan. Lezamiz auzo anlzera artu geinke. Gure etxetik ara basoak dagoz bitarte baiña ez etxerik. Dana dala. erri bitakoak izanik ez geunkan artu-emon aundirik.

Bost iagunok, abade biak, abadegai biak eta gidaria, eldu gintzazan Bergara'ko ^{4v}Real Seminario" aretara goizez. Lenengo ikasi gendun gauzea. ogea egitea izan zan. eta gero gerokoak. Gure gelatxua edo "kamardlea" gertatu ondoren, ara urreratu ziran ikas-lagunak, 200 inguru ikusi genduzan. Gero eguerdian. Lasa jatetxe ederrean bazkaldu gendun. Tñoz esan daust Sebastian'ek maian be zelan jan ira.kasten euskuela abadeak.

Arratsaldean gure laguntzailleak joan jakuzan eta an geratu giñan. erdi negarrez eta goibel, triste, gabonak arte antxe egoteko ustez.

Antes de los diez años era ya monaguillo en la parroquia de Gamiz. Yo tenia una gran inclinacion a todo lo religioso, heredada de mi madre y de mi abuela Pilar.

Un dia vino a la parroquia D. Martin Sagasti, (o no se si fue D. Marcelo Gangoiti, que luego trabajo en Somorrostro) y despues de ayudar la misa me dijo: OYE, MARTIN, ¿ia ti no te gustaria ser cura?. Sin dudar, le respondi que si. No fue reaccion momentanea. Yo Uevaba tiempo pensando algo de eso, sin decirselo a nadie. Si me preguntan para que queria ser sacerdote, poco podrfra responder: Por ser parecido a D. Cristobal, amable y servicial, por saber mucho como el, por ayudar a la gente como el, quiza pensara tambien para que me fuera mas facil ir al cielo. Poco mas. De todas formas no es facil saber el aicance de las decisiones de un niño de diez años.

Alos pocos dias se presento D. Cristobal en Landako Etxebarri (Montañe), saludo a mis padres, pidio dialogo y ami me enviaron al campo a segar hierba con la hoz. No me gusto, es ia verdad, que decidieran sobre mi en ausencia mia. Se que trataron de gastos y D. Cristobal prometio ayuda, promesa que luego cumplio bien, y les dijo entre otras cosas, que era mejor ser cura que vivir rompiendo terrones.

De acuerdo los curas de Gamiz y Fruniz, pidieron coche a Francisco Bastarretxea, el abanero, y nos fuimos a Bergara. Fue con nosotros, creo que como chofer, Sebastian Rementería.

VIII ATALA: BERGARA N: GOSE-URTEAK, MAKAL-ALDIA,
IKUSTALDIAK, IRAKASLEAK, EGUNOROKO BIZITZEA,
ADISKIDEAK: ARAZO BATZUK: ERDEREA, LAGUNAK,
EZOTASUNA TA OTZA

Bergara'n igaro genduzan abadetzarako gertatzen *lenengo urte* biak. Urte txarrak ziran benetan. guda-osteko lenengo urteak. Zer-jana urria zan, unia eta txarra, gure adiña janari asko eta onak bear ebazana, amaika edo amabi urtekoak giñan.

Bigarren urtean ikusmena galtzen asi nintzan eta, oso arduratuta. agertu neutsan arazoa Etxeko Zuzendariari, eskutitza etxera idatzi eta ama ta biok egun baten BiJ-bao'n alkartzekotan gengoan, baiña egun orretan aizete ikaragarri bat sortu zan, Santander uria erre be bai, eta bideetan zugatzak bultzi-bidetara jausita toki askotan, eta ama Atxuri n egoan itxaroten, baiña ni sasoiz eldu ez. Orduan Askao'ko mailletan egoan Mungia'ko bullziaren geltokira joan nintzan eta antxe aurkitu neban ama. Zuzen-zuzen Korkostegi Begi-Osagjlleagana joan giñan eta ni aztertu ondoren, aurkitzen eban gaiso bakarra, makaltasuna zala esan eustan. Betaurreko batzuk be emon eustazan *eia* urte pare baten erabiJji nebazan. Ondo jateko agindua emon euskun eta agindu ori benetan artu eban amak. Beti bialdu eustezan etxetik janariak ugari eta osagillearen aginduz janari orreik maikideakaz ez alkar banatze-ko eskaria egin geuntson Zuzendariari eta onartu eban.

Gero, bultziaren orduari itxaroteko, Atxuri'rantza joan giñan. Ordu batzuk itxaron-bean" a egoan eta Erribera'ko azokaren ondoan, San Anton aldetik egozan mai-Ua batzutan amak etxetik ekarritako bazkaria jan genduan. Ama konturatu orduko arrautza gogortuak amaitu nebazan, ez dakik zenbat, baiña ama arrituta geratu zan.

Arratsaldean bultzia artu eta ni Bergara'ra eta ama etxera.

IkustaJdiak gutzat urriago izaten ziran beste askorentzat baiño. Baserrian lanari ekin bear jakon. Baiña nik ez dalut nondik eta zelan, Atxuri'ko trenean ebiltzan bitarteko batzuk, mandatari edo "errekadista" batzuk aurkituta etxetik sarritan etorten jatazan janariz beteriko zorroak.

Aldi baten Diburtzio anai zarrena Eibar'era joan zan arotz-lana egitera eta sarritan au etorten jatan janariakaz.

Bigarren urtean, janariak urriago etorten ziralako, etxerik etxe joan bear izan gendun abade-gaiak jateko bear genduzan indabak batzen, eskean, eta orretarako aukera-

tua izan m'ntzan, baiña gero, gizpuzkoarrak errezago ulertuko ebela ango euskerea eta eurak joan ziran.

Begiratu dagiegun orain gure irakasle ta ezitzailleai, batzui beintzat. Euren artean guztitarikoak aurkituko doguz, onak eta ez ain onak.

Zuzendari edo Erretore zan Sarasola'tar Zeferino arteza zan, baiña izketan oso zakarra ta gogorra. Berba egiteko etorten zan bakoitxean bjldurrez gengozan. Iñoz beiarri-ondokoren bat be emon eban eta goizeko janariren bat eguerdirako gorde gendualako asarre ikaragarria egin euskun.

Gogo-Zuzendaria, ostera, Agirre-AurTeta'tar Eustakio, Iar ona ta siniskorra zan. Illero joan bear izaten gendun beragaz alkar-izketara

Njretzat an izan ziran irakasle guztien artean onena. Etxebeste'tar Femando zan. Onek gure egoerea ulertzen eban eta ondo ekian ikasteko zeiaiko eragozpenak geunkazan eta errez onartzen ebazan latin ikasteko egiten genduzan ekiñaldiak. Irakasle oneri esker onak agertu-bearreko nago ba. Bideko iztripu baten Ciudad Rea'len-edo il zala entzun dot iñoz.

Lardizabal'dar Emeterio zan edestia irakasten euskuna. Edestia guretzat ikasgai gatxa zan, erdereza uiertzeko gai ez giñalako. Ez zan irakasle txarra. baiña azkenengo azterketa egin bear izan zanean. gai bat Konstatino Enperadorea izan zan eta beste bat 1812'an izan ziran Cadiz'eko korteak. Nire azterketeak ez eban onartzerik irabazi. Ortxe lortu neban ikasketak irauñ eben amabi urteetan izan neban "suspenso" bakarra. Gero, udazkenean, Bilbao'ko San Bixente parrokiak egin neban azterketa barria, Sarasola'tar Zeferino maiko zala. Ikastarauetan ez egoan itaun bat egin eustan eta nire erantzuna ori izan zan. Liburutxua ikusita, onartu bear izan eban. Beste itaun batzui erantzunda lortu neban bearrezko onartzea.

Matematiketako irakasle Murua'tar Frantzisko zan. Asko irakasten eban eta ikaskide batzuk gogorra zala esan dauste, baiña nitzat oso ona izan zan eta asko lagundu eustan. Doi-doi lortzen neban onartzea.

Elortza'tar Jose, Larraurj'tar Isidro eta beste irakasle ezitzaille batzuk be izan ziran. Ez daukat esateko ezer geiago.

Eguneroko bizitza naikoa latza zan, baiña gure etxeetan be orduan biziarea latza izaten zan eta errez onartzen gendun Iaztasuna. Nire adiskjde dan Artetxe'tar Txomin Zamora'ko espetxean egon zanean, batek itaun au egin eutsan:

-Latza izan da espetxean zuen bizi-erea, eguneroko bizitza?

Bere erantzuna au izan zan:

-Abade ikasten egon giñanean izan genduan bizitzearen antzekoa, ez asko latzagoa. Goizeko seiretan jagiten gintzazan egunoro. igandeetan sei ta erdietan, kanpai

baten otsa entzunda. Bein baten ordu bi lenago jo eben kanpaia eta barrero ogeratu-bearra izan gendun. Ez dot inoz ulertu zergaitik ume errukarri areik ain goizetik jagitea nai eben gure ezitzailleak. Aldiko pentsaerak)

Guztiok batera garbi-leku batera joaten gñan, geletan ez egoan ez urik eta garbi-lekurik, eta ordu-lauren geroago eleizara. Eleizan goizeko otoitzak egiten ziran, "Manuai del Seminarista" eritxon liburutik artuta, jarraian gogartea, puntuak liburu batetik artuta: Preludio 1°. Preludio 2°, Punto 1°, punto 2°. punto 3°... Goiz oczetan batez be benetan gogaikarria zan ekiñaldi au. Igandetan-eta gogo-zuzendariak emon euskun gogarte au. Gero mezea eta mezan jaunartzea, bitartean autortzak. Jarraian geure geletara igon eta gelea atondu, ogea egin eta abar. Urrango barausi, goisaldu: Atsa erion ogi baltz-zati txiki bat eta akeita esnearekin. Au be amaitu zan aldi baten eta beste isurki usain txarreko bat emoiien euskuen. Goiz guztian irakastaidiak eta jolas-aldi labur batzuk. Bazkaria urrango eta atsedan-aldi bat. Arratsaidean ordu bi irakastaldietan eta beste ordu bi areto aundi baten ikasten, berreun ikasleok batera. Gabean agurtza la aparia eta amarretan lotara.

Tkaskideen artean giroa ez zan ain txarra. Bakoitxak geure adiskideak egin genduzan, erritik ezagutzen genduzanez gaiñera, eta adiskidetasun orreik ez dira inoz aiztuten. Ez jat sekula aiztu, naizta irugei urtean inoz alkar ikusi ez, LekeitioTco Robles'tar Modesto. Oraintsu il dala uste dot. Onek ipuin politikak eta asko kontau eustazan.

Bizkaitik etorritako erreka-aldekoak asko ziran. Oneck ez ekien euskerarik eta euskaldunok izekaz artzen ginduezan, erdera txarto egiten gendulako. Ni iotsorra nintzan eta gitxitan arrapatzen ninduen oker esanetan, baiña Fruiz'ko nire iagunak bein baten auxe esan eutson Santurtze'ko Madizabal bateri: "Me fastidiando andas, e? Te meto un trankaso! Gero urte guztian entzun bear izan ebazan berba orreik.

Erderea ez jakitea guretzat araz.o aundia zan. lenengo erriko maixuagazko artu-emonetan. gero abadegaien elxean, bai jolas-artuemonetan eta ez gitxiago irakastaldietan.

Orrez gaiñera, Bergara, erri lez mendi-arte bat da, toki ezoa, euritsua eta otza. Berogaillurik ez geunkan, etxea zarra zan, eta egoera dana ituna ta larrria.

Ba-egozan, oiTegaitiño, batez be eguaidi ona zanerako, toki egokiak: Baratz zabal bat igale landaraz beterik. "paraiso" eritxon zugaztitxu bat, oztikoketarako zelaitxu bat. Zenbat jokoaldi eder bizkaitarrak giputzen aurka! Pelota-Iekuak eta euri-egunetarako "Salon de Columnas" eritxon aterpe zabal bat.

Zer esan, labur-labur. urte bi onei buruz?

Eziketa bigunegiak daukazan kalteak kentzeko onak izan zirala eta etxeokakaz izaten dogun lotura estuegia azpirazeko be bai.

Larkeriren batzuk ba-dagoz ori zalantza barik.

Beste alde batetik, an urte bi txarrak izan ba'ziran, andik kanpora be guda-oste-ko urteak ez ziran izan atsegingarriak, neke-urteak baiño.

Recordemos los dos primeros años de seminario en Bergara, años de post-guerra, años cñticos, años de hambre en una etapa de la vida en que la alimentacion es especialmente necesaria.

Como consecuencia de la escasa alimentacion se me cansaban los ojos y tuve que pedir permiso para acudir a un oculista y previo acuerdo con la familia, fui a Bilbao. Era el año del vendaval, año en que hubo un gran incendio en Santander. El tren Uego con mucho retraso a Bilbao, pero pude encontrar a mi madre cuando intentaba regresar a su casa, en la estacion de las calzadas de Begoña. Estuvimos con el oculista Dr. Corcostegui y comimos las viandas que trajo la madre. La comida fue junto al mercado de la Ribera, hacia San Antdu. Mi madre se quedo impresionada de mi apetito. A continuacion ella a Gamiz y yo a Bergara.

Siguiendo los consejos del medico buscamos medios de que me sobrealimentara, a base de paquetes que me enviaban de casa. Por estas fechas mi hermano Tiburcio fue a Eibar a trabajar como carpintero y venía con frecuencia a traerme paquetes de comida.

Hubo alguna epoca en que los seminaristas tuvieron que ir por los caserios a recoger alubia para comer.

Si miramos a profesores y educadores, encontraremos de todo. No puedo olvidar la severidad del Rector Ceferino Sarasola ni la bondad de D. Fernando Etxebeste y tambien recuerdo el linico suspenso del seminario que me propino D. Emeterio Lardizabal en historia de España. Y el buenazo de D. Eustaquio Aguirreaurreta, director espiritual. Aunque se le tacha de severidad, no puedo menos de manifestar mi gratitud al profesor de matematicas D. Francisco Murua, que fue muy comprensivo.

La vida diaria era ciertamente austera. No entiendo por que nos hacian levantarnos a las seis de la mañana a niños de once años. La meditacion a base de puntos leidos resultaba aburridisima.

Teniamos frontones, campos de futbol, jardin, el llamado paraíso, para los dias de lluvia, el salon de columnas. Pero el clima de Bergara era lluvioso, hmedo y frio. Allí pasamos dos cursos memorables.

IX ATALA: GASTEIZ'EN LATTN-ALDIA, BIDEA, ETXEA,
IKASGAIK, EZITZAILLE TAIRAKASLEAK, IKASKIDEAK,
IBILLALDIAK.

Bergara'ko ikasturte biak, apur bat illunak baiña onuragarriak eta bearrezkoak igaro ondoren, irugarren ikasturterako Gasteiz'era joan bear gendun. Lenengoetan beintzat buitiz (trenez) joaten giñan. Bilbao'ko Atxuri'tik Maltzaga'ra eta emen gure bide-zorroak bultziz aldatu eta Gasteiz'era. Maltzaga'n gabon-inguruan izaten zan otza ez zan txantxetakoa eta bultzia Gatzaga'ko aldazta igoten asten zanean gugan sortzen eban zorabioa be ez dogu bein be aiztuko. Gasteiz'era elduta, gure tretxu guztiak artuta, al zan eran, Abadegaien Etxera. Etxe ederra, benetan, eginbarria eta ondo egiña, geJa ederrak, ikasgela egokiak, jolas-toki eder eta zabalak...

Ikasgaiak, Bergara'n asitakoen jarraipena ziran, latiña. grekoen izkuntza, giza-giroko gaiak. Asieratik aurkitu neban izkuntzetarako erreztasuna eta matematiketarako gaiztasuna, baiña ikasketak errez burutu nebazan.

Ezitzailleen artean Fermin Madariaga zan arduraduna eta naikoa ondo bideratu eban gure arau-bidea. Egunik gieiena gugaz igaroten eban eta gure jokabidea zelakoa zan zenbaki batzun bidez agertzen eben: Jokabidea (conducta), gizabidea (urbanidad), ikas-zaletasuna (aplicacion) eta ondorenak (aprovechamiento). Neurri onek irakurteko Zuzendari-orde zan Juan Martin Irulegi etorten zan illero.

Aldi onetan gogo-ezitzaille Benantzio Izeta izan zan. Asko zor dausat nik abade oneri gatzetxu-aldi aretan bide-lagun izan jatelako. Illerojoalen giñan bere gelara bere aolkuak entzutera eta sarritan berba egiten euskun eleizatxuan, Uda-aldian eskutitzak idazten geuntsozan eta berak beti erantzuten eban. Egia esan, ario batzutan gure kontzientziak estuegi ondu ebazan, baiña dana batera ikusita, esker ona agertzea dagokii.

Irakasleen artean danetarikoak izaten dira beti. Nire adimena ondo eratzeko geien lagundu eustana Jose Maria Urrutia izan zan. Erretorika azaldu euskun onek, Kleutgen'en liburua esku-Jiburu genduala, baiña beste liburu asko be irakurten euskuzan. Elertiaren barru-barrura sartzen ikasi gendun eta idazkiak aztertzeko bideak urratu genduzan. Lutelestian Jesus Markinez izeneko bat euki gendun, naikoa ona, baiña ikasturtea asi eta Jaster il egin zan eta gai au al ebanik ondoen Zuzendari-orde zan Juan Martin Trulegi'k irakatsi euskun. España'ko Tnperioaren edestia irakatsi

euskun Jose Maria Zapirain'ek. poljtikara sartu barik baiña orduko erara gauzak ulertzen zirala. Matematiketan Frantzisko Muma'k jaiTaitu eban eta len esan dodan lez irakasle oso egokia gertatu jaian, naizta ikasgaia nire begikoa izan ez, Asko irakatsi euskun Murua jaunak.

Ezitzailleen artean ezin itzi negike aitalu barik Jaime Saez. Onek antza dagoanez, ni etxera bialtzeko eskaria egin eban, garrantzi bako jazokizun bategaitik: Soiñekoak eta zapiak-edo gabitzeko zorro baten intxaurrak apurtzeko lanabes bat agertu zan. Batu ginduzan guztiok ibiltegi luze baten eta ori egin ebana nor zan jakjn nai izan eban. Agertzen ez zan lez. guztiok ikastegua eroateko zemaia egin eban. Nik baielz esan neutson, guztiok ikastegira. Bere begi zorrotzak asarrekor ikusi nebazan eta etxera bialdu ez ba' ninduen, Benantzio Izeta'ri dausat zor. Baiña barriro be agertuko da oraindiño Jaime Saez.

Juan Jose Ormazabal'ek irakasten euskun Elertia edo lileratura, baiña trebetasun aundi barik. Idazleak eta idatziak buruz jakitea zan bere eskari bizia eta orrek gogai-karri egiten dau berez pozgarria izan bear dan ikas-gai au. Onarpena lortu neban, baiña doi-doi. Nok esango eban orduan gai onetan irakasle izango nintzanjk.

Grekoen Izkuntza irakasten euskun Igna/io Zamalloa'k. bigarren urtea zan baiña *ev* genduan asko ikasi. Latiña baiño gatxagoa zan grekoa guretzat. Ez noa arlo au amaitzen, eresari. musikeari ikutu barik: Egunero egunean ordu-erdi *e\$*iten gendun eresa ikasten eta irakasieak abade-gai nagusiak izaten ziran. Ez naz musikarako ona izan, baiña ez eusten iñoz "suspenso"rik emon eta ez ninduen sartu "Santa T e k l a r ´ e n akadennan. Bear ba'da ikasbidea ez zan egokia, baiña ainbeste ordu abcsten egin arren. larregi ez dogu lortu. Arazo au barriro be agertuko da...

Atal au amaitzeko begiratu dagiedan ikaskideai: Batzuk gomutaki txarrak itzi daustez, geienak Bilbao-inguruko errekaldekoak. beste batzuk ostera apaiaik eta onak ziran. esaterako Andres Isasi, Gamiztarra edo Juan Mari Zubiaur mungiarra, Fruniz'taira zan Mallona'tar Jose Antonio bera, lagun ona, eta batez be nire lagunik aundiena izan zan Ugalde'tar Frantzisko bakiotatra.

Baiña orduan be nagusi-antzera agertzen zan gero gure jokabideetan gorrotagarri agertuko dan Teodoro Ignacio Jimenez Urresti. Oneri emon eutsoen, gure diruak zaintzeko ardurea, lapurren eskuetara jausi ez zeitczan. eta uste dot ondo bcte ebala zeregin au. Gu baiño urte bi zarragoa zan eta oraingoz beste barik izlen dot gomuta au.

Gogoangarriak dira igandeetan eta opor-egunelan egiten genduzan ibillaldiak, bai Bergara'n eta bai Gasteiz'en. Irunen-irunen urtetan gendun. guztiok sotanaz eta bekaz jantzita, alkarren atzean. Ibillaldiak naikoa luzeak izaten ziran eta aldi batzutan ezitzai lleak eurak esaten eben irukotea nortzuk osotu bear eben. Ez zan beti orrelan izaten. Bergara'tik Los Martires eta Maltzaga'ra, Kalamua edo Maxa mendira. Intxorta mendietara, Arrasateko "Union Cerrajera"*ra ta San Pruden-

tzio'ra, ta abar. *Gasteiz'en*, osrera, EstibaJiz'era, Esiarroia'ra, Tres Puentes'era. Arriaga'ra...

Eta ibillaldi naikoa luze au amaitu ondoren, besperak abesten genduzan Gasteiz'en.

Urtean bein eogo-jardunak egiten genduzan. isiltasun aundian eta seriotasun osoan.

Terminados los dos cursos oscuros y difíciles de Bergara, pasamos al seminario de Vitoria. Un viaje un poco mas largo, sin que podamos olvidar el frio que pasabamos en la estacion de Malzaga ni los mareos en las curvas del tren en la cuesta de Salinas de Leniz. Pronto empezariamos a ir en Autobuses de la Union, que siguen funcionando. Era una aventura el viaje con el ajuar que llevabamos con nosotros, Pero Uegamos, por fin, al hermoso seminario de Vitoria.

Los estudios eran continuacion y ampliacion de los comenzados en Bergara: latin y griego y humanidades. Encontre especial facilidad en lenguas y mas dificultad en ciencias.

Entre *los* educadores tengo gratos (*no todos*) recuerdos de D. Fermi'n Madariaga, Don Venancio Iceta, D. Jose Maria Urrutia, D. Jesus Markmez, que murio comenzado el curso, D. Jose Maria Zapirain, que nos dio Historia del Imperio Español, D. Francisco Mnrua, que siguio dandonos matematicas, D. Ignacio Zamalloa, que nos dio Griego, D. Jaime Saez, que cuida de la disciplina, D. Juan Jose Ormazabal, que nos dio literatura.


Entre compañeros nos llevabamos bien aunque con alguna dificultad con los de margenes de la ria, podemos recordar a Miravalles y a Mendizabal. No puedo olvidar a amigos sencillos y humildes que tuvieron que abandonar el seminario, como Juan Maria Zubiaur, Andres Isasi (de Gamiz), y un gran amigo que fue y sigue siendo, Jose Antonio Mallona, de Fruiz. Guardo un buen recuerdo de Francisco Ugalde de Bakio y un mal recuerdo de Teodoro Ignacio Jimenez Urresti, a quien volveremos a recordar en algiiin momento. Este, durante algun año, guardaba nuestro dinero y nos vigilaba, pero del seminario nada malo puedo decir sobre el.

Hay que recordar tambien los paseos de los jueves y domingos por la tarde, de tres en tres, vestidos de sotana y beca, acompañados por un responsable sacerdote. A veces *Jo haciamos en tren*, a Estibaliz, por ejemplo, pero generalmente a pie a pueblos cercanos a la ciudad.

IKASKIDEAK: GASTEIZ'EN, 1942, IRUGARREN URTEAN

Eun eta berrogeta amar inguru giñan, eta orreitatik berrogeta amar abade izatera eldu giñanak. Batzuk urtea atzera egin eta beranduago eldu ziran, baiña beste batzuk urteetan gu baiño elduagoak etorri ziran. Onei "intensiboak" esaten geuntsen.

Lenengoz joan giñanean, amaika urteko mutikoak giñala, sotanea eroan bear izan gendun. Nik Mungia n eginda eroan neban, Garbiñe Uriagereka'ren ama izan zan egin eustana, eta bigarrena Iñaki Barkos'en aitak egin eustan. Sotaneagaz batera beka gorria erabiJten gendun, baiña astegunetan eta etxean sotanea barik brusa jazten gendun. domeketan eta jaietan, batez be ibillaldietarako, sotaneata bekea eta buruan bonetea.



Argazki onetan ikusi leike gure tajuá: Amabost urteko gaztetxuak gara.

X ATALA: GASTEIZ EN JAKINZALE-ALDIA: GIROA,
EZITZAILLEAK, IRAKASLEAK, ZALANTZAK, ITXAROPENA.

Latera-aldia igaro *oncloren*, gure ikasketa luzeen joanean urrats garrantzitsu bat emon gendun: Jakinzale edo filosofoen alkartera sartzea. Beste mundu bat zan, batez be ikasketa-arloan eta gure nortasunaren saillean. Ikasi bear ziran gaiak sakonagoak eta burubidezkoagoak ziran eta giroa gazte-elduen erakoa. Ez giñan umeak.

Gogoratu daiguzan ezizailleak lenengo eta irakasleak gero. Alengin aundia egin eben gure almenak ateraten eta gogo onagaz jokatu eben. Esker ona gure aldelik eurentzal. Asko dautsegu zor, ikutu aundia izan dabe gure bizitza osorako.

Aurtenetxe ta Goitia'tar Frantzisko zan araubidearen arduradun edo "prefecto de disciplina". Berbetan premiñatsua zan eta ezibidean zorrotza, lar zorrotza bear ba'da. Baiña Meñaka'koa zan semez eta Mungia-ingurukoai maitasuna euskun, geuk be bai berari. Bera izan zan nire mezabarriko aitabitxi eta bera, Morzillo'tar Kasimiro Bilbao'ko Gotzaiñaren idazkari nagusi lez, nire izendapenetan be zer-ikusia izan ebana. Sarritan joaten nintzan bere gelara. ez bildurrez baiña bai itzaltasun geiegiz.

Zapirain'dar Jose M^a zan laguntzaille zeregin onetan, baiña onegazko artu-emonak geiago ziran eres-arlokoak. Onek ez eban ikutu aundirik izan gure eziketari.

Gisasola'tar Maximo zan gogo-zuzendaria, gizon ona baiña estuegia ta zorrotzegia, batez be apaltasunaren arloan ekiten eban geien. Noizean bein aurreko urteetan zuzendari izan genduan Izeta'tar Benantzio'gana joan bear izaten gendun adore-billa. Gero Los JRios'ko misiñoietara joan zan lenengo seiren artean eta antxe emon eban bere bizia berebillaren iztripu baten. Erre egin zan ondoren lez. Azken ori onartuta joan zan ara: "Ijen ba-gaitue be, ondo illak izango gara" esan eban joan-aurrean. Gogo-zuzendaritza onetan Aldabalde'tar Rufino be lagun izan eban. baiña onegaz guk artu-emon gitxi izan gendun.

Irakasleen artean, beti lez, danetarikoak *izan* genduzan: FiJosofi-irakasle ona izan zan Jil'dar Urbano. Onen irakatsiak nire buaia asko aldatu eben, batez be Kritika esaten geuntsan gaian. baita "Filosofia moderna"* esaten jakonaren edestian. Niretzat oso ondo azaldu ebazan gaiak, baiña ikaskideak beti esan dabe illun-illuna zala bere azalpenetan.

Beste era bateko irakaslea zan Arabiotorre'tar Leontzio: Jakitun aundia eta apal-apala, benetako zientzi-gizona, iñori "^vsuspenso" emoteko gai ez zana. Bere ekiñik aundiena gizakia tximiñoitik ezin etorri leitekeJa agertzea zan eta ondo agertu be egiten eban, baiña geroak ez dautso emon errazoirik. Gogobidea edo psikolo-

jia praktika be irakatsi euskun, gauza politak eta pozgarriak benetan.

Zirardalar Jose M^ak gugaz izan ebazan Gasteiz'ko abadegai-etxean lenengo irakastaldiak eta Burubidezko Gogo-iztia edo "Psikolojia razionai" izan zan sasoi aretan irakatsi euskun gaia. Niretzat irakasle oso ona izan zan, baiña egun batzutan ezer gertatu barik etorten zan eta ez eban jakiten zeian ordua betetu. Arandia'tar Anjel zientzietarako gertatuta etorri jakun, baiña ez ekian irakasten. Bai zientzietan eta bai Kosmolojijan edo ludi-iztian irakasgai oso motelak emon ebazan eta oar ikasiak edo "experientziak" egiteko tokira urreratzen giñanean. batek ez eutson ondo urteten. Egun baten Otegi'tarTomas ikaskide ta adiskideari itaunak egiteko dei egin eutsan eta onek erantzuk eutson: -No he vis-to-mas. Eta berak esan eutson: Ba emen Franzisko ipinten dau, Tomas dala diñozu zure izena?

Otegi Jagun oneri beste jazokizun bat be jazo jakon, latiñez Metrika edo bertso neurriak ikasten genbiltzaja. Neurriai oiñak edo "pies" esaten jake, eta Otegi au errena zan. Neurtu eban bertso bat eta irakasle zan Aurlenetxe'tar Franzisko'k esan eutson: "Ese pie esta mal!". Gure barreak!

Baiña irakasleen artean onenatariko bat Yurre'ko Rodrigez'tar Gregorio zan. Errigintza edo politikarako onek emon euskuzan irakatsiak gaur be edonon zabaltezeko lakoak dira. Ori gizarte-auzian, soziolojijan, etika be emon euskun. Ondo. Baiña ondo baiño obeto irakatsi euskun grekoen filosofia. Madrid'en irakasle ospe-tsu baten esana da, arlo onetan berak irakurri dauan gauzarik onena gure eskolako apunteak zirala. Berari esan eutsoen ori eta erantzuna au izan zan: "Filosofo orreik irakurri egin dodazelako izan ieiteke".

Ez dogu aitzu bearco guda-ostean lenengo irakasieen artekoa izan eta an jarraitzen eban Alonso Tibinger marianistea. Lar ona, gizajoa. Zarra be ba'zan-eta, baiña beragaz ikasi-ikasi, asko ez.

Jakinzaleen eta filosofoen aldi au zalantzarik aundienen aldia zan, umetako burubideak itzi eta etorkizunari aurpegia emoteko sasoi, gure deia edo bokaziñoa aztertzekeo sasoi egokia. Ez dot iñoz benetako zalantzarik izan neure aldetik, baiña bai Jainkoaren deia neukan aia ez jakin-naia. Gogo-zuzendariak baietza emon ezke-ro pozik geratzen nintzan, naizta ziurtasun ori emon ez berak.

Eta atal au amaitzeko, beste jazokizun bat: Bein baten Elertiaren irakasle zan Elgarresta'tar Jose"k. "Las Ruinas de Italica" azaldu ondoren. erri apurtu bateri buruz idaz-lan bat egiteko agindu euskun. Nik Gemika'ri buruz egin neban. Andik egun gitxira Aurtenetxe'tar Frantzisko' gaz alkartu nitzanean, onek aurpegira bota eustan politikara sartu nintzala. Ori erru aundia zan orduan. Baiña berbaz konpondu zan arazoa, ur aundiagoetara sartu barik. Asko ez zan bear abade-

gaiak ain *ugarl* ziran aldi aretan edozein etxera bialtzeko. Dana dala. poJitika arazoetao ez dot iñoiz an arazorik izan, nik dakidala beintzat.

Eta Jakin-zale aldiko iru urte igaro ziranean, urrago ikusten gendun gure elburua eta pozgarriagoa zan gure bidea.

El paso a la comunidad de los filosofos fue ijnportante en nuestro caminar hacia el sacerdocio, meta añorada. Un nuevo ambiente, de mas madurez, asignaturas mucho mas profundas y formativas, todo era mejor.

Entre los educadores de esta etapa he de recordar con cariño a Francisco Aurtentexe, premioso en palabras y fiel a las consignas de los politicos. Este sacerdote tiene mucha influencia en mi vida.

Le ayudaba Jose M^a Zapirain, encargado de la iniisica, que influyo menos.

D. Maximo Gisasola fue el director espiritual, exigente, muy devoto. . . un santo. Murio en accidente de trafico en la Mision de Los Rios.

Y entre profesores tuvieron influencia decisiva en mi formacion intelectual Urbano Gil, filosofo profundo, Leoncio Arabiotorre, cientifico sencillo, Jose M^a Zirarda, claro siempre y profundo cuando se preparaba, y, sobre todo, Gregorio Rodnguez de Yurre, que abrid nuestras mentes, delicadamente, hacia la democracia de la que estabamos tan necesitados.

Menos influencia tuvieron Angel Arandia en ciencias y cosmologia y Alonso Tibinger, el buen marianista que era un buen abuelito.


No puedo dejar sin mentar que esta etapa fue util para aclarar nuestra vocacion, siguiendo las orientaciones de la Direccion espiritual y fue una etapa de esperanza. Ya el paso siguiente en la comunidad de teologfa seria el definitivo, el ultimo.

XI ATALA: GASTEIZ EN TEOLOJI-ALDIA: GIRO BARRIA,
EZITZAILLEAK, IRAKASLEAK, AKADEMIAK, LAGUNAK,
ELDUTASUNA.



*OTAÑO MUSIKALARIARI OMENALDIA:
Beian; Bera, Zuzendaria,
Zapirain J. M^o, besteak abeslariak.*

1947n urtean: Teolojia I^o



"LOS RIOS" Eleizbarrutiko misiofietara joan ziran lenengo zortzirik

Milla bederatzireun eta berrogeta zazpigarren urlean uireratu gintzazan azkenengo ekiñaldia izango zan teoloji-aldira. ogei urteko gazteak giñala. Ekiñaldi bairi onetan ez geunkan askatasun geiago, baiña geure burua elduagotzat artzen gendun eta ezitzailleak be gure nortasuna geiago artzen eben kontuan. Ikasketak sakonagoak eta abade izateko bearragoak eta egokiagoak ziran. Ez da gauza erreza. orregailiño. azkenengo lau urteetan gure artean jazotakoak emen agertzea. Arazoa oso zabala da eta zeaztuteko oso gaitxa.

Lenengo Erretore edo Zuzendari jauna gogoratu bearko dogu. Ugalde'tar Felipe da nik ezagutu neban zuzendari bakarra. Abadegaien ikuspegitik ikusita. urrin bizi zan gizona. Noizean bein elorten jakun itzaldiren bat emotera eta egunero goizeko mezea ospatzen eban. aurretik gogaitea eta ostein eskeirak emoteko ekiñalditxua eginda. Iñoz beragana joan bear izaten gendun. zergaitik edo agaitik. berak deituta. baiña gitxitan eta bi]durtuta. Zentzun aundiko gizona zan, eta bear be bai, batez be politika-arazoan oreka aundi bat bear zalako, eta orretan maixua zan bera: legeak eskatzen ebana dana zeatz beteru. ezelako ekjntzarik ez laketu iñondik politika-usaiñik ba' eukan. oJako jokabidea ezitzailleen eta irakasleen artean agertu...

Gugandik urrago egoan Zuzendari-ordea zan Irulegi'tar Juan Martin. Onek alegin aundia egin eban jokabide orekatsu ori zaintzen baiña iñoz zeozertsu agertu zan, esango dogun lez. Ona zan ikasieak zaintzen: Ogerako ta jagiteko ordua, irakastal-dietarakoa, jatorduetarakoa. Ondo eratzen ebazan gure ibilialdiak, errietako katekesira urtenaldiak eta olakoak. Iñoz, ez sarritan, joaten giñan bere gelara eta ondo artzen ginduzan. Oarrak egitean kontu aundia artzen eban. bai erdera egokia erabilteko eta gauzak argi ulertazoteko.

Gogo-eziketari begira. Goikoetxeaundia'tar Joakin zan arduraduna, baiña aurreko ekiñaidietan baiño askoz gitxiago sartzen zan gure bizitzara. Noizean bein joaten giñan beronen gelara alkar-izketarako eta askotariko arazoak aztertzeko. Iñoz deitu eustan Surge aldizkarian Jaguntzeko be. Gogoan daukat lbargutxi'tar Jon Kurutz'en Geroko bizitza liburuaii buruz zerbait idatzi nebala. Beronek emoten euskuzan itzaldi edo gogarterik geienak. domeketako meza-aurretik. Berau zan gure Seminario'ko Abade-eragiñaren bultzagille. Eragin orrek asiera Aldabalde'tar Rufino'gan eukan, baiña Joakin jaunak eutsi eutson. Bein baten itaunketa bat egin eban gure eritxiak jakiteko eta Bateoa daukagula geiegi aiztuta esan neban. Laburpena egin ebanean agertu eban erantzun ori baten arazoa zala esanez. Gaia benetan sako-



1945n.urte inguruan emon euskun eres-aldi eder bat Joaquin Rodrigo'k.Oraintxe entzun dot il egin dala.Olako eres-aldi ederrak izaten genduzan Gasteiz'ko Seminarioan eta bi ziran eratzailleak:Bilbao eta Aristegi'lar Pablo eta Federico Sopena.Azkenengo au Madrildik etorri jakun,baiña ez egoan batera gure izakereagaz eta Yurre'ko Gregorio Rodrighez salatu egin ei eban Eziketarako Ministeritzan.

Orregaitik ,diñoe ,Bueno Montreal Gotzainak gure Seminariotik Madrid'era bialdu ebala.Idatzi dauan libururen baten agertzen dau bere gorrotoa.Abesti ta eres-arloan asko lagundu euskun ikaskide bi oneik.Gogoan daukaguz Zortzikote'baslari onak,Eres-batz'gog'angariak,Ganbara'ko eres-talderik onenak, Atxukarro pihularia,orduan ain gaztea,Sainz gitarralaria,Iniesta bibolinterua eta abar.Nire esker ona curai.

*Joaquin Rodrigo
(1999-07-06) il zan.*



Behean: Ikasbideen Batzarra 1997

na zan. Abacle eginda gero. urtero etxe aretan batu izan garanean, ainbat bider deitu geuntson alkar-izketarako. Ez gendun ikusten beragan aurrerapen aundirik, lengo-lengoa zan D. Joakin. Urte batzuk dira bere illeta ospatu genduala.

Begiratu bat egin dagiegun irakasleai; Irakaslerik *ospetsuena* Zirarda'tar Jose M^a jauna izan gendun. Lenengo orduan teolojia irakasten euskun: Jaungoiko Bakanaren gaia sakontasun bakoa izan zan. Jaungoiko EgiJlearena ona, batez Gustavo Thils'en eritxiak azaldu euskuzanean. Irutasun deunaren gaia be sakontasun andiagaz azaldu euskun. Jaungoiko salbatzaillearena be ederto. Egia esan egun batzutan ganza aundirik ez zan egiten, bear ba'da ondo geitatu barik etorten zalako. baiña beste batzutan ederto. AiTO-antza agertzen eban baiña bere izakerea zan orrelakoa. Azterketak egikeran estuegi jokalzen eban, baiña naikoa ondo.

Arratsaldeko irakastaldia Intxaurraga'tar Plazido'rena zan. Esku liburuari jarraitzen eutson baiña ez eukan goizekoaren besteko a.skatasunik. Ordu txarra be bai-eta, egun batzutan ez genduan eukiten gogo aundirik ikasieko edo entzuteko.

Jokabidea edo moraJa, lenengo urtekoa Zuzendari jaunak emoten eban. Noldin'eri jarrailu etaezelako askatasun barik. eta urrengo urteetako Onnazabal'darAntonio'ren kontura. Onek be Noldin'en esku-liburua jarraitzen eban eta iñoz galduta lez ibiltzen zan. Irakasle oso laburrak ziran oneik. baiña zeregiña beteten eben. Teolojiko gure ikaskintzan izan dogunik uts-unerik aundiena Idazci Deunarena izan da. Arlo onetan ez gendun ezertxu be ikasi. Gtire irakasle bakarra Kantera'tar Julian izan zan. Esku-liburuak berak argitaratzen ebazan latin eder baten idatzita baiña ikastaldietan ez zan besterik egilen bibiia-gaietan aurrera-zaleak okeiTeko bidetik joiatzala zuiatu baiño. Izan ebazan larri-aldi batzuk, ikasleak aurka jarri jakozelako. Bein baten bere izendapena mai-gaiñera botata auxe esan eban: "Estos son mis poderes". Beste hein ikasleak aurka eLikazaia uste izanik, esan eban: Irakastera etorriko naz irakak jausi arte. Eta urrengo egunean asarre aundiagoaz etorri zan eta esan eban: Frakak jasten ba'jataz he etorri egingo naz. Oso zar-zalea zan. naizta bi))aketa-lanean argia ta zeatza izan. Berak ziurtatu bearreko gai bi ziran Santiago Español'a etoni zala, Klabijo'ri zaldi gaiñean agertu zala, eta Andra Maria bizi zala Zaragoza'ra elorri zala. Ikastaldietan garrantzi aundia eukiten eban baleak lur-arte edo Mediterraneo itxasoan ba-dagozela baieztatzeak eta guk be zirikatu egiten gendun izparringietan orrelako barriren bat agertzen zanean: onegaitik edo orregaitik. ikastaldirik geienak ezer egin barik igaroten genduzan eta guk ez gendun bearren dan arloan, Biblia-arloan. ezer ikasi. Gauza on bat eukan: Iñori ez eutsola "suspensio"rik emoten. Gastelerazko atsotitzak, erreirauak azaltzen ona zan, gatz berizia eukan onetarako.

Eleiz legedia irakasteko asierea Beitia'tar Eugenio'k emon eban, gero Santander'ek gotzain izango zanak. baiña egun baten baiño ez zan etorri eta auxe esan euskun: Nik lan asko daukat baiña etorriko najatzue eta labtir-labur auxe azakkiko dautzuet: Gizarte oso batek eskubide osoak daukaz, Eleizea gizaite osoa da, Eleizeak eskubide osoak daukaz. Baiña urrengo egLinean samintasun aundiz agertu euskun ezin etorri izango

zala irakastera eta guztiz ona dan lege-zale bat etorriko jakula. Sodupe jauna. Guztiz ona da, esan euskun. eta neugaz bestean ondo geratzen zaree.

Irakasleen artean Ansorena'tar Jose Luis ezin itzi aitatu barik. Zentzun aundikoa, ezitzaile ona. Eta zelan ez aitatu Zunzunegi'tar Jose, eleizearen edestia irakatsi eukuna, bere abotsa beti-bardiña zan, ordua bazkal-ostekoa, lo egiteko egokia. Baiña ondo irakasten eban edestia. Egia esan, liburua dana ez gendun ikusten, baiña artzen ebazan zatiak, esaterako arianikeria, oso ondo.

Irakastaldietatik kanpora, akademiak egiten eben lan aundi bat, batez be misi-noetarakoak eta Katoliko Ekintzarenak. Baiña or aukeratu batzuk baiño ez zirala sartzen ikusirik, iraultza-antzeko bat egin bear izan zan naizta arrokeriak eraginda jokutzen genduaia eta apaia izan bear garala entzun bein eta barriro.

Gizarte-arazoetarako be talde bat sortu zan, gure Galdos' tar Gregorio aurrean zala. Ekintza edeiTak burutu ziran, esaterako Robirosa'k emon eus.kun berbaldia. "Yunque" eritxon aldizkari bat argitaratzen eben.

Beste aldizkari batzuk be argitaratzen ziran, esaterako misini-akademia'ren kontura "Possumus" aldizkaria. Otako aidizkarietan iñoz idatzi neban.

Liburutegira be sairitan joaten nintzan eta Kristo'ren Gorputz eskutuari buruz fitxategi ona batu neban, eleizako gurasoen liburuetatik. Zori txarrez Fruniz'en bizi nintzan etxearen kamaran geratu zan eta oraintsu bota dabe. Ez daust ezertarako balio izan fitxak betekeran ikasi nebana ikasteko izan ezik.

Ez noa amaitzen, ez litzake gauza zuzena izango, irakasle bi gogoratu barik. liturji-irakasiak. Bata Oñatibia'tar lñaki, oso ona, Odo Kassel'en irakatsiak, orduan. argi ta garbi, azaidu euskuzana, baita Guraso-iztia edo patrolojia be. Eta beste bat Bilbao Aristegi'tar Pabto. Onen liturjia ez zan besterik izaten mezako oi-kuneak edo ritoak irakastea baiño. Gizon ona ta berezia gure D. Pabio.

Aldi onetan asko sendotu zan ikaskideen arteko adiskidelasuna eta emen askoren izenak agertu nai neukez, baiña izango da orretarako beste toki egokiren bat.

Por fin el año 1947 llegamos a la teología, bastante maduros y esperanzados, era la ultima etapa, tratamos de temas mas nuestros, tendrfamos nuevos superiores y educadores.

Recordamos con añoranza al Rector, serio y equilibrado, D. Felipe Ugalde, aJ Vicerrector, detallista y bondadoso, D. Juan Martín Irulegi, al Director Espiritual D. Joaquin Goikoetxeaundia, al brillante y no siempre profundo profesor de Deo Uno et Trino, de Deo Creante et Elevante, sin que llegamos a dar los novisimos, D. Jose M^a Cirarda, al profesor lector en De sacramentis y De Verbo Incarnato, D. Placido Intxaurreaga, a los dos profesores de Moral, D. Felipe Ugalde y D. Antonio Ormazabal, al gran D. Julian Cantera, que nos dejo vacios de Biblia, a los de Derecho Canonico, D. Eugenio Beitia y Profesor Sodupe, A. D. Jose Luis Ansorena y a D. Jose Zunzunegi.



Joten J. M^a Setien olimpiada-1950



Zuzendaria zuzia iziotuten aurrean J.
M^a Setien olimpiada-1950



Ikaskideak ibilaldia: Olimpiada.



Ikaskideak Aizgorri gainean



Ikaskideak ibilaldia



Urdanpilleta, Martinez, Telletxea.
(Ikasbideen batzarra 1997)



Ikaskideen futbol taldea-1947

Ademas de las clases estaban las academias, la de Misiones y la de Accion Catolica y el movimiento obrero que publicaba la revista "Yunque" y en el que tuvo tanta influencia mi amigo Gregorio Galdos. La academia misional publicaba la revista "Possumus" en la que fui a veces colaborador.

Especialmente hacia el final me aficiono mucho a la biblioteca y prepare un fichero muy bueno con citas de los Santo Padres sobre el Cuerpo Místico, siguiendo esquemas del P. Tromp. Este fichero lo deje en el desvan de Fmniz y recientemente ha desaparecido.

Quizá podia hablar aqui sobre mis compañeros de curso, pero creo que habra mejor oportunidad para ello.



Primeros misioneros de los Rios. Con Mons Carmelo Ballester.



J. Ma Setien bola jaurtitzen olimpiada-1950



Abade egin giñan ikaskideak.

XII ATALA: UDAKO TA NEGUKO OPORRALDIAK.

Ikasketak egiten ibilli giñan aldi aretan, amabi urteetan, beti izan genduzan oporraldiak, udan iru iliebeta eta neguan amabost egun.

Oporraldi oneitan etxean izaten ziran arazo batzuk: Lan asko egoan eta laguntza bear izaten eben. Goizetan egiten nebazan lan batzuk. baiña arratsaldeetan beti joaten nintzan errira. ez zan inoz gaba eldu ni etxean nintzala. Egunero birrilan joaten nintzan ba eleizaldera, goizean mezara ta arratsaldean neure Jagunakana.

Goizean meza-aurretik gogartea egiten neban beti, gitxienez orduerdi eta gero mezea erasoten neutsan D. Kristobal'eri. Meza ostean abade oneri etxerantza laguntzen neutson, bide batez neukan eta. Arratsalde erdian barriro joaten nintzan eleizara eta ordubete inguruko otoitzaldia egiten neban lenengo eta gero jolas-aldia legunakaz. Lagunak. alde batetik. abadeak ziran. D. Kristobal eta D. Gregorio. baiña oneik ez eben asti aundirik eukiten gugaz egoteko. Orregaitik ordurik geienak Alonso ta Ariño'tar Sabin'egaz eta Bengoetxea'tar Karlos'egaz igaroten nebazan. Batzutan Fika'tik Oarreko Uriarte'tar Patri be etorten zan.

Esan dagidan nor zan Alonso ta Ariño'tar Sabin. Guda sortu zanean, Etxebarri baserrira iru anai elorriotar etorri ziran, ostenduta egoteko antza. Beste biak joan ziranean, Sabin geratu zan baserri orretan. Sabin mutil ajaia zan, eres-zaJea eta parrokiari organulari-lana egiten eban. ardaudenda bat ipiñi eban guk guda-aurrean eskolea euki gendun tokian bertan eta ementxe, ardaudenda onetan, izaten ziran gure jolas-aldiak. Gero Sabin'ek erlojerutza ikasi eban korreoz, Fika'ko abadearen arrebea zan Goikoelxea'tar Klara'gaz eskondu zan eta abadeagaz batera biak joan ziran Elorrio'ra an bizi izateko. Arrezkero noizean bein ikusi dot, ez sarritan.

Egunero alkartzen gintzazan ba ardaudenda aretan. Ez zan erosle askorik etorten eta nasai egoten giñan. Kaita-jokoa izaten zan gure jolasik gurena, musean, tutean eta briskan jokatzeko gendun. Egun bereizi batzutan, FikaTco abade-etxera joandajuJepean be jokatzeko gendun, dirutxua, ez asko, maian genduaJa. Eta bitarteetan solas-aldi ta alkar-izketa luzeak. Sabin'ekemon eustan irakuitzeko gure lenengo Lendakariaren "De Gemika a Nueva York pasando por Berlin" liburua. Poz-pozik iruntzi neban liburu ori. Baiña gure alkarizketak ez ziran inoz be politika-arlorra sartzen.

Gabean ez gendun inoz etxerako arin-bearrik eukiten. Sarritan. batez be udaldiak. bide-ertzean jesarrita egoten giñan gabeko amabiak arte. Gure ama ona etxean ogera barik egoten zan itxaroten. Nik beti esaten neutson aparta itzi eta ogera joateko baiña ez neban lortu.

Udan, batez be, ibillaldiak be egiten genduzan, Mungia-inguruko abadegai batzuz kaz alkartuta. Batzutan Sollube'ra. edo Jata'ra. edo Bizkargi'ra edo Gamiz-mendira. Txirrindulari lez. geure bizikletakaz be egiten genduzan ibillaldiak, batez be Gemika. Berraeo ta Sollube inguruan. Gure bizikletak zarrak eta txanak ziran eta sarritan ibiltzen giñan ibillaldiak amaitu-eziñik. Itxasora be iñoz joaten giñan : Bakio'ra, gero nuklearra egiteko zapuztu zan Basorda'ra, Plentzia'ra, Laida'ra, eta abar. Olako ibillaidietarako Jatabe'n abade egoan Iraolaiar Eusebio alkartzen jakun azkenerantza. baiña beste leku baten aitatuko dot abade au zabalago.

Olako ibillaldiak ez ziran asko izaten, batez be jatekoa eroan bear genduanean. Amak ez eban gogo aundirik eukiten ibillaidietarako janariak gertatzeko. Baiña egunak luzeak ziran lez, arratsaldea beste barik naikoa izaten zan ibillaldiak egiteko. Egun osokoak be ainbat egin genduzan.

Todos los años tenfamos tres meses de vacaciones en verano y quince di'as por Navidad.

Aunque, especialmente en verano, habia trabajo en casa, yo nunca dejaba de acudir a misa por la mañana y a la visita al Sagrario por la tarde. En alguna epoca en que los padres estuvieron solos trabajé mas en casa,

A la mañana siempre mas de media hora de meditacidn. Aili estaba tambien en la iglesia el Parroco D. Cristobal. Y a la tarde una hora de visita-meditacidn. Y despues nuestras diversiones.

Para nuestros juegos nos encontrabamos siempre Sabino Alonso Ariño, Carlos Bengoetxea Goitia (seminarista) y, a veces, nos venia de Fika Patricio Uriarte Mugarra (seminarista). Sabino Alonso era un buen joven que vino con sus dos hermanos al casen'o Etxebarri. Los dos hermanos se fueron pero ei se quedd. Hacia de organista en la parroquia, teni'a un almacen para venta de vino al por mayor, aprendio el oficio de relojero por correspondencia y se caso con la hermana del Cura de Fika, D. Daniel Goikoetxea. Por fin todos fueron a vivir a Elorrio de donde habian venido los tres hermanos refugiados... Murio recientemente.

Diariamente nos reunfamos para jugar a cartas (mus, tute, brisca) y alguna vez en la casa del Cura de Fika jugamos al julepe, con dinero en la mesa, no mucbo. Sabin me dio para leer el libro "De Gernika a Nueva Yok pasando por Berlin" de Agirre. Lo devore con fruicion.

Tambien haci'amos excursiones, al Solltibe, al Jata, al Bizkargi, al Oiz, y otros dias en bicicleta en torno al Sollube.

Opor-aldietan erriko abadearen ardurapean: gengozan eta azkenean onek emolen ebazan seminariora gure opor-aldiko jokabidearen barriak.

Nire lagunikaundiena. batez be aldi oneitan, Bengoetxea'tar Karlos zan eta bere etxean be etxeko lez artuak izaten giñan. Karlos adiskjidea lenengo Araba'ko Musitu'ra joan zan. Etxetik urrin. Orduan oraindiño eleizbarrutia zalitu barik egoan. Baiña azkenerako Mungia'ra etorri jakun txanburu lez. Urte batzuk, lau-edo, emen egin ondoren, naikoa gazte zala. il egin zan. gaiso txar batek eroan euskun.

Amabi urte areitan erriko abadeak Oñarte-Etxebarria'tar Kristobal eta Larrea'tar Gregorio izan ziran. Iru urte egin ebazan oneikaz batera Lamikiz'tar Jualian'ek.

D. Kristobal izan da nire bizitzan laguntzaillerik onena, eskuzabala, gogo-bizitza sakonekoa, ondo orekatua. Bere etxean sukaldari zan Garrogerrika-etxebarrria'tar M^a Jesus, Arbazegi'tarra, andera ona ta serbitzaillea.

D. Kristobal oso arduratsua zan bere burua zaintzen, baiña azkenean bide zabaj baten. Artebakarra-barrenean, motonetik jausita il zan Basurto'ko gaiso-etxean. Bere ondoan egon nintzan gau osoan eta neuk emon neutsan Gurrupide Gotzaiña'ri ezbear onen barria. Bizi zaia uste eban askok ez zala maitekorra, baiña il zanean askok egin eutson negar eta iUerriko eleizatxuaren erdian illobiratu eben. Eskerrak berari emon eustan laguntzagaitik!

D. Gregorio borondate oneko gizona zan, ez buruz argia, ez orekatua, eta erriak maite eban. bear ba'da gizajoa zalako. Ikasketa-aldiko amabi urteetan izan neban lagun eta domeketan beti izaten gendun jolas-lagun , Fika'ra joaten giñanean naiz Gamiz'en bertan.

D. Julian lagun aundia neban, baiña egunik geienak Gamiz'tik kanpoan egiten ebazan eta laster eskatu eban urtetea, Berriz'era joateko. Izan be zertarako 800 biztanle eukazan errian iru abade!



Bengoetxea 'tar Carlos adiskidea.



D, Kristobal (erdian), D. Gregorio ta Neu.

XIII ATALA: FEDEA TA SEMINARIOA: ELDUTASUNERANTZ,
OTOITZA LAGUN, MEZAK, BESPERRAK, GOGO-JARDUNAK,
POZA TA ITXAROPENA.

Abade-ikastegian igarotako urteak begiratu ondoren, gauza egokia dala usien dot, otoitzari begirakada bereizi bat egitea.

Otoitz egiten. zalantza barik, ume-umetan asi giñan. ama irakasle dogula. baiña une batzuk doguz gogoangarriak. Gure abadeak agozko otoitza egiten eben geien. Edozein unetan ikusten genduzan, Ameta'ko Arrien'dar Juan esaterako, eleizan belunikatu eta espanai eraginez otoitz egiten, baiña nik beti uste izan dot gogozko otoitza ez euskuela irakatsi larregi. Ez nago ain ziur, esate baterako gogoan daukat bariku guren baten arratsaldeko iruretan, Jesus il zan ordu berean etxean belaunikaturik egin neban otoitz alditxua. Ikastegira joan baiña lenago izan bear. Bariku Gurenez bein be etxera etorri ez giñalako. Orrek esan nai dau ume-umetan be gogozko otoitza egiten zerbait ba-genkiala.

Baiña adimena argituz doan neurrian otoitzean be aurrera egiten da eta otoitz-aldietan Jaungoikoa aurrez-aurre agertzen da, era eskutu baten.

Bergara'n egiten genduan goizeko otoitza ta gabekoa ez ziran egokiak umeentzat. Gogoratu onein (ako itzak: Preludio 1º, preludio 2º. reglas de urbanidad y buena crianza... Baiña urterik urtera otoitz bidean aurrera egin gendun eta gure ikasle-bizitzan egun eta une gogongarriak dira. Esaterako epaillaren 25'ean. 1948n. urte inguruan, Grignon de Montfort'en "Esclavitud Mariana" irakurrita egindako otoitz-aldia edo Garizuman, eguen arratsaldeko ordn astitsuetan kurutxe-bidea egitean. amabigarren egotaldian. misioetara joateko berbea emon nebanekoa edo abadegin-tza-aurreko egunetako otoitz-aldi beroak.

Misioetara joatea aitatu dodan ezkerero, ezin itzi zeaztu barik arazo au. Nik berba ori emonda neukan eta abade-egin eta irugarren urtean bete nai izan neban, nor-joan asko ez dagoaia entzun nebalako. Elosu'n izan zan, Larrabe'tar Luis. gaur Madrid'en Lurraldeko Gotzain Ordezkari danak esan eustan ori eta ni eskiñi Zunzunegi'tar Jose'ri. Etxera joan eta aitari ta amari esan be bai, baiña oneik oso txarto artu eben. Alkar-izketa amaitu genduan eta ogerantza joiala aitak esan eustan: Ameriketara joateko asmo ori aurrera ba daroazu, ez sartn gejago etxe onetara. Goizean goizetik agur egin neutsen eta barriro *esan* eustazan aitak berba orreik. Ubi-dea'rantza autobusean niñoala, Valdes'tar Julio musikalaria ta abade santua joian nire ondoan eta onen eritxia eskatu neban nire illunaldi aretan eta "oraingoz asmo ori alde batera izteko eta gurasoen guraria beteteko" izan zan bere aolkua. Or amaitu zan nire misiolari-deiari erantzuna emotea.

Baiña goazen barrero lengo arira. Otoitz-arlo onetan raezeak izan dau zer-ikusia aundia: asieran bete-bearreko oikune bat baiña asko geiago ez zan, gero mezatan erakurten zan biblia zatiak geiago esaten euskuen, gero kristiñau-aJkaileagazko zer-ikusia eskuratu gendun eta abadetzara eldu giñanerako sakontasun aundiaz begirutzen gendun inezea. Gaur be orrelantxe da.

Beste otoitz-aldi bat besperak ziran: Domeka-aratsaldeetan, seiretan, abesten genduzan eta sarritan gogaikarri jakuzan, baiña iganderik igandera liturji-otoitzera sartzen irakatsi euskuen. Olako otoitzari buruz ikastaro eder bat emou euskuen Montserrat'eko beneditarrak: Franquesa, Pujol.

Otoitzean sakontzeko beste egun egoki batzuk gogo-jardunak ziran. Egia esan lenengo astea esaten jakonean, geiegi estutzen eben zuzendariak pekatuaren gaia, baiña dana bateratu ezkeru (isiltasuna. itzaldiak, irakurketak. autortza...) egun orreit-an asko sakontzen zan otoitz giroa. Zuzentzaileen artean gogoratu daiguzan Goi-koetxea Anastasio Sestao'ko abadea, Aldabalde. Ramon Etxebarria oraintsu il dana, Angel Morta Madrid'eko Gotzain Laguntzaille izatera eldu zana. Santos Begiristain. Jose Gurrutxaga eta abar. Gogo-jardunak ondoren onak itzi dabez gure bizitzar-ako, baiña gaur neuk bakarrik egin gurago izaten dot eta aste pozgarria, bete-betea, izaten da. naiz etxean egin naiz santutegi batera joan orretarako.

Otoitz-bizitza au bizitza guztiko lagun dogu. Gisasola'tar Maximo'k esaten euskun barruko bizitza ori suaren antzekoa dala eta txikia izan ezkeru aizeak amatau egiten dauala, aundia izan ezkeru, ostera, aundiago egin. Gaurko bizikereak ez dau laketzen ain otoitz-aldi luzeak egiterik, baiña goizean Jaungoikoaren aurrean biotza zabaltzea eta gabean eguna aztertu eta leioak ixtea, egokia da. Olako laguntzakaz eta artzain-laneko ekintzak otoitzagaz batera doazela, ez dago arriskurik guztiok bearrezkoa dogun *otoitz-giroari* eusteko. Otoitzak emoten dausku poza, otoitzak sendotzen dau gure itxaropena, beti, eta batez urteak joan diralako bizitzearen sartalderantza goazenontzat.

Eta fedearen aurrerapena gogoan dodala, azterketa labur bat egingo dot: lkasle-aldiko eta geroagoko gure fedea ta otoitza beroak eta loratsuak ziran, udabarriko zugatzen antzera, baiña aspaldion izan diran erasoak, argitu-bearreak eta iñausketak izan diralako, gure fedea atx bizi baten antzera eta neguan orririk ez lorarik ez daukan zugatz baten antzera geratu da. Zein dan ohea? Bakoitxarentzat berea. Fedea-gaz nastean mitoak sinistea batzuk ezin dabe onartu, fede legor eta bizi au beste batzuk ez dabe nai. Tzi daigun arazoa bakoitzaren ardurapean, eta azkenean Jaungoiko Aita guztiz onak guztiok artuko gaitu bere zeru barri eta lur barrian. Gogo onagaz eta barru garbiagaz beteten ba'dogu gure lurreko ekiñaldia, dana geratzen da etorkizunerako Aren eskuetan.

Al terminar el recorrido de estos años de seminario me parece conveniente mirar un poco al recorrido de nuestra oracion y de nuestra fe. Ambas cosas van mas o menos unidas.

A veces suelo pensar que nuestros educadores de la primera infancia daban valor solamente a la oracion vocal. Recuerdo la figura de D. Juan Arrien, cura de Arrieta, que nada mas entrar a una iglesia, empezaba a mover los labios para rezar, quizá una estacida al Santisimo. Sin embargo recuerdo que un dia de Viernes Santo a las tres de la tarde hice una oracion breve en casa, oracion que no fue vocal. Tuvo que ser antes de ir al Seminario, porque por esas fechas nunca tuvimos vacaciones. Eso quiere decir que haciamos algo mas que oracion vocal. Y es que la oracion no tiene mucho sentido si no va unida a la apertura ante Dios.

El progreso en la vida de oracion va viuculado a la formacion intelectual, pero, ciertamente, la oracion que de niños practicabamos en Bergara no era adecuada. Algo nos recuerdan estas palabras: Prejudicio 1º, preludio 2º y estas otras que recuerdan el examen de la noche: reglas de urbanidad y buena crianza.

En la vida de oracion hay momentos inolvidables, como aquel 25 de marzo, probablemente del ayo 1948, cuando, despues de leer la Esclavitud Mariana de Grignon de Montfort estuve sin prisas ante Maria nuestra Madre celestial, o aquel otro momento en que, despues de leer o quizá leyendo El alma de todo apostolado de Chautard hice una oracion muy especial o aquellos largos Via Crucis en los que me detenia especialmente en la XII estacion, Ilegando a nn proposito firme de dedicarme a las misiones.

Una vez mentada esta "vocacion-misionera" no puedo menos de narrar lo ocurrido. Debio de ser el año 1953 cuando mi amigo Luis Larrabe, hoy vicario territorial en Madrid, me dijo que escaseaban las vocaciones para Los Rios. Eso fue suficiente para que hablara con D. Jose Zunzunegi, que acepto con gozo mi oferta para ir a misiones. Luego hable con mis padres que me escucharon muy serios y cuando mi padre se retiro me dijo: "Si piensas ir a America, no entraras mas en esta casa". A la mañana me repitio lo mismo. De vuelta a Ubidea, encuentre en el autobus a D. Julio Valdes que me aconsejo dejar el proyecto.

Asi ha ido avanzando nuestra fe, hoy en roca viva, sin flores, pero con esperanza en la ancianidad.

XIV ATALA: ERRIGINTZA (POLITKA) TA SEMINARIOA:
ETXEKOAK, MUXIKA GOTZAIÑA BAZTERTUA,
LAUZURIKA GOTZAIÑA NAGUSI, IKASTEGIKO GIROA,
BARRU-MIÑA, BURRUKAK.

Errigintza edo politika itz zabala da eta esangura ezberdinez agertzen da sarritan. Atal onen aurrean, asieran, garbi itzi gura neuke zer ulertzen dodan itz au artzen dodanean. Errigintza ez da norberaren erria maitatzea, ez da errien eskubideak zaintzea. Politika ez da besterik erria bere eskubideen jabe danean, zelan jaurri edo gobernatu bear dan ebatzea baiño. Abertzale izatea ez da politika, ez da errigintza, guztion eginbear bat baiño: errigintzako alderdi guztiak maitatu bear dabe aberria, abertzaieak izan bear dabe. Gure erria zelan jaurri, gobernatu, bear dan diñogunean. orduan gagoz politikan sartuta: naiz araudiaren bidea, naiz España'gaz, naiz Frantzia'gaz naiz askatasun osoa bide daia, ori politika da, errigintza da. Euskereari indarra emotea, emengo oiturak aurrera ateratea, emengo ekonomia indartzea, gure edestia azaltzea, gure iuteiestia agertzea, ori ez da politika.

Dana dala, politikak eta erri-zaletasunak barru-min aundi bat sortzen dabe eta errez izaten dira eztabaidarako, gudarako eta asarretarako bidea.

Gure sendian arazo au beti izan da "tabu" edo galazotako gaia. Ez da iñoz aiatu, gitxiago azertu, arazo au. Sendia arlo onetan nondik nora ebillen jakiteko ez daukagu ba, susmoen bidea baiño besterik. Uribarri'tarrak edo amaren aldekoak karlostarrak izan dirala dirudi eta karlostarren gudetan etxeko ondasunak galdu be egin ebezan guda orrean zorrak bardintzeko. Eta bide bardiñetik joiazela dirudi Abio'tarrak edo Markaida'ko Bengoetxe'tik etorriak. Baiña karlista edo karlostarra izatea ez zan orduan, gaur jazoten dan lez, euskaldunen aurka egotea. Orduan euskaldunik onenak karlostarrak ziran eta euskaldunen arerioak liberalak. Nik uste dot aitaren aldekoak liberalak ziraJa: Dana dala, Franco'ren gudarako bat egin eben Kariistak eta liberalak eta arrezkero ez dira geiegi bereizten.

Eta Karlistarik geienak, Arana'tar Sabin'ek abertzaletasuna aldarrikatu ebanean, abertzale biurtu ziran, ez asieran baiña bai urteen joanean. Gure auiTetikoen artean ez dot nik iñon be susmatu abertzale-usaiñik. Ez aitzu gaia "tabu" zala sendian.

Dana dala, eta ez dakit nondik etorrira, nik beti zomau dot barruan abertzaietasun aundi bat, barru-min aundi bat gure erriari begira, erriaren nortasuna aldarrikatzen dauan barru-miña.

Abade-ikastegira joan-aurretik barru-min ori ba-zan, baiña ez zan agertzen. Eta ikastegian, seminarioan zer? Urteetan ez neban ezer ikusi ez entzun arazo oneri buruz. Esaterako, urte areitan gure gotzaiña Muxika'tar Mateo zan eta onen orde zegoan Lauzurika Apostolu-zaintzaiUea, baiña guri sekula ez jakun aiatu be egin

geure benetako gotzaiñaren izenik. ez jakun esan erbestean egoanik. ezjakun azaldu Lauzurika zergaitik zan Apostolu Zaintzaillea. Kanbo'n bizi ei zan Muxika'tar Mateo gure gotzaina eta ez zan gure artera iñoz be agertu. Lauzurika joan eta Ballester'tar Karmelo etorri arte. Gero esan euskuen. askoz geroago, Muxika Gotzaifia Zarautz'era etorri zanean, Ballester gotzaiña joan jakola ikustaldia egitera eta Mateo jaunak bere gelan eta belauniko artu ebalu. Karmelo jauna be belaukatu egin zaJa eta berba oneik esan entsozala: Gotzain anai Jez eta martir lez besarkatzen zaitut. Abade eginda gero urte batzuk igarota joan ninlzan Muxika'tar Mateo ikustatzera, Zarautz'era eta ondo artu ginduzan. Ez dakit orduan baiña bai aldi baten Nafarrate'tar Benito ikaskidea izan zan bere laguntzaille.

Lauzurika'tar Xabier osteru jaun eta jabe Jez agertzen zan. Beste toki baten izangodogu aukerea gotzain onen nortasuna azaltzeko.

Ikastegiko giroa arJo onetan garbia, aseptikoa, zan. Bele bear ziran aginduak bete eta politika-arazoa aitatu be ez. geiago, EuskaJerria ta euskerea ailatu be ez. Aginduak bete esan dogu: Gure agiriko ekintza guztietan aurrean geunkan España'ko bandei*ea baiña iñori edo iñon aurkitzen ba'jakon ikurriñik. ori ikastegitik etxera bialtzeko zioa zan. Sekula ez gendun entzun berbatxu bat euskeraz. Opor-aldira etxera erlorteko egunaren goizean urtero abesten zan "Agur Jesus'en ama" baiña nok asten eban be jakin barik.

Eta ixilpean? Zeozertxu bai. Esan dogu udan "De Gernika a Nueva York pasando por Berlin" Agirre'ren liburua irakurtenko aukera izan nebalu. Eta seminarioan bertan be irakurri al izan neban Muxika'tar Mateo gotzaiñaren "Imperativos de mi conciencia" eta zirrara aundia egin eustan agiri onek. Uste dot Nafarrate'tar Benito ikaskideak emon eustala irakurteko. Abade arduradunak ori jakin izan ba eben. etxera bialtzeko zioa izango zan. Oii zan gure giroa Tkastegian. baiña abertzaletasuna geroago la beroagoa zan gugan. geuk nondik etorren be jakin barik. Ikaskideen artean ez genkian nor nondjk ebillen. susmoak baiño ez. Eta irakasleen artean gauza batzuk argi egozan. esaterako kanlera ta Zirarda ez ziran alde batekoak eta jarraitzaileak be ba'ebezan erdi-ixillean.

Abertzaletasuna oso bidezkoa ta zillegia da, bearrezkoa be bai. baiña geroko bizitzan, abade-bizitzam eragin aundia izango dau baiTU-mjn onek. batez be Gurpide'tar Pabio gotzaiñaren antzekoak. su au amatau gurean ibillila biziago biurtzen ebenean. Tdazlen nagoan edesti apal onetan zer-ikusi aundia izango dau arazo onek, gauzak nastatu egiten diralako. bidezkoak diran gauzai bidea zabalik izten ez jakelako. Eleizan naiz errian aiduradun cliranak itsutu egiten diralako, guda bat bitarte izan danean, odoi-berotasun aundia sortzen daiako. Bajña Tkastegiari buruz, ona emen Franeo'i'en eta Ballester'tar Kaxmelo'ren arlean izandako alkar-izketa bat: Gotzain Jauna!, Gasteiz'ko abadeikastegian politika-lana egiten ei da! Eta gotzaiñak: -Abade ikastegian ez da egiten politika-lanik, ori ziur dakit, baiña bai egiten da abadegaiak etiren zeregiñerako gertazeko lan aundi bat. Ori orrelan zan.

Antes de entrar a hablar del problema político permitaseme discernir. Para mi política es el arte de gobernar los pueblos, pero no es política el amor al pueblo. en nuestro caso al Pueblo Vasco, la defensa de sus derechos y el fomento de su lengua, cultura y demás.

Este discernimiento es fácil en sí, pero luego, cuando llega la realidad, fácilmente se mezclan las cosas.

En mi familia era un tema tabú. Nunca se ha hablado de él. No nos queda otro remedio que guiarnos por sospechas. La familia de mi madre, desde distintas ramas, era carlista. *Incluso* Uribarri, ya casa, perdió *sus ahorros por contribuir* a las guerras carlistas. Por parte del padre veo más bien como una tendencia al liberalismo. Baltzak eta zuriak se llamaba entonces a estas dos tendencias, El mismo tabú tuvo vigencia en el seminario. Estábamos ante hechos dolorosos y sangrantes como el destierro de nuestro obispo D. Mateo Mugica, pero ante nosotros siempre aparecía como único obispo D. Javier Lauzurika y nunca se nos dijo lo que significaba ser Administrador Apostólico. Y cuando fue el cambio, con la dimisión de D. Mateo y el nombramiento de D. Carmelo, nada se nos dijo. Ya digo, todo eso era tabú.

El ambiente del seminario era totalmente aseptico: Cumplir todas las normas existentes, desde la bandera que teníamos delante en actos públicos hasta la vergonzante oración por España, que se nos leía diariamente. Nada de euskera, nada de bailes regionales, nada de historia de nuestro pueblo. Nada de nada.

Sin embargo, llevábamos dentro el amor a nuestro Pueblo como fuego sagrado. ¿De donde venía? ¿Quién lo azuzaba? Muy difícil saberlo. Tampoco había propaganda secreta. Solo recuerdo la impresión que me hizo el leer Los imperativos de mi conciencia de D. Mateo que me facilitó mi amigo Benito Nafarrate. Antes he hablado de la fruición con que leí De Gernika a Nueva York de Agirre facilitado por mi amigo Sabin Alonso. Poca chispa para tan gran incendio.

XV ATALA: ABADETZARA: MAILLA TXIKIAK,
BE-DIAKONOTZAKO URRATSA, ELEIZBARRUTIA
ZATITZEN, BALLESTER ETA MORZILLO GOTZAIÑAK,
ABADEGINTZA BEGOÑA'N, MEZABARRIA GAMIZT;N.

Abade-ikasketak eta aunditzat geunkan elburu onetarako gerlakuntza azkenerantz joian. Elburu ori urrean egotearen ezaugarri ziran artu genduzan mailla txikiak: Ule-ebagitea edo tonsura egin ondoren. buru-buruan ule-ebagiaren ezaugarri zan koroitxua geroela, urreratu giñan mailla txikietara: Atezaintza, irakudetza, txerren-uxaletza, akolitutza. Mailla txiki oneik misinoetako Gotzain batek emon euskuzan, gure Gotzaiña zan Karmelo Baliester Nieto erdi-gaisorik ebillaiako. Ille batzuk geroago Be-diakonutza artu gendun. Seminario'ko eleizatxuan, uste dot. giputzakaz eta arabarrakaz batera, guztiz berrogeta-amar giñan eta lekaide batzuk be alkartu jakuzan.

Be-diakonutza onek ez eukan esangura aundirik, baiña beste alde batetik etorren beronen garrantzia. Gotzaiñak, misinoetakoren bat izan zala uste dot. itaun au egin euskun: Betirako ezkongejarraitzeko gertu gengoan. "Castitatem servare oportebit" esan euskun eta jarraian orretarako gertu gengoan ukurratsa aurrera emoteko eskatu eban. Pozik ela adoretzu emon genduan urrats ori.

Eta egia esan bear dot, arlo orretan ez dot sekuta arazorik izan. Gaur, orregaitiño, naiago izango neuke ezkongaitza iraunkor ori eta abadetaza bananduta ba'legoz. Baiña ori goikoen eskuetan dago eta ez da ikusten oraingoz olakorik jazoko danik, naizta mi I lak eta millak izan arazo onegaitik abadetza izten daben abade ta lekaimeak.

Guk urratsa gogotsu emon gendun eta gogotsu jarraitu dogu bide orretan, agertu diran arazo txikiak errez baztertuta.

Be-diakono giñala barri garrantzitsu bat zabaldu zan: Gasteiz'ko Eleizbarrutia iru zati egiten ebela eta aurrerantzean Bizkaia'k eta Gipuzkoa'k euren gotzaiña ta abade-ikastegia izango ebezala.

Zatitze au bearrezko lez ikusten zan artzain-lanari begira, baiña arabarrak ez eben onartu. barru-barruraino mindu ziran, Bizkaiatarrak eta giputzak, ostera, poz-pozik ikusten ziran. Eta ori ez ikasleen maillan beste barik. irakasleak be oso bananduta egozan. Esate baterako, Tntxaurraga'tar Plazido oso asarre agertzen zan, Zirarda'tar Jose M^a askoz pozago, eta oian beste batzuk.

Esan dogu artzain-lanari begira zatitze ori egoki lez ikusten zala, baiña emen beste galdera edo itaun bat da egin-bearrekoa: Nok eta zergaitik eskatu eban zatitze ori?

Politiku Franco'tarren eskaria zan eta Baltester'tar Karmelo gotzaiña orretarako bialdu eben Gasteiz'era.

Gasteiz'ko agintariak ostera aurka egozan Araba'k zatitze orregaz galtzaite urte-ten ebalako.

Zergaitik nai eben zatitze ori poiitikariak? Ba, Abade-Ikastegia, Seminarjo. zatitzeko nai eben zatitze ori politikariak. Ba, abade ikastegia. Seminarioa, zatitzea nai ebalako edo, bardin dana, iru eskualdetako euskaldunak alkartuta eta indartsu ikusterik nai ez ebelako. Ori agertu eben. gaiñera. sortu ziran iru eleizbarruti barriak Goi-Gotzain biren ardurapera banatzeagaz: Bizkaia la Araba Burgos'ko Goi-Gotzaintzara sartu ebezan eta Gipuzkoa Iruña'kora.

Orrek beste edozein tokitan ez eukan garrantzirik, baiña Euskalerrian arazo bereziak egozan eta egokiago litzakean alkartuta jokatzeara. Iruña'ren menpean, baiña alkartasun ori apurtu nai izan zan eta lortu eben.

Gure eleiz-arduradunak ez eben orduan be Euskalerria aintzat artu. Baiña arazo au geroago agertuko da.

Dana dala, Eleiz-barruti euskaldunak alkartzen dira eta sarritan alkartu be. Gotzain-idazkiak be batera egiten dabez. gotzaiñak. Arlo onetan ian aundia egin dau eta egiten dau Ubieta'tar Jose Anjel adiskideak. Au ona izaten da, apurtutako leiarak konpontzen.

Eta beste a)de batetik be argi agertzen da politikarien asmoa ori zala: Etorri ziran gotzaiñen artean ez egoan euskaldunik: Araba'ra Bueno Mon'leal aragoitarra etorri zan, Gipuzkoa'ra Font Andreu kataluniarra eta Bilbao'ra Morzillo'tar Kasimiro Madril'darra.

Or agertzen dan noraiño makurtzen dan gure eleiz-arduradunen jokabidea politikari batzuren esanetara eta zelan salatzen daben politika lez euskaldunen joakabide erri-zalea, baiña arazo au obeto argituko da geroago.

Eleizbarrutia zatitu zan ezkerreko, eta gu Gasteiz'ko eleizbarrutian ardatzeko giñan iez, inkardinatuta gengoan lez, aidakuntza eskatu bear izan gendun eta Bizkailco eleizbarruti barriaren ardatzeko geratu giñan. Geu izan giñan, gaiñera, Bizkailto eleizbarrutian egin giñan ienengo abadeak. Diakonutza be Begoña'n artu gendun aurretiaz.

Eldu jakun gure ametsen elburu zan egun zoragarria, abadegintza artzeko eguna. Begoña'ko gogartetxean egin genduzan gogo-jardunak eta. 1951n. urteko bagillaren 29an, Kepa Deunaren egunez, izan giñan abade egiñak.

Egun orretan aita eta ama etorri ziran Begoña'ra: Jentetza aundia egoan eleiz-inguruan eta Gotzaiña eleizara sartu zanean, pozik artu gendun. Sasoa eldu zanean Morzillo gotzaiñak gure buru-gaiñean eskuak ipiñi ebazan, gaiñera eskua estutu *egiten* eban abadegintza baliogabea izatearen biidurragaitik-edo. Une aretan gure barruan somau genduan poza ezin agertu ezelan be. Gogoangarriak asieran entzun ziran berbak: "Accedant qui ondinandi sunt presbyterit (betoz aurrera abade egiteko diranak). Jarraian bakoitxaren izena entzun gendun, au da benetako deia, bokaziñoa. Egun areitan nire barruan ebilla burubidea otoitz labur onetan agertzen da: "Ba-dakit, Jauna, nogaz fiau nazan, baiña zuk ba'dakizu nogaz fietan zaran?".

Eta abadegintza-ostean zorionak edonondik, besarkadak batez be etxekoenak eta abar.

Mungia-inguruan iru egin giñan abade egun orretan: Fika'ko Uriarte'tar Patri-zio. ni, Gamiz'tarra, eta Fruiz'tarra zan Mallona'tar Jose Antonio. Meza barria egun berean bik egin ez dagien, iru igande aukeratu genduzan eta igande bakoitxean batek esan eban meza-barria: Nik uztaillaren lenengo egunean. uztaillaren 8an Jose Antonio'k esan ebalu uste dot eta amabostean Patrik.

Abadegintza eguna pozgarria izan zan, baiña ez gitxiago Mezabarriaren eguna.

Egun orretarako laguntzaille batzuk aukeratu bear ziran: Mezan Fika'ko Patri izango zan be-diakono, Gamiz'ko semea zan eta urte bi abade eroiazan Bengoetxea'tar Karlos diakono, Aurtenetxe'tar Frantzisko aitabitixi eta Olazar eta Murua-ga'tar Elias aita. pasiotara eta lengusua, izlari. Au Yurimaguas'ko Gotzain zala il zan. Erri-maillako aitabitxi amabitxiak Diburtzio anaia eta Bilbao'tar Maria Kar-men bere emaztea izan ziran. Toki bereizi baten egozan eleizan Aita ta ama eta Zelestino anaia. Abesteko Bilbao'ko Korral'eko zortzikote bat etorri zan, Arana'tar Modesto zuzendari zala. Ederto urten eban danak ospakizun pozgarri onetan.

Nik bazkaririkez egitea nai neban, baiña aita eta amak iñondik be ez eben nai olakorik eta bazkaria egin bear izan gendun. Beitan Gamiz'en izan zan. Benita Agi-rre'ren jatetxean. Ez dakit zenbat maikide izan giñan, irurogei inguru-edo, bai gogoan daukat zenbat ordaindu zan bazkaria: 50. 000 pezeta. Ordurako drrutza aundia.



Aita Elias lengusu pasiotarra izan zan meza barriko izlari.



Bilbao Eleizbarrutiko abadea.

German izeneko argazkari bat be ekarri eban aitabitxi zan Diburtzio nire anajak eta emen agertuko doguz argazki gogoangarri batzuk,

Meza barriaren ostean atsedeen-egun batzuk izan genduzan, baiña laster etorri zan izendapena, pozik artu genduan lenengo izendapena.

Urrengo igande bietan, Fika n eta Fruniz'en beste abade bien mezabarriak izan ziran, ikutu aundiko ospakizunak. ainbeste urteren azkenean, amets aundi lez. egin genduzan ospakizunak. Emen idazlen diardudan edesti onen erpiña auxe da, aurrerago esanak ez dira besterik gertakutza baiño eta gero agertuko diran gorabera guztiak ondorenak baiño ez dira. Egun pozgarriak eta barrumin aundikoak benetan egun oneik!

Por fin llegamos a la meta soñada, Estaba cerca nuestra ordenacion sacerdotal. Comenzamos por la tonsura que tuvo lugar en una ceremonia emotiva en la capilla del seminario y luego las ordenes menores que recibimos de un Obispo



Eskoian Karlos, ezkerrean Patri.



Uriarte`tar Patri, be-diakonoa.



Meza barriaren ostean: Aita, ama, M^a Carmen Bilbao, amabitxi, Diburtzio anaia eta onen amagiñerraba.



Mezako aintabitxi zan Aurtentxo`tar Frantzisko`gaz

misionero americano: Ostiariado, exorcistado, lectorado y acolitado. Pero fue mucho mas trascendente el subdiaconado que tambien recibimos de un Obispo distinto del nuestro, D. Carmelo Ballester, que estaba enfermo de una enfermedad que le llevaria al final de su vida, preconizado Arzobispo de Compostela.

Digo que el subdiaconado tuvo mayor trascendencia porque era e! momento de dar el paso hacia el celibato, El Sr. Obispo, previa explicacion oportuna nos dijo: "Castitatem servare oportebit" Sera preciso guardar castidad. Y si estais dispuestos a ello, acercaos. Y dimos e) paso. Un paso que no me ha traído dificultades en la vida, pero pienso que seria mejor que el celibato fuera opcional. No parece, sin embargo, facil este cambio.

Por aquellas fechas se difundió la noticia de la division de la **Diocesis** nuestra de Vitoria en tres diocesis: Vitoria, Bilbao y San Sebastian. **Reaccionamos** positivamente los vizcamos y gipuzkoanos. No asi los alaveses que eran los perdedores. La misma division de opiniones se daba en los superiores. **Recordamos**, por ejemplo, e] mal humor que produjo la noticia en **D. Placido Intxaurreaga**.

Se veía conveniente, por nuestra parte, la division, porque era una diocesis grande y diversificada, pero no convenian las razones que moviau a los solicitantes,

La meta de estos era romper la unidad de los vascos y el nacionalismo supuesto por ellos en el seminario de Vitoria. Hechos posteriores confirmaron estas sospechas fundadas: vinieron tres obispos no vascos y las tres diocesis pasaron a formar parte de dos archidiocesis distintas, lo cual supone problemas de funcionamiento pastoral que persisten hoy, a pesar de tratar de trabajar unidos en reuniones de obispos en las misiones diocesanas y demas. Realiza gran labor **D. Jose Angel Ubieta** en este campo.

Luego vinieron las grandes emociones de la ordenacion en Begoña y de las primeras misas en nuestros pueblos. Y a los pocos días a los nuevos destinos.



Eskerretik: Gregorio Larrea, Gamizko abade laguntzailea 1940-1950, Kristobal Oñarte-Etxebarria (Parrokoa), Martin Olazar (Abadea), Jesus Atela Oleaga (Abadegaia)



Meza barrian. Gorizelaia Alexander abade gaia akolito.



Aita Elias berbaldira.



Illerri barria bedeinkatzen. Martin Olazar Uribe. Casimiro Morcillo-gotzaina. Atzean: Juan Miguel Gaztelu (arzipreste). Alboan parrokoa D. Kristobal. 1952.



Illerri barria bedeinkatzen. Liburugaz, Martin Olazar Uribe. Baltzik: Francisco Aurtenetxe secretario obispado. Gotzaiña: Casimiro Morcillo Gonzalez. Alboan: Kristobal Oñarte Etxebarria. 1952.



Gamizko Illerri barria bedeinkatzen. gotzaina: Casimiro Morcillo. 1952.



Illerri barria bedeinkatzen. Ezkerretik Carlos Bengoetxea Goitia, Martin Olazar Uribe, Casimiro Morcillo (Gotzaina), Cristobal Oñarte-Etxebarria (Parrokoa).



1950. Fatimako amaren ikustaldia Gamizera.



Aita ta ama eskuan mun emoten.

XVI ATALA: UBIDEA'N: ONDARROA'RA? MORZILLO
GOTZAIÑA ENTZULE, UBLDEA'RA, ERRIA, LANGILLEAK,
URETZAREN JAKINGARRIAK, MISIÑOIA, LAGUNAK ETA
IKASLEAK, ELOSU N, LEGUTIANO

Abadegintza-eguna baiño ille batz.uk lenago, Gogo-zuzendari zan Goikoe-txeandia'tar Joakin'ek esan eustan Ondarroa'ko abadea etorri zala, Gotzaiñaren eta Tkastetxeko Zuzendariaren bidez bere parrokirako abade lagunt'zaille bat eskatzen eta nire izena emon ebalá berak. Beingoan asi nintzan ba "OndarroaTco itxas-bazterra" agurtzen eta amets egiten. baiña amets ori ez zan betetu.

Laster abade izateko gengozan guztiai banaka dei egin euskun D. Casimiro'k eta gure zaletasunak zeintzuk ziran jakin nai izan eban. Gotzain au benetan zurra zan, eta aurreratua be bai aldi aretarako. Nik benetan maite neban bere bidez abadetza artu nebalako, baiña gero gauza askotan agertu zan lez. benetan maltzurra be ba-z.an. Alkar izketa orretan njk baserrirako zaletasuna agertu neutson, nire sus-traiak be baserrian egozalako eta lan orren ametsak Olazabala'tar Julian'egaz egin genduzalako, baiña Gotzaiñak ez eutsen jaramon aundirik egin nire ametsai ta gura-riai. abade egiña izan eta laster esan eustan Ubidea'n gura niduala.

Ubidea'n ba-egoan abade bat, Etxebarria'lar Feliziano. dimostarra. eta parrokia txiki izanik berez abade bat naikoa ta lar zan. baiña erritxu orren inguruan Bizkai'ko Laba Aundiak ur-jauziak egiten ziarduen eta iru edo lau milla langille ebiltzan an. Orrein ardurea artzeko, batez be. eta parrokian be laguntzaille izaieko nai eban abade-lagun bal. berak ordaindua lan ori egiten ziarduen baltzuen laguntzaz.

Ara joan nintzan ba, ikustadia egilen lenengo eta gero, Sanliago Apostoluaren jai-aurreko egunean bertan geratzeko.

Tbargutxi'tar Jakoba emakume eleiz-zaleak artu nindun bere etxean eta antxe bizi izan nintzan iru urtetan zoriontsu. Udan Eibar'etik Julian bere nebea sendi osoagaz etonen zan. Ondo gogoan daukadaz Arrate, Aitor eta Josutxo seme alabak, baita Jenara emaztearen ama eta sarritan etorten zan San Pedro'tar Anton abade adiskidea.

Esan dagidazan, labur-labur uretza aren jakingarri batzuk.

Ubidea'tik kanpora, lan aundia dago Zeanuri'ko Undunaga'n, lurpean egin zan lan ikaragarria. iñondik agiri ez dala Tximist-ardatza edo zentrala barruan daukala,

eta Legutiano'n egin ziran bide zabal barriak, lengoak uraren azpian geratu zirala-ko eta Engarazi Deunaren urretza ta Ullibarri-Ganboa'ko alkartzen dauzan sifoaia.

Lan oneik ez egozan gure zaintzapean. Uretza bi ziran ba, bata Engarazi Deunarena, 80 milloi litrokoa eta bestea Ullibarri'koa, 140 milloi litrokoa. Ainbat erri geratu ziran ondatuta urpean, Ejosu'ko lurrik onenak be bai.

Gure zaintzapean egoana Engarazi Deunaren urtegitik Barazar'eko jauzira joian lurpeko urbidea zan, batez be. Urbide onek 12 km. daukaz luze, eta bamian makobilla, zirkunferentzia, izanik, 4'25 m.'ko ardatza edo diametroa eta inguru guztian metro-erdiko porlan-jantzia. Lurpeko Amabi km. orreitan ez dago metrarik nire oiñakaz sarritan zapaldu bakorik, eta ainbat tokitan lan apurren bat be egin neban tximist-indardun maiiluakaz, gure eleiztarren bizitzea zelakoa zan ikusteko.

Urbide orretara sartzeko zuloak egozan, amabi zulo lurgaiñetik. Batzuk ondo ezarriak ziran, batez be Osepsa baltzukoak, baiña beste batzuk, batez be "Construcciones Civiles" baltzuan oso arriskutsuak. Zortzigarren zuloa zala uste dot. eun metro Jurpera sartzeko ez eukan besterik barrikatxu bat burdiñezko soka bateri lotuta baiño, eta ertzetan zutunik jatziten gintzazan. Barrikatxu ori bira-biraka asten zanean, laguntzalleak makilla bategaz geldierazten eban.

Eta barruan giroa oso txarra zan, ezotasun aundia. autsa sarritan alkar ikusi eziñekoa, esku-lan gogorra eta abar. Milla milloi pezeta kosta ei zan orduan ur-jauzi oneik egitea, baiña oso urte gitxitan bardinduko ei eban Laba Aundiak Baltsuak eralketa ori.

Gero Bilbao aundirako ura artzen da ortik, Zeanuri'n. argi-indarra aterata gero.

Esan dogu lan orreik egiteko Ubide-inguruan iru edo lau milla langille bizi zirala. Egoera larrian, benetan. Barrakoi zikin batzutan bizi ziran, ezelako garbikuzi barik, janari eskasagaz, oge txikietan alkarren gaiñean pillatuta lez. Esaten zanez, etxe bakoitxetik txarrena urreratzen zan ara, etxeko ardi baltza.

Euskaldun gitxi egoan euren artean, geienak galiziatarrak, extremaduratarrak, murtziatarrak, andaluziatarrak eta banaka batzuk kataluniatarrak.

Azkenengo oneik batez be idaz-geletan eta ekonomatoan ezagutu nebazan, esaterako ondo gogoan daukadan Valentin Paret, Rivas de Fresel'ekoa. Joan nintzan bein ara bere errira berari ikustaldia egiten, Nuria'ra urreratu giñan baten, baiña ez neban etxean aurkitu. tamalez. Au Osepsa edo "Obras y Servicios Publicos"en egoan, Antonio Bach buru zala. eta baltzu au askoz obea zan Construcciones Civiles eritxon bestea baiño.

Domeka guztietan meza bi esaten genduzan eurentzat, bata 4n. zuloan, Arkes-to'n, eta bestea Zubizabal Zeanuri'ko auzoan, Barazar ganetik Ubide'rantza. Baiña ia iñor ez zan etorten mezatara, toki biak kontuan dirala ogeitik gora ez.

Idazgeletan egozanakaz eta Baltzu-buruakaz geunkan artu-emon geiago. Oneikaz karta-joko aldiak egiten genduzan, iñoz bazkariren bat be bai.

Ni ara elduta urtebetegarrenean-edo, misiñoi aundi bat egitea erabagi gendun, bai parrokian eta bai iangilleak bizi ziran inguruetan. Giro ona sortu zan eta entzuleak be naikoa ugari. Morzillo gotzaiñak beti esaten eban langiile oiTeik eleiz-zaleak zirala an euren errietan. Nik ez neutson iñoz sinistu.

Dana dala. misiñoien azkenengo egunerako Gazteiz'en Gotzain zan Jose Marfa Bueno Monreal'eri eta BilbaoTcoa zan Casimiro MorciJlo'ri dei egin geuntsen eta biak etorri ziran Ubidea'ra. Egun ederra izan zan.

Orduko argazki bat neukan, baiña galdu egin jatan. Ez betiko. Itxaslari zan Uriarte'tar Tomas'ek ekarri eustan Amasterdan'en aurkitu ebalata olako argazki bat, emen agertzen doguna.

Ubidea'n izan ziran jazokizunak edesten ez geunke azkenikizango, baiña batzuk gogoratu daiguzan: Bein baten etorri jatan gizon bat, berrogei urte ingurukoa, lenengo jaunartzea egin nai ebalata. Gertakuntza asi gendun eleizan, ugazaba-andreak ez eustan izten etxera olakorik eroaten. Eleizan sartu-orduko esan eustan: "Badira ogetamar bat urte oJako eleiza batera sartu nintzala. Arrituta egoan. Gertakuntza asi gendunean, ondo entzuten eban eleizea aitatu arte, baiña gai au aita-tu gendunean esan eustan: Orixe ez, ori ez dot ezelan be onartzen. Beste bide batzutatik jarraitu gendun eta esan eustan berari "santin" deritxoeJa eta lanbidez kartera-lapur zala, Madrid'en ebillala oraintxe lapurreta aundi bat gertatzen, baiña urrean egozan polizien bildurra eukela. Eta gaiñeratu eban: Esango dozu gauza oneik zelan zuri esaten dautzudazan, zu salatari izatearen biidurrik ez ete daukadan. Ez daukat bildurik. Salatzen ba'nozu, egun bateko bizirik ez daukazuta.

Ikusi neban lenengo jaunartze ori urrintxu egoala, eta alan izan be egin zan. Urrengo egunean esan eustan: Poliziak nire billa dabiltz eta Bilbao'ra joan bear dot, an eskutatzea erreza data. Ordaindu egistazu ara-arteko autobus-txartela eta an neu arduratuko naz dirua aurkitzeko. Orretan amaitu zan lenengo jaunartzea.

Beste bat be etorri zan lenengo jaunartzea egiteko, adn orretakoa, baiña bigarren eguna igaro-orduko asarre bat izan eban edatetxean ta nire katekesi-ikaslea espetxera eroan eusten.

Ubide'tik urteteko negoala beste bat etorri jatan zapatak erosteko dirua eskatzen eta esan neutsan: Zorionekoa zu, azkenengoa zaralako, biar noa erri onetatik eta zapatak erosi egingo dautzudaz, nai dozuzan langoak. Orrelantxe egin genduan eta pozik joan zan.



Ubideko laguntzaile izateko izendapena.



Misiñoi nagusian gotzainak: Casimiro Morcillo ta Jose M^a Maria Bueno Montreal. Eskuman ni, ezkerrean Feliziano Etxebarria, atzerago Isidro Ania Areatza-Villaroko arzipresteoa.

Elosun arduradun izateko izendapena Gasteiz'tik.



Lenengo jaunartze bat.



Lenengo jaunartzea.

Baiña ba-egoan beste giro bat gozoagoa, erritarrakaz nastean bizi ziran langilleena. Onein semeak eleizan mezea erasotera etorten ziran eta eurai irakastaldiak be emoten neutsezan. Geien gogoan daukadana Garcia Barba Emilio da. Oneri urte bitan emon neutsazan, besle batzukaz batera, batxillerreko irakastaldiak eta gero Gasteiz'ko erdi-maillako ikastegira eroan neban azterketak egiteko eta ondo urten eban.

Beste lagun aundi bat izan neban Santos Santxez izena ebana, listeru baten semea, eta onek abade izan nai ebaia esan eustan. Baiña nondik ordaindu?

Beronen amak esan eustan Asturias'en eukeJa emakume aberats bat oso adiskide aundia eta areri deitzeko. Man'a Angeies Mijares zan izena. Deitu be egin neban urrutizkiñez, baiña ez neban artu erantzun egokirik. Orduan Begoña'ra joan eta Andra Maria'eri eskatu neutsan laguntza. Antxe bururatu jatan San Antongo Abadea zan Claudio Gallastegi'gana joatea onek esan dagistan nor izan leiteken laguntzaille. Arrera latza egin eustan D. Claudio'k baiña Ubide'ko giroa azaldu neutsanean auxe esan neutsan: Ikusten dozu arantzen artean larrosak be agertzen dirala, Eta berak ordainduko eutsala dana esan eustan, eta olantxe egin eban, ez dakit zenbat urletan. Gero gure Santos'ek urten egin eban Derio'ko abade-ikastegitik.

Beste abadegai bat be ageitu jakun, Ruzafa abizena eukana. baiña onen ardurea Irizar'tar Jose Luis'ek artu eban. beronen aita begiratzaillea zaiako eta Undurragam egi-ten eban lan. Oneri be batxiHerreko irakasketak emon neutsazan. Emilietegaz batera.

Izan ziran amazazpi urte inguruko langille batzuren lenengo jaunartzeak be, geienetan gaiiziarrek eta mutii on-onak. Bateri esan neutson: Zure lana arriskutsua da eta ilteko arriskuan aurkituko ba zjña. zer egingo zeunke? Berak esan eustan: "Hablar a Dios con buenas palabras" Jaungoikoari berba gozoz itz egin.

Baiña nire ardurea ez zan langilleai buruzkoa beste barik, ni abade laguntzaille nintzan eta parrokian, Ubideko eieiztarrakaz be lana egin bear neban eta egin neban: Mezak, jtzaldiak, gogo-jardunak (antxe emon nebazan lenengoz eta pozik amaitu nebazan), Luislarren jaunartzeak illean bein, Maria'ren alabenak. erriko gaisoai begiratzea, askotariko arazoak.

Erritar askogaz lagun egin nintzan, batez be abade ta lekaideakaz eta onein etxekoakaz: Ibargutxi'tar Fidel eta Eufrazio onen anai karmeldarra, Ibargutxi'tar Jon Kurutz idazle ospetsua be antxe ezagutu neban, Ibargutxi'tar Emiliano organularia eta onen etxekoak, Mikaeia Ibargutxi ogean gaisorik egoana, Fidel eta Eufrazio'ren anehea, mezak erasoten etoiten ziranen etxekoak. Nik egindako ezkontzetan lenengoa izan zan Eusebio Agirre Amantegi Eusebio au emen Mungia'n bizi da eta beronen semea ezkondu neban oraintsu, Emen bizi da baita Patxi Urkiola Abeletzekoa, ezkondu... Erri txiki baten azkenean guztiak izaten dira lagun, baiña guztiak ezin emen aitatu,



*Ni abade gaztea
lambretan.*



Lenengo jaunartzea.



Ruzafa abadegaia.



OSEPSAkoak.



Emilio Garcia.



*Udako ibitaldiak. Bizi nintzan etxeoakaz eta
parrokoagaz.*

Bjgairen urtean-edo, futbol-txapelketa bat eratu gendun. Ubide'koak iru ekipo ziran: "Osepsa". "Construcciones Civiles" eta "Sociedad deportiva Ubidea" eta txapelketa orretara sartzen ziran Legutiano'koak, Urbina'koak eta Durana'koak be. Txapelketa beroa izan zan.

Urrengo urtean olinpiada bat be eratu gendun eta ekintzailleen artean Erauzkin euskal-barraren jaurtitzaillea izan gendun. Gauza arrigarriakl

Urtenaldiak be egiten genduzan, batez be udaldiak, udazaleak etorten ziranean eta geienbat Julian Tbargutixi eibartarra etorten zanean. Gorbeirantza joatcn giñan eta. bai Ubide'n nengoia eta bai geroago Zeanuri'ra joan nintzanean eta geroago be bai, sarritan igon naz Gorbei'ra. Oso maitagarria jat mendi au eta gitxienez ogei-tan izan naz bertan. Geiagotan ez dot uste joango nazanik.

Olako urtenaldietan abade-gaiak be lagun izaten genduzan. esaterako gaur Zaratamo'n abade dagoan Ajuria'tar Bitxor adiskide aundia. orain urte batzuk dirala Erandio Goikoa'n abade zala il zan Olague'tar Jesus Mari (au Ubide'ko andra Jra-kaslea zan D^a Petia'ren semea zan eta sarritan etorten jakun. Santxez eta Ruzafa, lbargutxi Marixe'ren iobea... Or giro on bat geunkan

Atal au amaitzeko Elosu ta Legutiano gogoratu bear dodaz. Urtcbete egin neban Bueno Monreal Gotzain zala. Araba'ko erritxu mailagari zan Elosu'n. Ondo konpodu nintzan erri maitagarri aregaz eta neguko edurtzetan estu-aldi batzuk be igaro bear izan nebazan.

Legutiano'n Uriarte'tar Roke jauna gendun artzipreste eta ara joaten giñan otoitz-egunetan. bertan bazkaldu eta joko-aldi bat egiteko. Aramaio'ko abadeak be etorten ziran, euren artean Jauregi anaietariko bat oso jatorra. D. Jose.

Nik D. Roke'gaz egiten neban autortza, Ubide'ko abadeak beragaz ez autortze-ko eskaria egin eustalako. Ondo konpondu giñan,

Urte baten San Blasetan joan nJntzan ara berbaldia egiteko, baiña edurtza aundi bat jausi zan. 1953'an uste dot. Bide zabalean be bizikletea sorbaldan nebala egin bear izan nebazan zati batzuk. edur-batuak egozalako. Ez zan batu eleizara iñor-modurik: aJkatea. sakristaua. D. Roke ta neu. Eleizatar banaka bat/uk be bai. D. Roke artega egoan: organularia ez da etoni. abeslaririk be ez dago. meza-lagun izateko abaderik be ez. Oso artega egoan, baiña esan neutson: Ez estutu, 1). Roke. dana egingo dogu. Lenengo eleiz-bira oso tristea egin gendun: autretik sakristaua kuitzeagaz. gero abade biok eta gero entrat batzuk Deus tuorum militun abesten genduan artean. Gero D. Roke'k esan eban mezea eta nik abestu. armonioa jo. eta itzaldia egin. Udal-Batzak goisaltzeko zerbat emon euskun eta eguerdirako Zeanuri'ra bizikletan, edurgaiñean. iru langille lanean il ziralako eta euren illela ospatzen zalako, Egun gogoangarriak areek!

Voy a tratar de resumir este capitulo un poco largo de mi estancia en Ubidea. Fue mi primer destino recibido de manos de D. Casimiro Morcillo, con afecto y con ilusion.

Ubidea era y es un pueblo pequeño, pero se realizaban entonces las obras de los Saltos del Zadorra y habia alli entre dos mil y cuatro mil obreros, segun etapas de la obra.

Llegue alli el 24 de julio de 1951 y estuve tres años hospedado en casa de Jacoba Ibargutxi. Mi parroco era D. Feliciano Etxebarria.

La obra era un tunel de 12 kins. de Villarreal a Zeanuri, circular, de unos 4 metros de diametro, revestido con capa de hormigon de medio metro. Conducia el agua hasta Barazar desde donde habia un salto en tubo de unos 80 cm. Luego se aprovechó esta obra para conduccion de aguas al Gran Bilbao.

En Undurraga (Zeanuri) se construyo la central subterranea, maravillosa, y en Villareal el sifon que unia nuestro embalse con el de Ullibarri. Nuestro embalse podia almacenar 80 millones de m^3 y el de Ullibarri 140 millones de m^3 . Todo ese tunel fue campo de apostolado y no hay en el tramo que no haya sido visitado por nm. Bajabamos desde unos pozos, algunos de ellos muy peligrosos.

Teniamos dos misa para obreros, una en Arkesto, pozo 4, y otra en Zubizabal, pozo 11, pero apenas asistia casi ninguno de ellos a misa, puede que unos treinta entre ambas capillas.

Muchas anecdotas podriamos contar, pero recordemos brevemente la gran mision de 1953. Acudieron muchos de los obreros a los cuatro centros, muchas confesiones y comuniones y el ultimo dia visita del Obispo de Bilbao, D. Casimiro, y del de Vitoria, D. Jose Maria Bueno Monreal.

Di clases de Bachiller a algunos que se examinaron en el Instituto de Vitoria y hasta tuvimos dos seminaristas, que luego dejarou los estudios. Hubo un torneo de futbol con equipos de Ubidea y otros tres de fuera y hasta una olimpiada donde actuo el hijo del Pueblo Erauzkin Campeon de lanzamiento de barra Vasca.

Y en el pueblo un ambiente muy gratificante. Es un pueblo muy bueno.



Gure mutilak.



Abeslari ta monagillo

XVII: FRUNIZ'ERA: ESKARI ATSEGINGARRIA, GOTZAINDEGIAN, LENGO ABADIA, BIZILEKUA. ABADIA-ETXE BARRIA, PARROKIA LANAK, ABADIA-LAGUNAK, TALDE BAT BRASIL'ERA, EKONOMIA, BESTE LAN BATZUK: ZINEA, BIDE BAT KONPONTZEN, IRAKASKINTZA TA GOGORKERIA, SEMINARIOAN ETA MUNGIA'N IRAKASTEN, ORDUKO UMEAK GAURKO GIZON ETA ANDRA GAZTEAK.

XVII-I: FRUNIZ'ERA: ESKARI ATSEGINGARRIA, GOTZAINDEGIAN, LENGO ABADEA, BIZILEKUA.

Bein baten Ubidelco txanburu zan Feliziano abadea sano artega etorri jatan eta esan eustan:

-ZU. MARTIN: Gotzaiñaren eskutitza artu dot eta Fmniz'ko txanburu izendatzen nau, baiña nik ez dot gura ezergaitik be ara joan.

Nik esan neutsan: -Zergaitik ez? Erri polita da Fruiz, zoaz!

Baiña berak: -Ni ezergaitik be ez noa ara, etxe guztiak urrezkoak ba'dira be ez.

Eta nik barrero: -Ara! Jenengo zoaz eta erria ikusi egizu.

Joan gintzazan eta ikusi gendun, baiña alperrik izan zan, berak lengoan jarraitzen eban-eta. Auxe esan eustan gaiñera:

-Gura ba'dozu truke bat egingo dogu, zu zoaz Fruniz'era eta nik Ubidea'n jarraituko dot.

Nire aldetik baietz esan neutson eta urrengo egunean gotzaindegira joateko eta an eskintza ori egiteko geratu giñan.

Gotzaindegira joan giñanean, Aurtenetxe'tar Frantzisko idazkari nagusia aurkitu gendun eta Felizianolc eskintza ain bero egin eutsonean, pentsalari geratu zan eta esan eban:

-Martin Fruiz'era joateko gazteegia da, Mungia-inguruko abadeak aspaldion elduak dirata. Baiña egingo dogu berba Gotzaiñagaz eta emongo dogu erantzuna.

Gero jakin dodanez, baietza emoteko bultz egin ebanetariko bat Leon Maria Martinez Ordezkarri Nagusia izan zan eta egun gitxi barru baietza etorri jakun: Fruiz'ko "ekonomo", orduan esaten zan lez, izendatu ninduen. Feliziano pozik eta ni pozago. Baiña biok baiño askoz pozago geratu zan ama esan neutsonean. Illebatzuk zirala Ameriketara joatea eskatuta, orain etxe-ondora etortea eta geiago Fruiz'ko abadea izatea, berarentzat sinistu-eziñeko gauzea zan.

Bagil-inguruan Gasteiz'ko Abade-ikastegian egon nintzan eta izenpena egin baiño lenago oraindiño, Uriarte'tar Juan Mari'ri agertu neutson neukan itzaropena. Pozik *entzun* eban *eta* esan *eustan* ori egi biurtu daiten *Jesus'en* Biotzari bederatzi-unren bat egingo eutsola. Geiago poztu zan baietza iragarri neutsanean.

Urrengo, ainbeste urtetan Fruniz'en abade egoan Iturbe'tar Isidoro'gana urrera-

tu nintzan. Bere amagaz eta bake-bakean ta pozik bizi zan Fruniz'en eta gauza samiña izan zan beretzat beste leku batera, Getxo'ko Andra Mari parrokira, joan-bearra. Dana dala gauzea eginda egoan. Zergaitik? Antza Gotzaiñak ondo egindako itzaldi bat entzun eutsan eta oraindiño ain zarra be ez zan lez. Getxo'n abadea bear-eta, arako aukeratu eban. Gajñera gero an Zamalloa'tar Jose Luis'egaz alkartu zan. Arrezkero ez neban iñoz zoriotsu ikusi.

Nitzat oso ona izan zan D. Isidoro. Bera bizi zan etxea itzi eustan, Bonifazio ta Katalin'en etxea. altzari ta guzti. beste bizileku bat aurkitu arte. Bost urte-inguru bizi izan nintzan an, etxe barria amaitu arte, eta ni nengoan gelan bertan egon zala Dr. Areiltza guda-aurrean esan eusten. Gero estualditik urteteko. Franco'ren alderdira eroan eben Joan Mari'ren aitak eta beste batzuk, Metxika'ranta-edo. Guda ostean Migel Joan Mari'ren aita espetxera sartu eben abertzale agertu zalako, eta Areiltza'tar Jose M^{an}k atera eban. esker ona agertzeko. On egiñaren pagua ez da beti izaten ate-ostean palua, naizta orduan sarritan oiako gauzak jazo izan.

XVII- 2 ATALA: FRUNIZ'EN: ABADE-ETXE BARRIA

Fruiz'erako izendatua izan eta laster egon nintzan Aurtenetxe'tar Frantzisko'gaz eta esan eustan ainbat lasterren etxe barria egin bear zala, eta abade bjrentzat egin be, gauza egokia ez daJako txanburuak etxea euki eta laguntzaillea etxe barik ego-tea. Nik ori benetan artu neban eta laster asi nintzan orretarako bideak artzen.

Lenengo etxegin edo arkitekto bat bear neban eta, ez dak.it nondik nora, Emilia-no Amann aurkitu neban. Onek laster gertatu eban egitasmoa, naizta gero aldakuntza batzuk egin bearra izan. Etxe polita zan asmau ebana. baiña berak esan eustan eleizeagaz eta inguruko etxeakaz ez ebala ondo joten. Nik asmo ori aurrera eroateko gogo bizia agertu neutsan, bear ba'da apur bat albo batera okertuta, eta orrelan egin zan. Gitxitan etorri zan arkitekto ori, guztiz bitan uste dot. baiña Mungia'ko Ojinaga'tar Jorge izan zan etxegin-laguna eta ondo betetu zan asmoa.

Aldakuntza bat egin bear izan gendun: Etxe-azpian larogei zm. inguruko areto bat egoan eta etxegiñari auxe esan neutson:

-Zergaitik ez dogu geitxuago sakontzen eta apur bat gorago jaso etxearen barrena, eta orrelan etxe-azpian areto eder bat aterako geunke. Onetarako laterriak ez eban laguntzarik emoten. Etxearentzat 200. 000 pezeta aurreratu ebazan laterriak, 30 urtetan ordaintzeko. Eta orretan geratu giñan. Dana dala, etxe-azpi orretara orain be ura sartzen da sarritan. Ondoko errekea be alboratu egin genduan, baiña alperrik. Orain be sartzen da. Arazo onek ba-daukala uste dot urtenbidea, baina arazoa or dago.

Nok egingo ete eban etxe barri au? Erromatean joan zan, Bilbao'n "Instituto

Nacional de la Vivienda"k eukan etxean. Beste bal be aurkeztu zan, Marti'nez Ortega'tar Luis'en anai bat, baiña agiri guztiak ondo-ondo ez eukazan eta Uriarte ta Legarreta-ELxebarria'tar Migereri emon jakon. Esan dogun lez gaur Zamora'n Gotzain dan Uriarte'tar Juan Mari'ren aitari. Migel'ek etxeak ondo egiten ebazala esaten eben guztiak, baiña astiro. Orrelan izan zan. Migel'ek langilie talde bat eukan beragaz lan egiteko. Guztiak ziran Fruiz'tarrak eta alde orretatik be erriarentzat laguntza izan zan.

Alclakuntza kontuan dala eta, batez be kanpo-aldeko arri landuak asko ziralako, uste zan baiña karuago urten eban etxegintzat. Gitxi gorabera milloi bat inguru. Ez gaurko milloia. ordukoa baiño. Konparaketa bat egtleko, esan nei orduan abadeak illean 2. 000 pezeta irabazten ebazala eta orain 100. 000 pezeta dirala illeko saria. Nondik ordaindu?

Esan dodan lez laterritik 200. 000 pezeta aurreratuak artu genduzan 30 urtean ordaintzeko eta falta zana aterateko. parrokienak ziran basoak eta soloak saldu genduzan: Plakone-aldean basotxu bat, Lomerikealdean beste basotxu bat, Esperantzeta-aldean beste solo eder bat. bidearen goitik dagoan solo bat, eskolak egiteko beste solozati bat eta Ibaigane etxea egiteko beste solo-zati bat. Naikoa ondo saldu ziran lurak. baiña oraindiño asko falta zan. Beste bide batzuk be artu genduzan, zozketak. Santa Ageda'k. indabea erein eta ekarri, baiña ez zan amaitzen ordaintze ori. Neu joan nintzan etxerik etxe. amar bidar, dirua eskatzen eta jenteak oso ondo erantzun eban. Gotzaindegira be eskatu neban laguntza, baiña ezer be ez eben emon. Zelan edo alan dana ordaindu zan eta or dagoz orain bizi-iekue biak errentan emonda.

XVII-3: FRUNIZ'EN: PARROKIKO LANAK: ABADE-LAGUNAK, TALDE BAT BRASIL'ERA, EKONOMIA. BESTE LAN BATZUK: ZINEA, BIDE BAT KONPONTZEN.

Parroki baten beti izaten dira zeregiñak: Eguneroko mezea. igandeetako niezak eta arratsaldeko eleizkizuna. geroago Ganbe'n eta Boliola'n be mezea ipiñi gendun. al dogun artean esatekotan. Zori txarrez oraintsu eldu da eziña. Beste alde batetik, Maria'ren alabak be jokabide zabaltxuagoa artuta. indar barria lorlu eben. Fruiz'tarrak ondo gogoan daukez gauza oneik. Gaisoak ikustera be joan bear izaten zan. Eta beste asko.

Abade-etxe barria amaitu zanean, abade-lagun bat bialdu eusten: Gandarias'tar Mariano, Ibarruri'ko Maume edo Magunas'koa. Iru bat urte-edo egin ebazan Fruiz'en, baiña gaisorik ibiltzen zan eta osagilleak agindu eutson beste giro bat bear ebal. Santurtze'ko Kabiezes'era bialdu eben eta andik Ameriketara. Brasil'era.

joan zan eta an abadetza itzi eban. Elxe-inguruko landanik sartzen lagundu eban.

BrasiJ aitatu dogun ezkeru, gogoratu daigun beste Fruiz'tar talde bat be joan zala Brasil'era an errezago bizi izateko edo dirua egiteko ustez. Onein artean Jose Luis Juan Mari Gotzaiñaren anaia, Aurrekoetxeko Jesus eta beste batzuk. Urleak eginda batzuk etorri ziran atzera eta beste batzuk an geratu ziran. Jose Luis be bai. an ikasketak amaitu ebazan, egokion lana aurkitu eta sendi barria sortu. Urte batzuk dirala il zan baiña bere seme-alabak emen ikusten doguz eia alarguna be bai batzutan.

Mariano abade-laguna joan zanean beste abade bal bialdu eben laguntzaille. Ozerinjauregi'tar Xabier, Zeanuristarra. Onegaz batera urte batzuk egin nebazan eta gero, nik urten nebanean. berau geratu zan parroko arduradun, geroago esango dogun lez.

Parrokian beste aldakuntza bat be jakingarria egin gendun. Diru-eskari asko egiten ziran urrearen barruan: Santa Ageda'ren aurreko egunean arratsalde osoan kanpaiak jotzen ziran eta sakiistauak etxerik etxe arrautzak batzen ebazan. Santa Krutz egunean odeia bedeinkatzen zan eta etxerik etxe batu, pazko-aldian gariak (!) bedeinkatzen ziran eta abadea ta sakiistaua etxerik etxe joaten ziran bedeinkapena emoten eta arautzak batzen... eskari oneik lotsagarri biurtu jakuzan eta aldakuntza bat eskiñi neban: Urtean bitan, San Juanetan eta gabonetan sendi bakoitxak eun pezeta ordaindu dagizala eta beste gauza guztiak duan izango zirala, illetak naiz bateoak. naiz ezkontzak naiz agiriak... dana. Bakarrik geratu ziran illeteian oituraz ateraten diran mezak. Errez onartu eben eleiztarrak aldakuntza au eta arrezkeru, berrogei urte oneilan. Fruiz'tan'ak sendiaren kuota ori ordaintzen dabe. Beste enietan be oraintsu asi dira gauzak onelan egiten. Gaur urlearen azkenean ordaintzen dabe. sendj bakoitxeko 4. 000 pezeta. Laguntza aundi bat da paixokiarentzat eta ekonomi-arloan naiko ondo goaz, ori, etxeen errentak eta eleizan batzen dana dira etorririk onenak.

Abade-etxearen azpian, bost bat urlean zinea be ipiñi gendun eta pelikula polit batzukemon be bai. Aretu onctan antzerki toki bat be egin gendun eta basen'ilarrentzat itzaldi batzuk einon be bai. ortxe egin geuntsan D^a Maria Rementeria'ri ondo irabazia eban omenaldia, X Alfonso'ren domiñea edo medaillea emon eulsoenean. Irakasle ona izan zan D^a Maria!

Beste ekiñaldi gogoangarri bat Botiola'ra sartzeko bidea konpontzea izan zan. Beiena esnelegiaren laguntza be emon eban ango Arduradun zan Palazios jaunak. beste laguntza batzuk be billatu genduzan, baiña geiena Botiola'tarrak eurak ordaindu eta alaitasunezko apartu bat egin gendun azkenean. Izan zan auzo aretan bide ori konpontzea nai ez eban baten bat be, baiña ondo erantzun eban jenteak. Tzan be Fruiztarrak jente ona dira, ez gitxien Botiola'koak.

XVII-4: FRUNIZ'EN: IRAKASKINTZA TA GOGORKERIA; SEMLNARJOAN ETA MUNGIA N IRAKASTEN.

Esan dot lentxuago. Ubide'n nengoala ango ume batzui batxillerra irakasten neuntsela. eta an artutako bide orrek nire abadetza markau egin eban. Irakaskintza beti izan da nitzat lanbidea abadetzagaz batera. Eruiz'era eldu nintzanean. Gar-cfa'tai'Anjel maixuak eta Rementeria'tar Marfa maistreak mutjl baten alde egin eusten berba: Eleizaldeko Anastasio'ren alde. Ikasleko argia zala baiña gasiu aundiak egozala eta ezin ebalá esan eusien. Nik alegiña egingo nebala esan neutsen eta egun asko baiTu ezagutu neban Ana.stasio adiskide aundia.

Asi gintzazan ikaskelak egiten eta ondo lan egin eban: Lenengo urtean sarrera eta nrte bi atera ebazan. bigarren urtean besre urte bi eta laugarren urtearen ostean egoan "Batxiller ElementaJ" tituloa eta urrengo urtean, bostgarren eta seigarren urtea ta Batxiller Nagusiaren agiria. Gero urtebetean egiten zan ordtiko PREU egin eban ostatur Bilbáo'n, Tenderia kaiean eta Deusui'ko Ikastetxe Nagusira sartu zan. lege-ikasketak edo abogadutza egiteko. Urtebete ondo atera ondoren, Ekonomia be ikastera sartu zan, eta. ogeta bat urtekoa zala. Deustu'n itzi neban ikasten.

Monagillo etorten ziranari irakasten be asi nintzan, baiña maisuak galazo egin eustan, begiratzaille zan Santxez Azpuru jaunak aginduta. Izan neban jaun onegaz alkarizketa gogor bat. baiña geroago egin genduzan bakeak. Dana dala, eskolako orduetatik eta egunetatik kanpora. egiten neban irakaste-lana eta gogoan daukat maixu gogorregia nintzala. Jo ez asko. baiña bai zarata. Belarriondoko batzuk be emon nebazan eta ba-daukat orren damua orain.

Udako ille luzeetan be emoten nebazan irakastaldi batzuk. edo gairen bat onar-tuia ez eukenari edo oiturea galdu ez egien liburuaj begiratze bat egin dagitsen. Konfiterueneko alboan egoan tokitxu balen izaten ziran irakaste oneik. Ez daukoz aitzuta Garai'tar Jose Luis Olatxu'koak edo Uriarte'tar Pedro Mari, Migel'en semeak. Beste izen asko esan bear neukez. baiña ez noa larregi luzatzen sauzea.

Bein baten Pereaiar Jokin urreratu jatan era esan eustan:

-ZU, MARLIN! Etorriko zintzakez Abade-Ikastegira irakastaJdi batzuk emoteko?

Nire erantzuna baietza izan zan eta asi nintzan Seminarioan be irakasten. Gajrik astunena, laugarren urteko elertia, literatura, izan zan. eta egokidan aldia romanti-kuera ela errealismu-aldia. Gaiak sakon aztertu nebazan ela eirezago ikasi egien neuk idatzitako esku-liburu batztik aldakiak eginda emon neutsezan.

Gaiñera beste gai batzuk be emon nebazan. esalerako matematikak lenengo iuruurteetan eta erJejiñoa.

Gogoan daukat erJejiñoa irakastean, Biblia, batez be Asiera Liburukd Jencngo ata-

lak ulertzeko era barria azaldu nebala, Ubieta'tar Jose Anjel'egaz batera ASCEA'n gure Salbamenaren Kondaira eritxon liburu bat argitaratzeko egin genduan lana kom-tuan neunkala. Gero liburu oii Zarate'tar Mikel'ek euskeratu eban eta zaba) dabil gure artean. Ba. abadegai gaztetxuai olako zerbait azaldu neuntsenean, gataska aundia sortu zan. Olako gauzak ontzi bateko uretan sortzen diran ekaitzak izaten dira. Ordurik ona asko aldatu dira gauzak. Seminarioan pozik egin neban lan eta beste irakasleak be pozik egozan nigaz, ikasleak be baietz uste dot. Idazten ondo ikasi egien be arduratzen nintzan. Gerogo azalduko dogu zergaitik amailu zan ekintza au.

Uite pare bat geroago, Mungia-inguruko abadeak alkartuta pajrokiko ikastetxe bat sortzea erabagi gendun: "Colegio San Pedro". Orretarako Anegi'tar Jose Mari, Airiaga'tar Eduardo Jatabeko abadea ta neu alkartu gintzazan eta sortu gendun ikastetxea. eskolako urteak eta batxillera emoteko. Onen azkena zelan izan zan be geroago esan bearko dogu. Ernen be betiko berbak entzun nebazan nire abade-lagunakandik:

-ZU, MARTIN: Zer deritxazu? Ipiñi geinke emen Ikastetxe bat eskolako urteak eta batxillera irakasteko¹

Baietza emon neban eta asi giñan ianean.

Errez ikusten da aldi onetan oso lanpetuta nenbillala: Parrokiko lanak, Eruiz'ko irakaskintza, Abadegaiakaz ainbeste ordu, Mungia'n Kepa Deunaren ikastetxeko ardurea... Baiña unean ikusten zan ekaitza, egun larriagoak eta estuagoak egozan urreratzen.

A los tres años de llegar a Ubidea, a D. Feliciano le llego nombramiento para Fruniz, pero no le agrado y me pidio que fuera yo a Fruniz, para que el siguiera en Ubidea. Asi se hizo gracias a la labor de D, Francisco Aurtenetxe y del Vicario General D. Leon M^a Martfnez. En Fruniz encuentre a D. Isidoro Iturbe que iba a salir contra su voluntad, pero ya uo habia remedio. Los que autorizaron mi nombramiento a Fruniz me pidieron que coustruyera nueva casa cural y pronto empece esta obra. Se encargo de la construccion Miguel Uriarte con su equipo y se termino la obra en un par de años. Hubo graves dificultades en la financiacion, pero conseguimos pagarlo todo a tiempo con diversas campañas.

XVII-5: FRUNIZ'EN: ORDUKO UMEAK, GAURKO GIZON ETA ANDRA GAZTEAK.

Orduan uineak ziran eta gaur erriko gazte elduak diranai buruz gauza asko eta onak esan neinkez. Ume areik eta gero gazte izan ziranak. benetan alegindu dira etorkizunari aurpegia emoten, baina ezin aitzu orduko eragozpen aundiak: Ez egoan non ikasirik, geienetan ez egoan Bilbao'ra ikasten joateko laguntzarik.

Ogei gazte joan ziran seminaria edo konbentuetara fedeari erantzunez eta eniko abade ta maixu-maistra onak emoten eutsezan aolkuai janaituz.

Ogei gazte orreitatik ainalau eldu dira abade izatera: parroketarako, irukoiztarrak edo trinitarioak, frantziskotarrak eta pasiotarrak. Eta amalau abade oneitatik iru Gotzain izatera eldu dira. Ez da makala gure parrokiak Eleizeari emon dautson laguntza!

Orduko gazteen artean ezjn itzi geinke gogoratu barik Legarreta-etxebania ta Ganboa'tar Manu. Beti izan da au mutil on ona, baiña politika'ko arazoak dirala-ta, espetxeratu egin eben eta ogei urte daroaz egoera lairi orretan. Orain amabi urte, bere emaztea zan Mirentxin eta alaba bat lagun nebazda joan nintzan Henera de la Mancha'ra berau ikustera. Gogotsu aurkitu gendun eta urtebete banu-edo urtengo ebala esan eban. Zori txan'ez, joan diran urteak joan an'en, oraindiño banuan dauke. Zergaitik? Sinistu eziñeko gauzea da orrenbeste denporan gure Manu an eukitea. Datorrean esango ebala zergaitik an dagoan esan euskun berak. Okerkeri eclo injustizi aundi bat dala uste dogu gizon au ainbeste denporan espetxean eukitea. Urtengo al dau ainbat lasterren! Emaztea iJ zanean egon zan Mungi'an,

Len ume eta gazte izan ziranak, gaur gizon eta andra gazte doguz, eta zintz.o erantzuten dautse euren fedeari eta em-lanari. Parrolciko Batzordean daukaguz euretatik sei eta laguntzaille onak eta arduratuak dira.



Kruz Legarreta etxe barria lanean.



Lenengo jaunartze baten



Meza barria: Anestín orbe.



Meza barria



Emilio adiskidea.



Fruniz: Parrokia abade-etxe barria.



Fruniz'ko abadea.

Los que entonces fueron niños hoy son matrimonios jóvenes que saben responder a la situación. Cada uno como ha podido, ha tratado de prepararse para el futuro, pero les ha tocado una época difícil: No había centros para estudiar ni posibilidades de acudir a centros de la ciudad.

Veinte de ellos respondiendo a su vocación y a las insinuaciones de maestros y educadores, fueron al seminario o conventos (trinitarios, franciscanos, pasionistas...) Catorce de estos han llegado al sacerdocio y tres son hoy obispos. Esta generación presta un buen servicio a la Iglesia y a la evangelización.

Dentro de esta juventud no podemos menos de recordar a Manuel Legarreta-etxebarria Ganboa. Este sufrió la persecución de la policía por supuestos motivos políticos y lleva veinte años, los mejores de su vida, en la cárcel. Le visite juntamente con su esposa Mirentxin y su hija en Herrera de la Mancha.

Una vez construida la casa, vino un coipañero sacerdote coadjutor Uamado Mariano Gandarias, que fue un buen amigo y colaborador, pero se puso enfermo y por prescripción del médico tuvo que cambiar de lugar de residencia y marchó a Cabioces-Santurce de donde fue a misiones al Brasil y allí se secularizó. Creo que sigue allí. A Brasil fueron también unos ocho feligreses atrevidos, entre ellos José Luis Uriarte, el hijo mayor de Miguel, Jesús Legarreta-etxebarria de Andeko y otros. Algunos volvieron pronto, pero José Luis y algunos otros se quedaron aquí. No hace mucho murió José Luis pero sus familiares aparecen por aquí con frecuencia.

El trabajo que empecé en Ubidea dando clases de bachiller marcó un poco mi vida. Junto al trabajo de sacerdote siempre he practicado la enseñanza. En Fruniz di clases de bachiller a Anastasio Larragan que, en tres años, aprobó los seis de bachiller y las dos revalidas, elemental y superior. Luego hizo en Bilbao el PREU y el primero de Derecho en Deusto y nos separamos cuando iba a comenzar a estudiar economía juntamente con Derecho. Hablamos para ello con el P. Bernaola. Di también clases en un local junto a Koniiteruene, a varios de los jovencitos de Fruniz, monaguillos o no, pero recuerdo que fui duro con ellos y me duele haberlo sido.

No puedo menos de recordar la reforma económica de la parroquia implantando la cota parroquial, que sigue existiendo con más de cuarenta años de vida y buena respuesta por parte de los buenos feligreses de Fruniz, el cine que durante algunos años dimos en el sótano de la Casa cural, las charlas para labradores, el homenaje a D^a María Rementería que recibió la medalla de Alfonso X el Sabio, la carretera de acceso al Barrio de Botiola...

Por estas fechas me habló D. Joaquín Perea y me dijo:

-OYE MARTÍN: tii podrias dar unas clases en el seminario...

Le dije que sí y empecé al año siguiente. Los compañeros sacerdotes de Mungialde me dijeron;

-OVE MARTÍN: ¿.Por que no fundamos un colegio en San Pedro de Mungia, para primaria y bachiller?

También le dije que sí y al curso siguiente empezamos a funcionar. De todo esto hablaremos más tarde.



Dedikatoria bat: Los «brasileiros» besan su mano, afectuosamente. Barcelona 25-XI-54. Para D. Martin.



Bidegain-Otazua etxea bedeinkatzen.



Pedro Uriarte.



Anastasio Larragan eta Julian Legarreta.



Etxegilleak: Jorge Ojinaya.



Etxegilleak: Jose ta Miguel.



Fruniz'en parrokiko batzordeagaz, erromaniku tankerako arku ederraren aurrean. Laguntzaile zintzo oneik parrokiko alkarteak, auteskunde bikoitzean aukeratuak dira



Ama sarritan etortzen jatan



Lenengo arria



Bidegain-Otazua etxea bedeinkatzen.



Oinarri-billa.



Lenengo lanak.



Oñate 'n: Aitz-Gorrira.



Amerikanuaren ezkontza.

1 de agosto de 1951

VICARIA GENERAL

Rvdo. Sr. D. Martín Olazar
Cura Económico de
FRUÍTZ

Mi querido D. Martín: para sustituir a D. Mariano a quien el Sr. Ma. destinado a Cabieces como coadjutor de D. Antonio Berquin, se ha nombrado a D. Javier Ocerin-Jauregui, coadjutor hasta ahora de Mérriz.

Creo que no te desagradará el nombramiento. En cuanto a Gendariss se ha pensado mucho lo que podía convenirle más, y por fin, el Sr. Obispo ha resuelto mandarle a C. Colecas, donde no le faltará trabajo y la proximidad del mar le beneficiará para su salud.

Te saluda atentamente tu afmo. en Cto. s. s.

León M. Martínez



Excmo. Sr. D. Martín Olazar
Cura Económico de Fruitz
Bilbao

Reg. lib. (a) /

Se D. Martín Olazar 11/51

VILVICHES

SECRETARIA DE CAMARA
del
OBISPADO DE BILBAO

Con esta fecha, S. E. R. se ha servido de-
cretar lo siguiente. Accedamos a la petición
que el Pbro. Sr. Martín Olazar Urbe, Coad-
jutor de la Iglesia parroquial de Urd-
des nos hace en su escrito, y le conceda-
mos la licencia que solicita para tras-
ladarse a Oviedo y Sevilla con el fin
de tomar parte en la predicación de la
Santa Unión que en dichas capitales
ha sido organizada, Bilbao, 9 de febrero de
1951. Firmado: Sr. León M. Martínez.
Por mandato del Ilmo. Sr. Vicario Gene-
ral: Sr. Francisco Marteneche, Gene. Sec.

Lo que comunico a Vd. a los efectos con-
siguientes
Bilbao, 9 de febrero de 1951

León M. Martínez



EXCMA. DIPUTACIÓN PROVINCIAL
DE VIZCAYA

REPARTO DE ...
...

...

...

| | |
|---|------------|
| | 1.110,00 |
| | 1.110,00 |
| Por uso de papel y de un legajo especial por... | 300,00 ✓ |
| Por libros de registro y libros de... | 300,00 ✓ |
| Por libros de registro de... | 400,00 ✓ |
| Por impresos de... | 400,00 ✓ |
| Por transporte en... | 2.000,00 ✓ |
| | 3.000,00 ✓ |

...

...

...

...

OBISPADO DE BILBAO
VICARIA GENERAL

25
febrero
1964

Hdo. Sr. D. Martín Clézar
Cura deónomo
...

Mi querido Sr. Martín:

Contesto a la tuya del 13, en la que me preguntas si está permitido utilizar el bolígrafo en las actas y si hay alguna prescripción sobre el color.

En los libros sacramentales de partidas no puede usarse el bolígrafo por ser - a juicio de los técnicos - poco permanente su escritura. Se permite su uso en instancias y certificaciones, si bien lo más recomendable es la escritura mecanografiada en todos estos documentos por la claridad, limpieza y tiempo que se ahorra al leerlos.

Te saluda tu afmo. en Cto. s. s.

Con. Sr. Martínez

Fruniz'en Alegiña egiten gendun gauzak ondo egiten "boligrafoa" deritxon idazkortza baliokoa dan geure zakantzak geukazan. Gotzaindegitik ezetza.



EXCMA. DIPUTACIÓN DE VIZCAYA

SECCION DE OBRAS PÚBLICAS
Y PARO OBRERO

ALQUILER DE MAQUINARIA PESADA DE CAMINOS

Peticionario D. Marvin Clazzer, S. N. del Ayuntamiento de Fruniz

Domicilio Fruniz

Máquina num. 108-10 10 Toneladas

Uso particular

Alquiler total al día 200.- pesetas

Plazo de uso 3 días más transporte

PRESUPUESTO DE GASTOS

| | | | | | | |
|---|-------|---------------|-----|------|-----------------|-------|
| Alquiler de maquinaria | 200.- | Plas día. por | 5.- | Ans. | 600,00 | Plas. |
| Haberes del maquinista | 200.- | | 3.- | | 600,00 | |
| Dieta del maquinista | 160.- | | 3.- | | 480,00 | |
| Carburante | 100.- | | 4.- | | 400,00 | |
| Transporte <u>ida y vuelta de trailer</u> | | | | | 8.000,00 | |
| Haberes y dietas del Inspector | | | | | | |
| <u>Total</u> | | | | | <u>5.680,00</u> | |

Así en este presupuesto a la cantidad de 5680 MIL OCHENTA Y OCHO P.S.

El alquilado que suscribe, recibe en buen estado de funcionamiento el material que queda expresado y manifiesta en conformidad con el presupuesto que se formula, comprometiéndose además a abonar por separado y dentro de los plazos y condiciones legales todos los gastos e indemnizaciones derivadas del cumplimiento de la ley de accidentes del trabajo y de otras de carácter social.

Bilbao, 20 de Setiembre de 1965

Director de Negocios de Personal

*concedido
Al peticionario.*

POR
El Director de Negocios de Personal
D. O. J. J.

Con esta fecha ha depositado D. Marvin Clazzer, S. N. del Ayuntamiento de Fruniz el importe del presente presupuesto.

Bilbao, 20 Setiembre de 1965

*Director de Negocios de Personal
del Servicio de Caminos*

En Frérix, barrio de Botiolas, provincia de Vizcaya a nueve de agosto de mil novecientos sesenta y cinco son invitados a firmar el presente documento los vecinos de este barrio para construir una carretera de las condiciones siguientes:-----

La construcción proyectada abarca desde la carretera provincial en las escuelas de barriada hasta el cruce de Lezamiz y Lchebarri,---

La nueva carretera deberá reunir las mismas condiciones de calidad y anchura que la carretera provincial citada.-----

La construcción de la misma se encomienda a D. Jesús Goicolea Torrónegui a un precio alzado de 87.500 pesetas, prestando los vecinos el servicio necesario de peones.-----

El pago de esta cantidad se realizará con aportaciones de los vecinos que componen el barrio a razón 5.147 pesetas por propiedad.-----

Leídas las presentes condiciones, los abajo firmantes se comprometen a pagar la cuota señalada en la forma siguiente:-----

D. Dionisio Gangaiti, una cuota; D. Eustaquia Gagoiti, una cuota; D. Alejandro Legarreta, una cuota; D. Prudencio Mallona, dos cuotas; D. Andrés Legarreta o propietario, una cuota; Gangaiti Elorriaga hermanos, dos cuotas; D. Victoriano Orbe, una cuota; D. José Legarreta, una cuota; D. Vicente Monasterio, dos cuotas; D. Dámaso Muruaga, una cuota; D. Félix Muruaga, una cuota; D. Hilario Bätz, una cuota; D. Benito Lequerica, una cuota; D. Benito Elguizabal, una cuota; siendo en total diecisiete cuotas de 5.147 pesetas, que hacen la cantidad de 87.499 pesetas.-----

Leídas las presentes condiciones y por estar conforme con ellas firma los interesados en la fecha arriba indicada.-----

Dionisio Gangaiti
Me comprometo a la mitad
de la cuota
Andrés Legarreta

Ignacio Gangaiti
Benito Gaitia

Prudencio Mallona

Felix Muruaga

Dámaso Muruaga

Hilario Bätz

Hilario Bätz

Vicente Monasterio

Benito Elguizabal

Benito Lequerica

XVIII: MUNGIA'N, LENENGOZ: FRUNIZ'EN, ELEIZEA EGOKITU TA AGURRA, GOTZAIÑAREN ESKUTITZA, ABADEEN ARTEAN, GAMIZ'EN, GAU-GURTZA, NEMESIO ETXANIZ, LARRAURI'KO LEKAIMEAK, KEPA DEUNAREN IKASTETXEA, GOTZAIÑA AURKA, MAZARREDO'N SARTUTA SEMINARIOAN SARTUTA, PARIS'ERA TA ERROMA'RA, DONOSTIKO GOTZAIN-ELEIZAN SARTUTA, ITZALDIA MUNGIA'N, GOSE "GREBA". ZIRARDA GOTZAIÑAREN DEIA, "ZORTZI MADARIKATUAK", BIDALGOAREN KONTROLA.

XVIIM: FRUNIZ'TIK KANPORA

Fruiz'en izan nintzan denporan gauza asko be asko itzi dodaz aiatu barik, baiña beste ataJ onetara saitzeko, labur-labur. gauzatxu batzuk gogoratu bear dodaz. Azkenengo urteetan 1965a. baiña lenago. gauza bi egin ziran: Liturjia egokitu eta eleizea egokitu.

Liturjian orduan asi giñan, bildurti, euskerea liturjiara sartzen. Ezin izan gendun gauza aundirik egin. Arrieta'ko abadeak beti barriztatze guztien aurka agertzen zira-lako. Dana dala, asi giñan illetetan salmoai oarrak euskeraz egiten eta mezan be azalpen betzuk gure izkuntzan emoten. Arlo onetan aurrera egitea gauza gaitxa izan zan, baiña apurka lortu gendun zerbaik.

Eleizea be egokitu egin bear zan: Iru altara txiki kendu genduzan. altarea errira begira ipirii, bateo-lekua aurrera ekarri eta ormak egokitu. Naikoa polito geratu zan eleizea eta ederti-aldetik asko galdu barik. Kendutako altarak eta iruditegiak ez euken balio aundirik eta balioko zana ez genduan galdu, esaterako sagraioen ateak eta santu batzuk.

Abade-etxearen zorra dana bardinduta geratu zan, baiña orain aitatu dogun lana zorrean. irurogei milla pezeta inguru.

Beste arlo batera igaro baiña lenago, gogoratu dagidan urte orreitako lan eder eta aundi bat Erri Gaztedi izan zala. Ez nintzan arlo orretara geiegi sartu baiña beti ibilli nintzan urrean. Nire laguntzaillea geiago sartu zan. Erakunde au Gotzaiñaren aldetik ez zan onartua eta zati bi egin zan, bata adoretsua eta bizia, inguruko erri arazo ta politika-arloro sarlua, eta bestea motelagoa. Lenengo arloan ikusten neban gogotsu Xabier nire laguna eta ni bigarrenetik nengoan urrago. Ordutik aurrera ez zan gauza erreza batera jokatzea.

Urte orretako egun baten Gotzaiñaren eskutitza artu neban, eta labur-labur auxe iñoan: Parroki orretan ez zarala egoten, "residentzia" ez dozula zaintzen, ikusita, txanburu ardurea kendu egiten dautsut. Eskutitz bakana zan. batez be ez ebalako esaten zer egin edo nora joan bear neban. Xabier lagunari agertu neutsan arazo ori eta Berrio'tar Pedro aurrean zala, esan eustan erabagi orren aurka jarri nai ba'neban, eurak laguntzeko gertu egozala. Ezetz esan neutsan, Fruiz'en amaika urte egin nebazala, naikoa zala neure ustez eta urten egin nai nebala.

Urrengo egunean, eskutitz ori eskuetan nebala, Gurrupide Gotzaiñaren laguntzaille zan Goiri'tar Santiago'gana joan nintzan, emon neutsan eskutitza eta esan neu-

tsan: -Zer deritxazu?

Eta berak erantzun eustan:

- Emen argi agiri da baten bat edo baten batzuk zure aurka dabiltzala.

Neuk be ori susmoa ba neukan, batez be Seminario'tik unen nebanetik, baiña esan neutson:

-Eta ezin jakin nei salakuntza zein dan edo salatari nor dan?!
Eta berak

-Ez. Gotzaiñak ori ez dautzu esango.

Orduan emen ezer ez diñon ezkerro, zer egin bear dot¹¹

Eta esan eustan:

- Zu zoaz Mungia ra, or ez diño-ezer, bear ba da idazkariari aizlu jakolako.

Eta esan neutson:

- Ez. Nik ba-dakit zergaitik izan leiteken. Eskutitz au gobernariari erakutsi eta esango dautso: "Zjgortu dot" eta gero niri berbaz Mungia'ra joateko, baiña esan egiozu Gotzaiñari oraingoz bere esana egiten dodala, baiña kontuz ibilteko, olako urratsik geiago emoten ba'dan, bere esana ez dodalako egingo.

Biotz onez esan eustan Goiri'tar Santiago'k:

- Bai zoaz Mungia'ra eta dana konponduko da.

Mungia'ko abadea ez nintzan lez,'lan-saria nondik etoni leiteken be aitatu gendun eta berak Gotzaiñagaz berba egin eban.

Urrengo egun baten Derio'ra joan nintzan barriro berba egiteko eta Seminario-aurrean aurkitu neban Gotzaiñagaz ibiltzen, uste-uste barik. Gelditu neban bere-billa ta Gotzaiñak lenengo agurra egin baiño be lenago esan eustan:

- Zelako zapatak dakazuz? (ikastetxean etxe-lana egiten genbiltzan eta zapatak, antza, autsa euken! Beingoan jarraitu eban:

- Zure auzia bideratuta dago, Mungia'n txanburu baten besteko jrabazia emongo dautsut.

Eta nik esan neutson:

-Baiña zer egiten dot nik Mungia n 25 ume ta irakasle bat baiño ez daukon ikasteUe baten?'

-Eta berak: 25 baiño ez dagoz?

Eta nik: - Ez Gotzain jauna!

-zergaitik ez daustazue esaten?

Eta nik: -zergaitik ez dau itauntzen izendapena egin orduko?

Maitekiro agurtu giñan.

SALIDA DE FRUNIZ

Muchas de las cosas ocurridas en Fruniz, naturalmente, no estan reflejadas en estos relatos, pero, antes de pasar al capitulo siguiente quiero recordar dos: Las reformas en la liturgia y la reforma del templo parroquial.

En liturgia, ya antes de que llegaran los textos actuales, pretendimos ir realizando reformas previas con acuerdos entre los que componiamos el Centro de Conferencia Litiirgico-Moral. No fue nada factl porque casi siempre contabamos con la abierta oposicion de IOS dos de Arrieta. Introdujimos moniciones a salmos de los Oficios nocturnos de funerales, lecturas en euskera en la misa, junto a las Iatinas, posturas adecuadas del pueblo...

En cuanto al templo, una vez abierta una puerta de acceso directo a la sacristia y relizadas las instalaciones sanitarias, se quitaron los tres altares laterales, conservando las puertas de dos sagrarios que eran bellas y las imagenes talladas, se trasladd la pila bautismal a una de las laterales...

Tambien hemos de recordar el movimieto Erri-Gaztedi, que por aquellas fechas se dividio, siguiendo unos Ja lfnea popular y hasta politica y otros una linea mucho mas eclesial. En esta segunda me quede yo y en la primera seguia el Coadjutor, D. Javier. No debo olvidar a Ines Legarreta-Etxebarria que era mjlitante de la primera forma y se caso con un joven muy bueno de Zeanuri.

Por estas fechas recibí carta del Sr. Obispo (D. Pablo Gurrpide), sin previo aviso, como de costumbre, que decia que me relevaba del cargo de Economo de Fruniz por no guardar residencia. Me rogaron D. Javier y sus compañeros que me negara a salir, pero me opuse.

Al dia siguiente hable con D. Santiago Goiri que me dijo, al leer la carta, que "alguien o alguien" me estaban persiguiendo pero que el Sr. Obispo no lo reconoceria ni diria quienes son. Le dije que por esta vez obedecia, pero que dijera al Sr. Obispo que procediera con cauteia, porque si ocurría algo parecido, podria declararme en rebeldia. El Sr. Obispo le dijo que recibirfa nomina de parroco y que me dedicara al Coiegio de Mungia. La carta no lo decia por algo, probablemente era carta para presentarsela al Gobernador. El alcalde de Mungia, bien enterado de ello, dijo en sus oficinas que habia sido inhabilitado para cinco años. Era de suponer.

En esta situacion estuve en Mungia cinco años. Asi se cumplio.



XVIII-2: MUNGIA'N: ABADEEN ARTEAN

Ni Fruniz'en nengoala, batez Erri-Gaztedi'ren arazoa zalata, Gotzainak beti ekin eta ekin egiten ebala euskerearen aurka ikusirik, abadeen artean giroa oso asarrekorra zan. Ekaitza gaiñe-gaiñean geunkan. Eskualdeko abade guztiai begiratu ezkeru, adiñez aurreratuak ziranak geratu ziran alde batera, batzuk zalantzan agertu arren, esaterako Arregi'tar Jose M^a ta Solozabai dar Paulin, eta beste batzuk geroago ta biziago eurenean, esaterako Etxezarraga'tar Paskasio eta, jakiña, Mungia'ko txanburua, azkenera arte arzipreste izana.

Laster asi zan gure arteko ekaitza agertzen. Lenago egin genduzan ekintzak, batez katekesiko sariketa ospetsuak, sakonki kritikatuak izan ziran eta gure artean euskerea erabilli bear zala aldanikatu zan. Azkenengo au zio dala, Arlzipreste jaunari eskatu geuntson, guztiok euskaldunak garan ezkeru, otoitz-eguna edo erretiroa zuzentzeko abade euskaldunak ekarri egizala eta dana euskeraz egin. Ezetz erantzun eban eta ezetz ori oiñarritzeko iru zio ipiñi ebazan: Erderea guztiok dakiguJako. zuzendari euskalduna aurkitzea ain erreza ez zaiako eta berak agintzen ebalako.

Laster erantzun geuntson: Erdera ba-dakigu, baiña euskaldunak gara. zuzendari euskaldunak aurkitzeko geu arduratuko gara eta agintzen jakin egin bear da ondo agintzeko.

Egun orretatik aurrera otoitz-egun bat egiten zan erderaz eta egun beratan beste bat euskeraz. Gogoan daukat egun baten Nuñez'tar Pedro Sakramentinua ekarri gendula geure zuzendari lez eta geure arteko gataska agertu geuntsonean, joan egin jakun zuzendu barik, giro orrelan otoitz-egunik ezin leikela ospatu eta. Beste egun batzuk polito igaro genduzan.

Baiña bazkaltzeko talde biak alkartzen gintzazan, zuzendari erdeldunak be maian zirala. Or agertu ziran asarrerik aundienak eta zaratarik mingarrienak. Nor-tzuk ziran zuzendari orreik? Tñoiz Ubieta'tar Jose Anjel, onek arazoa uleitzen eban. Geiagotan "Mendiko Txoria" esaten geuntson Luis M^a Esparza, Santamariña'ko kapellaua ta orduan Gurbide'ren lagun kutuna, baiña sarriago, gogoratzekoa ez dan beste ez-izen bategaz ezagutzen gendun au, Goiri eta Gerrero'tar Santiago, Seminario'ko Zuzendaria eta Gotzaiñaren kutuna. Onek dana entzuten eban. danari eutsi, eta esan be esaten eban "beroneri apaltasunean ez dautsola iñok irabazten".

Giro samingarri onek ondoren latza ekarri eban: Poliziak abadeen artean zortzi artu ebezan izter-begiz eta oneintzat etorriko dira ondorenik latzenak. Ona emen izenak: Zabalo'tarBalentin, Laukariz'koa, ni Mungia'n eskegita lez nengoana, Zal-bidea'tar Jesus Arrieta'ko laguntzaillea Jainko'n, Madariaga'tar Jose Mari Bakio'ko laguntzaillea, Bilbao'tar Patxi, Meñaka'ko Laguntzaillea, Markaida'tar Juan Mari, Bakio'koa, Ozeri Jauregi Javier, Fruniz'koa.

PROBLEMAS ENTRE SACERDOTES

Es comprensible que esta situación fuera acentuando la división entre sacerdotes, especialmente en la zona. Unos seguían ciegamente la línea de Mons. Gurrutxaga y sus "monitores". Así en general los sacerdotes mayores. Y otros se alineaban en la línea de renovadores y jóvenes, quedando una línea media para los indecisos.

Las actividades anteriores fueron revisadas con nuevos criterios, por ejemplo los famosos concursos de catequesis que aun se recuerdan con cariño entre los feligreses.

Se suplico de buenas formas al Arcipreste que los retiros fueran en euskera porque todos éramos euskaldunes. Se negó rotundamente fundándose en que era difícil encontrar directores en euskera, en que el castellano lo entendíamos todos y además que mandaba él. Le rabatimos estas razones y nos ofrecimos a buscar directores euskaldunes. Pero se negó y surgió la división: Dos retiros simultáneos, uno en euskera y otro en castellano. Un director de euskera P. Pedro Neri Camarero, se negó a dirigirnos en euskera porque no había ambiente de retiro.

Pero nos uniamos en la mesa y aquí surgieron los líos: Alguna vez vino D. José Ángel Ubieta que moderó "la cosa", pero vino más veces D. Luis María Esparza con el que teníamos bronca. Más veces vino D. Santiago Goiri, cuyos intentos de pacificación produjeron el efecto contrario.

Consecuencia de todo ello fue que quedaron señalados ante la policía ocho de los sacerdotes de la zona de quienes se decía que estaban juramentados a no salir de la zona. Algo de eso hubo, pero con la limitación de que fuera así mientras dure esta situación, y, por cierto, sin ningún juramento y llevando una cruz muy pesada.

XVIII-3: GAMIZ'KO ARAZOA

Giro ori orrelan izanik, Gotzaiñaren eta beste arduradun askoren jokabidea olakoa zala. arazoak eta gatazkak nonnai sortu leikeazan eta sortu ziran. Asi gaitzean lenengoagaz.

Ni Gaxniz'tarra naz eta urtero joaten naz Gamiz'era San Antolin egunean, baiña bumikara sartzeko bildurtia ta lotsorra naz, bein sartu ezkeru, ekintzaillea

Ori ikusten da Gamiz'ko arazo onetan. Ez dakit arazoak sei ala zazpi urte iraun eban, baiña urterik urtera azalduko dodaz gauzak.

Lenengo urtean, oraindlño D. Kristdabai nire jagun eta Jaguntzaille aundia izan zana bizi zan. Au ni baiño be bildurtiagoa zan, zurragoa edo maltzurragoa be bai.

Urte orretan Meñaka'ko abade laguntzaille zan Bilbao'tar Patxi'ri dei egin eutsan santuaren goratzenrea edo panejirikoa egiteko. Etorri zan Patxi eta eleizan alta-ra-aunrean España'ko bandera ondo eiotu bat aurkitu eban eta esan eustan:

- Ori or ba'dago, nik berbaldjan argi salatu bear dot arazoa. Eta nik esan neutsan aurtengoagaitik ez esateko ezer eta urrengo urterako Parroko zan D. Kristobal 'egaz berba egin eta onek alkategaz eta arazoa konponduko zala. Baiña Patxi'k ez eban ori onartu eta salakuntza egin eban itzaldian,

Meza-ostean sakristian abadeak eta erriko agintariak batera gosaldu gendun eta ez zan ezer agertu, baiña jarraian alkatea Gobemariagana joan ei zan eta arazoa aurkeztii.

Andik egun batzutara. Gurpide Gotzaiñak dei egin eutson Patxi abadeari eta asarre egin eutson olako itzaldia egin ebalako. eleizan banderea bere lekuan dagoala esan eutson. eta "sari" lez illebeteko oporraldia artu bear ebala, emendik kanpoan. Patxi "k esan eutson opor-aldia nai izan ezker izango dala eta nai izan ezik etxean egon leikela. Ezetz esan eutson, nai ta nai ez, illebeta ori emendik kanpoan igaro bear ebala. Uste dot Patxi abadeak artu ebala beartuta emondako opor-aldi ori. Jokabide orrek ez dot uste ezelako azalpeaik bear dauanik, eta olako jokabidea milla bider agertuko da.

Bigarren urtea: San Antolin eguna utsik barik etorten da iraillaren 2'an eta urrengo urtean be etorri zan. Or bitartean il zan D. Kiistobal motorrean joiala kamiño'ko iztripu baten. Artebakar'en eta Jauregi'tar Jose Luis izendatu eben Gamiz'ko arduradun, lendik laguntzailiea be bera zan-eta.



Abadeen artean. Ezkerretik eskoira: Bilbao'tar Patxi, Olazar'tar Martin, Onaindia'tar Txomin, Arostegui'tar Fermin, lagun bat, Kortabitarte'tar Emilio.

Jose Luis'ek deitu eta esan eustan:

-ZU, MARTIN: Aurten San Antolin-egunean zer egingo dogu? Orreik etorri egingo dira beti lez!

Nik esan neutson:

-Ara, Jose Luis! Nik auxe egingo neuke. Sasoiz gagoz eta egiozu eskutitza alkaleari eta esan: "Parroki onelan dagoan artzain-laneko giroa clagoalako, ez zaite eto-m eleizara udal-batzagaz*!".

Lasler artu eban Alkatearen erantzuna. Kontuan artu bear da erantzuna ulertze-ko, parrokiak udalaren areto bat eukala. gazteakaz eta umeakaz batzarrak eta katekesia egiteko. Auxe jzan zan alkatearen erantzuna:

-Udaletxe onetan dagoan giroa dagoalako, *lenbaitlen* atera egizuz gure aretoan daukazuan altzariak eta aske itxi toki ori". Artu-emon ori, jakiña, erderaz izan zan.

Urte onelan besterik ezer ez. Udal-Batza ez zan elezara etorri eta bakean egin zan Santuaren mezea.

Irugarren urtea: Ez zan geiago artu-emonik izan eta urrengo urtean be santuaren eguna eldu zan.

Antxe egoan Udal-Batza euren bandera ederragaz. Guk entzuna gendun etorteko ustea eukela eta amar-amabi abade batu giñan parrokian. Giroa oso armin egoan.

Mezea asteko orduan urten gintzazan abade guztiok alkar-meza esateko lez eta asi baino len Abade Arduradun barriak egin eban berba eta arazoa argitzen alegindu ondoren auxe esan eban:

-Atera egizue bandera au edo mezarik ezin egin izango dogu.

Alkateak erantzun eban:

-Bandera au gotzaiñaren baimenagaz ekarri dogu eta atera bear bada zeuk atera egizu. Orixe diñot nik: Zeuk atera!

Isil-isilik guztiok sakristira sartu giñan eta ez zan mezarik egin. (Eleizako alkarizketa ori euskeraz izan zan).

Antxe geratu ziran udaikideak euren bandera ori zaimzen, ez dakit noiz-arte.

Laugarren urtea: Eguna urreratu zanean, betikoak joan giñan mezea egiteko asmoz. baiña eleiz-inguru guztia poliziz beterik egoan. Euren berebil eta tan antak ugari ikusten ziran. Ez egoaJa mezea egiteko girorik uste izan gendun ela aterik idegi be ez zan egin. An itzi genduzan poliziak eta erriko jentea, 150 inguru. Banaka-banaka etxera joan ziran.

Bostgarren urtea: Urte onetarako. Gurpide il zan eta Apostolu Zaintzaille iez Zirarda'tar Jose Maria Santander'eko Gotzaiña egoan. Onek' Mungia'ko Arzipreste zanari dei egin eta Gamiz'ko meza ori esateko zeregiña leporatu eutson. Deitu eutson. baita, Gamiz'ko abadeari eta egun on'etan parrokitik kanpoan egoteko egin-dua ezarri eutsan. Iñondik ez etorren Jose Luis erabagi oiregaz batera eta mezea asi baiño len sartu eben banderea eta eldu zan Arziprestea Gotzainaren berebillean Neu aurkeztu naiakon eta esan neutson:



Katekesi sariketak.



Katekesi sariketak: Leon M^a Martinez. Gotzain-ordezkaria.

- Don Juan Migel, zetarako zatoz! Zetarako sartzen zara gure arazoetara?

Berak esan eustan:

-Gotzaiñak agindu daust!

Nik esan neutson:

-Zuk ondo dakizu Gotzaiñaren esanak noz eta zelan egin.

Emen berba iraingarri batzuk esan neutsazan. Ez neban ondo egin.

Sartu zan Juan Migel jauna eleizara mezea esateko eta iñor ez egoan eleizan. Udal-Batza bandereagaz eta epaikaria ta emaztea izan ezik. Monagilloak berak be itaundu egin eban zer egin bear eban eta bere lana egiteko esan geuntsan, baiña alperrik, tximista baiño bizkorrago urten zan eleizatik.

Mezea egin zan, erritarrak barrura sartu barik eta atepak ondo itxita.

Meza-ostean edatetxe batera joan ziran gosaltzeko eta ekiñaldi onetarako etorria zan Gobernariaren ordezkioak esan eutson Juan Migel Jaunari. erderaz jakiña:

-Eskerrik asko Jauna, zuri eskerrak zuzendu da Gamiz'ko gataska!

Eta abadeak erantzun eutson:

-Bai, zuk ori diñozu, baiña abade-lagun batek ez daust olakorik esan.

-Zer esan dautzu ba!

Eta nire berba iraingarriak esan eutsozan.

Euren arteko Alkar-izketa ori ordu bi baiño lenago eldu zan nire belarrietara. eta urrengo egunean Juan Migel abadeari aurpegira bota neutson. Berak ukatu egin eban, baiña lekukoak daukadazala esan neutsanean, berak ez ekiala nor zan esan eustan.

Nire erantzuna iraingarriagoa izan zan eta salataria, "txibato" zala esan neutsan, eta zerbait geiago. Abade batek olakorik ez daukala esan bear izan zan bere erantzuna.

San Antolin egunean beti lez beste abadeok alkarragaz bazkaldu gendun eta konaturatu gintzazan zelako samintasuna eukan barruan erriko abade zan Jauregi'tar Jose Luis'ek. Geroago beste gorabera asko izan eban bai Gulpide Gotzaiñagaz lenengo eta bai poliziakaz. Zemaiz beteriko eskutitz asko artu eban. Esan bearrik ez dago jazokizun guzti oneik izparringietan zabaltzen zirala, baiña orduko pojitikearen erara.

Seigarren urtea: Arziprestea ekarten etorri zan txoferra uste dot izan zala (Zugarramurdi abadea uste dot) Gamiz'en jazorikoen barria gotzaiñari emon eutsona.

Urengo urtean Zirarda Apoztolu-Zaintzailleak eskutitza egin eutson alkateari Gotzaiñaren baimen barik geiago ez sartzeko eleizara udalkideakaz alkartuta (en cuerpo de comunidad).

Orreian amaitu zan, bein betiko, Gamiz'ko arazoa.

UN PROBLEMA EN GAMIZ

Creada esta situación y siendo la reseñada la actuación del Sr. Obispo, era de esperar que los conflictos surgieran por doquier. Y así fue. El primero fue el de mi pueblo, Gamiz, que se desarrolló durante seis años. Yo, como nativo, acudía cada año a Gamiz a la fiesta de San Antolín el dos de septiembre. Siempre he sido tímido y miedoso para entrar en conflictos, pero una vez entrado, muy tenaz.

El primer año fue un panagrico del Santo en el que se declaró que aquella bandera nacional presente en la misa no era permisible. El predicador fue "premiado" por el Sr. Obispo con un mes de vacaciones "forzosas". El segundo año el parroco nuevo, había muerto ese año D. Cristóbal, me dijo:

OYE, MARTÍN, ¿Que hacemos el día de San Antolín?

Decidimos escribir una carta al alcalde rogándole que "teniendo en cuenta la situación pastoral" no acudiera en corporación. (la parroquia usaba un local del Ayuntamiento). El alcalde contestó diciendo que "por razones especiales" desalojase el local que ocupaba la parroquia. No pasó nada más y se cumplió lo pedido.

El tercer año se supo que vendrían y acudimos una docena de sacerdotes a concelebrar, pero antes el parroco pidió, previa explicación, que quitaran la Bandera. Contestó allí mismo el alcalde:

- La bandera se ha traído con permiso del Sr. Obispo y si hay que quitarla, quitela usted, eso digo yo, quitela usted» Nos retiramos y quedaron ellos en la iglesia con su bandera, no se hasta cuando. No hubo misa.

El cuarto año fuimos los de siempre a misa, pero había tal cantidad de policías alrededor, tantos coches y personas, unas ochenta, que no creímos oportuno celebrar y nos ausentamos.

Para el quinto año Mons. Gurpide había muerto y Mons. Cirarda tomó la iniciativa: Pedir al Parroco que salga de! pueblo ese día y rogar al Arcipreste que diga la misa. No nos gustó, ni mucho menos, la solución, pero llegó el arcipreste en el coche del Sr. Obispo y hubo un enfrentamiento verbal duro antes de entrar. Él entró y celebró ante la bandera y el Ayuntamiento, el Juez y su señora, mientras toda la gente, más de 150 personas estaban fuera, incluido el monaguillo al que "se le aconsejó" que le ayudara, pero salió en cuanto vio aquel ambiente. Un delegado del Gobernador felicitó al Arcipreste, pero este le relató el enfrentamiento verbal. Al día siguiente, porque todo se sabe en los pueblos, hubo enfrentamiento más duro.

El sexto año Mons. Cirarda mandó al alcalde que no acudiera en corporación sin permiso suyo, con lo que quedó resuelto el problema.

XVIII-4: GAU-GURTZA.

Fruiz'tik Mungia'ra aldatu nintzanean. Gurpide Gotzaiñak. esan dodan lez, txanburuaren saria emonaz arazoa zerbait bideratu arren oraindiño ba-egozan beste arazo batzuk: Abade guztiak Mungia'n euren bizilekua euken, baiña niretzat ez egoan; parrokian beti izaten dira egin gura ez diran (an batzuk eta orreik niretzat izaten ziran. esaterako Asilo'ko baten illeta ospatzeko eskubidea emon eustan txanburuak eta mezea abestua izan zalako 5 pezeta emon eustazan, Gau-Gurtza orduan indartsu egoan eta illero im gautan egiten eben. gabeko amar eta erdietan asi eta goizaldeko bostak arte eta irurak nenretzat izan ziran. illero iru gau galdubearra: Fruniz'en nengoala Ganbe auzoan ipiñi neban mezea igandero neuk esaten neban, Mungia'ko parrokian meza bat eskatu neban domeketan eta. gogo aundi barik baiño ez ba zan be, amaika ta erdietakoa emon eusten. SaTitan kendu nai izaten eusten zergaitik edo agaitik.

Beste au be esan bear dot: Pzako gabeko eleizkizuna egiteko eskatu etistan bein txanburu zan Juan Mige) jaunak, baiña ezetz esan neutsan, berak agertzen eban larritasuna ez neban uste benetakoa zan.jk. Berak ospatu eban eta ez jakon ezer jazo,

Frúniz, 6 de julio de 1.964

Excmo. y Rvdmo. Sr. D. Pablo Gúrpide
Obispo de Bilbao

Excmo. y Rvdmo. Sr.:

Me ha comunicado e M.I. Sr. Rector del Seminario la decisión de V. E. Rvdma. de que se proocinda de mis servicios en el Seminario para el próximo curso.

Con mucha pena, puesto que ponía en el toda mi ilusión y esfuerzo, pero resoultamente acopete la determinación de V. E.

Seguiré trabajando con todas mis fuer eneceta nuestra querida parroquia de Frúniz. Tampoco dejaré de manifestar a V. E. m filial afecto eclesial y que cada voz con más fervor le encomiendo en mis pobras oraciones ante el Señor, peespecialmente en la Santa Misa

Besa respetuosamente el pastoral anil de V. E. Rvdma.

LARRAIN OLIVER

Gotsaiñari erantzuna.

INFORMAC

**NOTA DEL OBISPO DE BILBAO
SOBRE LA ASISTENCIA DE
AUTORIDADES CIVILES AL TEMPLO**

El Obispo de Bilbao, Sr. D. Pablo Gúrpide, ha publicado una nota sobre la asistencia de autoridades civiles al templo. En ella se expresa su deseo de que los funcionarios públicos que asistan a las misas en el templo, lo hagan con el espíritu de devoción y respeto que debe caracterizar a todo fiel que participa en el culto divino.

El Obispo de Bilbao, Sr. D. Pablo Gúrpide, ha publicado una nota sobre la asistencia de autoridades civiles al templo. En ella se expresa su deseo de que los funcionarios públicos que asistan a las misas en el templo, lo hagan con el espíritu de devoción y respeto que debe caracterizar a todo fiel que participa en el culto divino.

El Obispo de Bilbao, Sr. D. Pablo Gúrpide, ha publicado una nota sobre la asistencia de autoridades civiles al templo. En ella se expresa su deseo de que los funcionarios públicos que asistan a las misas en el templo, lo hagan con el espíritu de devoción y respeto que debe caracterizar a todo fiel que participa en el culto divino.

Baiña lanik aundiena San Pedro Ikastetxearen ardurea eta Abadegaiak euren ikastetxean emoten neutsezan klaseak ziran.

Aurrera orduko, barri txiki bat esan bear dot. Gau-Gurtza'ren zeregiñetan nenbi-Jlala, Franco'k ipiñi eban erreferenduroa *egin* zan eta eleizetan zerbait esateko agindua egoan. Nik esan neutsen autarkia emon "baiño len, zeri emoten jakon ondo jakin bear dala, askatasun osoagaz emon bear dala, eta abar... Urrengo egunean eurretako zintzo batzuk esan eusten: Ez dau esan autarkia ez emoteko baiña asko ez da falta izan...

Eta beste au: Ikastetxera saitzeko atea, eleizara sartzeko bear zan ate txikia bera zan eta egun baten itxita aurkitu neban. Joan nintzan txanburuagana eta esan neutson: -Zergaitik itxi dozu zeure giltzagaz ikastetxeko atea?

Eta berak esan eustan:

-Ate ori itxi ezker, ikasle guztiak eleizatik sartzen dira eta orrelan guztiak egiten dautsoe ikustaldia gure Jaunari. (Berreun inguru ziran ikasieak).

Beste bein berak Mungia'n iJ nai ebala esan eban, emen iJJetetan meza eta errespontso asko egoalako.

Une bat eldu zanean Gurgide Gotzaiñak, bere esanera makurtu naiten, lan saria kendu egin eustan. Estu aurkitu nintzan, ordurako seminarioko irakaskintza kenduta neukan-eta, gure ikastetxean laikoai ondo ordaintzen geuntsen, baiña ez abadeai, euren irabazia eukeiako. Beste ordu batzuk emon-bearrean aurkitu nintzan, ikasturte barruan ez asko, baiña udan egunero amar ordu bai. Gitxi kobratzen neban eta ikasle batzuk gorputzez edo buruz gitxituak ziran. Laguntza, pozgarria zan. Onelan jarraitu neban urte batzutan, ikastetxe Nagusiko azterketak be neuk ordaindu bear nebazala, geroago esango dodan lez.

Baiña goazen Gau-Gurtza'ren arazo larrira.

Talde onetan Jcideko ziran batzuk esan eusten euren ikurraren buruan banderearen lazua ipinten ebela eta ez dabela ontzat artzen. Arazo ori agertu neutsen batzar baten eta euren araudia idegi eta esan neutsen ori araudiaren aurka egoala.

Urrengo batzerrerako lazua ori eroatea nai ebenak araudi barriago bat ekarri eusten eta onek iñoanez, ezer ezin ipiñi lei bandearea izan ezik. Galtzaite urten neban ba eta esan neutsen, ori orrelan ba'da, itzi egiten nebaia Gau'-Gurtza'ren kapellautza. Or amaitu zan nire lan latz au eta beste askok be itzi eben talde ori.

Zertan geratu zan gauzea? Ba, iru taldegaz bat egin eben eta jarraitu, eurenean oso jente zintzoa ziran. Oraindiño be aurrera doaz.

Antes de finalizar este apartado, manifiesto mi afecto a los que llevaron a cabo aquella accion heroica pero no puedo menos de decir que habia otros caminos, otras alternativas.

XVIII-13: ITZALDIA MUNGIAN GORPUZTI EGUNEAN, SALAKETA ALKATERIK ALKATERA, GARELLANO'RA, BURGOS'EN EPAIKETA, ONDORENAK,

Aldi aretan abade asko ziran egindako itzaldiakaitik zigortuak eta talde bat Zamora'ko espetxera eroan eben izuna ordaindu ez ebelako, ordezeko baiketa (arres-lo subsidiario) lez. Arlo onetan neuri jazorikoa agertuko dot orain.

Mungia'n egun areitan gazte batzuk espetxeratu ebezan edatetxeetan euskeraz-ko abestiak abestu ebezelako. Eldu zan Gorpuzti eguna eta nik. domeka ta jai guztietan lez, Ganbe auzoan esan neban mezea eta Mungia'ko eleizan beste meza bat esan bear neban amaika ta erdietan. Ejeizara urreratu nintzanean, ate-aurrean erriko txanburua egoan gure Jauna eskuelan ebala, aurrean udal-batza kandeiak eskuetan ebezala eta eres batza alboan españatarren "martxea" joten. Neure artean niñean: Zelan izan leiteke abesti batzuk espetxerako bidea izatea eta beste batzuk gure Jaunaren aurrean abestu ta onartuak izatea? Ori dala-ta itzaldi bat egin neban. Laburpena baiño ez neukan eskuetan, ez zan idatzia,

Egun batzuk geroago Zirarda Gotzaiñak berbaldj ori eskatu eustan. Nik laburpena apur bat luzatu eta idatzi neutsan. gitxi gorabera egin neban itzaldiaren antzera. Orain irakurri ezkeru, itzaldi ori legorra da. baiña aldi aretako giroan ez ainbeste. Dana dala, Gotzaiñak itzaldi orretan ez egoala ezer okerrik esan eustan. Naikoa zabal jokutzen eban Zirarda gure gotzaiñak.

Baiña zergaitik Gotzaiñaren eskari ori?

Nire itzaldia Gamiz'ko alkateak entzun eban eta Mungia'ko Udal etxera joan eta alkateari estu eskatu eutson itzaldi ori salatzeko eta onek salakuntza egin eban militarren aurrean.

Garellano'ra dei egin eusten mililarrak eta auxe izan zan, gitxi gorabera an izan neban alkar-izketa edo egin neban agerpena:

-Zure aurka -esan euslan komandanteak- salakuntza bat dago egin dozun itzaldi bategaitik. Esan zeinke labur zer esan dozun?

Berbaz laburpena egin neban.

-Zuri buruz lenagoko gai batzuk be lotuta datoz salakuntza onegaz. Egia da Gamiz'en banderearen goraberak izan ziranean an izan ziñaia?

-Bai. Egun orretan beti joan naz Gamiz'era eta joango be bai!

-Zergaitik?

-Neure jaiote-erria dalako eta San Antolin egunez erriko jaiak.

-Egia da abadeen gose-greba'ren alde agertu zaraia?

-Gose-greba orretara sartzeko dei egin eusten. baiña ez ninlzan sartu.

-Baiña grebatzailleakaz batera zentozan!

-Batera etorri ba nintzan sartu egingo nintzan!

-Bear ba da, gaisoagatik-edo. ez ziñan sartuko.

-Ez. ikusten dozu osasuntsu nagoala.
 -Eta zuk iñoz berbaz edo idatziz euren alde jokatu dozu!
 -Ez dot uste!
 -Gogoratu egizu 400 areekaz izenpetu zenduan agiria!
 -A! Bai. Errukitu egin nintzan greban egozanakaz! Baiña ori ez da batera egotea.
 -Derio'ko Seminarioan sartuta egon ziranen artekoa zaitugu?
 -Bai, egon nintzan. baiña ez egun asko. Amar bat egun jnguru.
 -Zure gaiñetik dagozanak iñoz zigortu zaitue?
 -Ez. Iñoz be ez.
 -Eta zergaitik atera zinduezan Fruniz'tik?
 -Ez zigor lez, artzain-ianeko zioakajtik baiño. eta ori ziurtatzeko Gotzaiñaren agiri idatzia daukat. ez dala zigorra. artzain-laneko arazoa dala diñoan agiria.

Antzeko beste galdera edo itaun batzuk egin eustezan. Nik ez nebanezer agertu, baiña eurak be gauza asko ez ekiezala ikusi neban. Itaunketa au amaitu zaiean, idazkaria bialdu egin eban eta Gamiz'ko alkateari buruz itaun batzuk egin eustazan. Neure auzokoa ta gizon ona zala esan neutsan, baiña berak alkate lez zelakoa zan jakin nai eban eta orretan ezin izan neban goratu nire auzoko gizona. Salataria nor zan ezin esan leikela esan eustan, baiña auzia Burgos'era joango dala eta andik etorriko dala erantzuna.

Eta etorri be etorri zan ille batzuk geroago. Auxe iñoan gitxi gorabera: Itzaldia euskeraz izan zan lez eta lekukoak erderaz emon euren eritxiak. ez datoz batera lekuko oneik eta orregatik, barriro be, auzipetua askatuta geratzen da. Eta antxe agertzen eban Salatzaillea nor izan zan: Mungia'ko Alkatea. JaiTaian alkate onegana urreratu nintzan eta esan neutson:

-Eskerrik asko itzaldi onak egiteko lagundu nai daustazulako!
 -Ez naz ni izan salatu zaitudana!
 -E! Koniuz! *Emen* dankat zuk izenpetutako salakuntza.
 -Bai. Baiña beste batek beartu nindun.
 -Ori ba-dakit. Gamiz'ko alkateak. Baiña salakuntza zeuk egiña da.

Zerbait geiago luzatu zan alkar-izketa, baiña or amaitu zan arazo ori. Militarren aurrera joan-bearrak bildurra sartu eustan. baiña nire abade-Jagunak atera arte lagundu eusten eta gero batera ba/kaldu gendun. Zirarda Gotzaiña neure aide iza-teak be asko lagundu eustan. Eta amaitu baiño lenago esan dagidan beste au: Nik ez dautsadala iñori gorrotorik. ez nazela iñogaz asanetu ez arazo onetan eta beste ezertan. Zori-txarrez batzutan, eurak asarratzen dira.

Beste jazokizun txiki bat gaiñeratu bear dot. garrantzi aundikoa ez da baiña bai aldi areiako gure egoerea argitzeko egokia eta barretxua eragiteko bidea be bai.

Iñaki nigaz bizi zan nire lobeak adiskide bat eukan Madrid'en, militarren baten semea-edo. Eta onek egun baten eskutitz bat egin eutson lobeari eta eskutitz orretan, txantxetan jakiña. auxe iñotson Iñaki'ri: "Esan egiozu osabeari bere gotzaintzarako izendapena eginda dagoala eta egun gitxi barruan agertuko dala izparringietan". Eskutitz ori erakutsi eustan iñaki'k eta biok barre gendun.

Urrengo egun baten Mungia'ko Guardi-Zibillen kabuak esan eustan:
-ZU, MARTIN jZorionak! Iturri onetik jakin dot gotzain egiten zaituela!
Ori entzun eta laster joan nintzan bidalgora eta adiskide neban ango arduradunari esan neutsan:

-Emen bidalgoan kontrola daukazue?

-Ez, emen ez dago ezelako kontrolik. Orra barrura banatzailleak baiño ez dira sartzen eta iñoz Laukariz'ko abadea!

Nik azaidu neutsan jazorikoa eta arrituta geratu zan eta geiñeratu eban:

-Ba-diñotzut, emen ez dago ezelako kontrolik, eta txantxetako barri ori zuk artu baiño lenago zabaldu ba'da. emendik ez dau urten. Bilbao'n izango da kontrol ori!

Orduan konturatu nintzan gure eskutitzak kontrola eukela, ez neban beste biderik ikusten garrantzi-bako jazokizun au argitzeko.

Habiendome enterado de que algunos jovenes habian sido denunciados por cantar en bares cantos en euskera, el dia del Corpus presencie algo que me parecio muy discriminatorio: Llegue de ceJebrar misa en el Barrio de Gaube y al acercarme a la parroquia vi al Parroco ante la puerta con el Señor en sus manos, el Ayuntamiento delante con velas encendidas en las manos y la Banda municipal tocando el himno nacional. Estos dos hechos me dieron tema de una homilia que no la redacte sino que prepare un resumen.

A los pocos dias de pronunciada la homilia, Mons. Zirarda me pidio una copia de dicha homilia. Le explique como tuve solamente un resumen delante, pero redacte, mas o nienos, la homilia. Leida ahora no hace muy buena impresion, pero hay que situarla en aquel ambiente. Monseñor me contesto diciendo que no encontraba nada censurable en la homilia. Pocos dias mas tarde me llamaron de Garellano que fuera a declarar y me fui sin poner dificultades.

El comandante me pregunto muchas cosas y mis respuestas eran ciertas pero a la defensiva. Yo le pedi que me dijera quien era ei denunciante, pero se nego a decirmelo.

Pasados unos meses vino la sentencia desde Burgos. Decia mas o menos: Las declaraciones de distintos testigos no estan de acuerdo, posiblemente porque la homilia fue en vascuence y los testigos declaran en castellano, por lo que una vez mas queda absuelto. Y en ese documento si aparecia como denunciante el Alcade de Mungia. Inmediatamente fui a hablar con el y a agradecerle su empeño en que yo hiciera buenas homilias. Me dijo que no fue el, pero al mostrale la sentencia con su nombre, me dijo que otros le habian pedido. Le dije que ya lo sabia, que habia sido el Alcade de Gamiz pero que la firma era suya.

No tuvo mas consecuencias este incidente, pero quiero que quede bien claro desde ahora, que nunca me he enfadado con Ios que me han perseguido. Pueda que algunos de ellos se hayan enfadado, pero muchos siguen siendo amigos. Eran tiempos dificiles.

**OLAZAR ETA URIBE'TAR MARTIÑEK
GORPUZTI EGUNEAN EGIN EBAN BERBALDIAREN
LABURPENA (bere idezkitik zeatz)
(MUNGIKO SAN PEDROREN ELEIZAN, 1969)**

"Astertu beite gizona eta orrelan ogi au eta ardaa edan begiz. Bear ez dan lez jan-edan dagianak bee galmena artzen dau".

NORTZUK DUIN EZ

- 1.-Gorrotodunak: etxean, auzoak, errian, agintari-menpeko (zuzen-billa)
- 2.-Nagosikeria daukenak, besteak zapalduaz.
- 3.-Erri-artu-emonak gogorkeriz atendu nai: zelako tamala: anaiak alkar zigortuten, expetxeratuak, gero mai batera?
- 4.-Erri-agintaritza euren probetxurako darabilenak: diruz, famaz, arerioak zapalduaz...

Zaiatariak: Judasen antzera.

5.-Zur-zaleak: batez be iñoren kaltez.

DUIN?

7.-Benetako bake-egilleak; oñarriak: egia, zuzentasuna. itzaltasuna.

8.-Erriak aukeratu eta erria otseindutetn daben agintariak: denporea, apaltasuna.

9.-Egiagaitik... aurrean erabilliak.

10.- Burua erakusten eta euren eretxiak ekarten besteena entzun barik?

11.-Begiratu bakotxak eta astertu, txarto dagoeana zuzendu. Estos puntos que preceden estan literalmente tomados de las notas que tenfa presentes durante la homilia, Cje fue explicada en vascuence. siguiendo exactamente el orden de las mismas y ampliandolas. Paso a exponer en castellano el contenido aproximado.

**AMPLIACION DEL RESUMEN DE LA HOMILIA
QUE TUVO EN VASCUENCE MARTIN OLAZAR
URIBE EN LA PARROQUIA DE SAN PEDRO DE
MUNGIA EL DIA DEL CORPUS CHRISTI DE 1969**

Hermanos:

Hemos ofdo en la epfstola de San Pablo estas palabras: "Examfnese el hombre y asf coma este Pan y beba de esta Caliz. E) que comiere o bebiere indignamente come y bebe su propia perdicion".

Ahora que vamos a tomar parte en la Sagrada Mesa, veamos quienes son dignos y quienes no de participar en ella.

No son dignos de participar en esta comida de hermanos todos aquellos que estan dominados por el odio tanto en su familia en su vecindad o en su pueblo como en las relaciones entre gobernantes y gobernados. Pienso que ninguno de vosotros estara en esta situacion de odio, pero si alguno estuviera, seifa preciso que rectificara su vida antes de participar en la Misa.

No son dignos de participar en esta Sagrada Reunion aquellos que creyendose superiores a otros, poseidos de su autosuficiencia, desprecian a los demas y pisotean sus legitimos derechos.

Tambien es preciso que os aclare que no deben participar en esta Sagrada Misa aquellos que quieren solucionar los problemas humanos de la convivencia civil basandose en la violencia: Que doloroso. realmente. que en torno a una mesa nos encontremos quienes golpean y han sido golpeados. quienes encarcelan y han sido encarcelados!

Tampoco son dignos aquellos que, constituidos en autoridad, se sirven de esta para provecho propio, para conseguir la fama, el dinero o la opresion de sus enemigos.

¿Y como habiamos de ocultarlo? No son dignos de estar en esta fiesta de fraternidad cristiana aquellos que. siguiendo el ejemplo de Judas. acuden a nuestra reunion para denunciar al que en ella tiene el uso de la palabra.

Por fin, no son dignos de reunirse junto al altar los que, a la hora de construir un mundo nuevo, quieren poner los cimientos en la mentira y mas si con esta mentira se busca el perjuicio de los demas.

Pero. pasemos, hermanos. a una segunda parte mas positiva.

¿Quienes hemos de decir que son dignos de participar en la Santa Misa?

Ante todo, aquellos que. en estos momentos difciles tratan de construir la paz para un mundo nuevo. Aquellos que toman como cimientos de esta paz la justicia, la verdad, el respeto a los demas. Entre estos, creo yo. podemos contar a los sacerdotes que han tomado parte en la huelga del hambre en el Obispado de Bilbao.

Y aquellas autoridades. sin dudarlo. que. elegidas por el pueblo, le sirven a este durante el tiempo convenido y con humildad.

Todos aquellos. ciertamente, que estan perseguidos por la verdad, por la justicia. por la caridad.

Los que se acercan con la pura intencion de amar a Dios nuestro Buen Padre del Cielo y a los hombres, hermanos, y no a exhibirse a si mismos y sus opiniones personales, a escuchar en procesiones sus propios himnos, mientras prohíben hasta cancioncillas callejeras que exteriorizan opiniones diversas a la suya.

Examine, pues. cada uno su conciencia. Si en ella encuentra algo que no sea recto. procure rectificarlo. Y asf. acerquemonos al gran misterio cuya fiesta celebramos hoy.

JUZGADO MILITAR EVENTUAL N.º 4
6.º REGION

CÉDULA DE CITACION

BILBAO

En el procedimiento n.º 130 del año 1969 seguido por este Juzgado contra
por el delito de
se ha dictado por el Sr. Juez diligencia, acordando citar a Vd. para que comparezca ante el mismo, sito en el
Cuartel de Garzellano el día **22** de **Agosto** de 19-69
a la hora de las **10** e fin de **prestar declaración.**

bajo los apercibimientos legales

Y para que tenga lugar la citación acordada, expido la presente cédula en **Bilbao**
a 29 de **Julio** de 19 **69**.

ENTRADO.

EL SECRETARIO
[Firma]

Sr. D. **MARTIN OLAZAR UBIBE, Sacerdote, residente en Munguía.**

Art. 589.—El que citado con las formalidades procedidas para prestar declaración y no comparece o comparece en las menciones señaladas en los Arts. 586 y 587 de este Código de Procedimiento Judicial sin causa justificada sufrirá el fuero pasado, en la multa hasta de 500 pesetas que le será impuesta por la Autoridad Judicial, y propuesta del instructor, y si no la satisficiera en el plazo que le señala se hará efectiva por la vía de apremio.
Si al tiempo fuere militar se dará cuenta de la falta a la Autoridad Judicial para su corrección.
Si por cualquier causa dejare de comparecer legalmente será considerado a propuesta del instructor por los Agentes de la Autoridad, el fuero pasado, o se impondrá su obligación al fuero militar de la Autoridad Militar correspondiente, y se procederá contra él por delito de desobediencia grave a la Autoridad.
Art. 590.—El que sin causa justificada o desobediencia legalmente no comparece a prestar declaración se negare a manifestar lo que supone respuesta de los hechos sobre que fuere preguntado por el instructor, será advertido en el acto de la obligación de depositar, y al persistir en su negativa, se procederá contra él por el delito de desobediencia de escrito, definido en el Código Penal para los reos y partos.

JUZGADO MILITAR EVENTUAL N.º 4
6.º REGION

CÉDULA DE CITACION

BILBAO

En el procedimiento n.º 131 del año 1969 seguido por este Juzgado contra **MARTIN OLAZAR**
URIBE por el delito de
se ha dictado por el Sr. Juez diligencia, acordando citar a Vd. para que comparezca ante el mismo, sito en el
Cuartel de Garzellano el día **20** de **Octubre** de 19-69.
a la hora de las **10** e fin de **ser notificado.**

bajo los apercibimientos legales

Y para que tenga lugar la citación acordada, expido la presente cédula en **Bilbao**
a 24 de **Octubre** de 19 **69**.

ENTRADO.

[Firma]

EL SECRETARIO
[Firma]

Sr. D. **MARTIN OLAZAR URIBE, Sacerdote.- C/Plaza F. de Castilla, MUNGUÍA (Vizcaya)**

Art. 589.—El que citado con las formalidades procedidas para prestar declaración y no comparece o comparece en las menciones señaladas en los Arts. 586 y 587 de este Código de Procedimiento Judicial sin causa justificada sufrirá el fuero pasado, en la multa hasta de 500 pesetas que le será impuesta por la Autoridad Judicial, y propuesta del instructor, y si no la satisficiera en el plazo que le señala se hará efectiva por la vía de apremio.
Si al tiempo fuere militar se dará cuenta de la falta a la Autoridad Judicial para su corrección.
Si por cualquier causa dejare de comparecer legalmente será considerado a propuesta del instructor por los Agentes de la Autoridad, el fuero pasado, o se impondrá su obligación al fuero militar de la Autoridad Militar correspondiente, y se procederá contra él por delito de desobediencia grave a la Autoridad.
Art. 590.—El que sin causa justificada o desobediencia legalmente no comparece a prestar declaración se negare a manifestar lo que supone respuesta de los hechos sobre que fuere preguntado por el instructor, será advertido en el acto de la obligación de depositar, y al persistir en su negativa, se procederá contra él por el delito de desobediencia de escrito, definido en el Código Penal para los reos y partos.

El Administrador Especial
de Bilbao

Bilbao, 17 de Junio de 1969

Rdo. Sr. D. Martín Olazar
BENGOTA

Mi querido Martín:

D. José Angel me ha entregado tu carta del 14 y el esquema de tu homilía del día del CORPUS CHRISTI, que veo es muy distinto de lo que decía la denuncia que contra ella te llegara por una autoridad diócl. Tomo nota, por otra parte, de cuanto me dice sobre posibles desfiguraciones como ésta, bien por malicia bien por ignorancia.

T. encomiendo para que sigas trabajando en tu colegio y en todo tu sacerdocio "veritatem faciens in charitate".

Quiero que podamos hablar un día sobre tus planes para el futuro, a fin de ver si se pueden realizar los que intercambiamos en nuestra última entrevista.

Gracias por esas oraciones que me aseguras para que tenga luz y fortaleza en la difícil misión que el Señor me tiene encomendada.

Paternalmente en Cristo

+ / *Jarama*

El Administrador Especial
de Bilbao

Bilbao, 9 de diciembre de 1969

Sr. D. Martín Olazar
Sacerdote
BENGOTA

Mi querido Martín:

Ayer noche regresé de Madrid, donde he estado casi diez días y encontré tu carta del 1, que me apresuro a contestarte.

Empiezo diciéndote, porque es lo último que leo en la tuya, que tus observaciones no me han sido ningún motivo de disgusto. Te agradezco y te agradeceré siempre cuanto me digas, siempre que lo implicas el afán de verdad y tus palabras vengán dichas en caridad. Y así es, sin duda, en tu carta.

Esto no quiere decir que pueda aceptar como buenas todas tus observaciones. Algunas pueden serlo y otras no, a mi entender que cuenta para algunas cosas con más datos que los que tu puedes tener. Pero, en fin, trátase de cosas que no son para discutirnos por carta. Encomiendo estaré, sin embargo, si cupieran tus días y horas con los míos y podemos hablar un día sin prisas. Sobre estas cosas y sobre otras muchas. Seguro puedes estar de que me encontrarás siempre pronto a recibirte y a dialogar.

Te encomiendo de corazón. Reza tu también por mí, que necesito mucha gracia de Dios en la difícil tarea en que el Señor tiene metido al episcopado, tanto aquí como en Santander. Y oremos los dos, a una, cuidando por la Iglesia, especialmente por ésta que peregrina en Vizcaya.

Un saludo para todos los hermanos sacerdotes de esa.

Para tí, un abrazo en el Señor

+ / *Jarama*

XVIII-14: ALDI BARRIA: AMARKADA LARRIAREN ERDIAN, ZER LORTU ZAN, ARRATIA'TIK ESKARIA, GOTZAINDEGIRA DEIA, ZEANURI'RA.

Auireko edestian asi dan larrialdia, niretzat. amar urtekoa izan zan. Gitxi gorabera, 1965-1975. Amarkada onen erdian, Mungialdeko ekimzak amaitu ziran. Gurpide Gotzaiñagazko arazo larriak igaro ziran. San Pedro Ikastegiak aurrera jarraitzen eban eta ni beste toki batera joatea edo eroatea, egin leikean gauzea zan.

Baiña amarkada onen bigarren bost-urteetara, lustrora, sartu baiño len itaun oneri erantzun bear dausat: Zer lortu zan ainbeste tirabiragaz, aurrera-bidean zer galdu eta zer irabazi zan?

Nire eritxi apalean, oneik dira lortu ziran gauza batzuk: Erria bideratu demokrati edo erri-agintaritzaren bidean. orregaitjk gaur daukaguzan udal-batzak lortzearen alde bultz egin gendun, ez dira guztiz onak, baiña aukeratuak beintzak. Eleizeari begira, aberats-itxura kentzea lortu zan, ez guk bakarrik. Eleiza txiroa eskatzen gendun eta orretan asko aurreratu da, baita Eleizeak Euskalerrria kontuan artzea be lortu gendun eta urte gitxitan Euskalerrriko Gotzaiñak bertokoak edo euskaldunak izatea lortu gendun. Naizta oraintsu barriro lengo gaisora, pekatuta, jausi gure Eleiza Ama, eleiza erriratuagoa lortu zan.

Ez dogu aitzu bear zer galdu genduan be. Gure GOGORTASUNA taldean izan ziran abaderik geienak. adin onekoak eta zintzoak ziran abadeak, euren abadetza itzi egin eben. Benetan tamalgarria! Zergatik jazo zan ori? Gotzaiñen errua be izango zan, baiña beste jakingarri asko dagoz or jakin bearrekoak, bear ba'da abadetza bera beste era batera eratu bearko litzake, baiña, nire ustez, ori odol-galtze aundi bat lez izan da Eleizearentzat. Beste toki batzutan be antzeko gauzak jazo dira, beste zio batzukaitik, baiña benetan tamalgarria!

Bein Arratia'ko eskualdean Abadeen izenean idazkari zan Lasuen'dar Jose adjskidea etorri jatan Mungia ra eta esan eustan:

-I. MARTIN: Zeanuri'rako bear juk abade bat. Etorriko intzake i?

Baietz erantzun neutsan eta poz aundia artu eban.

Egun batzuk geroago, Ubieta'tar Jose Anjel'ek deitu eta esan eustan:

-Lasuen'dar Jose'k esan daust gertu zagozela Zeanuri'ra joateko. Artu daiguzan ba orretarako bideak. Ba-dakit urte batzuk daroazuzala ian saria eskuratu barik. Zelan dago arazo ori?

-Naikoa ondo ibilli naz, baiña oraintxe daukadaz DeustuTco Ikastetxe Nagusian Filoiojia Romanika amaitzeko ordaindu bear batzuk. Joandako urteak alde batera itzi daiguzan eta zor dodazan 35. 000 pezetak emon al ba-daustazuz...

Baietz esan eustan eta emon be bai. Eta gero lenengo gotzaiñagaz berba egiteko esan eustan.

Egun batzuk barruan ikusi neban neure burua Zirarda Gotzaiñaren aurrean. Ezagunak giñan. bost bat urtetan abade-ikasketan irakasle izan nebalako. Zirarda gotzaiñak aurre-eritxi batzuk eukazan nire aurka eta mingarriak izan jatezan. Lenengo polikara sartu giñala esan eustan. Nire erantzuna au izan zan:

-Ez dot uste iñoz politikara sartu nazanik, eta sartuko be ez. Ori ez da nire bidea. Nik erri-eskubideak zaindu dodaz eta zainduko be bai, ori erritar lez daukadan eginbear aundi bat dalako.

Errez onartu eban nire eritxi ori. Gero esan eustan;

-Mungia'tik ez dozula urten gura entzun dot!

-Ori be ez da oirelan -esan neutsan -. Ez dot urten nai izan, urteteko agindua eleiz-arazoa izan ez zanean, politika-joko baten sartuta etorrelako eskari ori, baiña ni beti nago gertu Gotzaiñak nai dauan tokira joateko, gauzak bear dan lez egiten diranean.

Asko poztu zan ori entzuteagaz eta Ubieta'ren esku geratu zan nire izendapen barriaren arazoa.

OBISPADO DE BILBAO

Teniendo en cuenta las necesidades pastorales y las circunstancias que en V. ocurren, le nombramos COADJUTOR de la Párrroquia de Santa María, de CEANURI, con las obligaciones, derechos y emolumentos que corresponden al mencionado cargo, por un período de cinco años, que podrá ser prorrogado o limitado si las exigencias pastorales así lo requiriesen.

Confiamos que desempeñará V. fielmente dicha encomienda, de cuya posesión se servirá dar cuenta a nuestra Secretaría por medio de oficio.

Dios guarde a V. muchos años.

Bilbao, 15 de setiembre de 1.970.

+ *Juan María Añel Bilbao*

Por mandato de S. E. Rvdms. *Juan de Unzueta*
Canc. Orto.

Rvdo. Dn. MARTIN OLAZAR URIBE, Pbro.

Zeanuriko laguntzaile.

*El Pástor de Santandrea
y el sacerdote de Ceánuri
de Bilbao*

Bilbao, 17 de setiembre de 1970

Sr. D. Martín Olazar Uribe
Sacerdote
CEANURI

Mi querido Martín:

Acabo de firmar tu nombramiento como coadjutor de la Parroquia de Santa María de Ceánuri. Y te escribo para confirmarte lo que te tengo dicho de palabra, sobre mis deseos y esperanzas en tu nombramiento para una eficaz labor sacerdotal en aquella parroquia, en colaboración con los otros sacerdotes de la misma.

Te encargo de manera especial dos tareas, aparte las generales que te tocan como coadjutor:

1.- Espero, en primer lugar, que aportes todo lo que puedas a la formación técnica, humana y cristiana de los jóvenes del valle en nuestra Escuela Profesional Diocesana de Ceánuri. A falta de Martín Orbe, cuya ausencia tanto lamentamos, está allí supliéndole José Miguel Madariaga. Viene cumpliendo una buena labor. No dudo de que tratareis de complementaros los dos en la mayor medida posible, trabajando en auténtica corresponsabilidad, para la mayor eficacia de la Escuela.

2.- Deseo, en segundo lugar, que centres tu actividad pastoral lo más posible en el trabajo apostólico parroquial, promoviendo la formación litúrgica, doctrinal y apostólica de los feligreses, especialmente de los jóvenes. Creo que Dios te ha dado muchas cualidades para ello. Y creo también que has procurado estar al día en tu renovación de acuerdo con el querer del Señor manifestado claramente a través del Concilio y de su proyección ulterior. Bien sabes que la promoción de los seglares y su participación cada vez más activa en la vida eclesial es uno de los factores decisivos para la renovación de nuestras parroquias y de toda la Iglesia. Procura trabajar en esa línea, dentro siempre de lo que es propio de nuestra misión sacerdotal. Para poder cumplir esta misión tienes que cuidar grandemente la solidaridad con todos los sacerdotes de la parroquia, y muy especialmente con D. José Arribabalaga, el Sr. Cura Párroco; y, aun más allá de los límites parroquiales, tendrás que atender a una labor de sector y de zona, según lo ordenado a nivel diocesano. No dudo de que D. José, como buen párroco, querrá darte toda clase de facilidades en esta tarea con la que, de un lado, puede rejuvenecerse la parroquia sobre la base de los valores fundamentales por él cultivados sin duda con celo, y, de otro lado, se prepara una continuidad cuando la ley de la vida le imponga a él, cargado de méritos, dejar la presidencia de esa comunidad parroquial de Ceánuri.

Escribo a D. José y a D. José Miguel contándole estos mis deseos y esperanzas en tu nombramiento.

Con afecto de hermano y amigo, te abraza

+ / Ramirez

Zirarda gotzainak: Zeaurin zelán jokatu.

OBISPADO DE BILBAO

Por las presentes letras, dadas las especiales circunstancias que concurren en la PARROQUIA DE SANTA MARIA DE CEANURI y en el deseo de la mejor atención pastoral de sus fieles, a tenor del canon 475 del Derecho Canónico:

1) Liberamos a su Párroco D. JOSE ARRIBALAGA, a petición propia, de todas sus responsabilidades en la presidencia y gobierno de dicha parroquia:

-conservando los derechos de habitación y nómina propios del párroco;


-quedando obligado a la celebración de la Misa por el pueblo en los días señalados por la ley de la Iglesia; y

-quedando exonerado de todos los restantes derechos y deberes propios de los párrocos;

2) Nombramos a D. MARTIN OLAZAR URIBE, Auxiliar que supla al párroco en todo, con plenas facultades, es decir con todos los derechos y deberes propios de los párrocos, exceptuados los de la aplicación de la Misa por el pueblo y los de habitación y nómina.

Las presentes letras serán válidas "ad tempus" mientras no dispongamos otra cosa, de acuerdo con el párrafo 4) del citado canon 475.

Bilbao, 15 de mayo de 1971

 *Manoia A. de Bilbao*

Zeanuriko abade arduradun.

-ZU_f MARTIN -esan eustan Jose Anjel'ek: zu Zeanuri'rajoateko iru era ikusten dodaz: Zu izan artzain-laneko txanburu eta lengoa zaingo arlokoa, edo zu izan txanburu edo zu izan dagoan txanburuaren laguntzaille.

-Artzain-lanerako txanburua eta zaintzaillea bi izatearen aurka nago, ori ez da iztilluetarako bidea baiño. Edo izendatu nagizu txanburu edo laguntzaille.

-Bertara joango naz eta ikusiko dot giroa zelan dagoan.

Urrengo egun baten barrero egon nintzan Jose Anjel'egaz eta esan eustan:

-Laguntzaille lez bialtzea erabagi dogu.

Nik ez neban eragozpenik ipiñi eta orrelan joan nintzan Zeanuri'ra.

- Gaiñera, -esan eustan. -an irakaskintzarako aukera ederra daukazu, parrokiak lanbide-ikastegia dauka eta an Jan aundia egin al izango dozu. Laster eskuratuko dozun "Filologia Romanica"ko baimen-agiria oso ondo etorriko jatzu orretarako.

Geiago barik joan nintzan, iñok ezagutu barik eta isillean. Zeanuri'ra ikustaldi bat egiten. Pozik nengoan ni ara joateko.

Los años difíciles que vamos recorriendo fueron diez para mi: desde 1965 hasta el 1975. Vamos ahora a terminar el primero de *estos* dos lustros. Antes de pasar al segundo lustro, no puedo menos de hacer algo así como un breve balance: <Que ha habido de bueno y de malo en estos cinco años?

Aunque excesivamente simple y breve, he aquí jni respuesta:

Pusimos al pueblo frente a la dictadura y en camino a la democracia y hoy tenemos los ayuntamientos democraticos que buscábamos. No son perfectos, pero eso era lo que buscábamos y se ha logrado, no solo por nosotros, sino por muchas circunstancias mas.

Y, mirando a la Iglesia, han desaparecido afanes de grandeza y de poder; arrimo a los fuertes y se ha logrado una Iglesia mas cercana a nuestro pueblo y mas pobre. Desde aquellas fechas y a lo largo de 25 años hemos tenido obispos euskaldunes o salidos de entre nosotros. Esa fue una de las metas de nuestra lucha. Pero jay! hoy otra vez hemos vuelto a las andadas. Hay algo que obliga a la Madre Iglesia a no reconocer los derechos del Pueblo Vasco. Ni siquiera se llega a la altura de la Famosa homilia de Añoberos que podia haber sido un comienzo adecuado.

No puedo menos de indicar con dolor otra consecuencia que es muy penosa para mi: La mayor parte de los que componiamos el grupo GOGORTASUNA, han dejado de ejercer el sacerdocio o se han secularizado. Ha sido una perdida enorme para nuestra Iglesia local. *Es* verdad que varios de ellos siguen colaborando, pero ese hecho ha provocado una escasez de sacerdotes que resulta dolorosa. Quizja hubiera ocurrido lo mismo sin estas acciones. De hecho ha ocurrido algo parecido en otros lugares.

Por estas fechas me visito D. Jose Lasuen en nombre de los sacerdotes de Arratia y me propuso la posibilidad de que yo fuera a Zeanuri de sacerdote. Le di un si muy facil y se alegrd mucho.

A los poco dias me llamo D. Jose Angel Ubieta con quien en franco dialogo arreglamos algunos "vidrios rotos" y preparamos un poco el futuro. Me propuso una entrevista con Mons. Cirarda.

En la entrevista con Monseñor aparecieron dos prejuicios que me dolieron, pero terminamos aclarando la situacion: Mons. pensaba que estabamos metidos en politica y que no queriamos salir de Mungia.

Jose Angel me propuso tres posibles nombramientos: Parroco pastoral, parroco unico y coadjutor. No acepte lo de parroco pastoral, pero el fue a Zeanuri y a la vuelta me dijo que seria coadjutor y que no olvide la labor docente en Escuela Profesional.

XIX ATALA: ZEANURI'N, AÑOBEROSTAR ANTONIO
GOTZAIN BARRIA, ELEIZ-ARAZOAK, ERRI-ARAZOAK,
LAN-IKASTEGIA, PARROKI-LANAK, ALBO-IRAKASKINTZA:
ABADE-IKASTEGIAN, GASTEIZTN IKASTETXE NAGUSIKO
MAELLAN.

XIX-1: AÑOVEROSTAR ANTONIO GOTZAIN BARRIA.

Zirarda Bilbao'n Apostolu Zaintzaille izan zan. urte-pare baten edo eta gauza onak eta onuragarriak asko egin ebazan, salantza barik Ubieta'tar Jose Anjel'en laguntza onuragarri izan jakola. Estualdi aundiak be izan ebazan eta sarritan nora-ezean jkusten gendun. Bein baten gogoan daukak Orbe'tar Martin oiñazetu ebenean artu eban jokabidea. Martin adiskideak zauriak erakutsi nai izan eutsozan, baiña, zauriak ikusi barik sinisten ebaJa esan eutson berak. Artzain-agiri bat argitaratu eban gerotxuago eta olako zerbait esaten eban: Oiñazeak ezarten ba'dira ori txarto dago, baiña oiñazeak ezarten ez diranean ezarri dirala salakuntza egitea be ezin onartu leike. Nik eskutitza egin neutson eta ziurtasuna eukiteko zer bear eban esan neutson. ber-bera oiñazetzea?

Bilbao'rako gotzaiña izendatzeko ordua etorri zanean, arduraz gengoan, nor etorriko ete jakun eta azkenean jakin gendun: Kadiz'en gotzain egoan Añoberos'tau Antonio jauna. GOGORTASUNA'ren taJde baten batzarrean izendatze au azertu gendun eta eragozpen bi aurkitzen genduzan onartzeko: Emengo barririk ez ekiaJa, emengo eleizbarrutiagaz ezeiango zer-ikusirik izan ez ebalako eta euskerarik ez ekiala. Beste alde batetiJk. naparra zan, euskeraz itz egiten jakin ez arren, Euskalerrikoa. Batzar orretan erabagia auxe izan zan: Kadiz'era joan eta ez etorteko esan. Orretarako eleiz eta erri-arazoa agertzeko Gabiña'tar Luis joango zan eta beronegaz batera euskerearen arazoa agertzeko neu. Beste bat joan zan gugaz, baiña ez naz gogoratzen nor izan zan.

Eldu ginan Kadiz'era berebilJean eta Andren gaiso-etxean bizi zala jakin genduan Jez. ara urreratu giñan. Maitekiro ta biotz zabalaz artu ginduzan Antonio Gotzaiñak. Eta guk geure arazoa agertu geuntsonean, beste gauza batzuren artean auxe esan euskun:

-Niri Aita Santuak agindu daust joateko eta joan egin bear dot. Ulertzen dodan arazoa da an euskerea jakin bear dauala gotzaiñak eta ni ikasle denporan asi nintzan ikasten, baiña gatx egin jatan eta ez neban ikasi.

Eta nik esan neutsan:

-Orduan, ien lez, neke-artean jarraitu bearko dogu.

Eta bere erantzuna izan zan:

-Alegin guztia egingo dot zuen nekeak arintzen.

Geiago barik etxera biurtu gintzazan, baiña bidean konturatu barik autopista

batera sartu giñan. Emen Bilbao'tik Durango'ra egoan olako bidea eginda, baiña ni inoz sartu barik nengoan. Sarrerako esia ikusi nebanean, iñuzente onek an asten 2ala autopista uste izanik bira osoa egin eta lengo bidetik atzera joaten asi nintzan.

Ango txistuak, keiñuak eta zaratak!

Berebilla urtenbide batera sartu eta laster urreratu jakuzan poliziak. E.san neutsen zer jazo zan eta ez eben sinisten. Euretaiiko batek matrikula ikusita esan eban:

-Bilbao'tarrak zaree, orduan ETATtoak?

Nik esan neutsan:

-Kontuz! Emoidazu zeure zenbakia, salatu egin bear zaitut-eta.

Paikamena eskatu eban poliziak eta orretan amaitu zan arazoa. Andik ille batzuta-
ra izuna etorri jatan. 1. 000 pezetakoa. autopistan aurkako bidetik jbjli nintzalako.

Etorri zan Añoberos Gotzaiña lenago egiten zan lako sarrera ospelsurik egin barik eta oso apal.

Uiteagarrenean-edo izango zan, bere laguntzaille zan MARTIJATAR Eusebio'k dei egin eta auxe esan eustan:

-ZU, MARTTN: D. Antonio Gotzaiña'k diño Zeanuri'ra ikustaldi bat egin nai leukela eta ia onartzen dozun.

Baietz esan neutsan, Gotzaiña Zeanuri n bere lekuan dagoala eta ez dauala bear nire onartzerik, nai dauanean ikustaldia egiteko.

Etorri be egin zan eta esan ebazan meza guztiak euskeraz esan eba2an eia itzaldia bietara.

San Isidro'ren eleizatik urten eta laster, Palentzia'ko Parazangaz'koa zan ba.so-zain eta neure lagun batek, auxe esan eutson:


-Gotzain jauna! Nik ez dakit euskerarik eta erri onetan ez dago mezarik erderaz.

Gotzaiña erantzun eutson:

-Baiña zuk ba-daukazu berebilla eta km. bira daukazu Areatza-Billaro. Zoaz ara meza entzutera. Zeanuri erri euskalduna da eta mezak euskeraz egitea gauza egokia da.

Zerbait esan bear dot Añoberos Gotzaiñaren meza-itzaldi ospetsuari buruz. Ez zan itzaldi orretan beste munduko gauzarik esaten, baiña apal eta bildurrez lez esaten zan Euskalerrriak erri lez eskubide batzuk eukazala. Ez asko geiago. Gaur orrenbeste esatera be ez dira ausartzen gotzaiña, demokrazi-aidian eta bakegintzarako bidean egon arren.

Gure Añoberos jauna be salatua izan zan eta erbesteratu nai izan eben, Ubieta'tar Jose Anjel bere Ordezkeriagaz batera. Egazkiña Sondika n egoan gertu. Baiña Añoberos gogor jarri zan. Berau ikustera Indautxu n eleiz-ondoko etxera joan giñanean, besarkada bereizia emon eta onelan berba egin eustan:



Añoberos gotzaiña.

| | | |
|---|--------|-----------|
| 14-10-72 | 17, 18 | 20-845/11 |
| Sevilla-Cádiz | | |
| Vincular en sentido contrario al correspondiente a la matrícula | | |
| Exp | Fee | 14-77.369 |
| <i>Pajada el día 19-7-72</i> | | |
| <i>Sevilla</i> | | |
| D. Martín Olázar Ordo | | |
| Alonso OLÁZAR (Huesca) | | |

14 DE 1972

Añoberos gotzaiñari ikustaldia. Bidean isuna (multa).



avdo.-. Martín Olázar
Leanuri.-

El Obispo de Cádiz y Ceuta

Le agradezco su simpatía
Le ruego la ayuda de su oración.
Con mi cordial bendición

Antonio, Oj

Añoberos gotzaiñaren erantzun bat.

-Martin! au gure erriagaitik egin geinkenik gitxiena da. Nik esan dautset erbestera eroatekotan, Aita Santu berberaren agindua ekarri bear dabela eta orrelan ez ba'da zizpakaz atera bearko nabela.

Aurrerago, nik zigortuta Olite'ra joan bear izan nebanean, esan neutsan:

- Ni joan ez, errubakoa naz-eta. Eroan bearko nabe.

Berak erantzun eustan:

- Ez zaitez olakoa izan Martin! Gobernariagaz berbatuta nago ta zoaz!

Eta neu joan nintzan.

Gure Añoberos osasun-aldetik be ain ondo ez ebillalako eta eJeizbarrutia aundia zalako, Gotzain laguntzaillea eskatu eban eta Aita Santuak emon be bai. Uriarte'tar Juan Mari adiskidea izendatu eben gotzain-laguntzaiUe. BegoñaTco eleizan gotzain sagaratzea egin ebanean, oso pozik ikusi neban Añoberos gotzaiña.

Baten batek esan ieike:

-Zuk ez etorteko esan zeuntsan, baiña ikusten dozu erratu egin ziñala. Ara zelako gotzaiña etorri jakun!

Egia da, baiña Gotzaiñak izendatzeko artzen diran bideak ez dira egokiak, naizta kasu onetan ondo urten. Gaiñera, itzaldi ospetsua ingurukoak gertatuta egin zan, eta inguruko orreik, Jose Anjel bera esaterako, gotzain onak izango ziran eta emengo eleizea ondo zainduko eben. Ori Añoberos Gotzaiñaren ekintza txalogarriari ezer kendu barik. Eta Ubieta'rentzat erreza izango zan euskerea ikastea, jakin be ainbat daki-eta. Gitxienez emengo arazoa ondo ezagutzen dauan gotzaiña izango zan. Edo beste bat. gero Juan Mari bera izan dan lez, baiña... beste errazoi batzuk erabilten dauz ama dogun Eleizeak.

Mons. Zirarda **era Administrador Apostdlico, no Obispo de Bilbao y esta situacion no debia prolongarse indefinidamente. De todos modos hay que reconocer que en el poco tiempo que durd su cargo hizo cosas notables y en buena linea, como la organizacindn por vicarias territoriales. En otros asuntos fue muy anibiguo.**

Al ser nombrado para Bilbao el Obispo de Cadiz, D. Antonio Añoberos, se reunid un grupo de GOGORTASUNA que aun funcionaba y decidimos ir a Cadiz a rogarle que no viniera, por dos razones: Porque no conocia la problematica de aqui y porque desconocia el euskera. Como representante de los que aducian la primera razon se esegio a Luis Gabiña para que fuera a Cadiz y para el proplerua del euskera se fijaron, una vez mas, en mi.

Y nos fuimos a Cadiz. Le encontramos a D. Antonio en el Hospital de Mujeres y nos recibio con mucha amabilidad. Alguna vez el ha comentado esta entrevista y ha dicho que fuimos muy correctos.

En un momento de la conversacion le dije:

-Sr. Obispo, tenemos pueblos en los que todo el mundo habla euskera y seria un inconveniente que usted fuera de visita y les hablase en castellano. Yo creo que no debe venir a Bilbao.

El me respondio:

-Comprendo que tienes razon. El Obispo de Bilbao debe saber euskera, pero yo no lo se. Intente aprenderlo de estudiante pero se me hizo diftil y lo deje. Pero cuando el Santo Padre me manda que vaya a Bilbao de Obispo, yo no soy quien para decirle que no. Tengo que ir .

-Sr, Obispo: hasta ahora hemos sufrido mucho y seguiremos sufriendo.

-Hare todo lo posible para que vuestro sufrimiento sea menor.

Mons. Añoberos **entro humildemente a Bilbao** y fue un obispo sencillo como se pedfa.

Al año siguiente, mas o menos, me llamo Eusebio Martija y me dijo que Mons. queria visitar la parroquia de Zeanuri donde yo estaba y que diera mi opinion sobre ello. No se si me dijo que pedia mi permiso. Yo le dije que en la parroquia el Obispo estaba en su casa y que no veia ninguna dificultad para que viniera. Vino y celebro todas las misas en euskera y predico en ambas lenguas.

Quando el conocido asunto de la homilia fui a vistarle en Indautxu. Me abrazo muy afectuosamente y dijo:

-Esto es lo menos que podemos hacer por nuestro pueblo.

XIX-2: ZEANURI'N: ELEIZ-ARAZOAK .

Erri-arazoetan gure jokabidea naikoa errez zuritzen da eta artzen dogun samintasuna baretzeko zioak be errezago agertzen dira, baiña arazoa eleizakoa danean ez da ain erreza izaten eztabaidak zuritzea eta samintasuna baretzea. Zeanuri'ra eldu-barri nintzaia eleiz arazo larri bat inguratu jatan eta arazo au bideratzea ez zan gauza erreza izan.

Iraillaren 28'an eldu nintzan Zeanuri'ra, abade laguntzaille lez eta gorabeera aundi barik igaro nebazan lenengo zazpi illebeteak, baiña garizumea azkenerantza joiala, Aste Santu aurretxean, eskoletako irakasle zan emakumea etorri jatan eta esan eustan:

-Erri onetako txanburua zara zu?

-Ez -esan neutsan-.

-Orduan ezer be ez.

-Txanburua ez naz baiña zerbait esan nai ba'daustazu esaidazu.

-Aspaldion txanburu izan danaren aurka daukat salakuntza bat (eta esan eustan, gitxi gorabera arazoa zein zan).

Nik esan neutsan:

-Neure esku itzi egizu arazo ori eta ogeta lau ordu barru bideratuta egongo da. Eta berak erantzun eustan:

-Baiña nik gurasoakaz batzarra daukat gaur eta or arazoa argituko da.

-Eskubide osoa daukazu -esan neutsan- batzar ori egiteko.

Salakuntza astuna zan eta beingoan asi nintzan urtenbidea billatzea.

Lenengo Arratia-inguruko abadeen arduraduna dan Lasuen'dar Josegana joan nintzan Zeberio'ra. Onek argi ikusi eban arazoa eta egun beratan joan zan Gotzain-degira eta Ubieta'tar Jose Angel Gotzain-Ordezkariaz berba egin eban.

Eguen Guren goizean etorri jatan Jose Anjel adiskidea Zeanuri'ra eta esan eustan:

-Ba-dakizu zein arazok nakarren, ez?

-Bai, uste dot baietz.

-Eta nondik jakin neinkez gauzak diran lez? Emakume irakasleagaz berba egin? Udaletxeko idazkariagaz, onek be esku-artu dauan ezkerok?

-Irakaslea ez dot uste egokia danik beronegandik urtendako arazoa dan ezkerok. Udal-idazkaria be ez dot egokitzen jotzen. Zergaitik ez guraso balzukaz?

-Lenengo txanburuagana joango naz-esan eustan- eta gero ikusiko dogu.

Joan zan txanburuagana eta naikoa arin etorri zan, ordu-erdi barruan-edo, eta esan eustan:

-Egin dot berba eta arazoa bideratuta dago. Gaurtik zeuk artu parrokiaren ardu-rea eta txanburua opor-aldira joango da eta datorrenerako zar-saria gertatuko jako.

Orretan gengozala, geure ondolik igaro zan txanburua eleizarantza eta ez nekian beronen egoera zein zan. Dana konponduko daia esan neutsan.

Eguen Guren eguneko mezea ez zan izan aitzutekoa: Txanburua sakristian geratu zan baiña noizean bein erri-aurrera, kukuka lez, agertzen zan. Guk mezea beti lez esan gendun.

Meza-ostean beragana joan nintzan eta opor-aldira doala esan eustan.

Urrengo igandean, baiña, mezan egiteko oar batzuk emon neutsazan Aguirre'tar Eladio laguntzailleari eta onek, lenengo mezan, oarrak aldatu egin ebazan. Nik esan neutson:

-Nik emondako oarrak ez dozuz egin, beste batzuk baiño!

-Txanburua dago or -esan eustan- berak emon daustaz.

-Zuk neuk esaten dautsudana egizu eta gauzea argi ez ba'dago itandu Gotzaindegian.

Une aretan Txanburua etorri zan sakristira eta Eladio jaunak esan euston:

-Onek berau dala txanburua diño!

Eta nik:

-Ez dot nj olakorik esan, neuk esana beteteko baiño.

Orduan txanburuak esan eban:

-Bai, neu naz txanburua, neu naz txanburua!

-Bai, baiña entzun zendun Gotzain-Orderzkariak esana.

Orduan lobak etorri ziran eta eroan eben osaba txanburua.

Eladio jaunak esan eustan:

-Zuk txerrena daukazu barruan! Neu etorri, Mezea esanda, gure jauna barruan dodala, eta orrelan berba egin niri?

Nik ez dautzuk okerrik ezer esan, baiña gure Jauna barruan eroatea ori baiño zerbait geiago izango da.

Parkeskejarri jaian, geiago barik.

Urrengo igandean, nik parrokian mezea neukan ordu beratan beste meza bat ipiñi eben beko eleizan eta ara joateko eleiztarrai dei egin. Altzusta'n mezea esanda etorri nintzanean ikusi neban beko eleizea eta gauza batzuk aldatuta egozan. Tzan zan meza orren barria emon eusten.

Elorrio'ko txanburua il zan egun areitan eta an egoan Zirarda gotzaiña ilietan. Ara joan nintzan eta txeratsu artu nindun:

-Zu, MARTIN: aspaldion nago zugaz itz egin-gurean.

-Goztzein jauna. Neu naz zugaz itz egimbearean nagoana (Eta azaidu neutsazan jazokizunak). Arrituta geratu zan, eta etxera joan eta bereaia idatzi eutson gure txanburuari. Au nigana urreratu zan naikoa apai eta esan eustan:

-Emen albisteak bizkor dabiltz!

-Bai -esan neutsan- leloak ez gara-ta. Baiña zergaitik ipiñi dozu parrokiko mezeagaz batera beste meza bat? Zure pentsabidean ez dago ori!

-Ez, orrelan da, baiña iobeak eskatu eustan!

-Ez nekian lobearen esanetara makurtuta zagozenik!

-Dana dala. Gotzaiñaren esanetara nago eta artu egizuzparrokiko gauza guztiak. Eta emon eustazan liburuak, kontuak eta abar.

Egun batzuk geroago Lan-Dcastegian parrokiko abade guztiak batu ginduzan Jose Anjel adiskideak. Guztien artean bakea egitea nai izan eban, izan be ori billatzen dau beti Jose Anjel'ek, eta batzutan, lortzen dau, beste batzutan oraingoan iez, eziña gertatzen da. Guztiak batu giñanean, arazoa agertu eban eta Atutxa'tar Pedro. Undurraga'n egoan eta parrokiko laguntzaille zan abadeak esan eban:

-Ori baiño arazo larriagoak dagoz emen. Oraintsu abade batek edatetxean eta an egozan guztiai askezpena emon dautse!

-Ori beste arazo bat da- esan eban Jose Anjel'ek- eta beste egun baten aztertu geinke, baiña gaurkoa beste au dogu.

Orduan eskuajaso eban Eladio laguntzailleak eta esan eban:

-Jose Anje! Berbea eskatzen dot.

-Ba-daukazu berbea, erantzun eutson.

-Ez dago eskubiderik -esan eban EladioTt- emen egin diran gauzak egiteko: Abadeak abadeen aurka, *gurdsoen* batzarrak txanburuaren aurka, guzurrezko sa)akuntzak (Ni isilik nengoan, baiña...)

Amailu ebanean esan neutsan:

-Zu, Eladio, parrokian arazo astun au egoala noztik zenkian?

-Urte batzuk ba-dira.

-Eta zer egin dozu konpontzeko?

-Beragaz berba egin neban.

-Eta konpondu zendun?

-Ez.

-Ba, orduan itzi egiezu beste batzui konpontzen.

Berotu zan gure Eladio eta esan eban:

-Zeu izan zara. zeu, gauza orreik egin dozuzana!

Jose Migel abade laguntzaleak esan eban:

-Ez, Eladio, neu ibilli naz orretan. Martin'ek ez dau ezer egin.

Eta Jose Anjel'ek esan eban:

-Emen egin dana, ondo edo txarto, gotzaindegitik aginduta egin da.

Orduan Eladio'k esan eban:

-Oiantxe egin bear da berba, argi eta garbi. Orregaitik esalen dabe orlik: Ubi ETA ibi Ecclesia.

Barretxu bategaz amaitu zan dana, baiña ez bakea eginda.

Olako jazokizunak jazoten ziran artean. erritar baieak salakuntza erriko epaitegi-
ra eroan eban eta salakuntza atzeratzeko, baldintza batzuk eskalu ebazan: Abade
barriari eskubide guztiak emon eta lengo txanburuak abade-etxea itzi, bizi be bere
etxean bizi zan-eta. Baldintzak bete ziran eta salakuntza atzeratu eban. zorionez.
Lobeak abade-etxeko giltza ekarri eta emon eustan.

Ille batzuk geroago erritar bat, Artetxe jauna, errenta-etxetik urten bearrean eta
kalean geratzen zan eta abade-etxe orretara sartzeko baimena emon neutsan.

Laster etorri jatan lobeas asarre bizian eta esan eustan:

-ZU. MARTIN: Zelan emon dautsazu gure etxea Artetxe'ri?

-Ori ez da zure arazoa -esan neutsan- parroklarena baiño.

-Bizileku ori osabearena da!

-Zelao esan zeinke ori? -esan neutsan- Zeuk ez zeunstan emon ba, etxeko giltza?

-Bai, zuri giltz bat emon neutzun, baiña beste biakaz neu geratu nintzan.

-Bat emon eta bigaz geratu? Ori da etxea iztea? Zoaz emendik.

Beste bein, aurreko ori baiño lenago bear ba'da. uiTeratu jaian lobeia eta esan eustan:

-Zuek, abade gazleok, osabearen izen ona kendu dozue ela ori erriaren aurrean argitu egin bear da.

-Bai. esan neutsan , arazoa argitzeko gertu gagoz dana guzurra ba'da, baiña zerbait ba-dago zagoze i.silJik edo arrika egingo dautzue!

-Zerbait ba-goala esan eban eta orretan amaitu zan gauzea.

Eobeia abade egiteko eta meza barria e.sateko *eguna* be ba-etorren eta bearrezkoa dan errilaiTen eta erriko abadearen bani-emotea eskatu eben eta egin ziran agiri orreik. Orretan ez noa geiago luzatzen. esan bearrezkoa gauza batzuk egon-anen.

Etorri zan abadegintza eguna eta ni Altzusta'ra joan nintzan mezea esateko.

Abadegintza amaitu zanerako panokian nengoan eta Zirarda Gotzaiñak oztasun aundiaz luzatu eustan eskua. Ez nengoan gauzak isiltzeko eta eskutitza egin neutsan auxe, gitxi gorabera, esanez:

Zuk agur egin zeunstanean, oztasuna zomatu neban. Ez dakit zergaitik. Ala eleizkuzuna ez zan ondo ospatu, ala zeozertan uts egin dogulako. bear ba'da abade barriaren itzalditxua ez zan egokia izan. (Abadegintza amaitu zanean abade barriak jtzalditxu bat egin eban eta izan diran goraberak aitatu ebazan, antza dagoanez arrotasun giroan).

Laster erantzun eustan Gotzaiñak: Zuk abadegintzan ain gitxi parte artzeak ez nau egin zoriontsu eta abade barriak esan ebazan berbak be ez nebazan egokitzar artu. Baiña eskatzen dozun Jez, zu zagozan lekuan ez da egongo berau.

Naikoa urrera. Zebeio'ra, bialdu eban eta inguruko abade batzarretan alkartzen giñan. Kanean nire agurrari ez eutson erantzuten. baiña batzarretan nire berbai beirigoan emoten eutsen aurkako erantzuna. Batzar baten arazo ori aurpegira bota neutsan:

-Kanpoan ez daustazu erantzuien, orduan emen be ez zaite betj aurka jarri!

-Ez. ez dautsat zure agurrari erantzuten eta erantzungo be ez, esan eustan.

Jose Anjel biotz oneko bake-egillea urduri egoan lobeia ta ni ondo ez gintzalako alkartzen. eta egun baten esan eustan:

-ZU, MARTIN: zu ta txanburu izan zanaren Jobea lagunak izan zaree eta abadegai zala zure ikasJe be izan zan ikastegian, eta orain ez zaree ondo aljçartzen. Zer deritxazu biok neugaz batzar bat egiteari?

-Nire aldetik ez dago ezelako eragozpenik -esan nautsan- baiña alpeneko alegiña izango da, Jose Anjel.

Batzar ori egitekotan geratu giñan, San Bixente eleizatik urrean egoan Busturia jatetxeau batuko giñan bazkari bat egiteko.

Alkartu be egirt giñan. Asieran isiltasuna. Gerotxuago arazoa agertu eban Jose Anjel'ek eta ber-bertan egin eban berba lobeak:

-ZU MARTIN: Ni abadea naz eta abade lez jokatzen jarraituko dot eleizako gauzetan, baiña erriko arazoetan, gazte orrekin bideari jarraituko dautsat, eurakaz lan egingo dot.

Eta bide orretatik jarraitu dau Martin'ek, *uste* dot. Nik esan neutsan:

-Gauza bi orreik alkartzea ez jatzu erreza izango.

Arnar urte areitan Zulaibar Lan-Jkastegian jazoriko gauzak edesten luzarajarraitu iei, baiña arlo au amaitzeko zerbait esan bear dot. Uriarte'tar Juan Mari Gotzai-

ñak Arratia'ra egin eban eta gero aztertuko dogun ikustaldian Lan-Ikastegira egin eban ikustaldia. Labor izango da.

Juan Mari Gotzaiñak egiten dauzan ikustaldiak zeatzak eta eragin aundikoak izaten dira, baiña baita, Kasirruo Morcillo'k egiten eban lez, lan askokoak eta neketsuak.

Zulaibar'en be olako ikustaldia egin eban: Ikas-gela guztietara astitsu joan, Fundatzailleakaz batzarra, Zuzendaritza Batzordeagaz be bai, irakasleakaz be bai... Gauzatxu bat bakarrik gogoratuko dot. Ikustaldia amaitu ebanean esan eustan:

-Zeanuri'ko Ikastegian guk egin dogun lanak merezi dauan baiño askoz obea dan kristiñau-talde bat daukagu.

**Desde mi primera actuacion en Ubidea como cura joven, la enseñanza ha sido siempre mi segunda vocacion, lo cual me llevo a pasar por diferentes exámenes y obtener el titulo de Licenciatura, como lo dire en otro lugar mas despacio. Pero despues de mi estancia en Zeanuri, tuve que hacer una opcion y de dije a D. Jaun Mari Uriarte:**

**-Quiero dedicarme preferentemente a la labor pastoral y no tanto a dar clases, pero me gustaria hacer la tesis doctoral, ya que desde Zeanuri he seguido y aprobado el curso correspondiente al doctorado.**

**Pero Juan Mari no me dio animos en ese sentido y deje de preparar la tesis que tenia ya comenzada, bajo la direccion del Dr. Buesa, de Zaragoza.**

Esta opcion ha sido muy importante aunque respeto a otros que han seguido el camino inverso.

Muchas cosas habria que decir de Ia Escuela Profesional de Zulaibar en Zeanuri. Voy a ir dando algo como titulares para abreviar:

Quando llegue estaba en la carcel Martiu Orbe, el Director. En su lugar estaba D. Jose Miguel Madariaga, pero la ausencia de Martin era una espina.

Tenian importancia en la Escuela la Junta Directiva, que luego quedo en Junta de Fundadores: Pedro Atutxa. Luis Arregi, Iñaki Rotaetxe, Zubizarreta, Jesus Oleaga y, como vocales del pueblo: Patxi Intxaurreaga, Maximo Etxebarria y otros. Existia el grupo de Profesores en el que, ademas de los citados, es preciso recordar, entre otros, a Txomin Aurrekoetxea, Jose Ignacio Gorostizagoiza, Pedro Martin Etxebarria, Margari Etxebarria, luego Javier Perez Urraza y otros... Habia algunas dificultades de mutua comprension entre Grupo de Direccion y Grupo de profesores, hasta que se Uego a la Nueva Junta de Direccion, con entrada de Padres de alumnos, quedando en otra situacion la Junta de Fundadores que tanto merito ten/a en el origen y desarrollo de esta Escuela Profesional ParroquiaI.

Quando volvio de la carcel Martin Orbe, se le ofrecio seguir de Director pero no acepto, por lo que se nombro al Sr. Urraza. Pronto sufrio nuevas persecuciones el amigo Martin y tuvo que ir al destierro en Donibane Loitzun. Teniamos trato frecuente y cordial con el.

Hizo su Visita Pastoral Mons. D. Juan Maria Uriarte, que termino muy satisfecho.

## **XIX-5: ZEANURI'N: ALBO-IRAKASKINTZA: ABADE-IKASTEGIAN BARRIRO, GASTEIZ'EN IKASTETXE NAGUSIRO IRARASLE.**

Zeanuri'n, parroko ta lan-ikastegiko ardureagaz batera, lenengo urtean Dotore izateko ikasturtea egin neban eta urrengo urteetan irakaskintzako beste lan batzuk etorri jatazan gaiñera.

Egun baten Perea'tar Jokin urreratu jatan eta esan eustan:

ZU, MARTIN: Abade-Ikastegian COU egiten diarduen ikasleai Eiertia, literatura, emongo zeunskie?

Asko poztu nintzan eskintza orregaz. Len Seminarioan egin neban irakas-lana txarto amailu zan Gotzainaren erabagiagaitik eta orain barriro, irain-orde antzera, abadegai-etxera sartuko nintzan. Jokin'ek berak be olako zerbait ba-eukala buruan uste dol. Beste alde batetik, COU edo Ikastetxe Nagusirako gertakuntza zan ikasturtea ez zan erreza izango irakasteko, baiña nik Ikastetxe Nagusian egoan giroa ondo ikusita neukan eta ba-neukan itxaropena ikasturte ori ondo emoteko.

Pozik urreratu nintzan ba barriro Abade-Ikastegira eta pozik artu nindun irakaskintzaren arduradun dan Beltran de Otalora'tar Jose Luis adiskideak. Ikasle-taldea be ona zan, gazte naikoa elduak eta zentzundunak.

Besteak beste. ondo gogoan daukat talde lez egin genduan idazki azterketako lan bat: GarcIa Marquez"en <sup>IV</sup>"Cien años de Soledad" (Eun Urte Bakartadean) artu gendun gai lez eta ikasle bakoitxak gai bat artu eban: liburu orretan agertzen dan gizartea edo familia edo eriejiñoa edo ekonomia edo endea edo olakoren bat, bakoitxak nai ebana eta guztiak egin eben, ederto bakoitxak bere lana eta lan bakoitxaren barria guztien aurrean emon gendun, orrelan guztiak ondo ezagutu eben liburu eder eta aztergarri au.

Bigarren urte baten be joan nintzan Zeanuri'tik Derio'ra irakastera eta pozik nenbillan, baiña ni Arratia'ri zor naiakon eta esan neutsan Jose Luis arduradunari urrengo urtean, irugarrenean, ez nebala jarraituko. Beronek alegiñak egin eustazan jarraitzeko, baiña azkenean lortu neban aske geratzea.

Urrengo urte baten, adiskide ta lankide eta euskerazale bizi-bizia dan Goikoe-txea'tar Ifiaki josulaguna urreratu jatan eta esan eustan:

-ZU, MARTIN: Gasteiz'ko Irakasle-Eskolan, Valladolid'ko Ikastetxe Nagusiarin inepen, Aldundiak euskera irakasteko Katedra bat ezarri dau eta txarto gabiltz irakasle egoki bat aurkitzeko. Zuk ori ondo egingo zeunke!

Nik esan neutsan zergaitik itzi neban DerioTco irakaskintza. ain biotzeko nebana, eta zio beragaitik ezin neikela onartu irakaskintza ori .

Berak ekin egin eustan eta irakastaldiak arratsaide beranduan edo gabaz izango zirala esan eustan eta azkenean baietza emon neutsan.

Gasteiz'ko Aldundira urreratu nintzan eta pozik artu nindun Oyarzabal abizena eukan Markiñako emakume batek. Esan eustan nire irabazia zenbat izango zan eta laster artuko nebala Valladolid'eko Erretore Jaunak izenpetutako izendapena. Ara nondik Ikastetxe Nagusiko Irakasle!

Talde txiki bat neukan ikasle, geienak. uste dot guztiak, neskak arabarrak, nafarrak eta bizkaitarrak. Nik bizkaieraz irakasten neban eta taldea aisegiñez bete-rik ebillan ikasten.

Bigarren urtean be jarraitu neban. baiña ikasturtearen asieran ikasleak auxe esan eusten:

-ZU, MARTIN: Zuk bizkaieraz irakasten dozu, baiña euskerearen koordinatzaileak batua ikasi bear dogula diño (Koordinatzaile ori KNOR'tarren bat zala esan eusten geroago). Nire erantzuna au izan zan:

-Parkatu, baiña eskari orrek samintasun aundia sortzen dau nigan! Nik neure pentsabidea daukat batuari eta atxeari buruz eta ba-daukala askatasuna uste dot eritxi ori eukiteko ela bide orretatik irakasteko.

Baiña eurak ekin egin eusten orretan. eta azkenean esan neutsen:

-Ara! Ikasturtea asita eta zati bat igarota dago eta orain ez dot egoki lez ikusten irakaslearen aldakuntza egitea. Orregatik batuan irakatsiko dot ikasturte onetan, baiña urrengo urterako ez naz irakasle izango.

Egun batzuk geroago esan eusten:

-Len askoz obeto irakasten izan dozu, bizitasun geiagogaz!

-Bai, -esan neutsen- eta zuek bumz askarrak zaree eta ba- dakizue ori zergaitik dan. Gogoz egiten ez danak ezin euki bizitasunik.

Amaitu zan bigarren ikasturte ori eta itzi egin neban Ikastetxe Nagusiko irakaskintza, naiz ta Josulagunak *eta* Oyarzabal andreak arren bai arrer) eskatu jarraitzeko.

Arlo au amaitzeko euskera batuari eta atxeari buruz azterpen txiki bat: ondo dakit euskerearentzat, batez be bizkaierearentzat batuaren jokabide ori oso kaltegarria dala, atxea euskereak ez dauala bear eta kalte aundia egiten dautsola eta, euskaldun ofizialak aurka izan arren, nik bide orretatik jarraituko dot beti. Orregaitik galdu neban irakasle leku au, orregaitik geroago Bermeo'n Udal-Batzaren itzuitzaile-lana. An Bizkaierara itzuli bear zan, baiña atxeagaz idazteko eskatu eusten eta nik naiago izan neban lana itzi, eta Bilbao'ko Eleizbarrutian be lan aundia egin neban itzultzaile iez, baiña atxe barik idazten nebalako, atxaki beste zio batzuk dirala, alboratu ninduen. Arazo au beste leku baten aztertuko dogu.

Sarrilan entzuten dot: Atxeak ez dauko garrantzirik. Neuk be orixe diñot beti. Eta iñoz atxea kentzea erabagiten ba'da, gauza erreza izango da. Orretarako ez da ezer ikasi bear. Baiña gaurkoz: Atxeak ez dauko garrantzirik baiña zuk atxeagaz idatzi bear dozu.

Cuando termine el Curso de Doctorado, aun atendiendo las obligaciones de la parroquia de Zeanuri y la labor docente de la Escuela Parroquial Profesional Zulaibar, me quedaba algun tiempo hasta que un día se me acerco mi amigo Jokin Perea y me dijo :

-Oye, Martin: Necesitamos un profesor de letras en el Seminario y hemos pensado en ti. ¿Que te parece?

Me hizo ilusion esta propuesta, teniendo en cuenta que la etapa anterior docente del seminario habja terminado mal por la decision poco acertada de Mons. Gurrupide. Venia a ser algo asi como un desagravio. Y este pensamiento rondaba quiza la mente de Jokin.

Era el curso de COU donde tenia que dar las clases y, aunque la tarea no me parecia facil, tenia reciente el ambiente universitario mas o menos vivido. Acepte con alegria y me encuentre con un grupo de alumnos muy bueno en todos los sentidos. Enseñe a gusto.

Y tambien un segundo curso, pero al final de este me parecia que me debia plenamente a Zeanuri y a Arratia y decidi dejar Jas clases de COU, a pesar de que Jose Luis Beltran de Otalora, Jefe de estudios, y otros me insistieron para que continuara.

Algun tiempo mas tarde se me acerco el Padre Iñaki Goikoetxea, jesuita, muy entregado a la enseñanza del euskera y me dijo: Oye, Martin: La Diputacion Foral de Alava patrocina una catedra de euskera en la Escuela de Magisterio y hemos pensado en ti.

Yo le explique lo que me habia ocurrido en Derio y que me debia a Zeanuri, pero me dijo que tendria que ir solo un par de veces por semana y a ultima hora del dia. Por fin acepte.

Me presente en la Diputacion ante la Sta. Oyarzabal, que era de Markina, y me explico las condiciones y prometio que pronto extenderia el nombramiento el Rector de la Universidad de Valladolid.

Pronto me vi ante un grupo de alumnas, vizcafnas, gipuzkoanos, alaveses y navarros trabajamos a fondo durante el curso. Era muy cerca de San Cristobal, al lado de la via del tren.

Al año siguiente, continue en un nuevo edificio en Arambizkar, pero pronto de comenzado el curso me dijeron los alumnos:

-Nos dice el coordinador que debemos aprender euskera batua.

En principio *les dije que no* pero casi me obligaron, por Jo cual les dije que, ya que el curso estaba ya avanzado, enseñaria en batua este curso, pero que, para el siguiente, no contarán conmigo.

Zeanuri(Vizcaya), 8 de Julio de 1,973

D. José Luis Beltrán de Heredia  
Derio-Bilbao

Estimado amigo José Luis:

Desde que terminó el curso he estado pensando en la posibilidad de seguir dando Lengua y Literatura Española de C.O.U. en el centro que dirige. Me ha costado tomar una decisión, pero ahí te envío el fruto de mis meditaciones.

Por una parte me siento hondamente inclinado a seguir

- porque es buena la labor que ahí se hace tanto con los chicos como en el equipo de compañeros. Es un buen servicio que se preste al Pueblo, ya que las orientaciones que ahí se pueden dar pueden ser de mucho interés para subvenir a las necesidades actuales;
- porque practico la enseñanza en un nivel que es muy interesante y muy exigente;
- +porque es un buen servicio a la Comunidad Diocesana a la que me debo;
- porque al cambio de profesores demasiado frecuente, especialmente en COU, es perjudicial a la enseñanza;
- porque el haber practicado la enseñanza durante un curso y en el COU, facilita mucho la enseñanza de cursos siguientes. Este curso lo daré mucho mejor;
- porque las reuniones en el ICE fueron interesantes desde muchos puntos de vista.

Por otra parte, veo que debo dejar

- porque ocho horas de cobbe, aproximadamente, por semana supone excesiva pérdida de tiempo y de energías;
- porque me debo a Zeanuri y a su Escuela Profesional donde sirvo al Pueblo en un nivel de más sencillez y de más necesidad;
- porque debo dedicarme a la enseñanza del vascuence y no del castellano; las necesidades del vascuence hoy son mayores, es mi lengua, tiene manos "enseñantes"...
- porque la orientación del COU no es clara; no sé si he acertado...

En vista de todo ello, y no sin dudas, he decidido renunciar. Acepté la cátedra para un año, he procurado cumplir la mejor que he podido y espero que tendrás posibilidad de encontrar a alguno que pueda ocuparla con menos dificultades que yo. Si no te fuere posible encontrar quien me sustituya, siempre cabe una posibilidad de hablar sobre ello.

Muchas gracias por todas tus atenciones, en especial en este curso. Saluda a Andoni y, si te parece, comunícale el contenido de este corto, ya que también hablé con él de este problema.

Tu amigo,

## **XIX-6: ZEANURI'KO TA ARRATIA'KO ABADEAK, GAZTEAK, LAIKOAK, ABADEEN ALKAR-BIZITZA, PARROKI-LANAK, GOTZAIÑAREN IKUSTALDIA**

Ni Zeanuri'ra eldu nintzanean, abade asko egoan parroki aretan: Arrizabala-ga'tar Jose, Manterola'tar Gabriel, Atutxa'tar Pedro, Agirre'tar Eladio, Orbe'tar Martin, Madariaga'tar Jose Migel. Egiguren'dar Agustin eta neu. Guztiz zortzi. Atutxa'tar Leonardo be an egoan, bere anai abadearen etxean, baiña gaisorik.

Jose abadea abadiñotarra, guda-ostea ezkerro zan txanburu, GabrieJ Tdazle eta euskerazale ospetsua zan eta umeakaz erbestean urteak egin ondoren etorri zan bere etxera, Pedro Undurruga'koa semez eta bere auzoan abade, guda-ostean erbestera-tuta Oska'n egondakoa, Eladio bertoko semea, ameriketari urteak eginda etorri zan parrokira, Martin eta Jose Migel eta Agustin sakramentinoa ezagutzen doguz lanbi-de ikastegitik.

Sasoi aretan Arratia'n abade zarrak ziran geienak: Igorrekoa, Zuloaga Eusebio, Nikolas Garcia lagun ebara, Lemoa'ko Zezilio, Olabari'tar Manuel lagun ebara, BediaTco Alfonso laguntzaillea be zarra ebaJa, Dima'ko Esteban Manterola, Tpiña-buru'ko semea eta urtelsua, Areatza-Billaro'ko Urutxurtu Anastasio eloniotarra, au be urteetan aurreratua, baiña naikoa arin egin ziran aidakuntzak eta onelan geratu giñan: Zeanurim neu laguntzailleakaz, Billaro'n sakramentinoa, Igorren Nikolas, Lemoa'n Erezkano'tar Jose Luis eta Bedia n Jauregi'tar Jose Luis, Dima'n sakra-mentinoa, baiña taldea osotzen genduanak Jauregi, Erezkano, Garci'a ta neu giñan.

Arratia'ra eldu nintzanean, eta abadeak eurak geroago esan eustenez, abadeen artean ez nintzan onartu izan, zerbit euken nire aurka, ez dakit argi-argi zer. Urteen joanean lortu zan alkar ulertze au eta Jan ederra egin gendun aikartuta.

Gazteakaz izan genduan arazoa len agertu dot. Alkar ulertu eziña zabaldu ta sakondu zanean, Arratia'ko Eleiz-Gaztedia eritxon talde bat sortu zan.

Abadeen artean asmo barri bat agertu jakun: Alkartea, talde batek alkarragaz bizi izatea lortzeko asmoa. Ez zan gauza erreza asmo au betetea. Taldekide izateko giñan-nak bakoitxak bere eragozpena geunkan: Erezkano arrebeagaz bizi zan Lemoa n, nik etxe ipiñia neukan eta sukaldaria, Atano esaten geuntsan eta Dima'n egoan abade gaztea ta Jauregi ziran askeen egozanak. Dana-dala, artu gendun bizi-leku bat errentan eta sukaldari-garbitzaille bat eta etxean bear diran gauzak ekarri. araudi bat egin eta asi giñan bizi izaten. Ez eban ondoren aundirik izan aikar-bizitza onek. Bazkaria lan-ikastegian egiten eban, nik etxean, eta apaltzeko orduan geienok ez gintzazan an egoten. Asmo on bat izan zan, baiña ez eban iraun: Laster etorri ziran izendapen barriak be eta banatu gintzazan.

Zeanuri'ko parrokiari izandako lan batzuk be gogoratu dagidazan. Egia esan, egunik geiena Lan-ikastegian igaroten neban eta parrokiko lanak ez ziran larregikoak: Aidi baten eskoiara joan nintzan katekesirako, geroago katekista batzuk be gertatu ziran, garizumarako itzaldiak gertatzen genduzan eta ugari izaten ziran entzuleak, domeketako mezak asko ziran, amasei lekutan bederatzi meza domeka bakoitzean, gaisoak ikusterajoa bear izaten zan, eleizeak noizean bein konpoinke-ta bear izaten dau: erretaillea egin geuntson eta barrua egokitu, argi barriak ipiñi ta olakoak, baiña iñoz ez egoan parrokia egoera onean, aldapan dagoala berantza egi-ten ebalako. Orain diardue arazo larri ori bideratzen. Igande arratsaldeetan agurtza egiten gendun eta agurtzaren ostean joko-aldia Eleizaldeko edatetxean. Nik ez neban jokutzen baiña beste batzuk gogotsu ekiten eben. Parrokiko batzordea sortze-ko auteskundea be egin zan eta bere lana egiten eban batzorde onek. Era barri bate-ra eratu gendun parrokiko ekonomia, sendi bakoitzak urteko kuota bat ordaintzen ebala. Ia guztiak ekarten eben euren saria urtero eta banaka batzuk asieran otz ba'egozan be, azkenean sartu ziran bide orretara, gitxiren batzuk izan ezik. Orain be entzun dot eleizea konpontzeko dim laguntza emoten onak dirala zeanuristarrak. Parroki ona da Zeanuri eta lan anndikoa izan arren, erri zabala da-ta, gogotsu egin gendun lan.

Zeanuri n bost urte bete nebazanean. auteskundea egin neban errian eta auxe esan neutsen:

-Bost urte dira zuen artera etorri nintzaJa eta orduan ez neban izan aukerarik zuen eritxia jakiteko. Gaiñera zuek orduan ezagutu be ez ninduzuen egiten, baiña orain bost urte igaro dira, alkar ezagutu dogu eta zuen eritxia jakin gura dot. Geie-nok nik emen jarraitzea nai ba'dozue jarraitu egingo dot, baiña geienok edo askok ori nai ez ba'dozue, ezeiako asarre barik joango naz beste leku batera. Guztien eran-tzuna jarraitzeko izan zan eta beste bost urterako jarraitu neban. Argi esan neutsen amar urteak beteten diranean joan egingo nintzala. Bete ziran amar urteak.

Bemio n be orixe egin neban, bost urteak bete nebazanean eta an be jarraitze-ko esan eusten ia guztiak, baiña gotzaiñak beste toki beaten bear ninduala eta sei urte eginda atera nindun.

Zeanuri'ko azken-ekiñaldia Uriarte'tar Juan Mari Gotzaiñaren Artzain-Ikustal-dia izan zan. Esan dot zerbait Ikastegiaren zatian.

Lan aundia egin eban Juan Mari Gotzaiñak. bai Zeanuri n eta bai Arratia osoan ikustaidia egin ebanean: auzo guztietara joan eta mezea egin. ango eleiztarrakaz astiro berba egin, parroki taldeakaz berba egin, eskoletara joan eta abar.

Amaitu ebanean abadeakaz batzarra egin eban eta geienok ainbat urte egin dogu-



za) Arratia'n eta aldakuntza egiteko eskintza egin eban. Nire aldetik neuk esan neutsan amar urteak laster beteten zirala eta urteteko asmoa neukala.

Errez onartu eban nire eskintza eta abade barria nor izango zan be esan eustan. Zendoia'tar Jesus Mari, baiña au gudarien kapellau egoan eta illebatzutan ezin zeitekean etorri. Orregaitik aldakuntza egiterakoan egoki dan Jez, eguneratze-urtea osoa egin bearrean ille batzuk galdu nebazan.

Abade barria etorri zanean. otsailean uste dot. Zeanurj'ko parrokia bere esku itzi neban eta Gasteiz'ko Abade-gaiien Etxera joan nintzan eguneratze-urtea egiteko. Igandeetan etorten nintzan Zeanuri'ra. Urrengo udan Bermeo'ra.

Zeanuri'ko egunak eta urteak amaitu baiña len. gure amaren arazoa ageitu bear dot.

Ama Landako Etxebarri/Montaiñe baserrian bizi zan anaiagaz. baiña berak sarritan agertzen eustan nigaz bizi izatera etorri nai leukela. Nik beti esaten neutsan nai dauanean etorteko baiña gatx egin jakon erabaği ori artzea. Azkenean etorri zan Zeanuri'ra eta bere bizitzako azkenengo bosl urtean neugaz igaro ebazan.

Lenengo lau urteetan ez gendun izan arazo aundirik. Etxean ez eban ezer egin nai izaten, orretarako egoan Basiii sukaldari garbitzaillea eta eleizearen ondoan tokitxu bat eta solotxu bat emon geuntsazan eta antxe egiten eban lan egun guztian. Eleiza inguruan larrosa eder batzuk be sartu ebazan.

Baiña urteen joanean amaren osasuna txarrerantza joian eta azkenengo amajau iliebetetan lan aundia emon eustan. Gau ta egun bere ondoan nai izaten nindun, eta ikastegi'ko lana amaitzen nebanean an egoten *nintzan* beragaz alkar-izketan. Amalau iliebite oneitan ez eustan gau baten lo egiten itzi: Jagi nagizu! Orain or alboan ibilJadifxu bat! Orain komunera! Orain ogera! Orain jagi barriro...! Ezin zan une baten be geldi egon! Botikak emoteko ardurea artu bear izaten neban, janariak emoteko be bai, bear zanean. eta sarritan izaten zan. sarbitzeko be bai, eta abar...

Burua ez eban galdu iñoz. baiña bai gogoan daukat egun baten jazo jakona. Amak esan eustan:

-ZU, MARTIN, txakur oneik atera egizuz gelatik kanpora!

-Ama. emen ez dago txakurrik -esan neutsan- ori buruak emoten dautzun gauzea da.

Baiña berak baietz. txakurrak an egozala eta aterateko, nik ostera ezetz. an ez egoalako txakurrik. . .

Azkenean berak esan eustan:

-Olakoa ez zaite izan, Martin. Zuk egizu txakurrak ateraten dozuzalakoa, eta ni nasai-nasai geratuko naz!

Bein amak esan eustan:

-ZU, MARTIN: Nire gaisoa luze be luze doa eta emoten dautzudan zeregiña ez da edozelakoa. Ni noiz ilgo ete naz.

-Ama! Ez estutu esan neutsan. Neuk be emongo neutsuzan neure bizitzan olako egun estuak.

-Bai, zu seme gatxa izan zara, -esan eustan.

Beste bein amak esan eustan:

-Zu abadea zara eta ba-dakizu eriotzako orduan zer egin bear dan, lagundu niri gero, ondo il naiten!

-Bai, ama, -esan neutsan- alegiña egingo dogu.

Ama egunerik egunera argaldu egiten zan. Gaiso-etxera be eroan izan nai eban osagilleak, baiña ezergaitik be ez eban nai berak: "markapasos" be ipiñi gura izan outsoen, baiña ori ez eban nai izan. Bere ordua eldu jakonean, bake-bakean il zan ama. Jaungoikoak zeruetan artua izan zala uste dogu.

Amari emon neutsan laguntza au pozgarria izan zan niretzat. zor aundi bat ordaindu ba neutson lez. eta ez eustan iñoz be ezer ordaindu, bere zar-saria beretzat izaten zan, baiña azkenean diru apur bat itzi eban eta niri egokidan zatiagaz Jerusalem'era ostera bat eta Ameriketara, Panama'ra. beste bat egin nebazan, beste toki baten edestuko dodan .lez.

Aitak eta amak asko eta ondo lagundu dauste bizitza guztian eta amaren agurra gogoratzen dodan onetan argi geratu beite nire esker ona. Fika'n illobiratu gendun amaren gorpua, iru anaion aurrean. Gero illobi batera aldatu ziran aitarren eta amaren gorpuzkiñak eta antxe dagoz, Landako Etxebarri (Montañe)'ko illobian.

**Cuando llegue a Zeanuri habia muchos sacerdotes en aquella parroquia y tambien en Arratia. Luego fue descendiendo el numero rapidamente.**

**A nivel de Arratia tuve algunas dificultades de acogida por parte algunos y no precisamente mayores, pero en poco tiempo desaparecieron los prejuicios y trabajamos bien y a gusto, aunque no sin dificultades.**

**Hubo incluso un intento de vivir en comunidad con algun exito pero no fue duradero. Mi ilusion siempre ha sido vivir en comunidad con hermanos sacerdotes y, por fin, en Mungia pudimos vivir esta gozosa experiencia, como diremos mas tarde.**

**Aunque gran parte de mi tiempo era para la enseñanza, tambien realizamos en la parroquia la labor pastoral necesaria: cada domingo teniamos dieciseis misas en nueve centros de culto, atendia la catequesis, a veces en la escuela, otras veces en la parroquia y, al final, con catequistas, reformamos el templo adecuandolo al Vaticano II, con aynddas economicas que nos venian por medio**

de mi amigo Javier Astorki, el retejo, las astillas de las paredes. Este es un problema que ahora se ha agravado y lo estan resolviendo...

Cuando se cumplieron los cinco años en Zeanuri, pedi el parecer de los feligreses para continuar otros cinco años. El si fue mayoritario, casi total, aunque alguien decia que "escoba nueva barre mejor".

Hacia el final de los diez años hizo su visita pastoral a la parroquia y a toda Arratia el Obispo Juan Maria Uriarte. Hable con el despacio de la situacion en que me encontraba por mi madre y de la posibilidad de cambiar de parroquia al cumplirse los diez años. El me recomendo un año sabatico, pero el que iba a ser mi suplente estaba en el servicio militar y tuve que esperar hasta el mes de febrero que fue cuando vino. Entonces fui al Seminario de Vitoria para el curso de reciclaje, del que hablaremos mas tarde. Terminado este curso, sali de Zeanuri para tomar "posesion" de la parroquia de santa Eufemia de Bermeo.

Por estas fechas, despues de larga y penosa enfermedad, fallecio mi buena madre a la que atendi con dificultad y lo mejor que pude durante los cinco ultimos años de su vida en los que vivo conmigo. Conste aqui, una vez mas, mi gratitud a mis padres que tanto hicieron por mi y a mis hermanos.

BILBOKO GOTZAIN A. A.  
JUAN MARIA URIARTE GOIRICELAYA  
OBISPO ADMINISTRADOR APOSTOLICO  
DE BILBAO

Herrero, Núm. 3-2.  
Tel. (84) 447 25 00  
B I L B A O (9)

Bilbon Zementiak 2.

Adiskide maiteok: Artu dot zuen eskutitz jatorra. Eskerrik asko. Zuen gaztaroan kristau izateko gogoak neube indartu na postu egiten nau.

Zeanurin izango nazue Abenduaren 25<sup>ean</sup>, Zuekin goizea igaroteko prest naukazue.

Konfirmaziño ostean bere zuen sinismena sakonduko duzuela ziur nago. Taldeka alkartu zaitezte, alkarrekin oteitz, itz eta lan egin dagizuen.

Hiotzez maite zaituet.

+ Juan A. Uriarte, A.A.



XX ATALA: BERMEOTCO EUPEME DEUNAREN PARROKIAN.



## **XX-1: BERMEO'N: ABADIAK TOKIZ ALDATZEAREN ARAZOA; BA-ZAN BERMEO EGOKIDAN TOKIA? ARRANTZALEEN GIROA TA BERJUIO.**

Gotzaiñak ondo kontuan artu bear daben arazoa da, abadia tokiz aldatzearena: Nik ezagutzen dodaz lagunak Fikan bere abade-denpora dana igaro dauan Zorroza'tar Simeon esaterako: tokiz iñoz be aldatzen ez diranenak. Berton Mungia'n be Gaztelu'tar Juan Migel Txanburuak bere aidurea itzi eban arte, abadia ia bizitza osoan ementxe egon izan dira, emen daukaguz oraintxe be Soiozabal'dar Pauin adiskidea eta Arxegi'tar Jose Mari euren abadetzako urte ia guztiak emen igarota eta igaroten. Beste abade batzuk osteratoki asko aldatzen dabez. Ni neu erdibidean nagoala uste dot: Ubidean iru urte, Fruniz'en amaika urte, Mungia'n (eskegita lez) bost urte, Zeanurj'n amar urte, Bermeo'n sei urte eta orain, Mungia'n taldean amabi urte egin ondoren, ementxe zar saridun lez, laguntzen baiña iñok beartu barik.

Zer esan arazo oneri buruz? Nire eritxia amar urte toki baten naikoa dala uste izatea da. Amar urtean norberaren asmoak beteten dira eta bete ez ba dira. beteko be ez. Erezkano'tar Juanjo bost urte dirala naikoa diño eta berak erren zazpita arte luzatu bear izan eban, Orbe'tar Esteban adiskide aundiak amabi urte egin ebazan emen eta bera eskiñi zan urteteko eta orain Durango'n dago. Jokabide au nik ontzat artzen dot.

Baiña abadia ez ete dau egon bear giro baterako gertatuta edo trebetasuna lortuta? Esaterako arrantzaleen lanerako. edo baserritarren artean lan egiteko eta gotzaindegirako? Baietz esango neuke, baiña larregi estutu barik. Gotzaiñak askatasuna bear dau artaldea zaintzeko eta abadia be giroak aldatzeagaz bere izakeran eta jokabidean aberastasun barriak eskuratzen dauz.

Irizpide orreik kontuan dirala, ete zan Bermeo niri egokidan tokia? Geienak ezetz esaten eben eta Juan Mari Gotzaiña bera be ez egoala ain ziur uste dot. Askarenngo orduan, oraindiño, Errnu be eskiñi eustan, baiña nik Bermeo'koa baiño askoz illunago ikusten neban niretzat Ermu'ko giroa. Ori orduan! Gaur askoz illunago.

Nik baietz uste neban eta uste dot, Bermeo egokidan toki bat zala eta pozik joan nintzan. Zori txarrez. amar urte bete baiño askoz lenago eskatu eustan gotzaiñak, sei urte bete ziranean, Bermeo'tik urten eta Mungia'ra joateko emen bear nindualako. Errez emon neutsan baietza, baiña amar urte egin ba'nebazan, erdi eginda geratu ziran asmo asko bete egingo ziran.

Zer eukan bereizirik Bermeo'k, askoren ustez niri egokidan tokia ez izateko? Arrantzaleak diraiako geienak, uste dabe, baiña niri errez egin jatan arrantzaleakaz artu-emonak eta ebanjelizatzela betetea. bertan beti danik egozan batzui baiño errezago, esango dogun lez, Arazoa *geiño* etorren an lanean ziarduen eta batzuk gaur be jarraitzen daben, abadeen eta lekaide-lekaimeen aldetik. Bermeo'ko artzain-lana errez-errez zan artzain-langilleak alkartu ezkeru, baiña au ez zan ain errez eta gaur be ez da. Erri zintzoa da Bermeo eta bertako abadeak eta lekai-de-lekaimeak benetan maite dauzana. Asko eta errez lan egiteko moduko erria, baiña alkartasunaren argiak egin bear dau argi.

Antes de entrar en mis años de Bermeo, me parece preciso plantear el problema del traslado de los sacerdotes: Algunos se pasan toda la vida en una aldea pequeña, lo cual me parece una limitación enorme de las posibilidades de la persona del sacerdote, otros al contrario se pasan la vida de una parroquia a otra, de un trabajo a otro.

¡Mi vida transcurre entre estos dos extremos: cinco años en TJBidea, once años en Fruniz, cinco años en Mungia (en situación anomala), once años en Zeanuri, seis años en Bermeo y doce en Mungia, para terminar aquí en Mungia, ya jubijado y prestando el trabajo que puedo y quiero.

Este asunto va unido al de la especialización de los sacerdotes: Apostolado social, rural, catequesis, jóvenes, familiar... Creo que debe existir algo de esta especialización, pero sin llevar a un extremo, porque eso limitaría la gobernabilidad de la diócesis para el Obispo y encorsetaría las posibilidades del sacerdote.

Esto supuesto, viene la pregunta: ¿Era Bermeo lugar adecuado para mi labor pastoral? La mayoría pensaba que no, quizá el Sr. Obispo tuvo sus dudas, porque a última hora me ofreció Ermua, pueblo que me parecía mucho más inadecuado que Bermeo.

Fui contento a Bermeo, pero quizá sali demasiado pronto, a los seis años, creo que necesitaba los otros cuatro hasta diez para completar algunas cosas. No fue posible, porque Mons. Uriarte me dijo que me necesitaba en Mungia y yo no opuse ninguna resistencia, todo lo contrario.

¿Que teni'a Bermeo para que no pareciera conveniente para mi? ¿Que



eran arrantzaJes, pescadores? Eso no era problema, incluso me adapte mejor a este campo que los que llevaban años allí, como diremos mas tarde. El problema era el modelo de Iglesia que se habia cultivado allí y el apego que a este modelo tenian tanto el pueblo como los agentes de pastoral. Un modelo que no era facil adaptarlo a las directrices de Concilio Vaticano II. Y creo que el problema sigue. Allí se requiere un acuerdo entre agentes, que no es facil.

**XX-2: BERMEO'N: SEI PARROKIAK ERRI BATEN, ESKUALADEA ALA PARROKIA LENAGO? IRU PARROKI AUNDIEN LURRALDEAK, BERMEO'KO ABADEN BATZARRAK ETA EGUNERATZE-BERBALDIAK.**

Bermeo erri zabala da eta Bizkai guztian baserririk geien daukan erria ez ba da, bigarrena bai beintzat. Baiña arrantzaleak dauke baserritarrak. baiña indar geiago eta mundu guztian ezagutzen da Bermeo erri arrantzale lez. Baserritarakaz lan ona egiten eban Gandiaga'tar Jose abadeak.

Orregaitik, Bermeo'n sei parroki dagoz: Almike, Mañu, San Pelaio, Andra Mari, Eupeme Deuna eta San Frantzisko. Dana dala, agertzen diran arazoak urian diran iru parrokjenak izaten dira geienak. Egia esan, sei parrokiak erri bat dira, eta iru parroki aundietako eleiztarrak be. nik uste dot, parroki batekoak baiña Bermeolarrak diraia lenago. Orregaitik da ain bearrezkoa artzain-langitleen alkartasuna, aurrean esan dodan lez.

Egoki da ba orain emen itaun au egitea: Zer da lenago parrokia ala eskualdea? Iñon izatekotan Bermeo'n da lenago eskualdea edo erria, baiña nik argi ikusten dot Bermeo'n parroki bakotzak bere nortasuna zaindu bear dauala eta eskualdea sendo egongo da parrokiak sendo dagozanean.

Bermeo'n gaiñera, beste arazo bat dago, parrokien lurraldeena. Esaterako Andra Mari'ko eJeizearen ingururik geienean dagozan etxeak Eupeme Deuna'ren parrokikoak dira eta Askatasuna kalean eskoi-aldea da Frantzisko Deunaren parrokioa eta ezker aldea Eupeme Deunarena.. Ori orrelan izanik, eleiztarrak norberaren parrokira joan bearrean beste batzutara joaten dira zio askogaitik: urrago dagoalako, ango abadea maite dabelako... Eta lurralde-zatiketa ori zergaitik orrelan egin zan itauntzen ba daustazu, errazoa argi dago: Eupeme Deuna ugarte baten lez dagoalako eta inguruan bizileku gitxi daukazalako.

Baiña ori orrelan izan arren be, parrokia da lenengo kristiñau-aJkarte eta ondo zaindu bear da. Geroko axazoa da artzain lantsilleak ondo alkartzea.

Abadeak eta lekaideak astero egiten gendun batzarra Eupeme Deunaren parrokiako geletan, eta seriotasun aundiagaz egin be: Lenengo otoitza astitsu, gero Batzar-agiria irakurri, gero, eguneko egitarauari jarraituz gaiak aztertu eta Idazkariak batzar-agiria egiten eban beti.

Batzar orretan Bermeo'ko abade guztiak eta MundakaTcoa batzen giñan. Orduan Mundaka'n Zelaieta'tar Juan Pedro adiskide aundia egoan. Batzarretara ia beti etorten zan gaur Ondarroan dagoaji eta orduan Luvralde'ko Ordezkaria genduan Rementeria'tar Jose Maria eta asko lagundu eutson Bermeo'ko Artzain-Lanari.

Gure eleizea BatikanoTco II batzarraren bideetara eroan gura ba'gendun, eta ori ez eban iñok ukatzen, jakiña, geu eguneratu bear giftan lenengo eta orretarako izlariak ekarten genduzan. Gotzaindegitik iaguntza aundia emon euskuen, Ikastaldi batzuk gogoratzekotan Ubieta'tar Jose Anjel'ek Idazti deunai buruz emon ebazanak, Artzain-Lanerako jokabidean eta egitasmoak gertatzean Saez de Kabezon'dar Mikel'egaz batzarrak, Perea'tar Jokin'ek bateoa era-barritzeko bideetan emon euskuzan argitasunak eta abar...

**Bermeo es un pueblo muy extenso y uno de los pueblos que mas caserios tiene en toda Bizkaia. Esta realidad es importante, aunque a veces se olvida porque prevalecen los pescadores. Con los labradores hizo su hermosa labor pastoral D. Jose Gandiaga.**

**Por eso, en Bermeo hay seis parroquias: Almike, San Pelaio, Mañu, San Francisco, Santa Maria y Santa Eufemia, pero los problemas mas acuciantes procedian de las tres parroquias urbanas que son las mayores.**

**Otro problema de Bermeo es la demarcacion de las parroquias: Santa Maria esta casi totalmente rodeada de viviendas de Santa Eufemia y la calle Askatasun-Bidea pertenece la derecha a San Francisco y la izquierda a Santa Eufemia. De ahí resulta que mas que el amor a la comunidad mueve el amor a agentes de pastoral o simplemente la cercanía.<,Por que se hizo así, siendo una demarcacion reciente? Pues porque existian tres parroquias y una de ellas, Santa Eufemia, esta como en una isla y para tener feligresia parecida no habia otra forma que entrar al interior de la villa.**

**Una pregunta surge aqui: *iQue* se debe mirar con mas esmero pastoral la parroquia o el sector? Yo lo veo claro: La parroquia es la autentica comunidad y debe tener preferencia. Si las parroquias marchan bien, es muy facil que el sector funcione, pero no a la inversa.**

**Las reuniones de Sacerdotes (seculares y religiosos) las celebrabamos en Santa Eufemia, con mucha regularidad y seriedad: Acta, oracion, orden del dia...) y asistiamos *bastante bien, excepto algunos que apenas nunca venian, como el de Almike.***

**Acudia fielmente el Vicario de Zona D. Jose M<sup>a</sup> Rementeria cuya ayuda fue fundamental.**

**Se organizo bien ia actualizacion de los sacerdotes en la que fueron muy buenas las charlas y reuniones con D. Jose Angel Ubieta, D. Jokin Perea, D. Mikel Saez de Cabezón, etc.**

### **XX-3: BERMEO'N: ADISKIDE AUNDI BAT ETA TALDE EREDUGARRI BAT BAZTERTUTA, GAZTEAKAZKO LANA, SENDOTZAREN ARAZOA.**

Adiskide aundi bat neukan nik Bermeo'n, Mungia'ko aldi larri aretan taldekide izana eta bai bera eta bere arreba zana ta gurasoak beti etxeko lez alkar artu doguna. Mungia'n be bai eta Bermeo'n bardin. eguneko lanak amaitzen nebazanean joaten nintzan Balendin'en etxera.

Balendin'ek gure aldiaren eta gero. arazo biziak izan ebazan Mungia'n, bera geratu zan San Pedro Ikastetxearen zuzendari eta berak izan ebazan ikastoleagazko artu-emonak ni joan eta gero batez be. Baiña Mungia'tik uiten zanean, bere etxean bizi izaten asi zan, Eulali bere ama be zaindu bear eban-eta. Erdi-Maillako Ikastegian erlejiño uakaskintzaren ardurea artu eban, Iaikoak be Iagun ebazala, eta nik orretan ezagutu dot beti. Orretan jarraitzen dauala uste dot.

Nire adiskide onek gazte talde bat eukan bere inguruan, gazte oso jatorrak, langilleak, fede sakonekoak. ondo alkartuak eta Bernieo'n lan aundia egiteko lakoak. Baizar luzeak eta sakonak egiten ebazan BaJendin'ek gazte oneikaz eta neuk be artu-emon pozgarriak izan nebazan euretariko geienakaz.

Baiña gazte oneik ez ziran parroketako artzain-lanera larregi sartzen. Egia esan, Eupeme Deunaren parrokiaren sarritan lagundu eusten, baiña Andra Mari'ko parroko zan eta naikoa gazte joan jakun Mendizabal'dar Ramon'ek esaten eban bere parrokiaren batzen zirala baiña 'Meiotik sartuta". Nire erantzuna au izan zan ori esan ebanean:

-Artea zabalik itzi ba-zeuntsen ez ziran leiotik sartuko.

Aurrera jarraitu orduko esan beit, Mungia'n lagunak izan ba'giñan be (orduan Gatican egoan bera), Bermeo'n ori eziñaizan zala. Ni joan eta laster eskiñi najakon *lagun* jez. baiña berak ez eban *onartzen ni* Balendinen *laguna* izatea. Neure adiskideak neuk akeratzen dodazela esan neutsan. Gure kritiken bildurra be agertu eustan eta nik esan neulsan eskubide ori iñori ez jakola kendu bear eta geure buruak be kritikatzeko genduzala. Gero gorabera asko eta naikoa gogorak izan genduzan. Batzuk agertuko dira idaz-lan oneitan.

Or egoan ba ondo gertatuko gazte-talde bat eta Baiendin bera be gazteen lanera-ko Gotzaiudegitik izendatua zan, baiña beste artzain-langilleak ez eben onartzen, ez taldea eta ez Balendin. Beste alde batetik, gazteakaz lana egokiro egiteko ez geugozan iñor. Nik eskatu neutsan Juan Mari Gotzaiñari olako laguutzaille bat. baiña eziña izan zan.

Sendotzaren inguruan sortzen zan arazoa: Ni joan aurretik umeak urreratu ziran sakramentu onetara, bear ba'da berreun bai eta eleizkizuna zaratatsua izan zan eta Gotzaiña bera erdi gaisorik etorri zan. Eleizkizun ori ez zan gertatu egokia.

Urrengo urteetan parroki bakoitxak bere taldeak sortu ebazan sendotzarako eta parrokien arteko alkar-lana be egiten zan, sendotza be ospatu zan eleizkizun askoz egokiagoan, baiña, beste leku askotan jazoten dan lez, gazte areik Espiritua baituta edo, eroaten eben eta ez ziran geiago eleizara agertzen. Orrek ondo-eza sortzen eban batzungan eta Gotzaindegitik itzaldi bat emotera ekarri gendun talde bat. An gengozan oartzailleakaz ezin leikela aurrera eroan ekintza au esan eben. Or amaitu zan bearreko lan au. Oraintsu egiten dabela zerbait entzun dot.

Oartzailleen talde orretara lekaime Karmeldar batzuk eta lekaide Lamenetar batzuk be etorten ziran, baiña ez zan gauza erreza oartzailleen artean alkartasuna lortzea, beste arazo askotan ezin alkartu izaten giñan giro aretan.

**En Bermeo trabajaba en pastoral pero bastante alejado de las parroquias, mi gran amigo Balendin. Pertenecio al grupo de Mungia, me siguiu en la direccion del Colegio San Pedro y en las relaciones con la Ikastola y tanto el como su familia se relaciono mucho conmigo. Fue uu golpe tremendo la muerte de su padre y de su hermana en el espacio de pocos dias en Laukariz de donde fue parroco.**

**Su salida de Mungia fue dificultosa y se fue a Bermeo con su madre ya mayor que uecesitaba de sus cuidados, ya que era hijo uuico, y le encargaron de las clases de religion en el Iustituto de Bermeo y de la Iabor pastoral cou la juventud.**

**Este gran amigo mio tenia juuto a si a uu grupo de jovenes muy trabajadores, de mucha fe, muy unidos y capaces de desarrollar una labor evangelizadora muy buena en Bermeo, pero yo creo que se les marginaba por parte de los demas agentes de pastoral. Es verdad que en Santa Eufemia me ayudadou bastante.**

**Yo veia con pena que estos jovenes entraran tan poco a las parroquias. Un dia dijo en la reunion el Parroco de Santa Maria que solian reunirse en su parroquia pero que habian entrado por la veutana. Yo le dije que no bubieran eutrado por la ventana si les hubiera abierto la puerta.**

**He de reconocer que mis relaciones, que habian sido buenas en Mungia**

con Ramón Mendizabal se deterioraron en Bermeo. Me ofreci para colaborar con el, pero me manifesto que no le agradaba mi amistad con Balendin, a lo que conteste que mis amigos los escogia yo. Tambien me dijo que eramos criticos y le dije que si, criticos primero con nosotros y luego con los demas.

Tratamos de poner al dia la preparacion para la confirmación. Incluso se celebro una vez, pero fue la ultima, porque no pudimos ponernos de acuerdo, aun reconociendo que colaboraban las Carmelitas de la Caridad y los hermanos menesianos que tenian un gran colegio y las hijas de San Jose.

#### **XX-4: BERMECm LITURJI-ALDAKUNTZAK: ZARRAK BARRITZEN, LAIKOEN ZEREGIÑAK, ABESTIAK ETA LATIÑA, LITURJI-URTEKO EGUN AUNDIAK, ELEIZPIDEAK. GABONAK ETAILLERIA.**

Beti izan naz liturji-zalea eta eleizkizunak, Batikano'ko 11 Batzar Nagusiaren bideetatik eguneratzea nai izan dot, eleizak eurak be bai.

Batzar Nagusi onek aukera ederra emon dasku eleizkizunak egokitzeko eta orretan jokabide barri batzuk sortzeko, gauza asko eta egikera asko aldatu bear izan dira Batzar Aundi onen ondoren lez, baiña Bermeo n eleizea oso atzeratuta aurkitu neban eta aurrera eragiteko alegiña egin bear izan zan, ez beti ondoren ona lortuz. Ikusi daiguzan egikera batzuk.

Bermeo'ra eldu eta laster izan /an Domu Santu eguna eta batera jldakoena. Lendik be igarrita neukana ikusi neban, Bermeo'tarrak euren fedeari il-kutsu larregi emoten dautsela. Ori orrelan da eta ez da gauza erreza aldatzea, baiña jokabide barregarri batzuk obetzea egin leiken gauzea da.

Domu Santu goizean nire abade laguna zan Iturrate'tar Damian jaunak auxe esan *eustan*:

-Gaur eta biar lanik aundiena erresponsoak ateratea izango dogu. Mezak abestu barik esaten dira eta goizean goizetik asita eguerdira arte lan ori egin bear dogu.

Erresponsoen arazo au lenengo Fruniz'en bideratu bear izan neban, gero Zea-nuri"n barriro aurkitu neban arazoa eta konpondu neban, orain Bermeo'n baniro aurkitzen neban eta emen be konpondu egin bear, eta geroago be agertuko da.

Erresponsoen ekintza, Euskalerrian oso zabal bete dana, auxe da: Eleiztarren sendi bakoitzak eleizan bere tokia dauka, <sup>4v</sup>sepulturea\* deritxona. Toki onek etxeagaz daukan zer-ikusi antropologo edo gizaiztilariak gauza garrantzitsu lez joten dabe. Etxekoren bat illen danean, "sepultura" orretara dirua botaten dabe eleiztar-  
rrak, bai illetan. bai olata-mezan. urrengo domeketan eta beti be bai. Mezea asten

danean sepultura orretara joaten dira abadeak, "bonete" a eta isopoa eskuan dabezela eta errespontsoak errezaten dabez, aldi baten erreal bateko aitagnre bat, oraintsuago pezetako bat eta orrelan jarraitzen dabe meza denpora osoan diru-truke aita-gureak errezatzen.

Lenengo urtean ikusi egin bear dala-ta, beti egiten dan moduan egin zan gauzea: Eleizearen erdian sakristaneak matxu bat ipiñi eban eta gaiñean kurutze bat, aurrean otzara bat dirua botateko eta diruaren albo bakotxean kandela bat iziotuta. Etorri zan lenengo andrea eta esku biakaz goitik bera iguzi eutson gurutzeari, gero dirua eskuan artu eta mosua emon eutson eta otzarara bota. Gero asi ziran eleiztarrak ugariago etorten eta eleiza osoa argiz bete zan, bakoitxak bere sepulturara lau argizai, eta asi zan txanponen dantzea sepulturarik sepulturara aikarri dirua botaten, asi zan lenengo mezea altaran, isillik, eta abadeak joan gintzazan eleizara aitagureak esan eta dirua abade-txapeletara batzen.

Esanbearrik be ez dago, oso lotsatuta egin nebala antxiñatik itzita neukan lan au, baiña egin neban eta diru asko batu zan gero abadeen artean banatzeko.

Lenengoa ta azkenengoa izan zan eginkizun au. Urrengo urterako kendu nebazan "errespontso" ak, naizta ori antroplogoen gogoko ez izan. Ori erriaren aldetik onartua izan zeiten, jesarleku barriak ipiñi nebazan eleizan eta ederrago geratu zan eleizea. Beste parrokian, Andra Mari n, len lez bardin jarraitu eben.

Beste ekintza bai Tegarri bat "nokturnoak" ziran. Illaren urteagarrena zalako edo beste edozein ziogaitik etxeoak "noctumoa" eskatzen eben (otorno-edo esaten eben eurak): Meza-aurrean abadeak altarearen inguruan abestu egiten eben: Salmoak, lengo otoitz-ereari jarraituz. baiña euskeraz. Ori meza guztien aurretik eta beti egin bear izaten zan, amanetan amaiketan eta amabietan, baiña urtean bein nire laguntzailleak esaten eustan:

-Fundaziñoen noktumoak egin bear doguz.

-Ori zer da, D. Damian?

-Urtero noktumoa egiteko fundaziño asko dagoz parrokian eta egun baten edo bitan egingo doguz danak.

Abade biok goizean goizetik asi eta eguardira arte, noktumoak abestu eta abestu ekiten gendun egun baten edo bitan, eleizan beste iñor ez egoala.

Nokturnoen arazo au ezin bideratu izan neban, eleiztarrak ezetza emon ezkerro beste eleiza batera joaten ziralako. Orregaitik esan dot Bermeo'n abadeak alkartuta jokatu bear dabela. Oi Telan itzi neban nik, baiña orain aldatu dabe parroki bietan oitura ori.

Beste jokera bat latiñez abestekoa zan. Parrokiko komtxuak beti nai izaten eban latiñez abestutea eta nik esaten neutsen erriak latiñez gauza batzuk abestea ondo

dagoala, batez be mundu-maillan batzar aundiak egiten diranerako, baiña otoitz egiteko lenengo ulertu egin bear dala eta orretarako euskeraz edo gasteleraz abestu. Lortu neban ori. Azken baten nagikeria zan. Abesti barriak ikasteko nagikeria, baita antziñako abesti zarrak gugan sortzen daben gomutapena edo "añoranza" be. Gaur barjro jausi dira lengora eta mezan latinez asko abesten da, "kyrie Eleison" abesteko, gaiñera erri guztia jesarri egiten da.

Abade organulari on bat geunkan parrokiak Zabala'tar Aszension. Baiña zar egin zan eta egun baten eleizan organulariak edo beintzat urte batzuk pianua ikasten egiñak eskatu nebazan eta sei gazte agertu ziran. Ez ekien organua zer dan be. Orregaitik, fedea eta trebetasuna kontuan dirala, aukeraketa egin eta esan neutson Aszension jaunari:

-D. Aszension! Esan doguna beteteko ba-daukaguz organulariak, baiña pianua jakin arren ez dakie organua zer dan. Egon zaite eurakaz eta esan egiezu organua zelan jo bear daben, esaterako erregistroak, oiñagaz jotea, eta abar...

-Bai, bai -esan eustan.

Joan ziran guztiak korura eta gure D. Aszension'ek Bach'en fuga jo eban euren aurrean eta esan eutsen:

-Oiantxe joten da organua.

Zurtz eginda, agobete azurregaz geratu ziran gazteak.

Baiña ba-egoan beste andra bat organuiari ona zalako entzutea eukana. Oneri dei egin neutsan eta gertu egoan parrokiak organua joteko. Beste gazteai be irakasteko esan neutsan eta gazte bategaz igon eban korura. Gerotxuago joan nintzan eurak ikustera eta arrituta itzi ninduen. Organularia oso asarre egoan eta gaztea negarrez. Esan neutsen:

-Zer jazo da?

-Onek ez daki organua joten! Onek ezin leike emen organua jo-esan eustan organulariak.

Nik erantzun neutson:

-Nik ez dautzut esan azterketa egiteko, zerbait laguntzeko baiño. Eta orain organua joko ez dauana zeu zara.

Gazte arek urteetan jo eban organua eta naikoa ondo. Orduan asi zan beste gazte bat be orain organulari da eta pozik dabil.

Liturji-urtearen barruan diran jairik aundienari Bermeo n esangura bereizia emoten jaken. Au adierazteko Abar-igandean jazorikoa azalduko dot.

Abar-igandean meza guztietan eta bitarteetan be bai, abarrak bedeinkatzen ziran. Dana zan sartu-urtena, dana zaratea. Urte baten esan neutsen:

-Abarrak Aste Sanrurako Jesus'en etorrerea *ospitalzako* dira eta eleizkizun au guztiok alkartuta egin bear dogu. Orregaitik meza bitan bedeinkatuko doguz abarrak, amaiketari euskeraz eta amabietan erderaz.

Ori aurreko igandean iragarri neban, baiña alperrik izan zan. Amarretako mezan eleizea abarrez beterik egoan. Nik ez neban egin abarren bedeinkapena eta asarre etorri jatazan sakristira.

Nik esan neutsen:

-Lengo igandean esan gendun meza bitan egingo dala bedenkapena.

Ez eben nire erantzuna, ez entzun, ez onartu. Euren abarrak artu eta joan ziran San Frantzisko'ra eta an eurak nai eben orduan emoten eutsen bear eben bedeinkapena.

Antzera jazo jatan Zapatu santu gabean:

-Jauna! Zapatu santuz iru eleizetan bedeinkatutako ura bear dot eta beste eleizetan emon dauste. Emen ba'dago Zapatu Santuan bedeinkatutako urik?

-Ez oraindiño! Ez dogu eleizkizuna egin eta ez dago.

-Eta ori zelari da ba? San Frantzisko'n Jesus berbiztu da, Andra Mari'n be bai, eta emen berbiztu barik dago?

-Bai, andratxua-esan neutsan-, San Frantziskon lenengoa. Andra Mari'n bigarre-na eta emen irugarrena baiña irugarrena da baliokoa, Jesus irugarren egunean berbiztu zan-eta!

Beste oitura bat joian sartzen errian: Gabon gabean Illerrian mezea egiteko oiturrea. Aztertu gendun ori abadeen batzarrean eta ezetza emon geuntsan, gabon-eguna ez dala egokia illerrian mezea esateko, eta agiri bat idatzi genduan, guztiok onartuta, eleizetan irakurteko. Nik irakurri neban baiña ez beste parrokiak, eta mezea esaten jarraitu eben. Zergaitik eukeri ainbeste gurari gabon-gabean meza ori egiteko itaundu neutsenean, auxe izan zan erantzuna: Egun orretan diru asko batzen zala eta illerriko eleizatsua konpontzeko bearrekoa zala dirua.

Laikoak ez eben ezertan be parte artzen parrokiari. Orregaitik, gizon on bateri, Bilbao'tar Pedro'ri, esan geuntsan irakurle-lana egiteko eta egin be egin eban, baiña inguruan beti ekin eta ekin ebiikozan, abadeak be bai, ori ez egiteko ori abadeen zeregiña zala-ta. Bardin jazo zan Gure Jauna emoteko laiko baten laguntza eskatu nebanean, abade batzuk eta laikoak be bai. laguntzaille orreri ekin eta ekin asi ziran, ori ezin leikela egin, ori abadeen zeregiña zala...

Laikoak ez ebela parte artzen esan dot, baiña sakristana bat gennkan. katekistak be bai eta Karitas'en lan ona egiten eben. Ori beste leku baten agertuko da. Abeslariak be ba-egozan.

Emen erdi- benetan, erdi txantxetan esan diran ekintzakaz eta beste askogaz, alegindu nintzan liturjia eguneratzen, baiña arazo aundi bat auxe zan: Bermeo'n baka-rrik ez da egin bear ezer, eta besteakaz batera ezin egin ezer.



Ba-ziran Bermeo'n okerreko sinismena agertzen eben jazokizun batzuk. Labur-labur gogoratu baiño ez dodaz egingo.

Eleiz-inguruan sarritan ikusten zan andra on batek esan eustan bein, noizean bein Espiritu Santua agertzen jakola eta uso-itxuran datorren bakoitxean lumak izten eutsala etxean eta ez dakiala luma orreikaz zer egin.

Beste gizon batek demoniñoa agertzen jakola esan eustan eta baten Sollube-gaiñean ikusi ebala eta an ezer egin ez arren, mendibarrenean bide zabalean arorioa bota ebala bera motorretik. jausi eiten. Au Jauna artzera urreratzen zan bakoitxean belanikatu egiten zan eta bein baten urteetan aurrera egoan Aszension abade jaunak auxe esan eutsan, beian belauniko ikusi ebanean: j"Mas dificii todavfa"! jOraindiño be geiago makurtu bear!

Bermeo'ko txofer bat, eta ba-dakiguz izena ta abizenak, autobusaren gidari joia-la loak artu eban edo ekstasisera sartu zan, baiña autobusa aigeruak zuzendu eben eta ez zan ezer jazo.

Bermeo n euren batzarrak egiten ebezan Palmar de Troya'ren lagunak, eta iñoz "Klemente Aita Santua" be etorri zan Bermeo'ra. Asko dira Bermeo'tik TJnbe'ra Andra Maria'ri mirariak eskatzera joaten diranak.

Aste Santua eltzen danean, talde on batek ardura aundia artzen dau Andaluzian egiten diran antzeko "prozesiñoak" egiteko eta an jazoten dan antzera, parte artzen daben asko iñoz mezara joaten ez diranak izaten dira: Zelako poza erakutsi eustan neska gazte batek Aste Santuko ibillaldi orreitan Andra Maria'rena egiteko aukeratua izan zalako. Berak esan eustan Eleizatik urrin bizi daia, mezatara iñoz ez dala joaten.

Illerrian izaten diran kandelak eta lorak asko be asko izaten dira, beste lekuetan baiño askoz geiago, eleizatxuan 500'tik gora.

Eleiza ebangelio-zaieak (Iglesia evangelica) bere taldea dauka eta Eupeme Deunaren geletan Aste Santua ospatu eben bein beintzat, Julio Diaz euren abadeak eskatuta. Eurena zala uste eben gazte gaiso bateri, etxeakoak eskatuta, eleizakoak emon neutsazenean. laster aurpegira bota eustan Julio Diaz'ek. Gero illetan parte artzea eskatu eban eta olan egin zan geurea amaitu zanean eleizan bertan egin eben euren ekintza.

Eleizan kandeiak biztuteko zaletasun aundia dauke eta Eupeme Deunaren eleizan oitura ori ez gendun indartu, berez biztuten dauzan tramankulua ez gendun erosi, baiña ori erosi dabe eta "negozio" ona dala ezin ukatu.

Ba-egoan fedea garbitu-bearra, baiña urte batzuk geiago bear ziran.

**No puedo negar mi afición a poner al día la liturgia y los templos y este fue uno de mis intentos en Bermeo, aunque me *encontre con* la grave dificultad de que no siempre colaboraban, ni mucho menos, las otras parroquias.**

**Intentamos resolver el problema de los responsos que me resultaba hasta bochornoso, tratamos de poner al día, sin éxito, el problema de los famosos nocturnos, fuimos consiguiendo desterrar los cantos en latín que eran demasia-**

dos, aunque ahora han vuelto al uso, tratamos de solucionar el problema del organista ya que el que teníamos, muy bueno, era ya muy anciano y murió, hubo intentos de actualizar el sentido del Domingo de Ramos, del agua bendecida en las tres parroquias, no conseguimos que se dejara de decir misa en el Cementerio en la nochebuena, tratamos de devolver a los Jaicos sus ministerios, aunque con dificultad. No puedo olvidar al bueno de Azpeitia, padre de un sacerdote, que comenzó a rezar el rosario.

Pero las dificultades eran muy grandes. En el fondo, no había que hacer nada en solitario y apenas se podía conseguir llegar a un acuerdo para trabajar juntos.

## XX-5: BERMEO'N: KARITAS.

Bermeo'ko eleizea dan modukoa da eta ba-daukaz akatsak. esan dogun lez, baiña bai bere alderdi guztiz onak be.

Eta olako alderdi onen artean bat, zalantza barik, Karitas'en ekintza da. Andrak dira lan au egiten dabenak, abadeak aurrean dirala, baiña andra oneik benetan goragarriak eta txalogarriak dira: Zelako begia euken bear-izana non dagon eta bear-izan barik datozenak nortzuk diran igarteko! Bear ba'da esango dabe laguntzarik geiena artzen dabenak jitanoak dirala. Bermeo'n jitano asko egoan, bertakotuta geienak. eta bear-izanak be ba-ebezan, baiña Karitas'ek edozein beartsuri laguntzen eutsan.

Asiera baten ez eukan aitu-emon aundirik eleizbarrutiko Karitas'egaz, baiña ori be bideratu eben, 1983'ko uriola nagusia izan baiña lentsuago, Rekakoetxea'tar Kepa arduradun zala.

Karitas'en aurrean abadeak egozala esan dot. iru parrokoak giñan ardura ori artzen ebenak, baiña Frantziskotarra geietan etorri eta gozoki batzuk emon eta joan egiten zan eta Andra Mari'koa, bertan batzarrak egin arren, ez zan etorten, abade bat naikoa dala esaten eban eta bere ustez ordua beteten zanean, giltzak erakutsi eta urteteko agintzen euskun. Dana dala, abade bat naikoa dala esaten eban ezkerro, Eupeme Deunaren parroko koruak JVLundaka'n egiten eban bazkarira, koruaren kontura, jakiña, iru joaten giñan eta nik esan neutsen abade bat naikoa zala eta neu etxeratu nintzan bazkaldu barik.

Karitas'en ekintza ain bearrezkoak banaka azaltzea ez da gauza erreza eta ez bearrezkoa be, baiña bai gogoratu bear da Uriola aundia izan zanean egin zana.

Ikaragarria izan zan uriola arek (1983 Tco agustuaren 26'an uste dot izan zala). kalte ikaragarriak egin ebazan Bermeo danean eta batez be Frantzisko Deunaren parroki-inguruan eta Askatasun-bidea kalean: Benetan negargarria zan arratsalde aretan aurrean ikusten genduana eta samiñak entzuten ziran oiuk eta zaratak. Fran-

tzisko deunaren eleizan bertan koruraino eldu ziran urak, ez dakit ziur baiña bost metro inguru bai. Orrek esan gura dau inguruko kaleetan etxe-barren guztiak ondau zirala, bizi-leku asko be bai. Eta Artike-kale inguruan ziran etxeak Tribisko Errotaraino, eta non ez!

Bermeo'ko Karitas. Eleizbarrutikoaz alkartuta, gogotsu arduratu zan erantzuna emoteko, une iarri aretan bertan eta gero barriztatzea egiteko orduan: Laguntzak, maillegoak, janariak eta abar...

Karitas'ek gaur egun be ondo. len baiño be obeto jarraitzen dauala esan dauste lengo lankideak. baiña orduan lan egiten ebenak batzuk Aitaren Etxera joan dira, beste batzuk zar egin dira, eta abar. Gure bizitzaren legea orrelan da... Baiña len baiño be ardura geiago artzen ei dau Eleizbarrutiko Karitas'ek eta Gizarte-Laguntzailie bat be ei dauke Eleizbarrutikoak ipiña. Bear eban Bermeo'k orrelako zer-bait!

**La iglesia de Bermeo, con sus cualidades y defectos, tiene, sin duda, actividades muy buenas, entre las que podemos contar la labor de Caritas Interparroquial en favor de los necesitados, sin olvidar los gitanos que abundan desde hace años, muchos de ellos integrados en Bermeo, aunque no sin dificultades de convivencia.**

**En Caritas interparroquial son laicos los que llevan casi todo aunque la presidencia colegiada corresponde a los tres parrocos.**

**En un principio note que vivian un poco aislados, sin saber apenas nada de Caritas Diocesana. Pronto se subsano esta situacion y se llevo a tener relacion cordial en tiempos de la Direccion en Bilbao de Kepa Rekakoetxea.**

**Recuerdo que la visita pastoral de Mons. Uriarte fue *un buen* espaldarazo para esta labor y no olvidamos aquella reunion en Santa Eufemia con las fuerzas vivas de la parroquia entre las que se hallaban las de Caritas, juntamente con sacristana, *catequistas*, economia... en la que dijo que en la mision de Ja Iglesia en el mundo la evangelizacion y ayuda a los necesitados podian considerarse al mismo nivel. Cuando Jesus manda evangelizar a los apóstoles, les pide mirar a enfermos y necesitados.**

**No parece interesante ni posible recordar acciones concretas de Caritas, pero si hay que recordar la labor realizada con motivo de la gran inundacion que dejd aplanada la villa, sobre todo la zona de San Francisco, Askatasun Bidea y Artike kalea.**

**En colaboracion con Caritas Diocesana se trato de encauzar toda clase de ayudas puntuales, juntamente con inversiones a fondo perdido y prestamos sin interes. No fue mucho lo que pudimos hacer ante aquel desastre. Hubo quienes podian hacer e hicieron mucho mas, pero nosotros tambien aportamos nuestro granito de arena.**

## XX-6: BERMEO'N: KATEKESIA PARROKIETAN ETA ERLEJIÑO A ESKOLAN

Umeen eziketlan lan aundia eta sakona egiten zan Bermeo'n, naizta emen be akats batzuk izan. giza-lan guztietan lez.

Ttu parrokiak alkartuta Katekista-taldea osotzen eben eta kideko ziran abadeak, lekaide-lekaimeak (Frantzisko'tarrak. Iamenetarrak, Karidadearen alabak. lekaike karmeldarrak eta Joseba Deunaren alabak) eta laikoak, batzuk Baiendin'egaz alkar-tzen ziran taldekoak eta beste batzuk frantziskotarren inguruan ebillzanak.

Katekista oneik Eskola bat osotzen eben eta noizean bein alkartzen gintzazan geure osokuntzarako berbaldiak entzuteko, alkar osotze-lana egiteko eta otoitz luze. sakon eta ederrak egiteko. Noizean bein batzarrak egiteko urten-aidiak egiten gen-duzan. Gogoan daukat San Pelaio'n egin genduan bat eta Gastelugatxe'n egin gen-duan beste bat. Onak.

Katekesia batera gertatu eta gero parroki bakoitxak bere kontura emoten eban katekesi ori. Nik Eupeme Deunaren inguruan emoten genduna azaJduko dot, bes-teen barri geiegarik ez daukat-eta.

Lenengo katekesi-gelen arazoa. Ez geunkan gelarik eta bearrezkoak zirala uste izanik, erabagi bat artu bear izan neban: Eleizpearen gaiñean neure bizi-leku zan (aurreko abadea Arriaga'tar Eduardo be antxe bizi izan zan) tokia orretarako egoki-tu eta neuretzat bizileku barri bat erosi. Eleizearen ondoan, kalea bitarte erosi neu-tson Dondiz etxegilleari eta eskuan ordaindu.

Aukerea daukagun ezkeru. katekesiaren arloa gerorako itzi eta egin daigun edes-ti apur bat: Gela oneik D. Jil Morgatarra abade zala egin ziran, 1952-inguruan eta Mozillo'tar Kasimiro artzain ikustaldia egitera etorri zanean D. Jil'ek esan ei eutson:

-Gotzain jauna, oiTa or abade-etxe barria 52. 000 pezeta ordaindu bear izan dogu egitea.

Eta Gotzaiñak erantzun ei eutson:

-Beste ainbeste emon lei ori ortik kentzearren!

Artez egoan Morzillo Monseñora. ereikintza orrek Eupeme Deunaren Zin-Elei-za ederrari itxurea kendu egiten dautso-ta.

OrainLsuago etorri jatan Zabala'tar Aingeru Jauna, geia orreik kendu eta Eupene Deunaren eleizea, zin-eleiza edo "juradera" dalako barriztatu egin nai dauala-ta. Nik baietz esan neutsan, baiña baldintza bat: Katekesia emoteko gela batzuk bear genduzala. Baietz, esan eustan. eta Udai-Batzean berba egingo ebalda gelak emon dagiezan. Egin eban berba baiña ez eban lortu gelarik eta parrokia egokitu barik dago. Geiago oraindiño, konpondu bear aundian dagoan Kurtzio'ko ermita polita konpontzeko, orrexegaitik antza, ezin lortu izan da laguntzarik.

Nik erositako etxearen azpian dagoan tokj eder bat erosi nai izan neban eta egi-  
tasmu bat gertatu be bai, baiña 12 milloi kostaten zan eta abade-lagunak ez eroste-  
ko esan eusten. Jaramon egin neulsan. batekoagaitik Mendizabal'dar Ramon'eri ori  
esan eustanean, eta damututa nago. Erosi ba'litz ordainduta egongo zan, Eupeme  
Deuna egokituta eta katekesirako eta batzarretarako gela ta areto ederrak  
eleiz-ondoan. Ederti aldetik eta arkeoloji aldetik balio ikaragarriak dagoz Eupeme  
Deunaren eieizan eta egunen baten agertuko djra.

Beste jazokizun bat agertu bear dol, naizta neure gogoko izan ez: Egun baten  
Opus Dei'ko talde bat etorri zan eleizea ikustera eta bear-izan bereizirik ete neukan  
esan eusten. Nire erantzuna izan zan katekesirako gelarik ez geunkela. Eta erantzun  
eusten: Guk otoitz egingo dautsagu gure irasle (fundadore)'ari eta laster eukiko  
dozuz katekesi gelak. Denpora gitxi barruan izan zan etxe barria erosi eta gelak  
katekesirako iztea.

Baiña goazen katekesi lanera.

Geletan altzari oso egokiak ipiñi genduzan, erdian katekistea eta inguruan  
umeak batzeko egokiak zirala, idatzola be bal Eta katekistak pozik etorten ziran  
umeakaz alkartzera. Ni zuzendari lez gurasoakaz artu-emonetarako ta eraketak egi-  
teko geratzen nintzan. baiña katekistaren batek uts egiten ebanean. neuk be emoten  
neban. Pozik aurkitzen nintzan ume areik, katekesia amaitzerakoan otoitzerako  
giroan egozala zomatzen nebanean.

Jitana batzuk be etorten ziran, baiña errikoak eurakaz bat egitea gatxa izaten zan,  
zio barik bear ba'da, esaten eben usain txarra eukela eia isekaz artzen ebezan, baiña  
lana egin zan.

Umeen mezea edo, obeto esateko, umeakazko mezea zan beste arazo bat. Argi  
agiri zan umeak ez zirala mezetara joaten. Ez dakit nik joian bear daben be, mezea  
eta ebanjelioa ez clirala umeen gauzak etorten jat sarritan burura. Dana dala, alegi-  
ña egilen zan euren mezea egin eta etorri eitezan. Lenengotan meza bat egiten zan  
Frantziskotanen eieizan, gero parroki bakoitxean bertakoa egiten asi giñan eta  
Eupeme Deunaren parrokian zapatu arratsaideetan egiten genduan. Ez jat sekula  
aiztuko Bilbao'tar Gidor, Balendin'egaz taldean ebillan eta parrokian irakurle gen-  
dun Bilbao'tar Pedro'ren semeak zelako alegiñak egin ebazan. Mezea bera al gen-  
duanik egokien egiten gendun eta zerbait egin zan. baiña ez ondoren aundiagaz.

Eta umeen kristiñau-eziketan gabiltzan ezkeru, goazen eskoletan erlejiñoa emo-  
teko egiten genduan lanari begiratzera.

Beti uste izan dot eskoletan erlejiñoa irakasteko lana oso gaxa dala. Bermeo'n talde batzutan erreza ta polica zan', esaterako Fruniz'en ezagutu neban eta ango mai-xuaren seroea zan Gartzia'tar Anjel'en ikasleakaz. Gela onetako umeak araubidean ondo ezita egozan eta pozik ekiten eben lanean. Ba-egoan beste taJderen bat be ona, baiña talde bat egoan eskolako atzeratuenak osotzen ebena eta oneikaz ezin eikean ezer egin, eroapena galdu baiño. Gaiñera erlejiñoaren ostean esku-lanak egiten ebe-zan eta lanabesak eskuetan ebezala etorten ziran: bata maillua. besteak segea, bes-teak aizkorea edo untzeak-edo, Enez ulertuko dau irakurleak zelako erlejiñoa emongo neban!

Irakasleen batzarrera be joaten giñan. baiña erdi-alperrik: Ezkertiarak ezkerrean eta eskoitiarrak eskoian jesarten ziran eta an ez egoan ezelako konponketarik.

Amaitu baiño len jazokizun bi: Aldi aretan. Ortuellan uste dot, eskoia baten ezbear aundi bat izan zan eta ori zala-ta meza bat eskatu eben eskolan. Ni ez naz olakoen laguna baiña egin eben. Lotsatuta nengoan. Meza denporan umerik geienak aurrean egoan be-barruan egozan jolasketan, zarataka. eta jaunartzeko orduan guz-tiak *elorri* ziran jaun artzera batera, *goitik* eta beetik aJ dan moduan *emon* bear izan gendun gure Jauna. Eta entzunda neukan autsaren egunean garizuma asteko be. eskoJan mezea egiten zala, baiña ikasleak eskoletan lanean dabiltaJa eta gero aba-dea joan ikas-gela guztietaxa eta guztiai autsa burutik bera.

Sei urteetan joan nintzan erlejiñoa irakastera eskoletara eta benetan aspertuta nengoan. Orain entzun dot Esther Madariaga, Udaletxeko idazkari dan Muñoa'tar Manu'ren emaztea joaten dala. Adiskjdetasun aundia izan neban senar-emazte onei-kaz eta ba-dakit Esther Jan orretarako ondo gertatu dana eta lan ona egingo dau, zalantza barik.

**Teniamos en Bermeo una Escuela de catequistas integrada por sacerdotes, religiosos/as (Menesianos, franciscanos, Hijas de la Caridad, Carmelitas de la Caridad, Hijas de San Jose) y laicos.**

**Como Escuela teniamos nuestras conferencias, trabajo en equipo, salidas, oracion y preparacion de las sesiones de catequesis. En aquel entonces no esta-ba muy contento de este funcionamiento, pero visto desde la distancia que dan los años veo que no iba tan mal la cosa.**

**En Santa Eufemia no teniamos locales. Se daba en la misma iglesia, por lo que compre una casa nueva muy cerca de la Iglesia al Constructor Dondiz y adecue mi vivienda sobre el portico para catequesis, amueblandolo adecuadamente. Luego quisieron quitar esta construccion que afea enormemente el hermoso tem-plo, pero exigí otros locales que no se me concedieron y quedo la obra sin reaii-zar. Una pena, porque hay muchas cosas de valor artistico e historico que poner a la vista. Como consecuencia, creo yo, quedo a medio terminar la obra de Ja ermita de Kurtzio, que tiene valor extraordinario artistico e historico.**

La catequesis se desarrollaba en aquellos locales con normalidad sin que yo apenas tuviera que intervenir, excepto algunas entrevistas con padres, y, eso sí, cuando faltaba algún catequista yo le suplía. Me sentía muy feliz cuando lograba que aquellos angelitos se recogieran para hacer oración, al menos al final de la sesión. Tampoco me olvido de algunas dificultades que surgían en la convivencia de gitanos, que en Bermeo eran muchos, y los payos, dificultades, quiero decir, en la catequesis misma.

Al notar que a las misas normales apenas acudían niños, decidimos celebrar misa especial con ellos. Al principio misa única en San Francisco y luego en cada parroquia una. No puedo olvidar la ayuda que para ello me prestó el joven Gidor Bilbao, que era hijo de Pedro Bilbao que actuaba como lector en Santa Eufemia y era también del grupo que se reunía con Balendin Zabalo. Adecuamos todo lo más posible las misas, pero no tuvimos mucho éxito.

Es preciso decir algo de las clases de religión en las escuelas públicas. Es una labor que nunca me ha gustado, pero la realicé durante los seis años, en algunas clases contento y en otras no tanto. Ahora tengo entendido que se encarga de esta labor Esther Madariaga, esposa del Empleado municipal Manu, una buena familia con la que tuve un trato muy agradable. No dudo que hará una buena labor.

Acudíamos a las reuniones de profesores en las que los de izquierda se colocaban a la izquierda y los de la derecha a la derecha y rara vez había acuerdo. No es buena forma de educar.

Hicimos lo que pudimos y algún resultado habra tenido.

## XX-7 BERMEO'N: ABADEAK, LEKAIDEAK ETA LEKAIMEAK.

Bermeo artzain-langintzarako langillez ondo omiduta egoan. Guztiz lekai-de-lekaime ta abade 72 inguru gintzazan: Lamene'tarrak ikastetxe ederra euken. Eupeme Deuna'tik ikastetxe ori egiteko nire aurretik egoan abadeak, Añoberos Gotzaiña ados egoala. ez ainbeste onen laguntzailleak, 8 milloi emon ebazan. len egoan eta parrokiarena zan ikastetxe zarra saldu zanean artutakoak. Eta parrokiak ez eukan ezelango eskubiderik ikastetxe orretan. Gaur ikastetxea itxi egin bear izanda. Or 10 lekaide inguru egongo ziran, euren artean Zelestiño anaia nire lagun aundia ta mungiarra. Frantzisko'tarrak 12 inguru ziran eta parrokia ta kapellautza batzuk eukezan. Lekaime klaratarrak, barruan bizi diranak, 10 inguru ziran, lekaime onak eta jatorrak, benetako errizaleak. San Jose'ren alabak ikastetxe ederra euken Eupeme Deunaren parroki barruan eta 8 inguru ziran, onak eta jatorrak. Maitasuna-

ren alabak iru alkarte eukezan Bermeo'n. Ume-etxekoa, Zarren egoitzekoa ta Zoro-etxekoa. Guztiz 20 inguru izango ziran. Eta abadeak, zar eta gazte 21 inguru: Andra Mari'n: Mendizabal'dar Ramon, Gandiaga'tar Jose, Zulueta'tar Eutiki, Iza-girre'tar Juan, Etxebarria'tar Ramon eta Zabalo'tar Balendin. Eupeme deuna'n: Iturrate'tar Damian, Bilbao'tar Ramon, Zabala'tar Aszension eta neu. Eta Almike n Alboniga 'tar Ektor.

Artzain-langille guzti oneik ondo alkartu ezkeru, bermeotarren kristiñau-bizitza zorionekoa izango zan, baiña ez zan gauza erreza. Artu emon naikoa onak geunkazan: asteroko batzarra, noizean bein San Franzisko'n bazkariren bat, Lamenetarren ikastetxean San Jose Eguna jai pozgarria, Klaratarretan batzarra eta otoi-tza sarritan... eta gogoratua dogun alkar-lana arlo askotan, batez be abade-taldean eta katekesi-taldean.

*Sei* urte igaro ondoren non gengoan jakiteko edo giroa zelakoa zan ikusteko, andik urten nebanean agurra zeiakoa izan zan gogoratuko dot:

Lenego Frantziskotarraian esan neutsen eta aita Adrian'ek esan eustan berak deituko eustala egun baten apari bat egiteko. Baiña aitzu egin jakon eta agur egitera joan nintzanean egun bat aukeratu gendun, geroago jatordu bat egiteko. Zoro-etxeko maitasun-alabai be agur egitera joan nintzan eta ondo amaitu zan gauzea. Gero Maitasun Karlmeldarrak agurtzera joan nitzan eta, neure ustez, agur larria izan zan, berba egiteko gogo gitxigaz. Klaratarrak oso ondo artu ninduen. Eta azkenengo agurra Sollube'ra bidean dagoan Lamenetarrenean izan zan eta esan neutsen zertarako noan eta, bear ba'da, askarixu bat egiñez agurtuko giñala. Erantzuna arrigarria izan zan: Ez askaririk eta ez agurrik. Geroago, aitatu dodan Zeiestino anaiak eroan nai izan nendun ikastetxe barrura agur egiteko. baiña orduan neuk esan neutsan: Ez askaririk eta ez egurrik.

Ez daukat zalantzarik, jokabide orrek bere azalpena izango dauala. Ni beti izan naz lamenetarren lagun aundia: Txatolen (Bretaña'n) euren etxean egunak igaro nebazan Fruniz'en nengoala, aurrerago Portugalete'ko euren ikastetxean gogo-jardunak emon nebazan eta Bermeo'n artu-emon asko izan nebazan eurakaz. Gai baten ez giñean lamanetar guztiakaz batera etorten. Nik esaten neutsen Lamenetarrak txiroai irakasteko sortuak dirala eta Bermeo'n txiroak erri-eskolara joan bear izaten dabela eta errian ikastetxeetara joan eta eziketa ona artu dabena giza maillan gorengo egozala... Ba- dakit salakuntza orrek azalpen asko daukazena. Euretari-ko batzuk be nire azterketa ori ontzat artzen eben. Ez neuke galdu gura eurakaz izan dodan artu-emon ona. baiña arazoa or geratzen da.

**En Bermeo estabamos muchos agentes de Pastoral. Solamente entre sacerdotes, religiosos y religiosas eramos como unos 70. ;Que suerte para Bermeo si se hubiera logrado una colaboracion evangelica. Pero creo que no superariamos un aprobado.**



**Terminados mis seis años en aquella villa "cabeza de Bizkaia" segun el Rey Catolico, me despedi de todas las comunidades y pude darme cuenta de que habia problemas soterrados, cosa que no me extraño ni mucho menos.**

**Quede bien claro que por mi parte no estoy enfadado con nadie, que aprecio a todos, pero de algunos de ellos no podri'a yo decir lo mismo. Y no es cosa de citar nombres.**

## **XX-8: BERMEO'N: UDAL-ETXEAN ITZULTZAILLE.**

Eupeme Deunaren parrokian naikoa ta lar zeregin neukan. batez be Dainian abade laguntzaillea zar-saridun biurtu zanean edo Bilbao'tar Ramon laguntzaillea il zan ezkeru, baiña beste Jan aundi bat artu neban: Udaletzeko agiri guztiak euskera- itzultzeko lana. Zergaitik artu neban esaten ba daustazu, nik zio batzuk agertuko dautzudaz: ezetza esaten ez dakidalako. Oraintsu, zar saridun egin nabenean ikasi dot! eta euskerearen alde lan egiteko beti eskintzen nazalako. Gaur euskeratzailleak aurkitzea ez da ain gatxa, ugaritu egin dira-ta, baiña orduan bai.

Egiten neban lana luzea ta aspergarria zan. Egunero joan ara eta artzen neban orri-pillo bat itzultzeko: Osoaren batzar agiriak, taldeetako batzar-agiriak, agin- duak, eskutitzak... eta zer ez. Egunero orduak, iru edo lau bai, egiten nebazan lan orretan.

Alkateagaz eta ziñegotziakaz eta idazgoko langilleakaz neukazan artu-emonak on-onak ziran, batez be len aitatu dodan eta udaletxean lan aundia egiten eban Muñoa'tar Manu adiskideagaz. Antxe izan zan urte batzutan idazkari Muniategi'tar Abel adiskidea be.

Ez dakit zenbat denporan iraun neban lan ori egiten, baiña iru bat urte bai. Ain- bat bidar egon bear izan neban maian langille barriak artzeko orduan euskerazko azterketak egiteko. Araxe etorri zan nire loba dan Oiazar'tar Itziar be. Azterketak ondo egin ebazan, baiña ez eban lortu lan-lekua. Orain Zarautz'en dago Udaltzai- ñen taldean. Loba au benetan maite dot, eta berak be maite nauala uste dot.

Bein baten udal-batzeko Jakintza-Saillekoak dei egin eusten eta auxe esan:

-Udal-Batzak Bizkai'ko euskerea erabiltea erabagi dau, baiña erabilten dan idaz- kerea, ortografia, Euskaltzaindiarena izatea nai dogu.

-Ondo dago -esan neutsen-. Nik ez daukak ezelako gurari bizirik lan onetan jarraitzeko. Besterik ez neban nai zeuei eta euskereari laguntzea baiño. Orregaitik, beste itzultzaille bat aurkitu al ba'dozue, nik asarre barik itziko dot neure iana.

Asko eskertu eusten nire jokabide au eta beste itzultzaille bat artu eben.

Ikusten da atxeak zelako garrantzia daukan. Atxeagaitik atera ninduen Gas- teiz'en Unibersidadeko katedratik eta atxeagaitik, beste errazoi batzuren artean,

kendu euslen Eleizbarrutian itzultzaille-lana, baiña nik argi ikusten dot euskereak atxerik ez dauala bear, eta orretan euskaldunik geienak neugaz batera dagozela uste dot, Ez dot ikusten errazoirik or atzera egiteko. Baiña arazo au sarritan agertuko da eta ez noa emen geiago azalpen au lutzatzen. Besterik ez dot esango Bermeo1s.o Udal-Batzari esker ona agertzeko berbak izan ezik. Eskerrik asko zuen biotz ona-gaitik!

**A veces pienso de donde se puede sacar tiempo para hacer tantas cosas, pero la verdad es que el tiempo da mucho de si cuando se aprovecha hasta con avaricia. Yo tenia trabajo abundante y de sobra en Eupeme Deuna, pero un dia me ofrecieron el trabajo de traductor del Ayuntamiento y acepte esta labor. ^Razones? Una ayuda al ayuntamiento en una epoca en que los traductores todavia escaseaban, una colaboracion para fomento del euskera y amor al euskera bizkaino que iba a utilizar..**

**El trabajo era grande: casi diariamente iba la Casa Consistorial y recogia documentos que traia a casa para traducir y llevar cuanto antes: Actas, cartas, bandos, *documentos* de todas clases. Varias veces me *toco tomar* parte en el tribunal para examinar de euskera a futuros empleados y repetidas veces fui a la Universidad de Oñate a reuniones de traductores con el Responsable de Jauriaritza Sr. Oregi.**

**Mis relaciones con el ayuntamiento fueron siempre inmejorables y asi siguen siendo, tanto con el Alcalde como con concejales y empleados.**

**Un dia la Comision de Cultura me dijo:**

**-El Ayuntamiento ha decidido utilizar el euskera vizcaino, pero quiere que se utilice la ortografia de Euskaltzaindia.**

**Yo les respondi:**

**-Ahora creo que no os sera diftcil encontrar un traductor y, si os parece, yo preferiria dejar de prestar este servicio.**

**Ellos me agradecieron mi postura y asi termine el trabajo de años.**

**Termino diciendo, y lo repetire mas de una vez, que no comprendo por que se apega tanto Euskaltzaindia al uso de esta letra que no tiene ningiin sentido. Me parece una sinrazon ante la que espero no ceder nunca. Por eso perdi la catedra de Universidad en Vitoria y por eso me quitaron, entre otras razones pastorales, el servicio de traductor diocesano.**

## XX-9: BERMEO'N: ARRANTZALEEN ARTZAIN-LAN BEREIZIA (ITXAS-APOSTOLUTZA)

Aspaldiko urteetan ardura aundia izan da eleiz-giroan apostolutza bereiziaz buruz edo giro bakoitzean bizi diranai begira artzain-lan bereizia egileko. Asiera baten Katoliku-Ekintza zan, barruan ebazan bereiztasun guztiakin: lkasleak. base-rritarrak. lantegietako lagilleak eta olakoak. Or sartuko litzake arrantzaleen apostolu-lana be. Eta "ApostoJado del Mar\*" deritxon onek bere edesti ederra dauka.

Bilbao Eleizbarrutiko Batzar nagusia egin zanean olako ekiñaldi bat egin zan, beste talde askoren artean arrantzaleen taldea izan eitean ela Ubieta'tar Jose Anjel'ek esanda egin neban alkar-izketa bat arlo onetan arduradun zan Otamendi'tar Patxi'gaz. baiña ez zan ezer lortu. Bermeo'tar batzui be berba egin neutsen olako talde bat sortzeko baiña ez eben gogoisu entzun. Ez egoan oiturarik.

Eleiz-Batzarra amaituta gero. Jose Anjel'ek beste ekiñaldi bat gertatu eban, izan be Jose Anjel oso ekintzaillea da, ori nok ez daki! Arrantzaleen kaietako parrokietan, Bizkaian eta Gipuzkoan diran abadeai deia egin jaken, Pagola'tar Jose Antonio Donosti'ko Gotzain-Orderzkariari be esanda. Eta olako batzar batera ezin utsik egin Bermeo'k!

Bermeo'tik Jenengotan Aita Antonio frantziskotarra ta biok joan giñan eta arlo onetan dagoan edestia aztertu gendun, Bermeo'ko Imanol Berriatua frantziskotarraren aldietatik asita. Urrengo batzarrera ez zan etorri Jose Anjel, gauzea bere bidean egoalako. baiña orde. Pagola Ordezkaria asi zan etorten. Batzar sakonak eta ederrak egin genduzan, baiña ikusten zan Aita Antonio'k ez eukaJa gogo aundirik. Ara zer esan eban batzar baten:

-Parrokian eleiztar guztiak dira bardiñak eta guztiak onartu bear doguz. bata arrantzalea bestea baserritarra eta bestea dendaria dirala begiratu barik. Ori orrellan izan ezker ez zan ikusten apostolutza bereizirik bear zanik. Orixe erantzun neutson:

-Gauzea zuk diñozun lez ikusten ba da. batzar oneik alper-aJperrik egiten doguz.

Ez eusten ezer erantzun, baiña argi egoan baietza zala erantzuna. batzar oneik ez dirala bear. Pagola'tar Jose Antonio ez eban onartu ori.

Batzar orretara Jaikoak eroan bear zirala ez egoan zaJantzarik eta eskari ori egin zan batzar baten. Orduan Parrokietan artzain-lana egiterakoan erabilten eben azterketa bat ekarri eban Pagola'k eta or agertzen ziran bideak artuta, arazoa aztertzen eta gertatzen asi giñan. Eskatuta geunkan lez, laiko bat be eroan neban Bermeo'tik, *gizon* ona ta baiezkorra. PaJangrearen arazoa aztertzen be asi gintzazan.

Zerbait egiteko gogoa ikusten gendun ba, baiña orretan gengozala nik Bermeo'tik urteteko gotzaiñaren eskaria artu neban eta or itzi neban lan ori, urrengo abadearen esku. Arrezkero iñoz PagoJa'tar Jose Antonio ikusi dodanean itaundu

dautsal zelan doan lan ori eta aurrera doala esan daust, baiña ez daukat barri geiago. Bearrezko lana da baina ez erreza.

**El Apostolado del Mar es un movimiento necesario dentro de la Iglesia, no solo para la marina mercante sino tambien para pescadores.**

**Cuando la Asamblea Diocesana de Bilbao hubo un intento de formar un grupo de este movimiento especializado. Yo mismo tuve unas reuniones con Patxi Otamendi, pero no pudimos llegar a formar grupo. Tambien hable en Bermeo con algunos para la misma finalidad, pero no veian necesidad.**

**Terminada la Asamblea Jose Angel Ubieta volvio a insistir y convoco a sacerdotes de los puertos pesqueros de Bizkaia y Gipuzkoa, contando con Jose Antonio Pagola, Vicario General de San Sebastian. A una convocatoria asi no podiamos faltar y acudimos al principio el P. Antonio y yo. Acudí/a tambien J. A. Ubieta. Mas tarde dejo de verrir Jose Angel y empezo a acudir J. A. Pagola. Comezamos a trabajar sobre un documento que era para preparar las visitas pastorales en las parroquias de Gipuzkoa. Y bien. Pero un día dijo el P. Antonio que no veia la necesidad de movimientos especializados. Siendo eso asi, le dije yo, "apaga y vamos" porque hemos comenzado en balde estas reuniones.**

**Tratamos tambien, como era logico, de que acudieran laicos a las reuniones. No fue facil, pero de Bermeo acudia un buen amigo mio arrantzale. En este momento llego mi nombramiento para Mungía y deje\* el asunto en manos de mi sucesor en Santa Eufemia. Alguna vez le he preguntado a J. A. Pagola que fue de aquello y me dijo que seguia adelante. No tengo mas noticias. Es una labor necesaria, sin duda, pero nada facil.**

#### **XX-10: BERMEO'N. EUSKEREAREN ALDE LANEAN ELEIZAN ETA ERRIAN, "BERMEO" URTEROKO LIBURU EDO ALDIZRARIA, LABAYRU TALDEAN.**

Bilbao'ko Eleizbarrutian beti izan dau garrantzi anndia euskerearen alde egindako lanak eta batez be Eleizan bear dan neurrian euskerea erabilteko egiten dan alegiñak. Bermeo'ko Eupeme deunaren parrokian egin gendun alegiña eleizkizunak euskeraz egiten, baiña ezin ukatu gaztelereari bere lekua, naiz eleizkizunetan naiz ebengelizatzelanean. Bide orretatik joian len aitatu dodan Udal etxeko itzultzaille lana be. baiña ekintza bi batez be goraiatu nai neukez arlo onetan: "Bermeo" aldizkaria eta Labayru ikastegia.

"BERMEO" aldizkaria billaketa-lanak argitaratzeko zan batez be, eta gairik gurenak UdaleiTiari eta itxasoari buruzkoak. Nik andik urten eta urxengo urtean

argitaratu zana da zazpigarren zenbakia: Bermeo'ko Udalaren Kultur-Batzordeak argitaratua, 400 orrialde daukaz eta iru idazkari agertzen dira: Anton Erkoreka, Manu Muñoa eta Ane Miren Iruretagoiena. Aldizkaria oso interesgarria eta irakurgarria da.

Aldizkari orretan laguntzen lan egin neban eta ainbat idaz-lan argilaratu be bai, batez be elerti edo literatura-arloko lanak. Ez dakit orain jarraitzen dauan urteten, baiña benetan interesgarria ta sakona zan aldizkaria, Bermeo'ren ezagupena inguruetara zabaltzeko egoki egokia eta gure jakintzaren mundurako ekarpen ederra.

Beste lan on bat Labayru Ikastegiak Bermeo n eukan taldean egin nebana da. Talde au ona ta txeratsua zan. Izen asko ez aitatzearen, ez merezi ez dabelako luze izango lizakelako baiño, Gabantxo'tar Kontxi aitaturko dot. Bermeo'ko arazo guztiak oso arduantua dan andereñoa, Eleizalde ikastolan irakaslea ta arduraduna. Udai-Batzean udalkidea, errigintzako bere alderdian sakon sartua, eta Labayru talde onetan irakaslea ta eratzaillea.

Talde onen lenengo zeregiña Bermeo n euskerea zabaltzea ta indartzea zan eta orretarako eratzen ziran irakastajdiak, itzaldiak eta abar. Pozik joaten nintzan ni irakasten eta auxe zan Bermeo n egiten nebazan lanen artean pozik geien emoten eustana, bear ba da: Irakaslekideak onak ziran eta ikasleak be arduratuak eta onak.

Baiña irakaskintza baiño be pozgarriagoak ziran urtean bein edo zio bereziren bal egoanean egiten genduzan alkartzeak eta jatorduak: Askotariko gaiak aztertzen genduzan eta geure arteko alkartasuna indartzeko benetan egokiak ziran.

**En la vida de la iglesia diocesana de Bilbao, entonces y quizá también ahora, se tiene en una alta consideración todo lo que se hace en favor del fomento del euskera, en la misma iglesia, desde luego, y en la vida civil.**

**También en Bermeo hicimos esfuerzos por impulsar el euskera, empezando por la relación entre sacerdotes, que era totalmente en euskera, continuando en la liturgia y en la catequesis y terminando, por mi parte, en el trabajo de traductor del Ayuntamiento y en estas dos labores que ahora voy a recordar.**

**Colaborando con la Comisión de Cultura del Ayuntamiento publicábamos todos los años "BERMEO" revista o libro de investigación en el que realizo la labor más fundamental Anton Erkoreka, que luego se fue de médico a Plencia y trabajaba mucho también Manu Muñoa, empleado del Ayuntamiento del que ya he hablado.**

**Publique varios artículos referentes al euskera, a la literatura euskaldun y a historia. Siempre tuve en gran aprecio esta publicación que salió, ciertamente el año 1988-89, después de salir yo de Bermeo. No se si se sigue publicando.**



*Erkoreka gazteagaz. Gazte il zan!*



*Goian eta bean: Karitas taldekoak eta abade barria.*



Otro de los campos en que me dedique al euskera fue Labayru, dentro de un grupo que esta *Institucion* diocesana tenia en Bermeo. Daba clases semanales a unos alumnos muy motivados y muy fieles. Resultaban muy gratificantes las reuniones de enseñantes, tanto en el campo academico como en aquellas cenas de confraternizacion a las que he acudido durante varios años aun desde Mungia. Era un ambiente muy agradable en el que compartíamos el amor al pueblo y a su cultura. Aunque no puedo citar a los muchos y buenos amigos del grupo, no quiero dejar de citar a Kontxi Gabantxo, estusiasta colaborador y promotor de lo que vale para promocionar el euskera, tanto dentro de su partido como en el ayuntamiento, en la Ikastola y en este grupo Labayru. Vaya mi gratitud desde aqui a todo el grupo Lahayru.

**XX-11: BERMEO'N: ERRITARREN ERITXI-BATZEA, GOTZAIÑAREN IKUSTALDIA, AGURRA TA ARDURADUN BARRIAREN AURKEZPENA, MUNGIA'RANTZA.**

Nagon leku bakoitzean amar urte egitea izaten da nire elburua, baiña bostgarren urtean eleiztarren eritxia eskatzen dot, alde ba'dago jarraitzeko eta aurka ba dago urteteko. Orrelan egin neban Zeanuri'n eta orrelan Bermeo'n be: Bost uiteak bete ziranean eleiztarren eritxi idatzia eskatu neban. Asko izan ziran erantzunak eta ia guztiak jarraitzeko eskatzen eusten. Ondoren parrokian agertu neban eta nire guria beste bost urte egiteko zala esan neutsen. Dana dala, ez dagiela aitzu gure gaiñetik eleizearen ardurea gotzaiñak daukola eta onen agindua bete bear nebala.



*Josu Penades gazteagaz.*

Eritxi-batze ori egin eta laster Uriarte'tar Juan Mari'k Gotzain lez Bermeo'ra artzain-ikustaldia egin eban. Lenengo gertakuntza, gero eleizetara ta mezetara ikustaldia, gero talde guztiakaz alkar-izketa.

Eupeme Deunaren parrokiaren be egin eban ikustaldi ori bere biotz ona eleiztarren aurrean zabalduz. Parrokiko langille guztiakaz be egin eban batzar bat, oso maitekorra ta ona. Pozik geratu ziran eleiztarrak.

Lekaide ta lekimeen taldeetara be joan zan, baiña orko barririk ez dakit nik, bakarrik kanpoan agertzen ziran ondorenak eta barruan izanekoren batek esaten eustazan barriak. Juan Mari gotzaiñak berak be egin eustan berba. Artzain-ikustaldia amaitzen danean abade guztiak dei egiten dautse banan-banan eta besteen artean egokidan egunean joan nintzan ni be. Ainbat gauza esan eustazan eta atera genduan ondorena auxe izan zan: Urtebetegarrenean-edo, ondo izango litzakela ni Bermeo'tik kanpora joatea,

Baiña ez zan urtebete be izan. Ille gitxi bartu deitu eta auxe esan eustan:

ZU, MARTIN: Mungia'ko parrokiak daukagu bear-izan aundi baten, aspaldion abade arduradun asko aldatu diralako eta gauzak ondo joan ez diralako. Baiña ez Mungia bakarrik, inguruko errietan be arazoak dagoz. Eta badakizu zer pentsatu dogun? Zeu izango zifiala ona Mungia'n arduradun izateko, talde on baten bavian. Zer deritxazu?

Baietz esan neutsan eta biok pozik.

Urrengo egunetariko baten albiste au agertu neban Eupeme Deunaren parrokiaren. Guztiz asarre jarri ziran eleiztarrak:

-Ez gendun ba geure baietza emon? Orain zer?

-Bai, baiña orduan be esan nentzuen gure gañetik dagoala Gotzaiña eleizearen ardurea artzeko eta bere esana egin bear gendula. Eldu da esan ori egiteko ordua.

-Geu joango gara gotzaindegira eta lortnko dogu berori emen geratzea.

-Joan gura ba'dozue joan, baiña alperrik izango da. Ni joan egingo naz.

Eta joan be egin ziran gotzaindegira. Eurak artzeko maillaren baten eragozpenak egozan, baiña nik artzeko esan neutsen, eta diñoena entzuteko, baiña erabagia atzeralzeko usterik ez agertzeko. Orrelan egin zan eta eldu zan parrokiaren agur egileko ordua.

Benne'ko parroki bi, Andra Mari eta Eupeme deuna alkartu egin ebezan. lenago be alkartuta egonak ziran naiz eun urte igaro banatu ziranetik. Abade-talde bat ezarri eben parroki bietarako eta arduradun Madarieta'tar Biktoren.

Agur egiteko egunean ba, onegaz alkartu nintzan altaran eta meza barruan emon neutsazan giltzak eleizearen. biziiekuaeren eta gelen ardurearen ezaugaiTi lez, eta pozik amaitu zan eleizkizuna.

Gogo ona dagoanean. ez da ain gatxa izaten abadeen aldakuntza, eleiztarrak ulertzen dabe arazoa, txaiTagoa izaten da urten bear dauanak nai ez dauanean eta eleiztarren ekintzak indartzen dauzanean, edo datorrena zergaitik edo agaitik, onartzekoa ez danean.



Eupeme Deunaren parrokian izan neban sarrera ez zan izan olakoa: Joan nintzan egunean. lengo abadeak berak egin bear dauala azkenengo mezea esan eustan eta urrengoan egiteko sarrera. Ezer be ez eban esan ez bera doanik eta ez barria datorrenik. Urrengo domekan bakar-bakarrik agertu nintzan eleiztarren aurrean.

Aurrerago esan dodan lez, lekaide-lekaimeen talde guztiai agur egin ondoren, urten neban Bermeo'tik eta Sollube-gaiñera eldu nintzanean, beste aldetik Mungia agiri zala. berebiiletik jatsi eta oiñetakoak kendu ondoren astindu egin nebazan, ebanjelioaren berbak gogoan nebazala. Ez asmo txarragaz, ezaugarri lez baiño. Barriro berebillera sartu eta Mungia'ra abiatu nintzan neure buruari abesti baten bidez dei egiten neutsala: "Eleizara sartu eta Jaungoikoaren berbea entzun alkarregaz. Gure abesti zarra abesten jatsi neban Sollube:

ERDU, PEKATARIA  
ERDU ELEIZARA  
JAUNGOIOKOAREN BERBEA  
GOGOZ ENTZUTERA.

**En conformidad con la idea que siempre he tenido de que unos diez años son la etapa ideal para que un sacerdote este en un mismo sitio, y de acuerdo tambien con que en algun momento oportuno los fieles deben expresar su criterio de que continúe o deje su puesto, cuando se cumplieron los cinco años de mi estancia en Bermeo pedí por escrito la opinion de los fieles sobre la prolongacion de mi estancia o la conveniencia de mi salida de la parroquia. Las respuestas fueron muy numerosos y la inmensa mayoria, casi la totalidad, querian que continuara. Recordemos que lo Inismo ocurrio en Zeanuri a los cinco años.**

**Al dar noticia del resultado a los feligreses les dije que, de acuerdo con sus respuestas, mi intencion era continuar otros cinco años, no mas, pero que siempre hemos de tener en cuenta que el Sr. Obispo, por necesidades para el gobierno de toda la diocesis, podia disponer de mi cuando io creyere necesario.**

**Pocos meses despues de esta consulta, anuncio su visita pastoral a Bermeo el Sr. Obispo, D. Juan Maria Uriarte. Primero hubo una preparacion detallada y luego visito las parroquias, celebró misas, estuvo con todas las comunidades religiosas y con todos los grupos... Una actividad muy grande, como ocurre en todas las visitas pastorales de D. Juan M<sup>a</sup>. Tambien estuvo en Santa Eufemia, en todas las Eucaristías y con un grupo de fuerzas vivas. Fueron encuentros muy amables y que dejaron buen sabor de boca.**

**Naturalmente, no se al detalle de que habJaron en las reuniones de diversas comunidades, pero algo se puede deducir de las filtraciones que siempre se dan y de las consecuencias.**

Terminada la visita, *recibio a todos los sacerdotes, uno a uno*, en el Obispado. A mi personalmente me dijo muchas cosas, pero la mas llamativa fue la ultima: Quiza dentro de un año, debieras salir de Bermeo aunque estas decisiones no se toman inmediatamente despues de la visita.

Pero no paso un año, sino unos pocos meses, me volvio a llamar Juan Mari y me dijo:

OYE, MARTEN: Tenemos un problema de atencion pastoral en Mungia y pueblos del contorno y hemos pensado en ti para que seas moderador de un equipo.

Yo acepte ia propuesta y comunique la noticia en Bermeo. Acudieron al obispado para impedir mi salida, pero mi decision era firme y sus acciones no surtieron efecto. Asi no suele ser facil que surjan conflictos. En la misa del domingo siguiente entregue las llaves al nuevo parroco, celebrando publicamente despedida y entrada, y sin mas a Mungia. Entre al final de agosto de 1.986.

**AGIRIAK/DOCUMENTOS**  
**BERMEO'KO ERITXI-BATZEA**

1.985. V. 12'an.

Talde onek, urrengo 5 urteetan be zuk Eupeme Deun 4in Elei-  
zako parroko'lez jarraitzearen alde emoten dau bere eritxia.

Onetarako, au da eskeintzen dogun arrazoirik pisudunena:

. 1.- Gaurko Eleizearen alde jokatu dozulako. Au, ekintzen bidez  
erakutsi dozu:

.- Artzain-lens.

.- Domekaroko itzaldisk (sermoiak).

.- Eleiz Barrutiko Batzar Nagusia aurrera atz-  
ratzeko ekinā.

.- Eritxi-batze au egitea.

Andra Mari'ko Eleizean alkartzen dan Gazte Taldeak izenpetzen dau.

1. Martin parrokoak Santa Eufemian jarraitzea gura du (dogu) ala EZIY BAI!

2. Urretarako ikusten dodazan (doqazan) arrazoiak onek dira:

Abades trebes izanik gañera, Teoioji ta Paastoral aldetik gaurkotuta  
dago, ta orrek garrantzi eundia dako Bibliako Jaungoikoaren azalpen  
izeteko eleizan ta errian. - Klaratarrak.

15 - 5 - 85

D. Martín OLÁZAR

B E R M E O

Querido Martín:

Después de orar y reflexionar en comunidad, hemos pensado que no nos corresponde a nosotras el contestar sí o no a la pregunta formulada por tí.


De todas formas te ofrecemos nuestra opinión respecto al trabajo de estos cinco años entre nosotros:

Como persona te creemos preparado y con gran capacidad organizativa, sin embargo tu fuerte carácter ha intentado imponer el cambio necesario en el pueblo de forma radical, sin tener en cuenta las características peculiares de Bermeo con su ritmo y proceso evolutivo propio, lo que ha provocado rupturas dolorosas y agresividades innecesarias. Tal vez nos mirado ras a tu objetivo, percibido con claridad, que a las personas con las que has trabajado, lo que nos parece lamentable ya que el trabajo en grupo exige valorar y escuchar a los demás aunque esto haga más lento el proceso.

Tal vez no es todo lo que tí esperabas, pero nos parece suficiente para que saques las conclusiones que te sean útiles para responder a la Comunidad Parroquial conces tu deseo.

Un saludo afectuoso

Karquel dar A.K. Korbok



Después de haber pesado razones, el Grupo de Catequistas es de la opinión de que D. Martín Olazar, párroco de la Iglesia de Santa Eufemia de Bermeo, deje de ejercer sus servicios como tal en ella. Estas son las razones que se han dado:

- Exige demasiado a las personas. En especial a la juventud, pero no le da nada.
- Es duro en la relación. No es humilde; soberbio. Demasiado estricto.
- Hay un descontento general. Sólo piensa en él. No comprende al otro.
- Entre los-las catequistas; mantiene una convivencia fría y superficial.
- Como párroco: se ha mantenido lejano al pueblo.  
Los feligreses huyen de él como tal.  
No es idóneo para ejercer este servicio.  
No tiene carisma como párroco.

Fuera aparte de estas razones se han dado otras a favor de que siga:

- Mantiene una actitud favorable a la Iglesia actual, lo cual se ha visto reflejado en varias de sus acciones:
  - . Impulsar la Asamblea Diocesana.
  - . Su trabajo en el Artzain-Lan de Bermeo.
  - . El pedir opiniones.
  - . Introducir una dinámica más activa que empuje a los fieles a tomar mayor parte.

Han salido a relucir también cualidades positivas como:  
Persona trabajadora, organizada; actúa y trabaja a favor del clero.

Grupo de Catequistas de Bermeo.

EUPEME DEUNAREN  
ZIN-ELEIZEA  
BERMEO'N

Bermoo n, 1.905'eko orrillaren 10'an

Bermoo'ko Eleiz-Taldoai,  
Lekaide-Lekaimoen Alkarteai,  
Eupeme Deunaren Eleizako eleiztarrai eta  
Erantzun nai daban Uermen tar nuztiai.

Fede bateko ta adikideoi, ACUR!

Eupeme ueuna eleizako parroko luz, eskaritxu bat egiten dautzuet.

Bost urte dira laster, Bermoo'n Eupeme Deunaren parroko txanburu edo p-  
rroko izateko etorri nintzala eta niru izendatzen, aspaldion beti egiten dai  
lez, bost urterako egin eban Gotzainak, bost urte orroik amaitzen diranean ar  
tertzea egin eta beste bost urterako luzatu ala beste izendatza bat egin  
bagiteko.

Azterpen au egin eta arabaqi au arizako orduan, zuok be zer-esana daukazi  
la uste dot eta orregeitak egiten dautzuet idazki au.

Ez egizuo beqiratu qiratzat onu ala txarra dan urtetos naiz emen beste i  
urtean jarraitzea. Orrek ez nauko qarrantzarik, Beqiratu Bermoo'ko eleizari  
eleizearen bidez arriari, lanuntzako onokia nazen eta ez.

Neuri bardin daust qeratu naiz joan eta ez daukat beste sibururik qoure  
regiña bear dan lekuan bototoa balno. Zinon oritxia jakin qura dot eta dan l-  
koa Gotzain jaunari aqertuko dautset, berak ondoan beritxona orabaqi dajian

Erantzun egiezus ba itaun bi onai, altxianez lenonqoari, eta erantzunak (z-  
anpetuta obeto) kerta-azal zarratuan ni ba'du, okerri Eupeme Deunaren elei-  
ra orril onen 15 a baino lenago edo or inguruon

*Decisione de Eleizgo*  
*Maria Ondaqiti*  
*Soliman Maria*  
*Salvador Ondaqiti*

*Maria Teresa Landa*  
*Ignacio Echeburua*  
*Guadalupe Ondaqiti*

RESPUESTAS

1. NO.

2. Razones.

Hay ~~muchísimos~~ muchísimo de positivo en Don Martín: Es hombre de fe profunda, trabajador incansable y de gran capacidad de trabajo, bien preparado teológicamente, desinteresado y sacrificado, sincero y lógico entre ideas y vida personal, clafo de ideas... Pero creemos que no es apto para el puesto de Párroco de S. Eufemia, sino más bien para otros altos cargos, bien sea a nivel diocesano ó a nivel sectorial.


Para Párroco de S. Eufemia opinamos que tiene de negativo su carácter de una manera especial. Es radical, terco e intransigente en sus planteamientos pastorales, es muy suyo y no acepta fácilmente planteamientos distintos a los suyos.

En el trato personal (con individuos ó grupos apostólicos) tiene poco tacto y diplomacia. Sin dar cuenta y, con la mejor buena voluntad, sin duda, hiere la sensibilidad ajena y molesta con facilidad. Como consecuencia de ello, ha alejado y "quemado" a muchos valiosos elementos de la Pastoral de Bermeo en los últimos años. Por otra parte, pone "el listón" muy alto en la Pastoral y quiere "quemar etapas" en poco tiempo, alejando a los que quieren caminar más despacio.

Estando desterrado el Obispo Mujika, fueron desterrados otros 500 sacerdotes y asesinados otros 16. ¿Por qué? Porque estaban considerados como amantes del Pueblo Vasco. ¿Quiénes fueron los agentes? Los españoles que estaban muy unidos a la Iglesia. Y encima nos acusaban de que que la Iglesia del Pueblo Vasco entraba en política.

Las autoridades vasca, acudieron a Roma con intención de dialogar con el Santo Padre, pero no los recibió el Santo Padre o sus colaboradores. ¿Por qué? Porque les exigieron que se unieran al partido español CEDA y se negaron a ello. ¿Quién entra en política?

Recientemente ha habido un intento parecido y tampoco han sido recibidos.

#### **EL OBISPO LAUQUÍRICA**

Por estar en el destierro nuestro Obispo DR. Mujika, nos trajeron al Adm. Ap. Lauquática. Un hombre hermoso, buen predicador, fastuoso, pero franquista enperdenido y perseguidor nuestro. Hasta hablaba euskera, pero siempre contra los vascos.

Bajo él comenzó nuestro tiempo de Seminario, siendo jovencitos. Nosotros le queríamos de verdad, porque hasta nos daba algunos días de vacación. Pero ni él ni los obispos siguientes nos dejaron hablar euskera ni nos enseñaron esta lengua. Siempre nos decía el A.A. que el sacerdote no debe entrar en política, cuando él vivía metido totalmente en ella.

#### **EL OBISPO BALBÉSTER**

Cuando Mujika presentó la dimisión, nos enviaron a un Murciano, hombre de buen corazón, pero empeñado en hacer desaparecer todo lo que pudiera oler a vasco. En su tiempo consiguieron los españoles dividir en tres la Diócesis de Vitoria. Siempre la Iglesia con España y contra nuestro pueblo. ¡Qué pena!

#### **LAS TRES DIOCESIS**

Los vascos en aquellos tiempos teníamos un gran prestigio en España: Una Diócesis grande y de mucha vitalidad, un seminario con fama, abundancia de clero, más tarde misiones diocesanas propias. Además el tener un solo seminario unía a los vascos. Los enemigos de siempre no podían ver eso. Por ello, con la colaboración de la Iglesia, lograron dividir en tres aquella diócesis y desperdigar aquel seminario.

Quizá la creación de las nuevas diócesis era conveniente desde el punto de vista de la Iglesia, pero los que prepararon todo ello eran movidos por el odio a nuestro pueblo, colaborando en ello la Iglesia.

Como consecuencia, nos enviaron tres Obispos y los tres extraños a nuestro pueblo: Uno de Madrid, otro de Aragón y otro catalán. Los tres españolistas encendidos y enemigos del Pueblo Vasco. Nos pedían que no entráramos en política, porque no es labor de sacerdotes, pero ¿ellos?

Las tres diócesis tenían que pertenecer a alguna archidiócesis y para que no se volviera a unir el pueblo vasco, Gipuzkoa y Nabarra formaron parte de la de Pamplona y Bizkaia y Alaba de Burgos. ¿Por razones eclesiásticas? No. Era y es puro juego político.

#### PABLO GURPIDE OBISPO

El primer Obispo de Bilbao fue nombrado para Zaragoza y nos enviaron a Bizkaia al Obispo Gúrpide, escogido en consejo de ministros y aceptado por el Santo Padre. El nuevo Obispo era totalmente sumiso a la política española franquista, colaborando con la policía. Hizo todo lo que pudo en contra del euskera y para castigar a los aficionados a nuestra lengua.

Nuestra capacidad de aguante llegó a su límite y entramos acciones duras contra él. En nombre de un grupo de sacerdotes tuve que ir dos veces a hablar con el Nuncio Dadaglio, una vez a San Sebastián y otra a Madrid, a pedir que nos quitaran ese obispo, y presentamos incluso candidatos. Algo más tarde tuve que ir a Roma. Estando allí murió D. Pablo Gúrpide, obispo vasco pero mal vasco.

Con aquellas acciones y por el ambiente que se formó conseguimos que todos nuestros obispos fueran vascos, y hemos vivido unos años buenos. ¿Y ahora? Vuelta a las andadas. Primero en Pamplona un Obispo extraño al pueblo, para Bilbao nuevamente uno de fuera y para Vitoria un vasco pero desconocedor de nuestra lengua.

#### Y AHORA ¿QUE?

Tengo un insufrible dolor íntimo. No sé qué hacer. Habrá que verlo más tarde.

El Santo Padre habla en muchas lenguas, sobre todo en saludos, pero aunque se le ha pedido, no quiere usar el euskera. Cuando visita los pueblos suele besar la tierra, pero no la tierra vasca. ¿Parece que no nos quiere!

Martin Olazar

---

Nota: Cuando utilizo la palabra Iglesia, sería más justo usar "jerarquía".

---

Hoy mismo he leído en la prensa que el Arzobispo de Burgos ha dicho que la reunión de usted con don Luis Mª y otros ha tenido lugar en Burgos, porque la Diócesis de Bilbao pertenece a aquella archidiócesis. Ante esto los castellanos dirían: "La primera en la frente".

Sr. Obispo, creo que está dicho todo lo que quiero decir y no me queda otra cosa que despedirme con un saludo afectuoso en Cristo.

*Manuel de los Angeles*

**EL OBISPO DE PALENCIA**

U. A. D. 1995.

Recibe, querido amigo, un  
saludo cordial. Agradezco  
su claridad en la postura.  
Comenzamos bien en Jesucristo.

Hasta pronto.

J. Ricard



ANDRA MARIA'ren eta  
KEPA DEUNA'ren  
PARROKIA

48100 MUNGIA (Bizkaia)

41  
Mungia, 17 de octubre de 1.995

D. Carmelo Echenagusia

Bilbao.

Querido amigo Carmelo:

Te escribo en castellano porque también he leído en esta lengua las afirmaciones que motivan esta carta.

Me refiero a estas palabras que he leído hoy mismo en la revista diocesana "Comunicación" y que también he leído en alguna otra parte. "Quienes consideran que no ha sido acertado mi nombramiento apenas si han tenido valor de acercarse a mí".

No ha sido falta de valor. Tú sabes que tengo valor para eso y para más, como lo has podido ver en el pasado, lo ves en el presente y lo verás en el futuro. He tenido ocasiones de hablar contigo, la última en la despedida de D. Luis Mé en Begoña. Si no lo he hecho es porque no me gusta discutir con los amigos sobre sus decisiones. La amistad está más allá de eso. Pero ya que me provocas con tus palabras, ahí te ve mi criterio.

¡Carmelo! Has cometido un grave error al aceptar este nombramiento, colaborando con algunas autoridades de la Iglesia que están cometiendo este grave genocidio con nuestro Pueblo desde hace mucho y especialmente desde la guerra.

Dices que te lo ha pedido el Santo Padre. ¿Qué ocasión más buena has perdido para decir que quieres hablar con el Santo Padre y para hacerle ver la actuación genocida de algunas autoridades de la Iglesia. Además para mí es claro que no es cosa del Santo Padre sino de un par de "granujas" que están "en medio". Yo, falto de valor como dices, he tenido que hacer esta apelación un par de veces en mi vida.

Te he dicho que la amistad, incluso, digo ahora, la colaboración en bien del pueblo, está más allá de estos conflictos. Por eso sigo contándome entre tus amigos y colaboradores.

Y, para que veas que el problema no es de valor, también le escribí en su día a D. Ricardo que se ha dignado contestarme.

Por ahora nada más tengo que decirte.

Te saluá tu amigo

Martín Blasas

Carta de D. Carmelo.

Bilbao, 1955, Urriak 21


Martin, aspaldiko adiskide ta lagun! Ori:

Arriute itxi nau nok eta zuk, nori eta niri, erdian idazteak baiña zeure errezoiek esan deustazuz, eta errezoiek ontzat artzen dodaz.

Eskerrik aske zeure erretala, oi dozun lez, kape bildur batix, argi ta garbi, azaldu deustazulako. Igis esan, zurea lango zukuiluzak az dira sanurak eta gozoak izaten, baiña beti esaten dot: "Egirik garratzena guburrik gozoena baiña maizagarriagoa da". Izan bearko leuke, beintzat, Bakotzak geura eretzak eta jokabideak daukaguz, ez beti danetan hardilik, baiña bai beti be begirunez aritzekoak. Zuk, nire lexuan, beste modu batera jokatuko ai zenduen. Nik, ostera, gauzearen alderdi guztiak azertu ondoren, eta esan bear nebazenak esanda gero, baietza anon neban. Ez neura onerako. Erriaren kalterako, zuk uste dozuzez? Ez al da olan izango!

Zek dinezun lez, adiskidetasuna eta erriaren onerako alkar-lana denan gonetik degoz, eta, ori olan dala, zeure ontzera, ni neu be zure lagunet eta laguntzaileen artean izan nagiou. Ez gara beti eretxi berekoak izango, este bear be; baiña alkarrenganuk leialtasonean jokatu daigula beti.

Bestarik barik, urrengorarte, Martin. Beti adiskide ta lagun.



## XXII.-OSASUNA TA OSAGILLEAK



Orain-artean egunerik egunera eta urterik urtera edestu dot neure edestia, naizta batzutan luzeegi urten, baiña orain beste era batera edestuko dodaz gauzak: sailla batzuk artu eta bizitza guztiko jazokizunak sailla orretan agertu. Eta lenengo gaia osasunaren eta osagilleena izango da. Arlo onetan iru urrats, neure arazoak, etxe-koenak eta artzain-lanekoak.

Asieran bertan argi geratu beite osagilleentzat dodan maitasuna ta esker ona, eurak nigaz onak izan diralako eta asko lagundu daustelako. Berrogeta amar bat osagillegaz izan dodaz artuemonak, guztiak onak. Eta ori osasuentsua izan nazela.

Gure ume-denporan erriko Osagillea Alzaga'tar Karlos jauna, Zorrontza'koa, zan. Ez neban sarritan bere bear-izanik izan, baiña bai baten nik zortzi urte inguru nebazala, Zelestino nire anaiak zarankada bat bedar leporatu bear eban, gero kodaiña gainean ipiñi, orrelan landatik etxera biurtzeko, baiña zarankadearen gainetik nire besogaiñera jauzi zan kodaña eta zauri aundia egin eustan eskutorrean. Osagi-Ueagana joan giñan eta zerbait egin eustan. Gero etxean zauri-bedarrak ipiñita osatu gendun zauria, baiña ondorena betiko geratu da.

Beste bein. guda-ostean, garia garbitzeko tramankulua geunkan etxean eta ni maillua artu eta untze batzuk ondo sartzen ibiili nintzan. Guda-inguruan edo aurretik izango zan. Maillugaz untzea jo bearrean atzamarra jo neban. Ez gintzan osagillegana joan baiña amak ur bero-berotan sartu eustan atzamarra. Alperrik izan zan: atzazala betiko galdu neban eta gaur atzamar orretan atzazal motza daukat.

Beste baten oillo lokea egokion tokira eroaten niñoiála oillarrak eraso lepotik eta surraren gainean pikakada aundia egin eustan. Dana odoJa! Ori da aldean daroadan irugarren zauri ondorena.

Amar bat urtekoa nintzala, edo lentxuago, ezelan be kendu ezin izan neban sama-zarratu edo ronkera bat etorri jatan. Illeak orrelan igaro ondoren, amak sama-ko osagille bategana eroan nindun. Olabarria'tar Luis zan izena eta Bilbao'ko kale nagusian artu ginduzan, 2n. atean, 2n. etxe-maillan. Ondo aztertu ondoren, amigdal-en arazoa zala esan euskun eta amigdalak kendu egin bear zirala. Antxe bertan egin eustan ebaiketa. Ez zan bear kirofanorik: Amaren altzoan nengoala kendu eustazan amigdalak eta osatu nintzan. Pilar *gure* amama be eroan gendun ara *gortu eg'm* zalako, eta urte batzutarako osatu eban, baiña gero ezin. Gor geratu zan.

Amabi urtekoa nintzaia. BergaraTco seminarioan, ikusmena gaisotu jatan eta irakurten nebanean begietan erre-min antzekoa zomatzen neban. Etxera dei egin eta ama ta biok Korkostegi osagiJle zarragana joan giñan, dotore beneragarria beronen bizar aundiagaz. Aztertu ondoren betaurreko batzuk ipiñi eustazan eta danaren iturria makaltasuna zala eta jan ondo egiteko agindua emon eban. Beste leku baten esan dodan lez, urte areitan ez zan gauza erreza ori, baiña etxekoen laguntzari esker bete gendun osagillearen agindua.

Ogei ta iru urtekoa nintzala, be-diakono egin-barria nintzan, agoan odol pizka bat aurkitzen neban eta, zorionez edo txarrez. amari esan neutsan. Benetan arduratsu jarri zan ama eta erriko abadea zan Kristobal jaunagaz egin gendun berba eta onek auxe esan euskun:

-Zu samako ebaiketa eginda zagoz eta samakoa izango da.

Joan gintzazan eztarikoa osagillea zan Bidegain^egana eta auxe esan eban:

-Farijitis apur bat ba-daukazu, baiña eztarikoa ezin izan leiteke odol ori.

Amaren errenkurea zan bularreko gaisoa ete zan. Orregaitik Arrospide'tar Jon bularreko osagilleagana joan giñan. Onek be ondo aztertu nindun, argazkia egin be bai, eta iru illebeta barru joateko esan euskun. Amaren errenkurea aundiagotu egin zan. Iru illebetaek igaro eta joan giñanean, ez egoala ezer esan euskun. Zerbait agiri izan zala, baiña osatuta dagoan zauri txiki bat baiño ez dala.

Orduan agiñetako osagille bategana joan nintzan, Etxebarria'tar Luis ikaskidea lagun nebala eta agoa ondo aztertu ondoren esan eustan :

-Ez dot ikusi Euskaldunen artean agin ederragorik! Ortik ezin urten leike odolak.

Beste eztarikoa bategana joan giñan, oraingoan Sainz Vizcaya dotorea zan eta Bilbao'ko Kale Nagusian artzen eban. Onek uda osoan erabilii ginduzan ingunian, osagaiak artu eta barru joan, bein eta barru. Udea amaifu zanean Seminario'ra joan bear nebala esan neutsan eta erantzuna izan zan:

-Ez dago zure farinjitis etorri ziñanean baiño obeto. Seminarioan jarraitu bearko dozu osatzen.

Seminarioan esan neutsan gaisoen arduradun zan Beitia'tar Felipe abadeari eta onek GazteizTco osagille bategana bialdu nindun. Eztarikoa gaisoetan berezia zan. Ezin igarri izan eban odol ori nondik etorri zeitekean eta odola daukadanean joateko esan eustan. Olantxe egin neban eta ikusi nenduanean esan eban:

-Ori agin-ondoko uietatik dator. Egin eban uietan ikutu bat eta naibeste odol agertu zan. Osagai bat emon eustan agiñak garbitzeko eta or amaitu zan gorabera guztia. Agin ederrak euki arren...

Fruniz'en abade nengoala, Ibarra n bide zabalean iztripu bat izan neban, ni motorrean niñoa, 4-4 esaten jakon berebij baten aurka: euri-eguna zan eta Arrietatik netorren Amoetxebarriko Juanaren jaiotza-agiria aterata. zar-saria eskatzeko. Takada aundia artu neban eta zentzun barik geratu nintzan minutu batzutan, Jo

neban berebiJlak berak eroan nundun Begoña'ko Irarragorri'ren gaiso-etxera. Berna azur biak neukazan apurtuta. tibia ta perone. Tirakada gogor batzuk egin eustazan azurra bere lekura sartzeko eta gero orkatilletik eskegita pisu aundia ipiñi eustan. Orrelantxe geldi igaro nebazan egunak eta gero bernea igeltzoagaz lotuta iru-bat illebeta. Beste iru illebeta tramankuluakaz eta azkenean ondo geratu nintzan. Orain be azur orreik aztertzen doguzanean ondo be ondo dagozela esaten dauste osagilleak.

1955n. urte inguruan izango zan, Gurrupide Gotzaiña Biibao'ra sartu zanean, beste gaiso-aldi bat izan neban. ErisipeJa zan oraingoan. Deitu neutsan etxeko osagillea genduan Ujedo ta Ipiña'tar Alberto'ri eta onek surra estutu egin eustan. baiña alpe- rrik. kaltegarri. Osagiileagana, barriro Irarragorri'ren gaisoetxera bialdu nindun eta an egin neban aste oso bat. gau ta egun gure ama ona ondoan neukala. Osatu nin- tzan. Urte batzuk geroago Ujedo'tar Alberto osagillea ta lagun aundia, bideko iztri- pu baten i) jakun. Arrieta'rako bidean. (G. B.)

Birritan urreratu naz osagilleakana txekeoa egiteko. Gotzaiñak eskatuta. JLenen- goa Kurutzeta Barakaldolco gaiso-etxean izan zan Vitoria dotorea (Jabi Vitoria'ren anaia) laguntzaille nebala eta Martinez'tar Iñaki izan neban aztertzaille. Barrene- txea Bermeo'tarrak be egin eustan azterketa bat. Ondo aurldu ninduen baiña urolo- go bategana joateko esan eusten. Ez naz joan eta ordurik ona ogei bat urte dira eta ez dot zomau bear-izanik. Osagilleak oso onak izan ziran nigaz.

Bigarren txekeoa egiteko. barriro be Gotzaiñak eskatuta, Atxotegi dotoreagana joan nintzan (au Jose Luis Atxotegi abade ta adiskidearen anaia). Onek Iguolato- rio'ren bidetik genbiJtzan ezker, Sanatorio Bilbai'no'ra bialdu nindun. An eskatu- ta Busturia emakume osagilleak egin eustazan azterketak eta ona izan zan ondore- na. Gero neuk esandakoari jarraituz ekografia eskatu eben eta Senen dotoreak egin eustan. Urdaille ondo ikusteko baraurik joan bear izan neban arratsaJde baten eta argazki asko atera eustezan eta gaisoa "hernia de hiato" izan leitekela esan eustan eta ori osatu egin bear gendula. Sarritan joan nintzan baiña illeak igaro ondoren biotz-errea kentzeko osagai bat emongo eustala esan eustan.

-Ez egistazu emon -esan neutsan- nik ez daukot biotz-errerik-eta.

Geiago ez nintzan joan eta osatu barik geratu naz.

Oraintsuago etxeko osagilleagana joan eta arnasea artueran zarata bat zomatzen dodala esan neutsan. Gaurkoa ez daJa arazo aundirik baiña aundiago egin baiño lenago osatzea nai neukela.

Birien argazkia egiteko eskatu eustan eta egin be bai. Ikusi eban eta esan eustan:

Ez daukazu ezer. Ura edan egizu asko.

Eta ni ba-nabil ura edaten baiña oraintsuago barriro esan dausat osagille bateri zarata ori geroago ta aundiagoa dala eta barriro birien argazkia atera dau eta ez dau- kadala ezer esan daust. Biña zaratea or dago eta ez txilciagoa.

Azkenengo urte au izan da osasunak arazorik geien ekarri daustazan urtea. Arazo au len be agertu dot eta labuc esango dot: 1998'ko garizuma inguruan asi nintzan besoetan eta belaunetan min aundiak zomatzen. Joan nintzan traumatologo betagana eta orrazkadak agindu eustazan. Illebate igaro zanean oso txarto aurkitzen nintzan, soiñekoak jantzi eziñik eta berebilla eroateko be txarto benetan. Orduan lagun batek eskatuta, arazoa agertu neutsan osagilleari eta odola aztertzeko esan eustan: Ondorena ikusi ebanean auxe esan eustan:

-Odolaren sedimentaziñoa daukazu oso goian eta orrek esan gura dau barruan daukazula infekziñoren bat. Ori ez da nire arlokoa eta zoaz barruko osagille batagana. Berak esan eustan Vjllanueva'tar Rikardo'ren izena. Onek be ondo aztertu ondoren esan eustan:

-Miñak laster kenduko doguz osagaia artu eta ordu batzuk barru, baiña gero osagaiak artzen jarraitu bearko dozu, urtebetean-edo.

Eta orreJantxe izan zan, agindutako osagaia artu neban eta egun beratan miñak kendu jatazan. A bai poza! Ori igazko (1998) bagillaren 15'ean izan zan eta ia urtea daroagu osagaiakaz: Osagaiak ugari, odolaren sedirnentaziñoa ondo, osagaia bera sedimentaziñoa gora. Azkenengoan ez eban ikusten aurrerapenik eta iru illebeterako emon eustan osagaien neurria. Ez dakit ba, osagai oneikaz jarraitu bearko dala uste dot eta osagai oneik ez dira gorputzarentzat onak.

Laburrago baiño ez ba'da be, aitatu dagidazan orain etxekoen gaiso-aldiak.

Baten joan nintzan Zelestino anaiagaz urdailleko osagille dan Atutxa'gana eta aztertu ondoren osagai batzuk emon eutsozan eta ez dot geiago entzun gaisorik dabillenik.

Aita'gaz joan-etorri aundiagoak izan dira: Unore edo erreumeagaz txarto ibiltan zan aita, min aundiakaz, baiña orduan gaiso au ez zan ondo ezagutzen, gaur be ez geiegi, eta ez eutsoen osabiderik aurkitzen. Uriarte osagilleagana joan ginan, baiña ez eutson ezer modurik egin.

Garnu-bideetako gaisoagaz be ibilli zan eta ebaiketa bat egin eutson Santxez urologoak Henao kaJean egoan San Jose klinikan. Bere ondoan egin nebazan orduak eta orduak. Baiña bere gaisorik larriena zan-estua edo tentsiñoa zan.

Egun baten Irarragorri'ren gaiso-etxera eroan bear izan gendun eta txarto egoala esan eban. Orrexegaitik il zala uste dot: Soloan lanean egoala etorri zan etxera ondo-ezjk eta bat-batean il zan. Fruniz'era etorri jatazan barri ori emoten eta arin joan nintzan etxera. Freire Gamiz'ko osagilleak ziurtatu eban eriotzea eta agur lez bekokian mosua emon neutsan. Mosua emoteko oiturea laburra zan gure artean.

Ama osasuntsua izan zan, lan asko egitekoa aita lez, eta unocetsua, erreumatsua, be bai. Ez eustan osagilleakazko lan aundirik emon , baiña azkenengo bost urteak igaro ebazan neugaz Zeanuri'n eta azkenengo amalau illebeteetan lan aundia emon



eustan: Gau ta egun ondoan laguna bear izaten eban. Egunez al ebana egiten eban sukaldariak ni eskolan nengoalako, baiña gau guztian jagita eukiten nindun amak: Jagi nagizu, etxun nagizu, orain ibilli gaitazan, orain komunera, orain etxun... bost minutu ez eustazan emoten lo egiteko.

Zartzarorako makal-makal eginda geratu zan eta osagiJJeak gaiso-etxera eroateko esaten eben, baiña zertarako? Egun batzuk bizia luzatzeko? Eta berak ezergaitik be ez eban nai etxetik urteteriJc.

Beste laguntza batzuk be eskiñi ebezan: zanetlk janaritu, "marka-pasos" ipifii eta abar, baiña onenean be ordu batzuk edo egun batzuk bizia luzatzeko baiño ez ziran izango eta amarentzat nekeak baino ez. Bere ordua eldu jakonean bake bakean il zan ama.

Nire artzain-Ianean osagilleakaz artu-emonak izan dira. Esaterako asko lagundu daust euskerearen aldeko lanetan, berak neuri eta neuk berari, Arenaza'tar Josu osagilJeak: Berak deitu eustan AGUR aldizkarian laguntzaille izateko, EUSKERAZALEAK alkartera sartzeko eta ZER aJdizkaria sortzeko. Esker ona berarentzat. Gaur etxeko osagille dodan Hemandez'tar Jose Manuel'ek Jagundu daust ezkongaiari itzaldiak emonaz. Bardin egin eban Arratia'n nengoanean Arenaza'tar Josu'k be.

Baten Fruiz'ko Lezamiz'en bizi zan Julian, Mallona abadelagunaren osabeak eskatu eustan laguntza ezinduai egokien saria lortzeko. Julian, au zan osabearen izena, urteetan egoan erdi ibilli eziñik eta Jaster jesarlekuan geratu-bearreko. Ezinduen saria baegoluola uste izan zeitekean. Orretarako azterketa egitera joan bear izan gendun osagille batekana. Aztertzen ebillela, eskuetan kailloak eukazaJa ikusi eta esan eban:

-Oneik Jan egiten dauala diño.

-Bai- esan neutsan- jesarritaugarria txikitzen- edo, egiten dau.

-Bai, bai- argi dago -esan eban- au ezindua dala.

Gero txirrindun jesarleku bat be eskatu eta lortu gendun. Pozik geratu zan Julian adiskidea, ezindu-saria eta olako laguntzak Jortu genduzanean.

Ubide'n izandako beste jazokizun bi edestu nai neikez.

Lurpean Jan egiten eban gaJiziar batek emoptisisak eukiten ebazan eta Gas-teiz'en auzitegian irabazi eban. Dirutza bat emongo eutsoen, baiña bizi guztirako saririk ez.

Eta berak saria nai eban. Nik itandu neutsan nok esan dautson silikosis daukaJa. Bilbao'ko osagille bat zala ori iñoan eta ni beragaz Arrospide'gana joan nintzan. Berak ez ebalari esan. baiña barrero aztertuko ebalari esan eban eta egun beratan aztertu ondoren. arratsaJdean joateko esan euskun. Ona emen arratsaldean izan genduan alkar-izketa:

-Zorionak! Zuk birietan ez daukazu ezer be txarrik ez eta silikosisik be.

-Jauna, eta zelan irabazi dau Gasteiz'en Majistraturan?

-Nik ori ez dakit.

-Eta botaten dauan odola nondik dator?

-Nik ez dakit nondik, baiña bulaiTetik ez beintzat. Nire aolkua nai ba'dau, auxe esango dautsat: Artu dagiala emoten dautsoen diru ori, doala bere Galizia'ra eta beitu batzuk erosi eta bizi daitela bake bakean.

Eta beste jazokizun bat: Emakume bat oso txarto eroan eben Gasteiz'ko Santiago gaiso etxera. An azterketak egin eta esan eutsoen txarto egoala, baiña Bizkai'koa zan ezkerro. Bilbao'ra eroan bear zala. Artu nebazan agiriak eta zuzen Basurtu'ko gaiso etxera. Ezin sartu izan neban, baiña kapellau batek lagunduta sartu zan. Dirua itzi neban eta urrengo eguna Gorpuzti zan ezkerro, bigarren egunean joango nintzala esan neutsen.

Joan nintzan bigarren egunean eta gelea utsik egoan. Lekaiame bateri esan neutsan zer jazo zan eta arrituta itzi nindun: Ain makal eta ain barri larriakaz etorri zan emakumea, urrengo egunean bera bakarrik eta adoretu joan zan etxera. Geiago ez dot jakin gaisorik egon danik.

Eskerrak osagiileai euren aJegiñakaitik eta emoten dauskuen osasunagatik. Gaiñera ondo artzen dabe, gaisorik doana poztu egiten dabe! Eta al dabenean osatu.

**Terminada la parte de cronica de estos recuerdos, entramos en temas especiales, comenzando con lo relativo a la salud y a los medicos. Creo haber tratado mas o menos de cerca con unos cincuenta medicos, por razones de salud personal y familiar y por relaciones de tipo pastoral o social.**

**Comienzo con recuerdos de infancia, partiendo de aquel momento en que mi hermano cargo sobre si, con mi ayuda, el cesto de hierba y sobre el cesto una guadaña que cayo sobre mi brazo dando origen, cerca de la muñeca, a la herida cuya cicatriz conservo. Acudimos a D. Carlos Alzaga, el medico del pueblo, luego utilizamos algunas hierbas para heridas. Otra vez me hirio sobre la nariz de un picotazo un gallo cuando yo pretendia encerrar, como era costumbre, a una gallina clueca. A los diez años tuve una ronquera persistente que fue atendida por el otorrinolaringologo D. Luis Olabarria en la calle Gran Via n° 2 de Bilbao. Tuvo que operarme de amigdalas sin necesidad de quirofano siquiera, sentado sobre las rodillas de mi madre. El mismo dia mi madre me llevo a casa.**

**A los 23 años aparecio sangre en la boca y queriendo saber la causa, acudi a un otorrinolaringólogo, luego a un especialista de pulmones, luego a un dentista, a otro otorrino... hasta que en el seminario me enviaron a un tercer otorrino que me diagnostico que era cosa de las encias.**

Siendo parroco de Fruniz tuve un accidente de moto con rorura de tibia y perone y me atendio durante diez dias en su clinica el Dr. D. Jose Irarragorri. Tarde unos seis meses en reponerme del todo, pero quede perfectamente. Poco mas tarde tuve que acudir a la misma clinica para curarme de erisipela. Estuve una semana y me cure totalmente.

Por consejo del Sr. Obispo he ido dos veces a revision medica que ilaman chequeo. Una vez a Cruces donde el Dr. Iñaki Martinez me atendio muy bien y otra vez al Sanatorio Bilbaino. El chequeo fue muy bueno, con analisis, radiografias y ecografia, pero no conseguí que me curaran de una hernia de hiato .

Ahora, desde hace algunos años sufro de reumatismo que 110 desaparece del todo. Hace un año tuve unos dolores muy intensos que han desaparecido, pero sigo con tratamiento para regular la velocidad de sedimentacion de la sangre que no acaba de regularizarse. No pierdo la esperanza.

Algun trabajo me dio mi padre, primero con una operacion de vias urinarias y luego con reumatismos y baja tension. Estuvo en la Clinica de Irarragorri varios dias. Le vi al doctor muy preocupado. Creo que el padre murio a consecuencia de ello casi repentinamente.

Nuestra madre, aunque habia sufrido mucho, durante años tuvo muy buena salud. Vivio conmigo los cinco ultimos años de su vida en Zeanuri y en sus catorce ultimos meses me dio mucho trabajo en atenderle, baciendome perder todas las noches junto a su cabecera. Los medicos recomendaban que se le llevara al hospital pero ella se oponia y no habia esperanzas de alargar su vida, por lo que, como era su deseo, murio tranquilamente en casa.

En nuestra labor pastoral y social, hemos necesitado muchas veces de los medicos, que siempre nos han atendido. Tengo que agradecer a Josu Arenaza sus charlas en cursiHos prematrimoniales y el haberme impulsado a escribir en euskera y a participar en Euskerazaieak, a Jose Manuel Hernandez sus charlas prematrimoniales. Otros muchos medicos, especialmente en Ubidea, me ayudaron a solucionar problemas de trabajadores con la salud.



**XXIII: IBILLALDIAK: ABADEGAITAN, ABADE-LAGUNAKAZ,  
BAKARRIK, AMETS AUNDI BI.**



Jokera bi ibilli dira beti nire barruan alkarragaz burrukan: Eguneroko bizitza ez aldatzea eskatzen daustana eta ibillaldiak egiñez mundua ikustekoa. Beti izan da orrelan eta gaur be orreJan da. Baiña bizitzako urteen joanean ainbat ibillaldi egin dodaz, batzuk txikiak, beste batzuk aundiak. batzuk lagunakaz beste batzuk baka-rrik, batzuk Esukalerraren barruan, beste batzuk erbestean. Guztiak ezin ba dira be, batzuk edestu nai dodaz atal onetan.

Abadegai giñala ezin izaten gendun ibUlaldi luzerik egin. ez egoan oiturarik eta ez dirurik be orretarako. Egun baterako joateko be ez zan erreza izaten etxeko bai-mena eta amak gertatu bear izaten eban bazkaria lortzea.

Sarritan joaten giñan arratsalde luzeetan bizikletak artuta biderik bide, Gemi-ka'ra, Bermeo'ra, Bakio'ra eta abar. Geienetan Uriarte'tar Patri, Bengoetxea'tar Karlos eta neu.

Gogoan daukat lenengoz itxasoa ikusi nebanekoa. Itxasotik amar bat kra.'ra bizi izan arren, amalau urtekoa izan arte ez neban itxasorik ikusi eta adin orretakoa nintzanean neu bakarrik joan nintzan bizikletea artuta itxasoa ikustera. Ikuspen benetan arrigarria izan zan, aunditasuna, edertasuna, zabaJtasuna, olatuen indarra, apa-rra, area...

Urreko mendietara ta itxasora naikoa sarritan joaten giñan gero. batez be Irao-ia'tar Eusebio Jatabe'ko abadea lagun genduala: SoJlube'ra ta Jata'ra sarritan, oiñez Basorda'ra sarriagotan (Basorda au itxas-eutza zan, baiña are-bakoa, arri utsa, ortxe asi ziran gero kizi-indarra sortzeko tokia, nuklearra egiten. Mungia zan izatez baiña Lemoniz'tik urrago). Bein baten itxas-gora gertatu zan gu konturatu barik eta urak jazkiak eroan euskuzan. Ez zan gauza erreza izan barriro eskuratzea.

Seminarioan bertan be astero edo astean bitan egiten genduzan ibillaldi laburrak Gasteiz'en inguruko errietara. Batzutan luzeak. esaterako gaur uri-barruan diran Lakua zelaira ta Santa Isabel Tlerrira. Gitxitan luzeagoak. esaterako Estibaliz'era trenez.

Abade eginda gero bear ba'da ibillaldi iuzeagoak eta sarriago egiten genduzan. Esaterako ikaskideakaz Aizgorri'ra. Baten Mungialik lagunakaz eta San Ignazio egunez Joan nintzan Aizgorrira eguzkiaren urtekerea ikusteko gogoz. Ganeko elei-zatxoau egin gendun Jo eta goizeko laurak inguruan eguzkia agertzen ikusi-aurrea zoragarria izan zan. Lagunak Arenaza'tar Ignazio (semea), Fruiz'ko IburguneTto lekaide ikaslea zan Fabi Legarreta...

Urtero eta ainbat urtetan udan aste oso bat artzen gendun lau abade'k alkartuta (Zabalo'tar Balendin, Markaida'tar Juan Mari, iñoz Solozabai'dar Paulin eta neu.

Euskalerrria jkertzen gendun eta España'n erdi-ugartea be bai, ugarteetara iñoz joan barik. Aste bakoitxean iru milla km. egiten genduzan: Galizia'ra, Fatima'ra, Katalunia'n Montserrat'era, Manresa'ra, Kosta'Brava, Peñiskola. Benidorm... Baten Tremp'etik Crisaleña edo olako erri batera joan giñan eta emen erriko abadea aurkitu gendun mai-zain jatetxean, eta gero Montpeilier'era. Bero egiten eban eta egarri aundiagaz eldu giñan ezagutzen gendun iekaima Karmeldar bat (Zeanuri'koa) ikertzera.

Etixerantzean Junquera'tik etorri giñan eta muga-zaiñak estu-aldi bat ezarri euskuen. Guk uste gendun bakoitxak gomutaki bat ekarri leikela eta ez genduzan era-kutsi, mugazaiñak berak ikusi ebazan eta gogor artu ginduzan. Lozano mugazaiñak estualdi bat emon eutsan Paulin lagunari. Isun lez zerbait ordaindu eta aurrera. Beste bein Caralt'etik Nuria'ra igon gendun. Igoera zoragarri funikularrez, eta goian Agur-erregiña abestu eta atzera bera.

Añamendi geiena arakatu dogu, egoaldetik, eta dana da ikusgarria.

Fruniz'tik zapatu santu egun baten zaldiz joan giñan Bizkargi'ra eta beste urte-naldi bi be gogoangarriak egin nebazan: Bata Bretaña'ra Lamenetarren Chato-Iin'eko ikastetxera. Andik Ploarmel euren etxe nagusira. Ille birako joan giñan, baiña parrokiko arazo batzuk ziralata astebete barru etorri bear izan neban.

Ille biak igaro ziranean, Dax'en alkartu gintzazan Lourdes'era joateko. Beti jatan atsegin Lourdes'era joatea eta amabost bat aldiz izango nintzan an, baten amagaz eta beste lagun batzukaz joan nintzan. Andik Zaragoza'ra, eta etxerantzean garitza aundiak ikusita amak esan eban: Ba-nengoan ba ni! Non edo an garitza aundiak egon bear dabela! Guk garirik ez dogu ereiten eta ogi asko jaten dogu!

Frantzia'ra joate au ango izkuntza erabilten ikastearren izaten zan. Urrengo urte baten ille bi egin nebazan Bordele-ondoan dan Gironde erritxuan bertako abadea zan Andre Grenier'en orde, Isidoro Repiso'k eroanda. Zazpi parroki neukazan neure ardurapean ille bi areitan. Azkenean aspertuta nengoan eta astebete geiago egiteko eskatu eustan Isidoro'k. baiña eziña agertu neutsan.

Uda baten ibillaldi polita egin gendun, Andoni Gerrika, Juan Mari Uriarte (gaur gotzain dana) Andres Pardo (gaur Madriden Liturgi arloan lanean dabilena) eta neu kedeko giñala. KuJtura-ostera izan zan, nik azterketak egiteko ederti-arjoan sakondu bear neban eta: Pientzia'ko gitzain eieizea ikusi gendun, Benta de



Baños'en dan bisigotiko-tankerako eleizea, Cordoba'ko Mezkitza ta Granada'ko Alhambra. Almeriako Seminarioan lo egin gendun eta antxe ezagutu gendun gero Iruña'ko Goi-Gotzain izan zan Mendez jauna.

Beste ibilaldi gogoangarri bat Madrid'era egin gendun. Au be kultura-girokoa. Nik Padro'ko Museoa ikusi neban aste osoan eta nire lagunak (Artetxe'tar Txomin, Idoiaga'tar Agustin eta Gailastegi'tar Felix) Periko Txikote'ren edetexera joaten ziran. Nik naikoa ondo aztertu neban museoa eta ikustaldi onek asko lagundu eustan edertiari buruz egin neban azterketerako.

Orainsuago egin dodazan iru ibilaldi luze gogoratu bear dodaz. Elburua emen Mungia'n etorri-barri diranen erriak ikustea zan.

Lenengoan Sanabria'n asi eta Korria'raino joan nintzan eta etxerantzean Guadalupe ikustatu neban.

Bigarrenen Ciudad Real'etik eta Daimiel'etik Maiagon'era joan nintzan eta gero Albacete'tik, Cuenca'tik eta Zaragoza'tik etxera.

Eta irugarrena Riaño'tik Astorga'ra joan, emen Lekaiame Frantziskorrek dauken zarren egoitza ikusi (Talde orretako lekaiameak diralako Mungia'n daukaguzanak) eta Zamora'ra joan nintzan Juan Mari Gotzain adiskidea ikertzera. Beronegaz an bazkaldu eta alkar-izketa luzea egin ondoren Palentzia'ra eta lo egiteko Parkorbo'ra. Urrengo egunean etxera.

Ubiden eta Zeanuri'n izan nintzan urteetan sarritan, urtean bein baiño sarriago, joaten nintzan Gorbei'ra (San Justo'tik, Lambreabe'tik, Barazar'etik, Atxurdiñ'etik, Murua'tik). Mendi au asko maite dot, ederra da izan be-ta.

Ames eder bi neukazan bizitza osoan, baiña beteteko dirua bear neban eta ez neukan. Lur Santura joatea bata eta "txarkoa" Atlantik itxasoa igarrotea bestea. Eldu jatan ames biok beteteko ordua be. Nire ama ona il zanean, diru apur bat itzi eustan eta neure beste apur bat gaiñeratuta, ibilaldi biok egin al izan nebazan.

Lur Santura joateko Tberriako Erdi-ugarte osokoak batu giñan: Galiziar bi, Extremadura'tar bi, Andaluziar bi, kataluniar bi, napar bi eta euskaldunak, Karmele Busturiko lekaiamea ta neu. Tbillaldi ori, antza. Opus Dei'k gertatua zan. Eurak ez euskuen ezer esan baiña ardura aundia artu eben Erroma'n Escriba'ren illobia erakusteko. Gidaria Portugal'dar on bat zan. Eta talde orretara sartu ba nintzan, ibilTaldia atsegin jatelako izan zan: Madrid, Erroma, Amann, Jerusalem, El Kairo, Atenas, Erroma, Madrid, Bilbao.

Madrid'en alkartu giñan guztiok eta lenengo Erroma'ra eldu giñan eta emen egun bi egin genduzan. Ezagutzen neban Erroma eta egotaldi labuTa izatearen damurik ez neban. Amann'era eldu giñan eta emen lo egin baiño asko geiago ez gendun egin. Uri aundia zan eta ingum guztian area baiño besterik ez zan ikusten.

Amann'etik autobusez urreratu giñan Lur Santura. Sarreran ordu bi euki ginduezan geldi gure maletak-eta aztertzen. Jeriko'n bazkaldu gendun.

Ainbeste bidar Biblian aitutzen diran toki guztiak ziran amesgarri gutzat. Lur Santua zeatz aztertu gendun, ostatua Orio-menditik urrean genduala. Gauero joaten nintzan Orio-Mendira otoitz luze bat egitera. Ikusi genduzan tokiak aitatzeko, ara non izan giñan: Belen'en, Jerusalem'en kurutze-bidetik Kalbario mendira joanda, Erosten orman eta gaiñeko mezkitan... Samarian, Zoriontasunen mendian. Nazaret'en. Libano mendian, Akre'n, Tiberiades'en, Jaffa'n, Itxasoko Zezarea'n...

Goizetan mezea lekaime euskaldunagaz eta andra galiziar bategaz esaten neban, baiña gero toki bakoitzean saxritan eskatzen eusten mezea esateko eta esan be egiten neban.

Lur Santura egin genduan ikustaldia aitzu eziña eta gogo bizitzarako oso onuragarria izan zan. Alde batetik inguru aretan bizi dan jente txiroa eta bestetik Jesus'n gomutakiak... Benetan gauza gogoangarriak. Kibutz baten bazkaria be egin gendun. Toki ederrak benetan.

Jerusalem'etik, Autobus'an, barriro Amann'era joan giñan eta andik egazkiñez Ejipto'ra. Nilo ibaiaren ertzaii jarraituz Piramideak ikeitzera joan giñan eta, au zoriona, esfinjea aurrez-aurre genduala bazkaldu gendun. Gero ganbelu baten gaiñean ibillaldi bat. papiroa zeian lantzen daben ikustera... Eta, amaitzeko. El Cairo'n Museo zoragarria ikertu gendun.

*Lourdesen  
sarritan. Bein  
amagaz.*



*Ameriketako zubia Panaman.*



Ejipto'tik Atenas'era joan giñan eta emen egun bat baiño ezin egin izan genduan, eskala-giroko egotaldia zalako, baiña Partenon tenpluaren aurrean egon giñan beintzat eta akropolis dana ikertu be bai. Zoriontsu nintzan!

Atenas'etik barrero Erroma'ra eta urrengo egunean Madrid'era. Ibillaldi zoragarria benetan.

Eta bigarren amesezko ibillaldia Atlantik itxasoaren beste aldera izan zan.

Zeanuri'ko seme dan Gotzain-laguna egoan Panama'n. Zuloaga Monseñora eta onek esan eustan joateko ara. Asieran ez neutsan itxaropen atindirik emon baiña gero gogoz artu neban ostera au. Gaiñera an egoan gotzain onen auzoan, AjTaldi'n sendia eukan Telesforo karmeldarra be.

Egunez joatea nai neban nik, baiña eziña izan zan eta gabaz egin neban bide gutia, Madrid'etik uttenda. (Esan bearrean nago egazkiñerako txartela galdu egin nebala eta barria emon eusten, barrero ordainduta. eta gero itzuli eusten dirua. iñor agertu ez zalako txartel aregaz).

Panama'n itxaroten neukan lekaide-laldea eta pozik artu ninduen. Karmeldarren etxean geratu mntzan ostatus, oso ondo. Lenengo egunetan Panama ikertu neban, Aita Telesforo lagun nebala. batez be Urbide ikusgarria.

Torrijos zan orduan ango agintari eta bere itzaldiak pozik entzuten nebazan, noizean bein gauza barregarriak esaten ebazalako. Ona olako batzuk:

Izparlari batek esan eutson bein:

-Zu agintari izan ez ba-ziña. Urbidea'ren ituna egingo zan<sup>7</sup>

-Baietz uste dot. Ez dot esan bearko "Latterria neu naz" Karlos enegeak... edo Felipe II'ak esan eban lez

-Luis XIV zan, jauna!

-Bardin da, guztiak dira koñaken tzenak.

Beste bein itzaldi bero baten auxe esan eban:

-Emen Panama'n gauzak ez dira errezak, emen dana da gatxa. Ez da ezer sortzen "por combustion espontanea". Esan gura ebana "Generacion espontanea" zan, baiña ez bata ta ez beste zer diran ez ekian antza<sup>1</sup>

Beste bein entzun neutsan:

-Or dabiltz nire etsaiak. zarataka ta oiuka. batña alpeirik! Euren alde errezatu egizue "magnifieat" bat.

Amabost egun egin nebazan Panama'n, Karmen eguna barru zala. Bero egiten eban. baiña eguerdietan beti euri zapanada aundia tirmoi ta tximista entzun eta ikuslen zirala. eta gero barrero beroa. Negua zan,

Azkenengo iru egunetan Zuloaga Gotzaiñaren anai misiolaria egoan en'ira joan


ninlzan, Darien oian baltzaren barru-barruan Santa Marfa de la Real eritxon erri batera. Goizeko zortziretarako egon bear giñan egazkin-zelaian, baiña, ango orduak orrelan izaten dira-ta, avnabiak ingurura arte ez zan etorri egazkiña. Txartela eskatu neban baiña emon aurretik zenbat libra pisu neukan galdetu eusten. Izan be egazkin oso txikia zan eta barruan sei bat lagunentzat lekua.

Ordubete egin gendun joan eta joan Darien baso baltzaren gaiñean eta eldu giñan errira: Landa batera jatsi zan egazkiña eta errian egoan kamioi bakarrean eroan gin- duezan erri-barrura. Udaletxea abade-etxea, eleizea ta gaiso-etxea ziran arrizkioak, beste bizileku guztiak lastozkoak. Inditarrak eta baltzak zuriakaz nastean bizi ziran errian. Meza bat egin gendun eta urrengo egunean motordun txalupa bat artu eta inditarren erriak ikustera joan giñan. Ikustekoa zan zelako maitasuaz artzen eben errietan mjsiolaria. sarriago joateko erreguka.

Eguer dian, beti lez ekaitza izan zan eta buzti-buzti egin giñan. Oiñetakoak, untzebakoot ziran antza eta agoa zabalik geratu jatazan eta onelan ibilli bear izan neban Panama'ra barriro eldu arle. Baltzen etxean bazkaldu gendun, arro- za ta arrautzea. Barriro motordun txalupara eta errira, Urrngo egunean Pana- ma'ra.

Panama'tik Los Rios'era joango nintzan gogoz, baiña emendik ez eusten dirua eroaten itzi eta ezin neban egin ori. Benezuela'ra joan nintzan, Copeitie egaz- kin-zelaira. Emen bero egiten eban, baiña Caracas'en ez ainbeste. Caracas'en osta- tua aurkitu neban eta Euskal Etxera urreratu. Oso ondo artu ninduan an Menaka'koa zan gazte batek eta bazkaria be emon eustan doan. Euskaldunak ikusteko gogoagaz urrengo egunean Candelaria auzora joan nintzan eta aurkitu neban Mungiar bat eta gero beste Bermeo'tar bat, Rekalde'tar Josu etorri jatan. Onek Bermeo'n dan Fru- niz'tar Uriarte'tar Kannelo'rentzat Wiski botilla bat emon eustan eta ekarri neban. Gabean egazkiña artu eta Madrid'era biurtu nintzan eta Madrid'etik zuzen Zeanu- ri'ra. Anlxiñakoentzat sinistu'eziniñeko gauzea izango zan egin nebana: Caracas'en apaldu. Madrid'en goizaldu eta Zeanuri'n bazkaldu. Benetan arin egiten dira gaur bideak!

Etxerantzean Kanarietara joateko gogoa neukan baiña ez egoan aukerarik. Ugarteak ikertu barik geratzen jataz, baiña Erdi-ugarte edo peninsulako uriburu guztietan egon naz eta munduko laterrien uriburuen arlean 10 dira ikertu dodaze- nak. Naikoa dalakoan nago. Txina edo Tndia ikusi naiko neuke, baiña berandu dala uste dot.



*Egipton, esfinjearen aurrean  
bazkaldu gendun.*



*Nuria 73-8-5 Juan Mari  
Markaida Paulin eta neu.*



*Logroñoko abade-etxean: Arregi, Antonio San Pedro, Laga ta neu.*

Aunque no soy amigo de pasar temporadas fuera de casa, la verdad es que me gusta andar y visitar otros ambientes. Ya en el seminario sañamos de paseo hasta dos veces por semana y los mas largos eran a Lakua y a Santa Isabel que entonces quedaban fuera de la ciudad. A veces en tren y hasta Estibaliz. Incluso de Bergara recuerdo que fuimos al monte Kalamua o Maxa con D. Jose Elgarresta.

Durante el verano saliamos a veces en bicicleta a Gernika, Bermeo, Bakio etc. Haciamos tambien excursiones al mar, especialmente las que hicimos a Basorda (donde luego se trato de poner la central nuclear) y con alguna frecuencia al Sollube y al Jata.

Guardo un buen recuerdo de las salidas a Aizgorri, a veces con los condiscipulos, con amigos y tambien a Bizkargi, al Oiz, al Anboto y, con mas frecuencia, al Gorbea.

Fuimos para un par de meses al Colegio Menesiano de Chatolin, pero tuve que volver por problemas de la parroquia. Luego estuve dos meses en Gironde, cerca de Burdeos con siete parroquias a mi cargo. Trataba de practicar el frances,

Durante los veranos, en muchos años, salimos varios amigos durante una semana a recorrer el Pafs Vasco y la península. Visitamos todas las capitales de la península y todo el Pirineo, que es bellísimo. Una vez llegamos hasta Montpelher,

Antes de terminar este apartado, no puedo dejar de reseñar dos viajes culturales.

El primero lo realice con Andoni Cerrika (hoy Vicario General de Bilbao), Juan Mari Uriarte (hoy Obispo de Zamora) y Andres Pardo (hoy asesor Liturgico de la conferencia Episcopal Española), Recuerdo que visitamos la Catedral de Palencia, donde me interesaba muy especialmente el protorrománico de la cripta. Luego la iglesia visigótica de Venta de Baños, la mezquita de Cordoba y la Alhambra de Granada. Pasamos una noche en Almen'a donde tuvimos la suerte de tratar con el futuro arzobispo de Pamplona Mons. Mendez. Asensio.

Para el segundo me reuni en Etxano con Tomin Artetxe, Agustin Idoiaga y Felix Gallastegi. Les manifeste mi deseo, casi necesidad, de visitar despacio el Museo del Prado. Ni cortos ni perezosos, salimos para Madrid y estuvimos alli una semana. Yo iba todo los días, mañana y tarde, al museo y ellos visitaban el bar de Perico Chicote.

A la vuelta, por el Alto De Los Leones, tuvimos algunas pequeñas desavenencias, pero el viaje fue feliz.

Debo recordar tres salidas realizadas por mi solo para visitar pueblos de los inmigrantes de Mungia, uno, desde Sanabria hasta Coria, volviendo por Guadalupe y otro, por Ciudad Real, a Malagon, volviendo por Albacete, Cuenca y Zaragoza. Y el tercero por Riaño y Astorga a Zamora, donde visite al Sr. Obispo D. Juan M<sup>a</sup> Uriarte

Pero los dos viajes mas gratificantes fueron los mas largos, el primero a Roma, Amann, Jerusalem, Egipto, Atenas, Madrid y el otro a Madrid, Panama, Venezuela, Madrid.



*Erroman: Karmele Lekaimea ta lagunak.*



*Castelgandolfon be euskaldunak.*



*Greziako Akropolisen: Kariatidek.*



*Panaman Txolakaz..*





ATALA XXIV: IKASKETAK ELDU-AROAN: BETI IKASTEN,  
SEMINARIOKO IKASKETEN BALIOA, BATXILLER,  
FILOSOFIA ETA LETRAK OBIEDO'N, MADRID'EN, ETA  
DEUSTU'N: ELEIZ-IKASTAROAK:



*Burgosen misio ikastaroa: Andres Mañarikua.*



*Burgosen Goikoetxea  
Naparragaz.*



*Ikastaroa Oñaten Lekaine Beneditarren etxean*



*Burgosen Roman  
ikaskideagaz (Misiolari  
ara joana).*

Irakurten eta ikasten beti izan naz zalea eta orain be orretan jarraitzen dot, ortik ondasunak baiño ez jataz etorri-eta. Irakurte eta ikasketa-ekin onetan arlo bi landu dodaz batez be: Erri-jakintza eta eleiz-arlokoa.

Arlo bi oneitan seminarioari esker ona agertu bear dausat lenengo: Erri-jakintzan oiñarri ona izan dira an ikasiak, naiz gero asko sakondu bear izan, latiña ondo ezagutzea bera be laguntza ona izan dot beste izkuntza batzuk obeto ulertzeko eta eleiz ikasketetan an artu neban oiñarria betiko balio dauana da naiz ta gero gauza asko aidatu izan eta gaiak ber-ikasi bear izan.

Seminarioak emon dauskun gauzarik ederrena burua eratzea eta jakingai bakoi-txarentzat leku bat eukitea jzan da. Gaiak ulertzeko aiztu-eziñekoa dot bostgarren urtean, Arts Dicendi liburua eskuetan gendula, ikasten ikasteko egin zan alegin aundia. Urrutia'tar Jose M<sup>a</sup> zan irakaslea, ona ta argia.

Esana dot irakasten zalea izan nintzala abade egin nintzan ezkerro beti, eta irakastea ikasteko bide ona izaten da. Gaiak ondo ber-ikasita nebazaia uste izan nebanean, auxe burura etorri jatan: Eta zergaitik ez atera irakasle-agiria edo baimena?

Orretarako eleiz eta erri-ikasketa egiñen alkarragazko zerikusia aztertu bear zan. Barriro egin bear ete ziran azterketa guztiak? Ala egindako ikasketak baiioko ete ziran? Onetan legeak aldatu egin ziran. Asi nintzanean ez zan ia ezer be konbalidatzen. Urte batzuk geroago gauzea obeto egoan.

Lenengo joan nintzan Gasteiz'ko Seminariora eta an idazkari lez egoan Mendi'tar Jose Mari ikaskideari agertu neutsan neure ametsa eta onek, ienengo urtekoak izan ezik beste ikas-neurri guztiak emon eustazan. Agiri onegaz eta eskariagaz COR ajentzi edo artekaritzara joan nintzan eta laster etorri jatan baliakidetasuna.

Urrengo, egin bear nebazan azterketak egiten asi nintzan. Bilbao'ko Erdi-Maillako ikastegian egin neban laugarren urte ondoren egiten zan batxiller elementalaren azterketa, gero goiko batxillerrarena eta ondo urte neban. Gero PREU edo Unibersidade-aurreko urtea egin bear zan, baiña doi-doi orduantxe nrten eban baiiakidetasunaren lege barriak eta ez neban bear PREU'rik.

Geiago barik asitako ikasketak itzi eta COR Artezkaritzara agiriak eroan nebazan Obiedo'ko Ikastetxe Nagusian izena emoteko. Orretarako ango Udal-Zerrenda edo padroira sartu bear izan neban. Egia esan zalantza neukan zein unibersidadeta-

ra sartu, eta Obiedo'ra sartu nintzan. pizka bat urrago egoalakoan eta Madrid'eri itzaltasun aundiegia neutsalako.

Berebillean joaten nintzan Mungia'tik, bide zabala ez zan ona, bai luzea ta neke-tua. Uri aretan Maria'ren Biotz-Semeak euken ikasle-ostatuan bizi izaten nintzan. Im urtetan joan nintzan ara, urtero bagillean eta iraillean eta geienetan urterillean be bai. "Libre" lez goazenak gaiñera beti galduta ibiltzen giñan ez gendun ezagutzen irakaslea, ez genkian zeintzuk ziran gaiak eta ikas-liburuak... Batez be iru gai auki-tu nebazan onartzea lortueziñekoak; Filosofia. Gustabo Bueno zan irakaslea, orain sarritan telebistan agertzen dana, onek fiiosofta matematika eskatzen eban eta zen-tzuk liburu ikasi beesan eustan, baiña ezin neban ulertu ezeJan be gai ori. irakasiea, Bueno izena euki arren, niretzat oso estua ta gogorra izan zan.

Lutelestia, antza irakasleak ez ebazan onartzen sotanaz jantzita egozanak, eta gu orrelan joaten giñan orduan. Sei bat bider egin nebazan azterketak gai onetan be, baiña ezin loitu onartzerik.

Edertia be gatxa zan, baiña au azkenean ontzat emotea lortu neban.

Besteen artean, oso zail egiten jatan Gastelerearen gramatika eta edestia, baiña irakasleagaz berba egin neban. Oso euskalzalea zan eta berak emondako liburuak ikasi eta onartzea lortu neban. Kontuan artu aldi areitan gramatikako izenak eta gaiak aldatu egin zirala, baiña oso ondo etorri jatezan ikasketa barri areik. Irakaslea orain-tsu il dan eta "Real Academia"koa zan Emilio Alarcos gendun. Asko ikasi neban beragaz eta lagun aundiak izatera eldu giñan.

Baiña gai bi orreitan onartua izaterik ez neukalako ez egoan beste urtebiderik Ikastetxe Nagusia aJdatzea baiño. Laugarren urterako ba Matrikulea aldatu egin neban Madrid'era. Ara eldu nintzanean Filosofia'ko irakaslea Dionisio Ridruejo zala uste dot, eta lenengoz azterketa egin nebanean, "notable"\* atera neban.

Eta Jutelestian lau orduko idazketa egin gendun azterketarako, baiña lenengo azterketan emen be "notable" atera neban. Madrid'en ikasgai barriak aurkitu gen-duzan. Lenengo urte biak "selektibo" ziran eta Obiedo'n onaitutako irugairen uite-ko gaiak ez eben balio. Gaiñera. frantzeraz askoz geiago ikasten zan, italiara (izkun-tza ta elertia) be bai, Portugal'erakoak be bai eta Obiedo'n ez egoana. paleontolo-jia. abade batek emoten eban.

Urte bitan al nebazan guztietara sartu nintzan azterketa egiteko, sarritan asko ikasi barik, esaterako itaJieran. Ainbat onartuak izatea Jortu neban urte bi areitan. Frantzeran lenengo urtean "notabJe" ateraneban, baiña bigarreanean Deiacroix ande-reak, eguna igarota egoalako. bere etxean artu nindun, baiña aurpegi txarragaz eta ez neban onartzea lortu.

Madrid'en bigarren urtea eta orretarako sei bat osteraz egin on doren, Deustu'n ezarri eben Filosoiffa ta letrak gaia eta ona aldatu'n eban matrikuJea.

Emen ainbat gai egozan barriak, esaterako iru urtetan "Cultura Hispano America-na" Aita Santamaria'gaz, eta Metodologia del Trabajo Cientifico... Baiña Obiedo'n



Izkuntza eskolan: Lenengotan ez ninduten onartu Azorinen itzulpena Atxe barik egin nebalako. Gero zuzendu gendun arazoa.

Deustuko matrikula.

onartu eta Madrid'en ontzat artu ez ebezan gaiak emen barriro balioko izan jatazan. Guztiz ogei bat gai geratzen jatazan, geienak lan luze bat eginda onartzekoak.

Ikasgairik gogorrenak oneik ziran: Gaztelera ta onen kondaira ta Estilistica Grijera andereagaz. Gaztelararena onartuta neukan, baiña klaseetara joan nintzan obeto ikasi nai nebalako; Aita Elizalde'gaz eta Aita Sola'gaz Gaztelararen elertia. Gai oneitan asko ikasi eta urte baten gai guztiak onartzea lortu neban. Frantzerara, esaterako Corcega'ko judatarra zan Fabiani'gaz ikasi neban. urte bi batean, eta asko ikasita.

Ikasturtea amaitzera joiala, tesina edo Maixu-lan Txikia gertatu bear zan. Nik irakasleari lan au euskeraz egin nai nebala esan neutsan eta bietara egiteko esan eustan. Liburu baten egin neban lenengo euskera ta gero erdera, baiña kontuz ibilteko esan eustan eta ez ipinteko lenengo euskerea ta gero gasteiereara, obeto liburu bitan enkuadernatu. Orrelan egin neban BERDES liburutegian.

Esan bearrekoa da beste au be: Nire lana aztertu eta apur bat lagundu eustan Iri-goien'dar Alfontso'k. Au eta Altuna'tar Patxi izan genduzan euskera-irakasle. Patxi baten baiña ez zan etorri.

Maixu-Lan Txikiaren gaia Euskal Abostegia Mungialdean, Benneo'n eta Ondarroa'n izan zan. Etxerik etxe ibilli euskerea artzen eta oso gauza jakingarriak aurkitu nebazan.

Gero aurkezpena egin bear zan, aurrean iru Ikastetxe Nagusitatik etorritako irakasleak zirala. Bat ZaragozaTco Buesa. Onek esan eustan ondo eritxola euskeraz be idazteari, baiña eurak ez ekiela euskerarik eta erderazkoari jarraituko eutsoela neure baimenaz. Ontzat emon eben lana kritika sakona egin ondoren eta azkenean irakasle batek esan eban:

-Entzun dot euskera batua egiteko ustean zabiltzela. Ez egizue olakorik egin, batua egin ezkerok izkuntzak dauzan balio ta edertasun guztiak edo geienak galtzen dira.

Urrengo ikasturtean, Zeanuri'tik Deustu'ra egunero etorrita Dotoretzarako ikasketak egin eta onartua izan nintzan, baiña gero Tesis edo Maixu-Lan Nagusia ez neban egin tamalez eta Gotzaiñaren aolkuari jarraituz.

Eleiz-arloan egindako ikasketak be barriztatu egin bear nebazan. Batikano'ko II Batzar Nagusia egin baiña lenago be asko aidatzen joiazan gauzak eta eguneratu bearra egoan.

Lenengo ikastaroa Seminarioan nengoala Burgos'en egin neban, Iruña'ko bi, Lako ta Goikoetxea, iagun nebazala. Misiñoai buruz izan zan eta Paventi Monseñora argi agertu zan Eleizbainitien Misiñoien aurka. Maiñarikua'tar Andres be antxe egon zan geugaz.

Gero Bilbao'n izan gendun beste ikastaldi on bat, eta argitasun aundia emon eus-

Len Armendariz aitaren irakatsiak. Or inguruan entzun neutsan lenengoz Pagola'tar Jose Antonio'ri Kristo-Iztia eta barru-aldaketa aundia sortu eban nire fede-arloan,

Zeanuri'ko Urteak amaitu ziranean, Gasteiz'era joan nintzan, eguneratze urtea egiteko, baiña ezin joan izan nintzan otsaillera arte. Otsaillan joan nintzanean Barandiaran eta Lekuona'ri omenaldia eta eurak Doctores Honoris Causa izendatzea izan zan. Gero ikasturtea jarraitu neban azkenera arte. Ona izan zan. batez be Pagola'ren ekiñaldia eta beste asko. Ez ain ona Pull izena eukan "Verbo Divino"ko batek emon euskun seksualitatea. "Dinamica de Grupos" emon euskun Felix Placer'ek, era barri baten eta egokiro. Lagunen artean be oso giro ona sortu zan.

Beste ikastaro batzuk oneik: Compostela'ra Erezkano'tar Jose Luis'egaz joan nintzan eta Galizia'ko abade katekistak eta Bilbao'ko Marta Jimenez Larrea'k ikastaro ederra emon euskuen,

Santander'eko Corban'en dan Seminarioan Rafa BeJda'k Marskeria azaldu euskun ederto. Bera argia zan izan be, Oraintsu il jaku (G. B.). Alanis Seo de Urgel'eko gotzaiña tzan zan geugaz.

Beste bat, Zoriontasunai buruz. Almeria'ko Aguadulze'n izan zan. Ikasturte ona. Lagun batzuk an eskatu eusten Euskalerraren arazoa zer zan eurai ageitzeko eta orretarako Roquetas del Mar'era joango giñala. Nik autideterminazioaren arazoa azaldu neutsenean, zurtz eginda geratu ziran. Ez eben uste olakorik entzungo ebe-nik, baiña abade zentzundunak ziran.

Iru urtetan izan naz ikastaroak egiten Jaka'ko seminarioan. Irurak ondo, baiña geien poztu ninduana Alonso Sche'kel'egaz izan neban artu-emonia izan zan. Josulagun ona au. lenengo elerti irakasle lez ezagutu neban eta gero biblia-zale lez. Job'en liburua azaldu euskun ederto.

Azkenengoan andik Logroño'ko Abade-etxera joan nintzan, an egoalako Jose Mari Arregi nire adiskidea bion laguna zan Antonio San Pedro'gaz. An egon nintzan Laga adiskideagaz eta Felix Obieta lagun zarragaz,

Eta Angoslo'n egin genduzan euskerazko gogo-jardunak aitatu ezkeru. ez dot uste ezer geratzen jatanik.

**Siempre me he sentido atraído por los libros, tanto los de conoeimientos eiviles como de los eclesiastieos y el aprendizaje basieo del seminario me ha sido muy util en arnbos campos, sobre todo la estructura mental y los conoeimientos clasicos.**

**Por otra parte, tledicado siempre a la enseñanza, tenia muy frescos los conoeimientos mas fundamentales y me decidi a emprender una carrera civil, concretamente Filosoña y Letras, que luego se concreto de Folologia Romanica, Seccion del Español. Pedf en Vitoria mis uotas para convalidar cursos. Me las dio todas, menos el curso 1º, mi amigo Jose Mª Mendi. Me examine, entre jovencitos, de bachiiler elemental y superior en Bilbao y empece a preparar**

PREU, pero casualmente salio una nueva ley de convalidaciones y pude matricularme sin este curso.

Por medio de la Agencia COR traslade el empadronamiento a Oyjedo y me matricule alh'. Asisti alli por libre durante tres cursos y aprobo casi todo. Me fue imposible aprobar Folosofia, con el Profesor Gustavo Bueno a quien vemos con frecuencia en television, y Geografia. Gustavo me exigia !a logica matematica que nunca pude entender y en Geografia decian que era problema de anti-dericalismo del profesor. Era facil identificarnos porque vestiamos sotana.

Traslade la matrkula a Madrid y en ambas asignaturas saque notable a la primera. Pero en Madrid el plau era bastante distinto. Con todo aprobo las asignaturas que pude en otros dos años.

Pasados estos cinco años, se presento la oportunidad de terminar en Deusto. Me matricule en esta Universidad en la que me fueron de mucha utilidad las clases de la Dra. Grijera (Estilistica, Lengua e Historia del Español) y las de literatura Española de los Padres Elizalde y Sola,

Tenninada la carrera, presente la tesina sobre la fonetica y fonologia del euskera, Creo que fue la primera que se presentd en euskera. Hice la defensa de la tesina ante cuatro profesores de distintas Universidades y asi conseguí el tftulo.

Al año siguiente, ya en Zeanuri, hice el curso de doctorado, pero no llegue a presentar la tesis, siguiendo consejo del Sr. Obispo.

Solo me falta recordar algunos cursillos: Misiones en Burgos, Bien aventuranzas en Aguadulce (Granada), Catequesis en Compostela donde saludamos al Cardenal Sukia, Curso de actualizacion en Vitoria y tres cursos de verano en Jaka, en el ultimo de los cuales trate niucho y gratificadamente con el recien fallecido P. Alonso Schbkel.. que nos expuso admirablemente el Libro de Job.

UNIVERSIDAD DE MADRID  
FACULTAD DE FILONOMIA Y LETRAS

LICUACION DE MATRICULA  
ORDINARIA

Nº 1253  
CURSO 1966-1967

Alumno: Apellido 1º *Alvarez*  
Apellido 2º *Alvarez*  
Nombre *Alvarez*

Escrituras  No escrit   
Sección de *...*

ha satisfecho en el Negociato de esta Facultad la cantidad expresada en el Total General, importe de su matrícula en el presente curso.

| TAMAS PUNOS        | CURSO COMPLETO        | PREVEN CUANTO    | ASIGNATURAS SUETAS                                                              | TOTALES              |
|--------------------|-----------------------|------------------|---------------------------------------------------------------------------------|----------------------|
| Seguro escolar 121 | Matrícula 3.000       | Asignatura 3.000 | Seguro 4.700                                                                    |                      |
| Libro de Est. 40   | Libro de Est. 35      | Libro de Est. 40 | Seguro 4.400                                                                    |                      |
| Tasa libro 50      | Est. P. Ad. R. Ho 100 |                  | Colección X 80                                                                  |                      |
| Formación 30       |                       |                  | La Escala X 24                                                                  |                      |
| Colocación 70      |                       |                  | Compendio X 20                                                                  |                      |
| Comer 5            |                       |                  |                                                                                 |                      |
| <b>TOTAL</b>       | <b>3.175</b>          | <b>3.050</b>     | <b>DEDUCCIONES</b>                                                              | <b>TOTAL GENERAL</b> |
| 444                | 12.519                | 2.404            | Seguro escolar 121<br>Curso de Est. 40<br>X 10 = 400<br>X 10 = 100<br>Total 561 | 9.445                |

Nº 000638

Madrid 3 de *...* de 1967

Hoja 1





**AGENCIA "COR"**

GESTORIA ADMINISTRATIVA  
M. COBARRUELA

Hartado de Arévalo, 4 - Telef. 75-21-67 (1 línea)

BILBAO, 13 de Noviembre de 1.963

SR. D. MARTIN GLAZAR  
Parroquia de San Salvador  
PRUNIZ (VIZCAYA)

Muy Sr. nuestro :

Con esta fecha nos escribe nuestro corresponsal de Oviedo y nos comunica que para cursar el tercero de Filosofía y Letras que corresponde al primero de Lenguas Románicas, no precisa solicitar la Dispensa de Escolaridad, pero si tiene algunas atrasadas entonces sí, debiendo indicarnos las asignaturas que son para incluir en el Impreso de solicitud.

Como sabe el plazo vence el próximo día 10 de los corrientes, por lo que esperamos sus noticias antes de esa fecha.

Sin otro particular, atentamente le saludamos y quedamos de Ud. ss. ss.

M. C. O. E.  
GESTORIA "COR"

**UNIVERSIDAD DE OVIEDO**

SECRETARIA GENERAL

Facultad de FACULTAD DE FILOSOFIA Y LETRAS

ENSEÑANZA 1.º OFICIAL Curso de 1962 a 1963

Asignatura de Historia de la Literatura

D. Martín Glazar Uribe

matriculado en esta Universidad en la asignatura y clase de enseñanza arriba expresadas, puede con este documento presentarse al correspondiente examen de la mencionada asignatura.

Oviedo, 2 de Mayo de 1963  
El Secretario General,

M.º  
7.000.000  
(1)

*J. P. Díaz*

En los exámenes de JUNIO ha obtenido la calificación de

aprobado

Oviedo, de \_\_\_\_\_ de 1963

En los exámenes de SEPTIEMBRE ha obtenido la calificación de



aprobado

Oviedo, de \_\_\_\_\_ de 1963

(1) Este papelito será válido si se va debidamente retrogrado o sustituyendo el papel con la fecha de la misma



## XXV ATALA: ETXE-BIZITZA



Etxe-bizitza zelan eratu arazo bat izaten da abadeentzat. Betiko ezkonse izateko berbea emonda dagoan Jez, ez dau sendi bat osotzen, baiña, jakiña. etxe baten bizi bear izaten dau. Zelan egin ori"? Batzutan. eta au da eleiza-aldetik ondoen ikusten dan bidea. abadeentzat bizilekua eratzen da eta inguruko abade guztiak aJkartuta bizi, bear izan guzliai batera erantzuna emoten jakela. Beste batzutan abadea osotuta dagoan sendi batera sartzen da eta bertan etxeko bat lez bizi, beste batzutan etxe baten bizi izaten asten da eta orretarako, geienetan, etxean laguntzailJe bat bear izal-en dau sukaldari ta garbitzaille-lana egiteko. Oneik dira arazoari erantzuna emoteko era batzuk.

Nik onetan, oraintxe ikusiko dogun lez, beti izan dot zori ona.

Lenengo. abade egin-barritan, Ubidea n: Ara eldu nintzanean. txanburu zan Feliziano abadeak esan eustan eleizatik ur-urrean Jakoba eritxon andrazko bal bizi zala bakarrik eta antxe izango litzakela nitzat ostatn egokia. Egin neban berba Jakoba'gaz eta gertu aurkitu neban abadea etxean artzeko, ordaiña zenbat izango zan erabagi gendun eta etxe aretara joan nintzan bizi izaten. Ubide'ko iru urteak zoriontsu igaro nebazan Jakoba'nean. Udan Eibar'en bizi zan nebea etorten zan bere emaztea. emaztearen ama eta bere iru seme-alaba (Arrate, Aitor eta Josutxo) beragaz ebazala. Sendi on ona ziran eta pozik bizi giñan. Sendi onegaz batera etorten zan Anton Sanpedro abade ezaguna, emaztearen nebea zana. Udan ibillaldiak egiten genduzan eta euskaldun lez naiz fededun lez bizi-modu baketsua zan gurea.

Urte-aJdian gabetan Txanburuaren etxera joaten giñan egunero berba egiteko eta joko-aldi batzuk egiteko be bai.

Ubide'tik Fruniz'era aldatu nintzanean, ara eldu eta laster otseintzatik etorri-barria eta adiñez aurreratua zan Legarreta-etxebarria'tar Petra izango zaJa egokia esan eusten, sukaldari ona eta garbitzaiJe ona zaJa ziurtatu eusten eta beragaz berba egin, ordaintzejcoa erabagi eta etorri zan etxeko lanak egitera. Berba gitxikoa zan etxean, ela asarrerako ez ain gatxa, baiña amabi urte inguru egin ebazan nigaz Fruniz'en lenengo eta Mungia'n gero, eta emon daustan laguntza onagaitik eskerrik onenak emotea dagoJtit.

Fruniz'en bizi izan nintzan urteetan, loba bat etorri zan nigaz bizi izatera, Iñaki, zortzi urte inguruko mutikoa, ona benetan. Onek nigaz Fruniz'en eta Mungia'n

amabi urte baiño geiago egin ebazan. orbitartean urte batzuk Seininarioan be egin ebazala. Fruniz/en egoan denporan monagillo izan zan eta iñoz gogor-aldiren bat egingo neutsan baiña ondo alkar ulertzen gendim. Gauza batzuk irakasten alegintzen nintzan. esaterako maian ondo ezitako baten antzera jokutzen, eta onetan ez eustan larregi laguntzen etxeko serbitzailleak baiña elburua lortzen gendun. Gero Seminarioan egoala Erroma'ra joateko aukera bat izan eban eta orretarako diru-laguntza emon neutsan. Andik Romulo ta Remo janaritu ebazan otso-emearen irudia ekarri eustan eta oraindiño gomutaki lez zaintzen dot etxean.

Lenengo bost urtetan aurreko abadea bizi izan zan etxean eta gero sei urtetan abade-etxe barrian, et:xe-bizitza baketsua ta ondo eratua izan gendim. Ama etorten jatan sarritan ikustaldia egiten.

Urrengo Mungia'ra joan nintzan eta SerbilzaiHea, Petra, eta Iñaki lobeia neugaz urreratu ziran erri barrira. Etxe barri bat artu gendun eta geure erara gauzak ipiñi. Iñaki'k semnarioa itzi eban eta Deustu'ko Ikastetxe Nagusian "Filosofia y Letras" ikasten asi zan eta ia amaitu be bai. Azkenerantza San Pedro Ikastetxean irakasten eban eta an artzen eban sariagaz nasai bizi zan. Inlaterra'ra ostera bat be egin eban. Mungia'n askotariko lagunakaz alkartzen zan eta naikoa nasai ta zoriontsu bizi izan zan.

Mungia'ra eldu eta urteagarrean-edo Petra'k zar egin zala-ta itzi egin ginduzan eta urtebete edo geiagoan egoera barri baten aurkitu gintzazan. Sollube jatetxera joaten giñan jateko eta an Larragan'dar Eusebio'gaz eta maikideakaz artu-emon oso ona euki gendun. Iñaki lagun aundia egin zan Luis Mari (Pontso) Eusebio'ren semeagaz. Au gazte zalajoan jakun zori txanez. Etaetxeko garbikuzia egiteko ama etorten jakun astero Landako Etxebarri Monlañe'lik

Aldi aretan Orozko'n izan ziran gorabera larri batzuk eta ango abade bi. Barandika'tar Josu eta Laibarra'tar Luis M<sup>a</sup> andik atera egin ebazan Gurgide Gotzaiñak eta abade bi oneik Mungia'ra etorri ziran bizi izaten. Ez ziran luzaro Mungia'n egon, polizia atzean ebillalako Paris'era joan bear izan eben-eta. Baiña eurakaz batera etorri jakun euren etxeko serbitzaille zan Atxa'tar Basili. Beronegaz illeroko saria ezarri gendun eta barrero etxean pozik bizi izaten asi giñan.

Mungia'ko bost urteak amaitu ziranean emen inguruan geratu zan Iñaki lobeia eta Basili ta ni Parroki barrira aldatu giñan.

1970n. urtea zan izandako arazoak bideratu eta Zeanuri'rako bidea artu genduan. Emen abade-etxea egoan eta bertan asi giñan bizi izaten. Nik neure altzariak, etxekoak emonda, eta Barandika'ren liburuak neroiazan. Libum oneik Paris'tik etorri zan baten eroan ebazan Josu'k

Zeanuri'n bost urte bete genduzanean. Ama etorri jakun geugaz bizi izatera. Ori guraria anfxiñatik agertzen eustan amak. baiña ez eukan gogorik Landako-etxeba-  
rri-Montañe izteko. Azkenean artu eban erabagia eta ertorri zati. Ona emen amagaz-  
ko alkar-izketa:

-ZU MARTLN (berak Mati esaten eustan, umetako Martintxu, Matitxu biurtu  
zan. gero Mati): ni etorri ba-nator, baiña ez etxeko lanak egiteko. Nik ez dakit aba-  
dearen etxeko lanak egiten.

-Ez, ama, orretarako Basili dago,

-Nik solotxu bat gura neuke eta tokitxu bat untxiak ipinteko,

-Bai. atna, ori ba-daukazu,

-Eta zer egin bear dol geiago?

-Iru gauza egin bear dozuz. ama, zagozen adiñean zagozelako: Jan gitxi, ibilli  
asko eta ixillik egon.

-Beste biak egingo dodaz. baiña ori isillik egotea izango da gatxena.

Lau urte pozik egin ebazan amak: Eleiz-inguruan larrosa ederrak sartu ebazan.  
sololxu baten ainbat gauza artu eta ekarten eban, noizean bein untxia edo kuia ekar-  
ten eban jateko, eta etxeko bizi-modua baketsua ta zorionsua zan. Baiña larogei ta  
lau urte bete ebazanean ama gaisotu egin zan eta amaluu illebetean lan aundia emon  
euskun egueuz Basili'ri, baiña egunik geiena lo egiten eban, eta gauez naiz jaiegu-  
netan niri. Gau osoa igaroten gendun Lorik egin barik: orain jagi, gero ibilli, gero  
komunera, gero etxundu. gero ogera... orrelan gau osoak amalau illebelean eta gero  
egunez Lan.-i'kastegian irakasten ekin bear. Urte txarra, benetan txarra izan zan.

Baiña Zeanuri'n be amar urteak bete ziran eta ama il zanean aske nengoan tokiz  
aldatzeko eta orrelan esan neban Gotzaindegian.

Etxe-bizitzan Zeanuri n ezer barririk aitzekotan auxe esan bear dot: Frantzitar  
bat etorri jatan ez enkala non lo egiñik eta oso kezkatuta. Nik ba-neukari gela bat  
utsik eta antxe egin eban lo. Goizean urteteko gertatzea luze egiten jakon eta aidu-  
ratuta ncngoan, baiña gero ikusi nebanetik eta berak esan eustanetik konturatu nin-  
tzan frantziarrak bizarra kentzeko izan ebazala arazoak: Bizar jaboia artu-bearrean  
denlil'rikua artu eban. Gizajoa!

Eta beste au gogoratu: beragoko pisuan bizi izan zan Madariaga'tar Jose MigeJ  
aitagaz eta amagaz. eta artu-emon oso ona geunkan. Azkenerantza aurreko atean  
bizi izan zan Orbe'tar Martin arrebeagaz eta artuemon pozgarria izan gendun. Ama  
il zanean antxe eezan Marlin adiskidea eta Martina anehea'.

Urrengo erria Bermeo. Ara etoni zan Basili neugaz eta gorabera aundi barik  
igaro genduzan etxe-bizitzan bost utle baiño geiago, Eta andik urteteko ordua eldu  
zanean. Basili'ri esan neutsan urteak amTerajoan dirala eta berak aukeratzeko nigaz  
barriro Mungia'ra joan ala Bermeo'ko zarren egoitzera sartu. Bigarren au aukeratu

eban eta nik urten baiño lenago sartu zan egoitz orretara eta bera ikustera joan nintzan bakoitzean zoriotsu eta eroapentsu aurkitu neban. Sei bat illebeta dira antxe il zala. (G. B.). Nire esker ona Basili zerbitzaille onarentzat.

Ille batzuk igaro nebazan bakarrik etxean, Mungia'ra urten aurretik. neuk etxe-ko lan guztiak egin-bearrean. Ez da bizi-modu egokia,

Azkenengo ekiñaldia, Mungia'koa da. Esan dodan lez emen bete zan nire antxiñako ameisa, abadeak alkarragaz bizi izateko amets ederra: Etxea egin aitean bakarrik Bizi izan nintzan Aureliano Galartza kaleak. Miren Baraiazarrak alokatu eustan etxean eta Miren'egaz naiz etxeokaz artu-emon onetan. Urte bigarreanean-edo sailtu giñan geuk egindako etxe barrija bizi izaten sei abade. iru taldekoak beste bi laldeko zar-saridunak eta gengaz batera bizi zan Linazaiar Antonio Lurruldeko Gotzain-Ordezkana. Garbitzaille ta sukaldari lez Agirre ta Beldarrain'dar Pili artu gendnn. langilleari dagokiozan eskubide guztiakaz eta egun osoko lanagaz. Orrelan bizi izan gara zortzi bat uriean bakean eta zoriotsu.

Igazko udaldian gauzak aldrebestu jakuz eta era barri batera eratu bear izan dogu etxe-bizitza: Orain iru zar-saridun eta fkobaltzeta'tar Lxabi bizi gara batera eta asteen bost egunean etorten jaku Mari Puri langillea, zapatuak eta domekak aske dauzala, eta onek egiten dau sukaldari-lana ta garbikuzia, guk erosketak, maia serbitzea eta arriko lana. Ondo eta zoriontsti gagoz.

Ikusten dan lez. biztza osoa eleiz-eta erri-giroan naikoa gataskatsua izan arren, beti izan dogu bakea etxe-bizitzan eta ori laguntza aundia da, uts-tine txiki batzuzkaz. iaungoikoari eskerrak!

**Uno de los problemas agudos en la vida de un sacerdote suele ser la forma de organizar la vida familiar, teniendo en cuenta el celibato que nos impide formar familia normal. Las soluciones han sido y suelen ser diversas: Vivir con una hermana, vivir con una empleada domestica, vivir en comunidad o en residencia sacerdotal... Esta ultima forma ha sido el sueño de toda mi vida, pero no se ha cumplido hasta los últimos años.**

**En Ubidea vivi feliz en casa de Jacoba Ibargutxi uniendose a esta vida familiar durante el verano otros familiares de Eibar. Venia un hermano de ella, con su esposa, su suegra y sus tres hijos (Arrate, Aitor y Josu), Algunas veces venfa tambien la familia de su cuñado Garayoa de Bilbao. Estuve muy bien atendido.**

**En Fruniz tuve de servidora domestica a Petra Legarretaetxebarria y durante algunos años mi sobrino Iñaki. Primero en la misma casa en que vivio el parroco anterior, de Catalina Martinez y Boni su hermano, y luego en la nueva Casa Cural que construimos,**



En Mungia estuvo la misma servidora durante un par de años, luego un año en que íbamos a comer (mi sobrino y yo) al restaurante Sollube y venía nuestra madre cada semana. Luego vinieron dos amigos sacerdotes de Orozko (Barandika y Laibarra) a vivir con nosotros y vino antes que ellos la servidora suya allí, Basilia Atxa Abans.

Esta misma Basilia me acompañó durante los diez años en Zeanurj. Durante los cinco últimos años vivió la madre con nosotros. Esta trabajaba en una huertita y tenía algunos conejitos con los que nos obsequiaba.

Basilia vino a Bermeo conmigo y siguió prestando este servicio cinco años más, hasta que se retiró para ingresar en la Residencia de ancianos de Bermeo.

Nuevamente en Mungia pasamos mal un par de años en casa de Miren Baraiazarra, dueña de la casa con la que tuve muy buena relación y pasamos a vivir en la Casa Nueva que construimos para hacer vida de comunidad. Aquí contratamos los servicios de M<sup>a</sup> Pilar Aguirre Beladarrain que fue muy buena con nosotros, pero en el verano de 1998 se torcieron un poco las cosas y tuvimos que reestructurar la vida familiar, atendidos por Ari Puri y realizando nosotros algunas labores: Aquí vivimos ahora Jose M<sup>a</sup> Arregi, Pau Solozabal, Txabi Kobaltzeta y yo, juntos, bien avenidos y felices.



**XXVI: IDAZLE: GAZTETATIK, SEMINARIOAN, ALDIZKARIETAN, IRRATIETAN, LIBURUAK, ITZULPENAK, AURKEZPENAK, BATZAR-AGIRIAK.**



Idazteko zaletasuna, geiago edo gitxiago. beti izan da nigan. Orretarako a.sko lagundu dauste Seminarjo'ko irakasleak. batez be Elgarresta'tar .Tose'k, Urrutia'tar Jose Maria'k eta Aurtenetxe'tar Franzisko'k. Eta lenengo denporetan. ume-denporan, nire mauti bakarra izan zan Arenaza la Pagaldai'tar IgnazioTc.

Gogoan daukadanez, argitaratu neban lenengo idazlana. Idazti Deuna'ko irakasle gendun Cantera eta Orive'tar Julian'ek eskatuta, "Pensamiento Alaves" eritxon izpar-ingian izan zan. "Un Estudiante" izenpetzen neban eta idazpururua DIOS HA HABLADO edo olako zerbait. Seminarioan zan POSSUMUS aldizkarian idaz-lan bat baiño geiago argitaratu neban. YUNQUE aldizkarian be bai batzuk, bat beintzak 1952 inguman Ubidea'n nengoala eta emen egiten ziran lanai buruz. Gtire ikaskidcak PANCAJRTA eriuon aldizkari bat ateraten asi ziran eta emen be argitaratu neban idaz-Jau bat. SURGE aJdizkarirako, Goikoetxea'tar Joakin abadeak eskatuta, gure Ibargutxi'tar Jon Kurutz'ek argitaratu eban GEROKO BIZITZA. liburuari azterketa bat argitaratu neban.

Ainbat sariketetara be aurkeztu uintzan, Oneik dira gogoan daukadazanak: Reus'en Andra Maria Salbatzaille-kidc idazpuruz, Lerida'ko "Academia Bibliografica Mariana" eritxon taldeak antolatutako sariketa batera aurkeztu mn-tzan. Idazpurua au izan zan: "Mariaren Biotz Garbiaganako zaletasuna eta onek apaltasunaren aurrerapidean dauan ikutua". Sari-emoille Lerida'ko Gotzain zan Aurelio de.l Pino Gomez izan zan eta lenengo saria atera neban. Monzon'era bialdu neban sariketarako Monzon'go Amari bederatziurren bal. Badajoz'en izan zan sariketa bat Akino'ko Tomas'en bizitzeari buruz eta OOREZKO AIPAMENA lortu neban. 1° saria Latiegi'tar Bixente adiskidearentzal izan zan. Gazteiz'ko Aldundiak eratu eban sariketa batera aurkeztu nintzan, gaia Lugin irakasketa Araba'n izan zan eta OOREZKO ArPAMENA LORTU NEBAN. Azkenez, erderazko lanen artean, gogoratu daidan Hucha de oro'ra bialdu neban ipuin bat. Beste sari bat, 2. 000 pesetakoa, lortu neban, ez dakit non. eta diru onegaz Akino'ko Tomas Deunaren "Summa Teologica" erosi neban. Orduan ez geunkan ezertarako dirurik.

Lan guzti oneik erderaz idatziak dira eta guztiz, mk uste. 200 orialde inguru izan daitekez.

Euskeraz idazten asi nintzanetik, lantk geienak gure izkuntzan idalziak dira, elebitasunaz argitaratzen dan Alkartasuna-Concordia eta irrati-bidezkoak izan ezik.

Goiz-Argi'n eta gipuzkoeraz ainbat idazlan-argitaratu nebazan, Gamiz izenagaz uste dot.

"Agur" a) dizkanan Beiztegi'tar Jon zuzendari zala idaz-lan asko argitaratu neban ela iu bat urte areitan agertu ziran atariko idazkiak neureak ziran. naizta izenbarik agertu, 300 orrialde inguru. eta gaiñera beste idaz-lan asko ta luzeak.

"ZER" aldizkarian zuzendari naiz asieratik. ogei bat urte inguruan eta atarikoak diran eta 1° orrialdean datozcn izen bako idazlanak neureak dira, Izan leitekez 250 orrialde inguru. Eta aldizkariaren barruan, izen eta guzti. beste asko.

"Kardaberaz" izenagaz ateraten gendun a)ldizkarian sarrrtan agertzen dira nire artikuluak izenpetuta. Izena ez danean Gamiz. edo Landabarri izango da.

Mungia'ko parrokian ben'ogei urtean atera dan aldizkariak nire idaz-lan asko dakaz erderaz naiz euskeraz, beti izen barik. Begira: Asieran "Matxin diee" saillekoak guztiak, "Cinco chistes" idazpurua daroen baixegaiak guztiak, eta beste idaz-lan batzuk, baiña Mungian izan garan azkenengo aldi onetan (1986-1998) neureak dira beti euskeraz eta erderaz datozen atariko lanak eta azkenengo urteetan aldizkari osoa, Solozabal'dar Paulin'ek izenpetzen dauana izan ezin. Or izan leitekez 350 orrialde inguru.

"Bermeo" aldizkari edo urteroko liburuan ainbat idaz-lan daloz nik rzenpetuta.

Arratian izain nintzan aldiian "Aran" izena eroian aldizkari bat argitaratzen gendun eta or be aurkitu leiz nire idazlanak.

Orain "Euskerazaintza" aldizkaria argitaratzen dogu eta noizean bein agertzen dira nire idazlanak ela aspaldian, batez be Manu Oñatibia joan zan ezkerero. esatera la esaldi jatorrak dira nireak. Sasaki Naski akiizkarian be ainbat lan.



**Saski-naski**  
69 | Urtarrilla Epaila 1996 | 250 poztu



**EUSKERAZAINTZA**

EUSKERAREN  
ERRI AKADEMIA

XLII Zenbakia.

1997

Urtilla-Gabonilla

Irratietarako be idatzi dot, gero an esatariak irakurteko batzutan, beste batzutan neuk irakurteko: Mungia'tik, Fruniz'en nengoala, aslero bialtzen neban erriko arazoai buvuz idaz-lan bat esatariak irakun'i egian, evderaz eta Radio Bilbao'n. Eiri-irratian ekiñaldi bai baiño geiago izan dot. Olazabalaga'tar Julian'ek eskatuta edo zabalkunderako. ETB'n be Bermeo'n nengoala agertu nintzan Kurtzio eJeizatxuko ederti-barriak emoten. Azkenean Mungia Irratian be egin dot berba.

Urtero agertu da, 1982n'ean asita eguneroko orritxua dauan egutegia egillekide la bateratzaille nazela.

Liburuak argitaratzeko beti izan naz lotsorra ta bildurtia. Orain idazten nagoan au asertuko ete da iñoz? Dana dala. iñok bultzatuta arlo onetan be zerbait idatzi dot. Gaiñera liburuia idazteko eroapen aundia ta asti-aldi luzeak bear dira eta biak falta izan dodaz orain arte. Eroapena. asitako lanak arin amaitzen nazelako zalea eta Uburua orrelan ezin idatzi lei. eta asti-aldiak bear, bjzitza oso lanpetua izan dalako beti nirea.

Dana dala gogoratu dagidazan apun'ak: Deustn'n eta euskeraz idatzi neban maixu-lan txikia. au liburu lez artzen da eta Ikastetxe Nagusian. azterketan izan ziran irakasleen esku eta Madrid'en dagokion tokiren baten zaintzen da. Euskeraz eta erderaz 300 orialde inguru dira.

Batxiller'ean erlejiñoa irakasteko iru urteetako liburuak euskeratu nebazan. Jimenez eta Larrea'tar Marlak eskatuta. Argitalpen laburra egin zan baiña neuk ba-daukot. 500 orrialde inguru.

Iruarrizaga'tar Kreszentzio aitak eskatuta, onen anai izan zan Luis Iruarrizaga ereslariaren bizitza argitaratu zan. Nik egindako itzulpen lez agertzen zan, baiña erderazkoari idazki asko gaiñeratu eutsazan Kreszentzio'k. Au be ez zan asko zabaldu baiña nire liburutegian ba-daukat ale bat. 300 onialde inguru. Elebarri bat daukat idatzita, "Len, orain eta gero"\* idazpuruaz. baiña balio gitxikoa dala uste dot eta ez naz ausartzen irarkolara eroaten. 100 orialde dira.

Azkenengoa, iñoiz argitaratzen ba da, eta baietz uste dot, liburu au izango da. 500 orrialde inguru.

Beste arlo bat itzulpenak dira. Onetan lan audia egin dot: Zeanuri'ko Udal-Etxean batzar-agiriak. ez asko, Bermeo'ko Udal-Batzean ixi bat urtetako agiri guztiak, geienak Batzar-Agiriak, or izan leilekez 4. 000 orrialde inguru. Gotzaindegian urte batzutan, Mungia'n azkenengoz nagoala, izan nintzan iltzultzaille eta orri asko be asko itzuli bear izan nebazan, bear ba'da bi milla inguru bai. Batzuk Gotzaindegiko Aldizkari Nagusian dagoz eta beste asko Batzar-Nagusiko agirien artean.

Liburuen aurkezpenak be egin dodaz, esaterako Zubiri'tar Iñaki'ren ainbat eleberri'rena. Solozabal'dar Paulin'en olerki liburu batzurena eta abar.

Idazle lez beste arlo bat Batzar-Agiriak dira. Nik beti nai izaten dot egiten diran b'atzarretan agirietan agertzea egin dan lana eta artu diran erabagiak edo izan diran eztabaidak. Zeanuri'ko Lau Ikastegian asko idatzi nebazan Irakasleen batzarrekoak eta Batzordearenak, Arratia'ko abadeen batzarretakoak be bai. Bermeo'n egin genduzan abadeen batzarretakoa be bai eta Mungian, Abade-taldearen batzarretan urte bitan gitxienez asteroko batzarrarenak.

Azkenez, nire aurretik Orbe'tar Martin adiskideakegin eban lana jarraitu neban, Eskualdeko Abadeen batzaiTetan agit'iak idatziaz eta, naizta zar-saridun izan, lan au egiten jarraitzeko eskatu daust Bizkarguenaga'tar Jose Manuei Eskualdeko ardura-dunak beste lankideakaz batera, eta orretan jarraitzen dot,

Zenbat orrialde guztiz eta gitxi gorabera? Amar milla orrialdetik gora bai. Geienak galduak izango dira eta beste asko ez dira iñoz argitaratuko edo nireak diranik ez da jakin be egingo, baiña lana eginda dago eta pozgarria da.

**Siempre he sido aficionado a la escritura y he tenido muchas ocasiones de practicar este "deporte".**

**Siendo seminarista aparecen trabajos mfos en castellano en Pensamiento Alaves, una vez, Possumus, Yunque, Pancarta y Surge. Me presente a varios concursos: En Reus sobre la Corredencion de Maria, en Lerida sobre la devocion al Corazon de Maria con premio del Obispo D. Aurelio del Pjno. Otro, que no recuerdo donde en que me dieron dinero y io utilice para comprar la Suma de Santo Tomas, en Monzon una novena a Maria, en Badajoz sobre Santo Tomas de Aquino (mencion honorifica), Diputacion de Alava sobre enseñanza agricola (mencion honorifica) y mas tarde presente un cuento a Hucha de Oro.**

**He colaborado mas o menos en las siguientes revistas: Goiz-argi, Agur, Zer, Kardaberaz, Alkartasuna-Cocordia, Bermeo, Aran, Euskerazaintza-Saski Naski, desde 1982, cada año, Calendario. He colaborado en Radio Bilbao, Bizkai-Irratia, en ETB alguna vez, y en Mungia Irratia varias veces.**

**Soy muy perezoso y excesivamente timido para lanzarme a publicar libros, pero puede contarse como libro mi tesina, tres textos de religion en euskera para los tres cursos de bachiller que es traduccion, la vida del miisico Luis de Iruarizaga, traduccion tambien y tengo una novela que presente al concurso de la Caja de Ahorros Municipal de Bilbao, que no fue premiado porque no era**



adecuado para la publicacion en aquellas fechas. Por ultimo este libro de memorias que no se si llegara a ver la luz. Espero que si.

Hay varias presentaciones de libros, tanto de novelas de Iñaki Zubiri como de poesias de Paulin Solozabal,

He trabajado muchfsmo como traductor, algo en el ayuntamiento de Zeanuri, mucho en Bermeo y mucho tambien en la diocesis de Bilbao durante años y a lo iargo de la Asamblea Diocesana. Por fin he escrito muchas actas de reuniones en Zeanuri (escuela y Sector), en Bermeo, sector pastoral, y en Mungia, reuniones del grupo presbiteral y de sector. Cakulo que son mas de 10. 000 folios escritos. La mayoria nunca se publicaran,



XXVII: IZLARITZA: GARRANTZIA, SEMINARIOAN,  
LENENGO ITZALDIAK, GOGO-JARDUNAK, HUELBA'N  
ETA SEBILLA N, OMENALDIETAN, BATZARRETAN, MAI  
BIRIBILLAK.



*Akesolo 'tar Lino 'ri omenaldia (Dima 'n eta Oba 'n).*



*Anes Arrindaren sarrera-itzaldia Deba 'n. Eskoian Asier Legarreta.*

Izlaritza elerti-barruan beti izan da arlo bereizi bat eta bere arauak eta bideak izan dauz, "retorika" eritxon idaz-tankera baten, baiña aspaldiko urteetan noitasuna galdu dau: Gaur eleizako itzaldietan ez jako begiratzeko erretorikari, politikariak ez dabez apaintzen euren itzaldiak, lege-gizonak ez dabe egiten ospetsua dan itzaldirik. Itzaldiak egin bai egiten dira baiña trebe-bideak kontuan artu barik.

Ikasi gendun seminarioan izlaritzaren trebe-bidea, arako Jose Grau irakasle gendula. baiña larregi sakondu barik. Lenengo itzaldiak be an egin genduzan. batzutan maian aurrean besteak jaten ziarduela, beste batzuk ikas-geletan beste batzutan eleizan, batez be garizuma aldian. Eta gogoan daukat irrati-bidez be iñoz egin nebala mezako itzaldia, garizuman, antz-aldatze-egunean, ain zuzen.

Baiña arduratsua go izan giñan errian abade-barriak giñala, lenengo itzaldiak egiteko. Lenengoa uste dot Gamiz neure errian izan zala, San Antolin egunean, erriko jaietan: Dana idatzita eroan neban eta erretorikan ikasitako arauai jarraitu neutsen: Aurkezpena, edestia, zergaitiak, azkena edo "peroracion": Euskera utsean izan zan eta oraindiño eskuartean daukat ilzaldi ori, edestia edo santuaren bizitza izan ezik. Au iagunen batek eskatu eustan eta emon neutsan. Betiko galdua da. Eta arrezkero igande guztietan egin dot itzaldia bein edo sarritan. Beti laburpen bat eskuan dodala eta dana iñoz idatzi barik.

Obeto gertatuak izaten dira gogo-jardunak edo aste osoan goiz eta arratsalde egiten diran itzaldiak. Olakoak, batez beste, urtean bein egin dodaz eta ainbat urtean lau edo bost aste. Ori izan da Araba'ko Elosu'n, Ubidea'n, MungialdeT<o erri guztietan, Arratia'Ko erri guztietan, txori-erriko erri batzutan. baiña illebeteko gogo jardunak emon nebazan Andaluzia'n. Ara zelan izan zan.

Begoña n gengoan gure Olazabalaga'tar Julian'ek baserrietako apostolu-lanari buruz eraturako batzar luze baten eta antxe urreratu jakunTolosa'ko Egia'tar Luis abadearen anaia, au be abadea, eta esan euskun: Nire anaiak AndaluziaTco parrokietan misiñoiak emoteko laguntzailleak beardauz eta zuetatik zenbat joango litzakezan jakin nai neuke. Nik baietz esan neutson eta berak onartu be bai. Eguna eldu zanean lenengo Madrid'era joan giñan bultzian, ez dakik nortzuk baina bai bat Lasuen'dar Jose adiskidea ?ala. Madrid'ek egazkiña artu gendun Sebilla'ra joateko, Ni ienengoz orduan sartu nintzan olako ibilbide batera eta atsegingarri izan jatan egazkadea. Gauza bat atsegin izan ez jatena: Belarrietan min ikaragarria sortu jatan eta Sebilla'n orduetan ez jatan kendu. Arrezkaro sarritan ibiili naz egazkiñean oiako min barik

SebiJl'ai'a eldu giñanean, x eta bere lankideakaz alkartu giñan eta bakoitxari bere misiñoj-erria edo tokia izendatu eutsen. Niri Huelba'ko Punta Umbria'ra joateko esan eusten. Ango abadea, Lorenzo Velez Limon etorri zan ni ara eroateko eta biok txalupa balen sartu eta joan giñan. Are-gaiñeko erria zan eta urreratu gifianean emakume bat etorri jakun eta esan eustan:

-Aita! Zu bai gizon ederralOlako ule gorrirok! Olako begi urdiñik!

Ni zurtz eginda geratu nintzan eta esan neutson:

-Zer nai dozu, emakume?

-Ukartxu (limosnatxu) bat arren!

Lorentzo abade jaunak lagundu arren, ni abade egin-barria bakartade aundi baten aurkitu nintzan, iñoz ikusi ez neban lako gjro baten.

Urrengo egunean asi ziran itzaldiak, ez trebetasun aundiz. Baiña entzuleak oso gitxi ziran. Abadea arduratu egin zan eta esan eustan:

-Biar Umeakaz kalerik kale eta abestuz egingo dogu deia eta portura joango gara arrantzaieai dei bereizia egiten. Eta orrelan egin gendun. Enitar asko geiago ez zirau etorri, baiña bai berrogei bat arrantzale. Oneik berbaldia adi-adi entzun eben eta uste izan zeitekean urrengo egunean be etorriko zirala. Baiña baniro eleizea utsik!

Irujarren egunean barriro joan giñan eta gure arrantzaleak ikusi ginduezanean guztiak ariñeketan iges egin euskuen.

Baiña gu ekintzailleakgiñan eta Karmen'go Ama'ren irudiagazeleizbira baL gertatu gendun. Orduan bai, orduan asko etorri ziran. Eleizbira amaitu genduanean ko'radiaren maiordomu zanak esan eustan.

-Aita! Ez arritu ni autortzera joan ez nazelako, ni eniko abadeagaz autortzen naz, Gizon bat bakarra autortu zan eta berau giputza zan, Zegama'koa-edo, bertan osagille zana. Beste batzuk be bai. Guardi zibil guztiak etorri ziran euren ieiroetan autortzera ta urrengo egunean jaunartzera.

Punta Umbria Ito misio-ekiñaldj ori zoitzigairen egunean amaitu zan eta egun batzutan Huelba'n egon bear izan neban emengo aste biak amaitu arte, batez be auLortzetarako.

Uirengo amabost egunak Sebilla'n, Triana auzoan. Entzule gitxi an be, baina guie misioilaii-lagunak bazter guztietan egin eben lan eta azkenerantza asi ziran entzuleak be ugariago etorten, autortza asko izan zan eta ezkoutzak be ez gitxi, Misiñoi ona izan zala entzun gendun .

Egunerojoaten giñan euskaldun guztiok Segura Kardinaiaren jauregiraeta berak artzen gindttzan. Alkar-izketa egin eta joan egiten zan, gu maian itzita. Kardinala zarra zan eta illobak erabilten eben besoetatik oratuta, baiña izketan bizi-bizi agertzen zan. Misiñoen azkenean itzaldi ederra ta gogoangania egin eban,

Erri-maillan be askotariko itzaldiak egin bearra izan dot: Gogoratu dagidazan batzuk: Elorrio'n, EGUNA eaunkaria idazten ebenen omenez Ardantza Iendakariaren

aurrean. Bizkaierearen alde diru-laguntza geiago emoteko eskaria be egin neban, geure dixua geure kalterako izan ez daiten, Ondarroa'n Txomin Agirre-ren omenaldian Kresala ta Garoa elebarriak aztertuz. Mungia'n Lauaxeta'ren omenez, Amorebieta'ko Larran aita Santi'ren omenez irudijaso genduanean, itzaldiaz egin, Dima nAkesolo'tar Liño'ren omenez beronen etxean idazkia ipiñi genduanean. Zeanuri'n bein Manterola'tar Gabirel'en omenez eta bere jaiotetxean idazkia ipiñi aurretik, Zeanuri'n bertan Onaindia'tar Alberto (Aita Olaso) Donibane'tik berebillean ekarrita, Udal-Batzak jaietan gertatu eban Aita Bedita Larrakoetxea'ren omenez, Azkoitia'n, Etxaniz'tar Nemesio'ren omenez. Donostia'n Arzeluz'tar Ander edo LUZEAR, Euskerazaintzan lankide dogun Amale'ren aitari\*en omenez...

Itzaldiak baita, zergaitik edo agaitik, Kardaberaz'tarren batzarretan batez be Loiola'n izan zan egunetako batzarreari Bilbao'ko Udal-Batzaren Kultur-Aretoa euskal abostegiari buruz, Euskerazaleak urtero gertatzen dogun Euskal-Astean sanitan.

Mai Biribillak edo Mai-inguruko alkar-izketak be izan dira. Lenengo aldi aretako giro labanean. Zeanurilco Lan ikastegian, gero Biibao'ko Antropoloji-aste bitan. Gogoangarria, baita, Euskerazaintza Erri-Akademira sartzeko egin bear dana Mungia'n egin neban, au be euskal-abostegiari buruz. Olako itzaldiak euskerazain geienok egin doguz eta gogoangarriak izaten dira.

**La oratoria no tiene hoy la ampulosidad y la tecnica de otros tiempos, ni la política, ni la forense, ni la religiosa, pero es una de las formas de fomentar el euskera. No acude mucha gente, pero es sin duda una buena manera de fomentar el uso del euskera. Las primeras practicas en el seminario, las primeras actuaciones en Gamiz y en parroquias. Por lo menos he dedicado, por termlo no un una semana a dar ejercicios todos los años, he hablado en muchos homenajes, reuniones, mesas redondas... Uno de las mas importantes ha sido el discurso de ingreso en la Academia Popular del Euskera EUSKERAZAINTZA.**

**Olazar izan zan atzoko izalria. Euskerazaleak'en Euskal Astean**



Deian.



Euskerazaintza, euskerearen erri-akademian lendarari.





XXVIII: EUSKERA, BATUAREN ARAZOA, EKINTZAK ETA  
ERAKUNDEAK.



*Euskerazaintza Ondarroan.*



*Bilbao'tar Jon Erramon  
lengusuagaz (euskal zale ta  
langille bizia).*



*Paulin Mungian omendua.  
(udal batzak).*



*Oleagatar Jesus  
(euskerazaleak).*



*Zeanuri'n Gabriel Manterola'ri  
omenaldia. Akesolo'tar Lino  
oroitarria agertzen.*



*Lino'ri arri idatzia bere jatetxean.*

Ttaun batzuk ez dauke erantzun egokjrik. Oraintsu Madrid'eko izparTari batek (Peregil jaunak) itaundu eustan: Euskaldunok zergaitik maite dozue Euskalerrria? Ttaun orrek ez dauko erantzunik bumaren gauzea baiño geiago biotzarena dalako. Tñok itaunduko baleiskit: zergaitik maite dozu ama, edo aita? ez neuke jakingo zer erantzun, erantzunik bear be ez dau itaun orrek. Antzera jazoko Jitzakik beste itaun au egingo ba leuste: Zergaitik maite dozu euskerea? Erantzuna beste au litzake: Zergaitjk ez dakit.

Dana dala, maitasun au berez doa euskaldun guztien biotzean, baiña batzuk geiago agertzen dabe beste batzuk baiño. Or ba-dauko zerikusia gizarteak eta giza-barruko izaerak: Batzutan zapaTduta ikusten dalako, beste batzutan ederra ta lagungarria dalako.

Ez etxean eta ez seminarioan ez neban nik ezer entzun euskerea maitatzeko edo goragarria dala agertzeko, bestera geiago, euskereagaz iñora ez goazela eta erdereia ikasi bear dogula, euskereak politikara daroايا eta abadeak ez dauala sartu bear politikara. euskerea indartzen ba da. Kosobo'n jazoten dana jasoko daia emen...

Ezin ukatu, ekinbide guzti orrein aurka, euskereaganako maitasuna bizi-bizi dagoala nire barruan. Bear ba'da umetan asita an barru-barruan, baiña lanerako gogo Jez 1970n. urte inguruan asita.

Atal onetan laburra izan nai neuke, gauza asko lendik esanak diralako.

T970n. urtean ni Zeanuri'ra joan nintzan eta ordurako euskerearen alde ekiñaldi asko ta gogorrak egiñak giñan. Amar bat urte lenago asi ziran ekintzak, baiña 68n. urtean sortu zan Euskera Baturako jokera baragarria. Urte orretan izan zan Arrantzazu'ko batzar lotsagarria. Asieratik jarri nintzan batu orren aurka. erri-euskera zapaltzen ebalako eta atxe gorrotagairia eta alperrekoa, kendu bearrekoa, sartu ebalako. Bide orretan ni berotzeko inguruak Tagundu eustan. Esaterako Adiskide aundia neban Garitaonandia'tar Gotzon, Mañu (Bermeo)'ko abadea ii zanean, beronen illetan, Alkar-izketa labor bat izan neban Arenaza'tar Josu osagilleagaz:

-ZU, MARTIN! Gotzon'ek utsune aundi bat izten dau euskerearen arloan, batez be AGUR aldizkarian. Or dabii Beiztegi'tar Jon gau ta egun lanean, baiña bakar geratu da. Zuk lagunduko zeunskio?

-Bai, Josu, esan neutsan. Eta pozik lagundu be.

Eta or idazteko eta irarkola lana ur-urretik jarraitzeko aukera bat izan neban. Astero joaten nintzan Jon'en etxera zuzenketan egiten eta idaz-lanak eroaten. Ondo be ondo artu ninduen Jon'ek eta onen etxeakoak.

Beste bein Josu'k esan eustan:

ZU, MARTJN: Bilbao'n lan on bat egiten diardu EUSKERAZALEAK aJkarteak eta zuk orra sartu bear zeunke.

Esan eta egin, lau urtetarako sartu gintzazan Zubiri'tar Iñaki lendakari lez, Bilbao'tar Jon Erramon, Juli nire lengusiñaren senarra diru-zain lez, ni lendakari-orde lez eta Ibarra'tar Beraardo gaur Arrate Irratian lanean diarduana idazkari lez. Laguntzaille onak izan doguz erakunde orretan ainbeste lan lendik egin eben Egurrola'tar Iñaki, Landajuela'tar Andoni eta beste era batera baiña ez gitxiago Oleaga'tar Jesus, Montiano eta beste asko.

Giro orretan, eta AGUR Aldizkariak arazo batzuk eukazala jakiñik, beste aldizkari apalago bat, bizkaieraz, argitaratzea erabagi gendun Euskerazaleak Arenaza'tar Josu taldean genduala eta guztion artean erabagi gendun zelako aldizkaria egin. Alantxe bete zan eta ba dira ogei bat urte aldizkari onen zuzendari nazela.

Laguntza aundiak artu dodaz. batez be Euskerazaleak alkartetik eta Bilbao'tar Jon Erramon iengusuagandik.

Geroago lankide on bat sartu jaku taldera. Egilleor'tar Jon. Au EUSKERAZALEAK alkartearen idazkari dogu, Ibarra'tar Beraardo'ren ondoren eta Ian asko ta aundiak egiten dauz gure artean. Geienok urteetan aurrera goazen lez, laguntzaille gazteak aurkitu doguz eta itxaropena daukagu eurengean: Saturtze'ko Mielgo adiskidea, Aldekotxea'tar Mik.el euskal-filologoa. Malaxetxebarría'tar Jon, eta inguruan dabillen Legarreta'tar Asier.

Ez neuke esango zein urtetan baiña or inguruan sortu zan barriro Kardaberaz taldea Tolosa'n. Berez euskal liburuak argitaratzeko zan, baiña beste ian batzuk be egin dauz, batzarrak ugari, ekintzak eta bar. Aspaidion erdi-geldi ikusi dogu, bazkideak be gogo aundi barik... eta beste bide bat artzen diardu edo artu dau oraintxe. Gero azalduko dogu zein.

1978n. urtean Euskaltzaindiak batzar batera dei egin eban Arantzazu'ra. Elburua, euskera batuaren amargarren urtea zala-ta azterketa bat egiteko. Ara joan giñan gure kezkak agertzeko eta arazoa bideratzeko bide batzuk be eskiñi ziran. Bat agertzeko, Uribe-Etxebarria'tar Tomas'ek esan ebana gogoratuko neuke. Baiña an bake bidean oztopo aundiak egozan Euskaltzaindiaren erabagiak aJdatu eziñak agertzen ziralako. Eurak eraturako batzarra zan eta eurak nai ebena egin eben.

Urtenbiderik ikuste ez zalako, Kardaberaz'tarra zan Latiegi'tar Bixente'k agertu eban arazoa argi eta sendo: Euskaltzaindia Euskera Batuaren bidetik ba'doa, guk, euskera batu orren aurka gagozenok Erri Euskerearentzat beste akademi bat sortuko dogu.

Kardaberaz'tarrak Tolosa'n egin eben urrengo batzarrean. Lekuona'tar Manuel bertan zala, Euskaltzaindiari azterketa bat egitea erabagi gendun. Or asmau zan gai orretzaz Latiegi'tar BixenteTc idatzi dauan liburua (lenengo euskeraz eta gero erderaz sakonago) idaztea. Antxe erabagi zan EUSKERAZAINTZA EUSKEREAREN ERRIAKADEAMIA sortzea.

Urte batzuren barruan asmo au bideratu zan eta or gabiltz erri-euskerearen alde lanean. Lenengo lendakaria Akesolo'tar Lino aita izan zan eta au il zanean neu aukeratu ninduen urte birako eta arrezkero urte birik urte bira barrero aukeratzen nabe, 3991-1992'ean asi eta gaur arte. Illero alkartzen gara, lenengo Eibar'en, karmeldarren etxean. gero Deba'n Arrinda'tar Anastasio'renean eta orain Bilbao, EUSKERAZALEAK alkartearenean.

